

# III. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

Goiherriko Euskal Eskola  
Maizpide Euskaltegia

— «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)»  
*Pello Joxe Aranburu*  
*Marian Bidegain*  
*Antton Idiakez*  
*Iñaki Rezola*



NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SALA

DEPARTAMENTO DE  
AGRICULTURA Y PESCA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1993

## GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

- © Sortzaileak: Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
- Elosegi, 16, 1. ezker 20210-LAZKAO  
Tfnoa.: 16 02 82
  - Maizpide Euskaltegia  
Elosegi, 40-bis. 20210-LAZKAO  
Tfnoa.: 88 92 31

Dinamizatzailea: Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)

Zuzendari Teknikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain  
Antropologia Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta  
Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Pello Joxe Aranburu  
Antton Idiakez  
Marian Bidegain  
Iñaki Rezola

Azala: Galarraga Urteaga, Amaia

Fotokonposaketa: DIDOT, S.A.  
Nerbioi kalea, 3-6.º Bilbao

Inprimategia: SANTAMARIA, S.A.  
Bekolarra kalea, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz

I.S.B.N.: 84-457-0205-X  
L.G.: VI-810-92

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.



## AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA</b> .....	11
<b>AURKEZPENA</b> .....	13
<b>JUAN INAZIO IZTUETA ETXEBERRIA</b> .....	15
<b>Laburdurak</b> .....	18
<b>Lanaren aurkezpena</b> .....	21
<b>Iztuetaren garaia eta ingurunea</b> .....	23
1. Demografia .....	24
2. Nekazaritzaren egoera .....	25
3. Metalurgia .....	26
4. Euskaldunak itsasoan, merkataritzan .....	26
5. Maila sozialak .....	28
6. 1.766ko Matxinada .....	29
7. Arloteak .....	30
8. Apezzeria .....	31
9. XIX. mendeko egoera eta gertakari politikoak .....	32
10. Lehen gerra karlista (1.833-1.839) .....	33
11. Euskararen egoera .....	33
12. Baskoiberismoa .....	34
13. Euskara idatzia .....	36
13.1. Gipuzkera literarioa .....	36
13.2. Beste euskalkietako idazleak .....	39
13.3. Ondorengo idazleak .....	41
— L.L. Bonaparte .....	41
— Euskal Erromantizismoa .....	41
<b>Iztuetaren bizi-tza</b> .....	45
<b>Iztuetaren obra</b> .....	63
1. Gipuzkoako dantzen kondaira .....	63
1.1. Lizentzia .....	64
1.2. Eskaintza .....	66

1.3. Hitzaurrea .....	66
1.4. GDKren hiru zatiak .....	67
1.5. GDKren hitz-neurtu eta doinuak .....	75
1.6. GDKren bigarren Eskaintza .....	77
1.7. GDKren Ekarpena .....	77
2. Gipuzkoako probintziaren kondaira .....	80
2.1. Hitzaurrea .....	80
2.2. GPKren aurreneko zatia .....	82
2.3. GPKren bigarren zatia .....	82
2.4. GPKren hirugarren zatia .....	84
— Hirugarren zatiaren lehen partea .....	84
— Hirugarren zatiaren bigarren partea .....	85
3. Iztuetaren poesi-bertsogintza .....	92
4. Karta Mogeli .....	102
5. Erdarazko lanak .....	110
<b>Iztuetaren harremanak .....</b>	<b>113</b>
<b>Iztuetaren euskara eta idazkera .....</b>	<b>117</b>
1. Sarrera .....	117
2. Egungo euskaltzaleen iritziak .....	117
3. Idazle zaharren iritziak .....	120
4. Gure azterketa .....	123
4.1. Ortografia .....	123
4.2. Lexikoa .....	124
4.3. Deklinabidea .....	128
4.4. Aditza .....	128
4.5. Sintaxia .....	130
4.6. Esaldi jatorrak .....	131
4.7. Idazkera .....	131
<b>Iztuetaren obraren ezaugarriak .....</b>	<b>133</b>
1. Idazle laikoa, gai profanoez .....	133
2. Ordurarte ukitu gabeko gaiez .....	134
3. Erromantiko? .....	135
4. Lehen folklorezale .....	135
5. Dantzazale .....	136
6. Bertsolari eta bertsozale .....	137
7. Iztueta eta Gipuzkoa .....	137
8. Iztueta eta Euskalerrria .....	138
9. Euskaltzale .....	139
10. Larramendizale .....	142
11. Apologista eta Baskoiberista .....	142
12. Foruzale .....	144
13. Iztuetaren obran ‘Herria/Hiria’ .....	144
14. Iztuetaren pentsakera eta jokabide politikoa .....	146
15. Iztuetaren harreman handiak .....	147

## HITZAURREA

Pozik eta harro gatozkizue aurten ere, lanak lan, izan ere geure ahaleginak beren ondorioa eman bait dute.

1989an sortu genuen Ikerlan-Sariketa eta geroztik hutsik egin gabe eta atse-denik hartu gabe ari gara lanean: III. Sariketako lanak argitaratu ditugu ale hauetan eta IV.a ere martxan da jadanik!

Garrantzitsua da gu geu, antolatzaile bezala, egindako lanaz pozik egotea, poz horrek berak ematen digu eta jarraitzeko indarra; baina aipatu, estimatu eta eskertzekoak dira kanpotik jaso ditugun kritika, animo eta indarrak ere.

Gure ustez ondo baino hobeto betetzen ditu Ikerlan-Sariketa honek bere helburuak, edo guk berarekin lortu asmo ditugunak behintzat: jadanik badira zazpi lan Goierri buruz jaso eta ezagutu nahi dituen edonoren esku argitaratuta jarri ditugunak.

Oraingo argitalpen honek, aurreko biek gonbaratzen badugu, badu alderik: lehenengo bi saioetan sariketara aurkeztu eta epaimahaiaren ustez argitaragarriak ziren lanak liburuki bakarretan kaleratuak ditugu. Horrela, I. GERRIKO Ikerlan-Sariketako liburuan hiru lan aurki genitzake:

— «Basogintza Goierri XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaizgabetuetatik Gaurko Pinudietara». Mikel Sarriegi Etxezarreta.

— «Urbia-Oltzeko Artzantza». Andoni Aizpuru Murua.

— «Artzantza Artzain Familia Batekin». Ainhoa Galparsoro Sarriegi.

II. GERRIKO Ikerlan-Sariketaren emaitza bezala berriz, bi lan argitaratu genituen liburu bakar batean:

— «Etnografiako Ikerlan bat». Nekane Arratibel Insausti.

— «Meatzaritza Goierri (1850-1950): Aztarnak». Beatriz Herreras Moratinos eta Josune Zaldua Goena.

Esan bezala III. Sariketa honetan, epaimahaikoen aholkuak kontuan hartu eta Argitalpenaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailekoen oneritziari esker, lan bakoitza liburu batean argitaratu dugu.

Sariketara aurkezten diren lanak desberdinak izanik, gai aldetik bezala ikus-pegia eta estiloz ere, zera erabaki genuen: bakoitzak badituela bera bakarrik ale batean argitaratua izateko adinako nortasuna eta kategoria.

Beraz, eta antolaketa lanetan ari garen guztion ahaleginari eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari esker helburu genuena lortu ahal izan dugu.

III. Sariketa honetan epaimahaikoeak hiru lan izan zituzten aztergai:

— «Amona, noiz, amona?». Leire Gurrutxaga eta Birjina Alonso.

— «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)». Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola.

— «Goierriko Biztanleria (1860-1986)». Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea. Epaimahaia honako Jaun/Andreok osatu zuten:

— Anton Erkoreka, Antropologoa eta Eusko Ikaskuntzako Antropologia Saileko Lehendakaria.

— Pilartxo Etxeberria, Filologian Doktorea eta E.H.U.ko Euskara Zientifikoko Irakasle Titularra.

— Xabier Isasi, Psikologian Doktorea eta E.H.U.ko Estatistika Irakaslea. Sari-banaketa, 1992ko ekainaren 12an egin zen Lazkao Udaletxean.

Epaimahaiaren erabakia hauxe izan zen:

1. Lehen saria hutsik uztea.

2. Bigarren saria «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)» ikerlanari ematea.

3. Hirugarren saria «Goierriko Biztanleria (1860-1986)» ikerlanari ematea.

Hiru lan horietatik bi eritzi zituzten argitaragarri eta interesatuek epaimahaikoeekin egindako prestakuntza-lan osagarriari esker, hona hemen emaitza.

Zuzenketa eta osaketa lanak ugariak izan dira eta kontzientziaz egindako lan horien lekuko hemen ditugu, bi liburu berri.

Aipatu eta eskertzekoa da halaber Zuzendari Tekniko bezala Joxemartin Apalategi Begiristainek Sariketaren antolaketatik hasi eta lanak argitaratu bitarte eskaini digun laguntza. Ikerlan orok behar duen eta guk geuk bakarrik aurkituko ez genukeen ikerlanen arloko ikuspegi zorrotza berak eskaintzen digu.

Baina, idatzitakoa irakurtzea bezalakorik ez dago lanean aritu dena poztu eta zoriontzeko.

Beraz, gure aldetik eskerrik asko eta zorionak ikertzaile eta laguntza eman diguzuen guztioi eta hurrengorarte esan nahi dizuegu.

Lazkao, 1992ko azaroa

**ANDONI SARRIEGI ESKISABEL**

Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarteko Lehendakaria

**PELLO JOXE ARANBURU UGARTEMENDIA**

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria



# AURKEZPENA

## IKERLANAREN BALDINTZAK

Jose Inazio GERRIKOren (1740-1824) izenez ezagutzen den Ikerlan-Sariketaren 3. aldian irabazle izandakoen azterlanak argitaratzen dituzten liburuei, aurretik labur-labur gogoeta bat edo beste egin nahi dizkiet.

Lehenik, 1. aldiko irabazleen azterlanen libururako egin nuen «Aurkezpena: Euskal Kulturgintzaren Arduradunoi» (13-17. orr.) dalakoan nioen zerbait gaurkoan ere bergogoratu egin nahi diet irakurleei. Hauxe da hitzez hitz hona aldatuta:

«Denbora guztian, etengabe, kulturak eginez, deseginez eta berreginez doaz; etengabe. Bestalde, Kulturazko osatzaileetatik, lehen mailan bakarrik pertsona azaltzen da hots, bizia, zeinari norjabetasunak eustarazten dion. Hurrena, lehentasunaren arabera, bigarren mailan lurraldetasuna, hizkuntza eta jakituria (hau da berdin, ohiturak gehi kulturazko materiala) daude.»

«Etengabe» nioen! Hori bi modutara lortzen da: bata, egitarauari bizitza oso eta, ahal bada, luze batekin gaina emanez; bestea, honelako egileak belaunaldi berriarekin harreman hestutan egonez.

Euskaraz egiten den ikerkuntza orain-oraintsu hasitakoa dugu. Hasiera eman diogunok bizitza guztian, gutxienez, eutsi behar diogu; eta horrela izan dadila erregutzen dizuet. Gainera, belaunaldi berriarekin ere gogoz lan egiteko. Egiten ari garena burutzeko belaunaldi berriari geroz eta gehiago laguntzearen aldeko jartzen ari naiz. Izan ere, haritz handia bakarrik, bere urteei esker handi egiten den bitartean, pertsonon asmo handiak belaunaldi askoren urteei esker egiten dira handiak. Azken finean, pertsona eta taldea uztartzerakoan soilik bihurtzen dira asmoak egia.

Goiherriko Euskal Eskola eta Maizpide Euskaltegia (eta hurrengotik aurrera, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea ere bai), elkarrekin aurrera eramaten ari diren GERRIKO Ikerlan-Sariketaren egitaraua goi-goi mailako euskal Kultur ekintzatatotzat dugula argi eta garbi aldarrikatzen dut. Baina txalupa honek aurrera etengabe egitekotan ikerlariaren talderantz ere jo behar dute antolatzaileek. Orain arte parte hartu duten guztiekin batera, sari-irabazle zein ez-irabazleekin, arestian aipatutako bi antolatzailekideak zoriontzen ditut hiru aldi hauetako lan eskeragatik.

Azkenik, gure herritar lan-taldeak, Erakundeak eta banakoak ikerlan hauetaz baliazera gonbidatzen ditut, nola ikerlan sarituak espontsorizatuz, hala euren alorrean ikerlan saritu horietatik aplikagarri gertatuko zaizkienak erabiliz. Orduantxe bai GERRIKO Ikerlan-Sariketaren asmoa oso-osorik beteko dugula euskal kulturkide garen aldetik!

**JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN**

Antropologia Soziokulturaleko eta  
Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuko  
Antropologo eta Irakaslea

GERRIKO Ikerlan-Sariketako Zuzendari Teknikoa

**JUAN INAZIO IZTUETA ETXEBERRIA**  
**(1767-1845)**

— *Pello Joxe Aranburu*  
*Marian Bidegain*  
*Antton Idiakez*  
*Iñaki Rezola*



Gure eskerrik beroena Lazkaoko Benezitarren Komentuko Liburutegiaren arduradun den Aita Juan Jose Agirrerri; berari esker eskuratu ahal izan bait ditugu Iztuetari buruzko lan honetarako hainbat eta hainbat liburu eta aldizkari; Eskerrikasko!

Eskerrikasko, halaber, gure lana aztertu duen (eta egokitze hainbat laguntza eskaini digun) Pilartxo Etxeberria andereari.

Eta ezin ahaztu «Gerriko Saria» lehiaketa antolatzen duten partaideak ere.

Guztioi, eskerrikasko!

### Laburdurak:

aip. art.	= lehenago aipatu artikulua
aip. ob.	= lehenago aipatu obra edo liburua
or.	= orrialdea(k)
zka.	= zenbakia(k)

GDK = Juan Inazio Iztuetaren «Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira ...». (Gure lanean erabili dugun edizioa: Iztueta, Juan Ignacio (1968), «Viejas Danzas de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Dantza Gogoangarriac». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. Hitzaurrea: Barandiaran, Gaizka eta erdal itzulpena: Onaindia, Santiago).

GPK = Juan Inazio Iztuetaren «Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...». (Gure lanean erabili dugun edizioa: Iztueta, Juan Ignacio (1975), «Historia de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Condaira». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. Edizioaren prestatzailea eta erdal itzulpenaren egilea: Lasa Apalategi, Jose).

ASJU	= Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»
BAP	= Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País
DV	= Diario Vasco
EGIPV	= Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco
RIEV	= Revista Internacional de Estudios Vascos
HH	= Manuel Larramendiren «Diccionario Trilingüe ...»
CAM	= Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián
CAP	= Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
CAV	= Caja de Ahorros de Vizcaya
LKA	= Lankide Aurrezkia

«Guipuzcoaco biztanle prestu guztiac badaquite arguiroqui, beren zoriona datorquietela jatorriz dituzten Fuero onesquietatic; bañan oec oso ta garbi gordetceco gauzaric bearrena cer dan ezagutcen dutenac, guichi dira chit. Fueroac beren oñean irozotceco quirtenic irme-ena eta euscarriric seguruena da Euscarazco itzcuntzari ondo contu eguitea; cergaitic alcarri laztanduric arras itsatchiac arquitcen diran, batac bestea ecin laga dezaquean moduan. Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan Euscara bici bada, Fueroac piztuceco dira. Fueroac nai dituanac, maite izan bear du Euscara; eta Euscara maite dabenac, Euscaldunai Euscaraz bear die itzeguin ta adierazo, berai dagozquieten gauza guzti guztiac. Bestela, zapuztuceco da Euscara, muishinduceco dira Euscaldunac, eta igues-eguingo dute Fueroac.».

(Juan Inazio Iztueta, «Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...», VI or.).

«¿Ez da lotsagarri ez ecic, mingarri ere, Guipuzcoaco Erri leialetan gazteria escolatceco, itzcho bacarra ere Euscaraz ez daquiten Maisu erdaldunac ifintea? Eta oraindic are illgarriagoa baicic ez da, escolaco aur gaishoai itz bat Euscaraz erorten zaiotelaco, beraren etsai ezagutuac dauden guizon erbesteco oec ematen diezaten azote gogorrac ontzat eramatea. ¡Cer bada! ¿aiñ becatu andia da Euscaldunai Euscarazco itza jalquitcea? ¡Há Euscara maitagarri bicicor guishaishoa! Ez dira, ez, campotarrac bacarric zu icusi nai etzaituztenac; badituzu urrean ere, beren izate guztia zuri zor dizutenac, zu irozotceco buru ausitce andiric eguingo ez luquetequeanac.».

(Juan Inazio Iztueta, «Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...», V-VI or.).



Iztueta; Valverderen Koadroa. EGIPV, Literatura I, 581 or.



## LANAREN AURKEZPENA

Juan Inazio Iztueta Etxeberria, XVIII-XIX. mendeko zaldibiar idazlearen bizitza eta obra aukeratu dugu «III. Gerriko Saria» lehiaketa honetarako langaitzat. Zergatik?

Goierrri aldeko idazle klasikoen artean (Gerriko, Lardizabal, Otaegi ...) «*erakargarriena*» iruditu zaigu, bai bere bizitza nahastu eta erdi-abentureroagatik, bai, eta batez ere, bere lanaren bitxitasunagatik, orijinaltasunagatik.

Bestalde, pertsonaia honi buruzko orainartekoak arakaturaz, bi gauzoz ohartu gara: Asko idatzi da Iztuetaz, baina ia dena erdaraz (gazteleraz) eta, gainera, lan gehienok fragmentarioak, partzialak dira oso eta erabat sakabanaturik, han eta hemen barreiatuak aurkitzen dira: Iztuetaren alderdixoren bat edo beste ukitzen edo arakutzen dute soil-soilik (bere poesigintza, harremanak, folklore-aitzindari izatea, liburu hau edo bestea ...) edota, Mitxelenaren zein Villasanteren Literaturaren Historian bezala, aipamen labur-laburrak baino ez dira egiten.

Guk, gure honetan, Iztuetari buruzkoak lan bakar batean bildu nahi izan ditugu, bere bizitzaren eta obra osoaren berri era bateratuan eman, pertsonaiaren garaian, ingurune orokorrean kokaturik eta, noski, euskaraz.

Ez dugu ikerketa «*berririk*» egin. Ez ditugu artxibo eta liburutegiak azken zokoraino gauza berri bila miatu (gure ahalbideak ere ez dira horrenbesterainokoak eta). Egin duguna zera izan da: dagoena, ahal izan dugun neurrian, bildu, txukun antzean ordenatu eta Iztuetaren ikuspegi orokor eta zabal samarra euskaraz eskaintzen ahalegindu.

Lan honen helburua? Goierriar gizaseme ospetsu —eztabaidatu bezain ezezagun— honen bizitzaren nondik-norakoak eta obraren barrenak euskara hutsean, orokorki, era erraz-errazean, baina sistematikoan eta ordenatuan Goierriko zein edozein euskaldun interesaturi irakurri, ikusi, ezagutu ahal izateko urrats batzu eskaintzea.

Lanaren egitura: Lehenik, eta sarrera orokor gisa, Iztuetaren bizitza/obra egoki kokatu ahal izateko, bere ingurunea (historikoa, politikoa, sozio-ekonomikoa, kulturala, literarioa ...) azaltzen dugu.

Gero, Iztuetaren bizitzari ekiten diogu, bizitza nahaspilatu honetako hainbat une ilun samarretan luzexego ihardunez.

Jarraian, Iztuetaren obra aztertzen dugu: bere bi liburu nagusiak, lan laburragoak, poesi-bertsogintza, erdarazkoak ...

Iztuetak bere hainbat eta hainbat garaikide ezagun eta ez hain ezagunekin izandako harremanez (idatzizkoez) ere zenbait aipamen egiten dugu.

Eta bukatzeko, bi azterketatxo kritiko egiten ditugu: Iztuetaren euskara-idazkeraz eta beronen obraren ezaugarri nagusiez, nabarmenenez.

Pretensio handirik gabeko lantxo honek balioko ahal du Iztuetari buruzko saio sakonago eta zehatzagoa egitera norbait animatzeko (eta, baita, Goierriko beste idazle klasikoak ikertzera bultzatzeko ere).

## IZTUETAREN GARAIA ETA INGURUNEA

Iztuetaren bizitza eta obrari ekin aurretik, koka ditzagun hauek beren ingurune historikoan.

Lehenik, Iztuetaren garaiko data garrantzizkoen zerrenda soil bat agertuko dugu:

- 1745ean M. Larramendik bere «*Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*» argitara eman zuen.
- 1765. urtean «*La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*» elkarteak sortu zen.
- 1766an M. Larramendi hil zen eta «Iztueta-enea» jaso.
- 1767. urtean Iztueta jaio zen.
- 1776. urtean «Bergarako Errege Mintegia» hasi zen.
- 1790ean lehen aldiz ezkondu zen Iztueta.
- 1793. urtean «Konbentzioko gerra».
- 1795ean Frantzia eta Espainia arteko «*Basileako Pakea*» izenpetzen da.
- 1801etik 1807ra bitarteko sei urteak kartzelan pasa zituen Iztuetak.
- 1802. urtean Billabonako bertsolari desafio sonatua.
- 1807an Napoleonen inbasioa.
- 1808. urtean Iztueta Kontxesirekin ezkondu zen.
- 1810. ean Iztueta Donostian bizi dela agertzen da.
- 1813. urtean Cádiz-eko Korteetako Konstituzioa onartu zen, eta aduanak Ebrotik Bidasoa eta itsasora aldatu ziren.
- 1814. urtean Fernando VII.ak Cádiz-eko Konstituzioa derogatu zuen, berriro aduanen aldaketa, eta Iztueta bi urtetarako kartzelaratzen dute, ostera.
- 1815. urtean Kontxesi hil zen. Iztueta Donostian denda baten jabe egin zen.
- 1820an Riegoren altxamendua, eta aduanak itsasora.
- 1823. ean frantsesen inbasioa, eta aduanak aldatzen dira.
- 1824-1826 urteetan «*Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira ...*» liburua argitaratu zuen Iztuetak, eta Donostiako «Puerta de Tierra»ko zaindari agertzen zaigu.
- 1828. ean hirugarren aldiz ezkondu zen.
- 1829an Iztuetak karta famatu bat idatzi zion Mogeli.
- 1833. urtean lehen karlistada hasi zen.
- 1834. urtean Iztueta «Alcaide de Corregimiento» egiten dute Donostian.
- 1839. urtean «Bergarako Besarkada».

— 1845ean hil zen Iztueta Zaldibian, nahiz eta ziur-ziur ez jakin bere jaioterrian azken egoitza noiz finkatu zuen. Agian, 1837an?

— 1847 urtean «*Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...*» argitaratu zen.

Iztuetaren finkapen historikoa egin ondoren, orduko Gipuzkoako demografiari gain-begirada bat botako diogu eta Herrialde honetako ogibide garrantzizkoenak, gizarte-mailak, gatazka sozialak eta Iztuetaren garaiko arloste nahiz apezariaren eragina aipatu gatazketan azaltzen saiatuko gara. Atal hau amaitzeko, Iztuetaren garaian euskararen egoera, euskarari buruzko «Baskoiberismoaren» teoria, gipuzkera literarioaren sorrera, zaldibiarren euskal idazle garaikideak eta, azkenik, euskal «Erromantizismo» mugimendua aztertuz, Iztuetaren garaia eta inguruneari buruzko kapitulu hau amaituko dugu.



Donostia Iztuetaren garaian, 1830 (Extramiana, 2. parte, jarraipena, VIII or.)

## 1. Demografia:

XVIII. mendearen azken hiru hamarkadetan eta XIX. mendearen erdian, Gipuzkoan, populazio-saldotan gertatu ziren aldaketak emango ditugu. Datu hauek Emiliano Fernández de Pinedo historialariari hartu dizkiogu (1):

1768an	Gipuzkoan	109.446 biztanle zeuden
1797an	Gipuzkoan	104.491 biztanle bizi ziren
1857an	Gipuzkoan	156.493 biztanle aurkitzen ziren

Datu hauek adierazten digutena Gipuzkoak XIX. mendean izan zuen hazkunde da. Pablo Fernández Albadalejo autorearen arabera (2), badirudi 1814ean hasi zela hazkunde eta 1833an areagotu egin zela.

1. FERNÁNDEZ DE PINEDO, EMILIANO (1974), «*Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco, 1100-1850*». Siglo Veintiuno, Madrid, 87-100 or.

2. FERNÁNDEZ ALBADALEJO, PABLO (1975), «*La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa. 1766-1833. Cambio económico e historia*». Akal, Madrid, 222-228 or.

Herrialde osoan, Bizkaiarekin konparatuz gero, nahikoa ondo banatua zegoen populazioa, bai itsasaldean, bai barrualdean. Dena den, nekazaritza eta industria ondo tartekatzen direlako edo, Oria artoa nabarmentzen zen beste eskualeetatik, populazio-dentsitateari dagokionez.

Iztuetak bere bizitzaren azken aldera idatzitako «*Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...*» liburuan 120 mila arima bizi zirela esaten digu.

Gipuzkoan zenbat jende bizi zen ikusia dugu, goazen orain biztanlegoa nola bizi zen edo non lan egiten zuen ikustera.

## 2. Nekazaritzaren egoera:

Iztuetaren garaian, Gipuzkoa artoaren eta gaztainaren lurraldea zen (3) eta txakolina eta sagardoa ere produzitzen ziren. Edari kontuan, Errioxa eta Nafarroako ardoarekiko burruka gogorra mantenduko dute bi edari horiek.

Lehen aipatu dugun XIX. mendeko demografi hazkundeak haragi-kontsumoa eta honen komertzializazioa ekarri zuen. Ondorioz, abeltzantza indartzen zihoan. Azoka eta nekazal merkatari berriak sortu ziren, piskana-piskana nekazal aberats izatera iritsi zirenak.

1757an, gutxienez, 10 feria baziren Gipuzkoan; hauetatik zazpi garrantzitsuak: Beasain, Bergara, Azpeitia, Ordizia, Azkoitia, Villarreal, Mondragoi, Segura, Elgoibar eta Oñatikoak. Feria hauek, batzuk urtean behin edo egiten ziren, egun batean edo gehiagotan; azokak, berriz, bi egunez behin egiten ziren (4).

Baserri berriak eta baserri-handitzeak ere gertatu ziren, eta horretarako, herri-sailak gutxitu eta luberriak gehitzea beharrezkoa zen (5).

Baserriko maiztergo eta errenitei buruz, hauxe dio José Extramianak (6) bere lan atseginean:

«La mayor parte de las cargas señoriales, exceptuando el diezmo, han perdido ya el carácter oneroso que tuvieron en otros tiempos. En el siglo XVIII, los procedimientos más usuales de explotación del trabajo rural son la renta y el crédito. Con respecto a la primera, hay múltiples variantes regionales, con un denominador más común: la tendencia a lo largo del siglo, a aumentar la renta y a reducir la duración de los arriendos.

Los préstamos a los campesinos pueden ser a corto plazo y alto interés, con frecuencia de carácter usurario o, al contrario, a interés módico y a largo plazo. Este último, llamado censo, no es, sin embargo, inofensivo; es un préstamo hipotecario que permite al dador confiscar la propiedad campesina. El censo es también un medio de inversión para los adinerados y una manera indirecta de adquirir tierra. Si eclesiásticos y nobles recurren rara vez a la hipoteca, comerciantes de la ciudad y una capa media rural ascendente se aprovechan de esa oportunidad para expropiar a los labriegos».

Nekazal gizartearen aldaketak eta higikortasunak bere ohizko egonkortasuna arriskuan jarri zuen, erdi mailako laborari berriak sortu bait ziren, eta guzti hori baserriar xehearen kaltean.

3. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 160-161 orrietako mapak.

4. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 233-234 or.

5. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 163-174 or.

6. EXTRAMIANA, JOSÉ (1981), «*Historia General del País Vasco, VIII, Historia de las Guerras Carlistas*». Luis Haranburu Editor, San Sebastian, 32 or.

Dena den, nekazaria zen Gipuzkoa Iztuetaren garaian, esan nahi da gehien-  
goa nekazaritzatik bizi zela.

### 3. Metalurgia:

Lehendik zetorren langintza bat da Gipuzkoan. Gogora dezagun, adibidez, Aita Larramendik 1754ean idatzi eta 1882an argitaratu zuen «Corografía ...» liburuan zioena (7). Bere iritziz, 3.500 arituko ziren burdinoletan eta 10.000 pertsonen, gutxienez, langintza hauetatik jango zuten.

Basoa hiru eratarata hustiatzen zen XVIII. mendean. Lehenik, zuhaitz sendoak ematen zituen. Bigarren hustiaketa hauxe zen: egurra txondarrean egosi eta burdinola nahiz sutegetan kiskaltzen zen egur-ikatz. Eta azkenik, zenbait produktu jabearentzat lagungarri zirenak ematen zituen Gipuzkoako basoak, adibidez, gaztaina-alea, giza-janaria eta Hanburgora esportatzen zena; ezkurra, zerrien jakia; sutarako egurra eta horbela, behien azpitarako erabilia (8).

Burdinolek beharrezkoa zuten ikatza, eta aztertzen ari garen garaian egur-ikatz erabiltzen zen, noski, gipuzkoar baserriarrek beren mendi eta basoetan egina. Baserrietarako diru-iturri preziatua izatera iritsi zen. Baserriak aurreratzeko eta bertako semeentzat beste ogibide bat izan zen. Elkarrosatze interesgarria, benetan, hau: baserria, ikatza, burdinola.

Baina, 1770. urteaz gero, gipuzkoar burdinolak beheraka hasi ziren. Hau baieztatzeko badauzkagu seinale garbi batzu: ikatzaren prezioa, lan-eskua eta jakiak goraka hasi ziren. Ondorioz, burdinaren kostua ere garestiegia eta ez-  
konpetitiboa izatera iritsi zen (9).

### 4. Euskaldunak itsasoan, merkataritzan, XVIII eta XIX mendeetan:

Euskaldunek, Iztuetaren garairako, mendeak zeramatzen itsasoan lanbide eta bide berriak irekitzen. Afirmazio honen lekuko, Carlos Claveriaren «*Los Vascos en el Mar*» liburu atseginarene irakurketa proposatzen dugu (10).

Colón-ek Amerika aurkitu aurretik, XIV. mendean, euskaldunak Ternuan zebiltzan balearen bila. Claveriaren ustez, 1372an Orioko itsasgizonak izan ziren lehenak «*Isle de les Basques*», hots, Ternuara iristen (11). Hango euskal toponimiak eta hilerrietako izen-deiturek ongi frogatzen dute euskaldunek lur haietan izan zuten eragin nabarmena (12).

Beste alde batetik, Bilboko Kontsulatuaren historiak ere antzeko ondorioetara eramango gaitu: Aintzinatik euskaldunok izan dugun trebezia, Europako beste herrieekin edukitako harreman estu, iraunkor eta aberatsak, hitz batean, euskal merkatal itsasgizonen mugimendu garrantzitsua aitortzera, alegia.

---

7. LARRAMENDI, MANUEL, S.J. (1982), «*Corografía de Guipúzcoa ...*». Larrun S.A., (Edizioaren prestatzailea: Tellechea Idígoras, José I.).

8. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 227 or.

9. EXTRAMIANA, J. (1981), aip. ob., 33 or.

10. CLAVERÍA, CARLOS (1966), «*Los Vascos en el mar*». Aramburu, Pamplona, 32-93 or.

11. CLAVERÍA, C. (1966), aip. ob., 114 or.

12. HOWLEY, par le tres reverend (1908), «*les Anciennes Tombes Basques a Placentia*». RIEV II, 734-748 or.

Baina Iztuetaren garairako, guzti hori beheraka hasia zen. Utrech-eko Itunak, 1713an, Ternuako arrantza-eskubide guztiak inglesen eskuetan utzi zituen. 1580. urtean berrehun unti baino gehiago zebiltzan Ternuarako bideetan; 1727. urtean, Ordiziako Juntek diotenez, ez zegoen bat bakarrik ere zerbitzuan. «XIX'garren eunkian galdu zan bale-arrantza eta bakaillau-arrantza ere berarekin batera» (13). Oraindik gerora intentu batzu izan arren, hor bukatu zen euskaldunen Ternuako bideetako historia gloriosa.

Beherakada honen beste adibide bat: 1828ko urtarrilaren 11ko Errege Dekretuz gertatu zen: Bilboko Kotsulatuari kolpe mortala ezarri zitzaion, Merkatal Legedi berria aldarrikatzean.

«La Compañía Guipuzcoana de Caracas» elkartearen babesean, 1728an Gipuzkoako Batzarre Nagusiek eskatuta, Amerikarekiko harreman komertzialak hasi zituzten gipuzkoarrek. Diru freskoa ekarri zuen merkataritza honek Herrialderako, gizarte-bizitza osoari eragin bortitza eman ziolarik (14).

Aita Larramendik kritika zorrotza egiten dio erakunde honi (15): nahiz eta beronen errua ez izan, Gipuzkoako itsas portuetako arrantza ezabatu du. Lehen bertatik bertara arrantzan zebilen jendea orain Caracas aldera doa, «Compañía»k diru gehiago eskaintzen bait dio.

Amerikako dirua aipatzen dugunean, ahaztu ezinezkoa da indianoen kapital ekarpena ere, lur haietan dirua egin eta zahartzaroan jaioterrira itzultzen bait ziren.

XVIII mendearen azkenaldera, ordea, gauzak aldatzen hasiak ziren, eta XIX. mendean areagotu egin ziren. 1785. urtean «La Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas» elkarte beste izen hau eman zioten elkarte bilakatu zen: «La Real Compañía de Filipinas», baina izena ezezik egoitza ere aldatu zitzaion, Madrilen finkatu zen bere egoitza. Aldaketa hori komentatuz, Larramendik bere «*Corografian*» zera dio:

«Orain Madrilen dago zuzendaritza osoa, bere bulego eta guzti» (16).

Ironia handiaz, galderak eginez jarraitzen du andoaindarrak.

Piskana-piskana euskal enpresa-gizon eta teknikariak Madril, Sevilla eta Cádiz aldera beren bizilekuak aldatzen joan ziren, Ameriketako merkataritzari buruzko zenbait erabaki han hartzen bait zen.

Badakigu Iztuetaren urteetan Gipuzkoako biztanlegoa nekazaritza, metalurgiatik eta merkataritza, batipat, bizi zela. Baina, ez dakiguna zera da: gizartea nola zegoen osatua?, bazegoen maila sozialik?, ala gipuzkoarrak berdintasun idiliko batetan bizi ziren?

---

13. ARRINDA, ANASTASIO (1977), «*Euskalerría eta arrantza*». Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 234 or. CIRIQUAIN GAIZTARRO, MARIANO (1961), «*Los Vascos en la Pesca de la ballena*». San Sebastián, 313-328 or.

14. UGALDE, MARTÍN (1974), «*Síntesis de la Historia del País Vasco*» Seminario y Ediciones Martin de Ugalde, Madrid, 142 or.

15. LARRAMENDI, MANUEL, S.J. (1982), «*Corografía*», Larrun S.A., 211 or.

16. LARRAMENDI, M. (1982), aip. ob., 207 or. «Esta Compañía es la primera de España y la que después sirvió de pauta y modelo a las compañías de la Habana, de Sevilla y Zaragoza. La de la Habana mantiene su nombre y está en la Habana; la de Sevilla mantiene su nombre y está en Sevilla. La de Zaragoza mantiene su nombre y está en Zaragoza. Pero la de Guipúzcoa, ni está en Guipúzcoa, ni tiene su nombre; ya casi se llama Compañía manchega o cortesana. En Madrid está toda la dirección, con sus oficinas todas. Pues ¿por qué esta diferencia?» 207 or.

## 5. Maila sozialak XVIII. mendearen azkenaldeko krisialdian:

Gai interesgarri bezain eztabaidatua eta tinta asko gastarazitakoa dugu hau. Aita Larramendiren idatziak eta batipat «*Corografía*» izena daraman liburua irakurtzeak merezi du, Iztuetaren mendekide izan zen jesuita ospetsuaren «aiton-semetzari» buruzko iritziak jakin ahal izateko. Liburu hau Iztuetaren obra baino lehenagokoa izan zen, hain zuzen 1754ekoa, nahiz eta lehen argitalpena 1882an egin (17). Andoaindarrak Gipuzkoako egitura sozialaren barnean hiru maila egin dizkigu. Saikapan hori egiteko erabiltzen duen irizpidea odol-nobleziari buruzkoa da:

Lehena, gipuzkoar guztiena eta berbera, geure izaeran inskribatua, beraz, suntsiezina zen.

Bigarrena, gure merituez edo herentziaz lortua, desberdina, beraz, aldakorra. Sail honetan sartu zituen Ahaide Nagusien tituluak, nolabait, onartu zituen, baina kritikatuak izan ziren.

Hirugarrenari «birtutezko noblezia» izena eman zion eta honetan oinarritu zuen gipuzkoarren lan-grina. Gipuzkoar denak ziren nobleak, baina maila desberdinetan.

Egiaz, burgesia zen goraka zihoan klasea: Merkataritzatik bizi zena, eta neurri apalago batetan industriatik. Gipuzkoako burges-jende hau, adibidez, Donostian bizi zena, Europako ideia berrietara irekiko zen «Y a partir de 1795, aparecen círculos republicanos en Irún, San Sebastián ...» dio Extramianak (18).

Azkoitian, aitonen semez, hidalgoz osatutako jende multzo batek, Peñaflo-ridako Kontea gidari zelarik, 1763an kultur erakunde bat sortu zuen, Azkoitiko «Zalduntxoak» izenaz ezagunagoa egiten zaiguna. Gerora, 1765ean Carlos IIIaren legeztapena lortu zuen eta «Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País» izena eman zioten. Bere ikurrak «Irurak bat» dio.

Erakunde honen helburuak zientifikoak eta kulturalak zirenez gero, 1769an, Bergarako udalaren laguntzarekin, «Bergarako Errege Mintegia», «Seminarioa», herriak dienez, zabaldu zuten eta 1787ra bitarteko aldia izan zen Mintegiaren urrezko aroa. Era askotako gaiak irakasten ziren: Hizkuntzak, Matematika, Fisika, Kimika, Merkataritza, Arkitektura, Minerologia, Erlujioa, Lehen Letrak ...

Seminario honek izen handia lortu zuen, eta bertan jardun zuten beste batzuren artean Samaniego gaztelerazko alegi-idazleak eta Elhuyar anai ezagunek. 1790 hamarkadan Mintegiaren beherakada nabarmena hasi zen eta, era berean, Gipuzkoako klase dominantean, 1793. urtetik aurrera, zatiketa eta joera desberdinak agertzen joan ziren. Frantzia eta Espainia arteko gerra (1793-1795) zela eta, klase dominantea zatitu egin zen; batzuek Madrileko politika ekonomiko ez zuten onartzen eta frantsesen adiskide azaldu ziren, besteek frantsesen aurkako Diputazioa antolatu zuten. Bi estatuek «*Basileako Pakea*» sinatu zuten, baina klase dirijentearen irudi monolitiko eta bakarra deseginda geratu zen (19).

17. LARRAMENDI, M. (1982), aip. ob., XXXI or. «La fecha de su composición puede fijarse con mucha aproximación, merced a datos de crítica interna: escribe en vida de Fernando VI (1759) y cita la confirmación de los Fueros por este monarca (1752); la frase perdida «este año de 1754» (p.37), indica con suficiente exactitud el año en que escribe Larramendi su obra, aun cuando probablemente se ocupase en ella meses y acaso años.»

18. EXTRAMIANA, J. (1981), aip. ob., 43 or.

19. SILVÁN, LEANDRO (1974), «Las villas de la unión del río Oria ...Zaldivia». CAM de S.S.



Sortzen ari ziren burges berri horien interesak eta nekazal xume nahiz herri xehearen helmugak aurrez aurre aurkitu ziren garai horretan, behin baino gehiagotan.

Ondoren, aipa ditzagun 1766ko gatazka soziala, matxinada, zenbait gerla eta hauen ondorio batzu, adibidez, arloteen sorrera eta ugalketa.

## 6. Gipuzkoan, 1766ko matxinada (20):

Euskalerrian, XVIII. mendean, gutxienez hiru matxinada izan ziren, bi oso hedadura zabalekoak, 1718 eta 1766koak eta hirugarrena, nahikoa mugatua, baina sonatua, Zamakolada, Bizkaian 1804ean eman zena (21). Gure kokapen historiko eta geografikoan bete-betean sartzen den matxinada 1766koa izan zen.

1750eko hamarkadako uztak oso onak izan ziren, baina hurrengo hamarkadan bai Arabatik bai itsasoz ekarritako zituez hornitzen ziren hemengo herri asko.

Alearen prezioak neurrigabeko gorakada jasan zuen, eta merkatariek jenero horiekin espekulatu egiten zuten.

Masen ondoeza sortu zen eta beste errebendikazio askoren artean, herri xeheak nagusiki eskatzen zuena hauxe zen: prezioak jaistea edo tasa bat ipintzea laboreei. Azkoitia-Azpeitia izan zen matxinadaren haserako erdigunea, baina hedapen zabal eta azkarra izan zuen (22).

Matxinadaren mugimendua bultzatu zuten herrien zerrenda kontutan izanik, zera esan ahal dugu: arrantza eta industriatik bizi zen jendea mugitu zela.

Azpeiti-Azkoitira, 1766-IV-22an, ordena jartzera Donostiako gudaosteak joan ziren. Garai hartan, Loiolako basilika eraikitzen ari ziren eta langile-multzo handi batek lan egiten zuen bertan. Eraikuntza horretan lan egiten zuten ofizial eta peoi guztiak, hirurogeitalau guztira, eta Probintzia osoan hirurehun baino gehiago atxilotu zituzten. Horrela, bertan behera geratu zen matxinada hau.

Ondoren, Diputazioak Ezohizko Batzarrean, maiatzaren 13an dekretu bat eman zuen puntu hauek aldarrikatuz: alearen tasa ezabatzea, merkataritzako pre-

20. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 406-449 or.

21. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 449 or.

22. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 409 or.

	R.A.B.P.C.	H/KM <sup>2</sup>	HABITANTES
Ataun .....	122	32	1.941
Azkoitia .....	121	69	3.864
Azpeitia .....	134	55	3.910
Beasain .....	193	44	1.106
Deva .....	125	47	2.482
Eibar .....	111	34	2.053
Elgoibar .....	110	46	2.680
Guetaria .....	73	109	1.227
Hernani .....	85	53	2.254
Mondragón .....	83	74	2.303
Motrico .....	119	52	1.810
Placencia .....	109	96	1.356
Villafranca .....	129	120	691
Zarauz .....	122	100	1.496
Guipúzcoa .....	120	60	

R.A.B.P.C. = Renta «agrícola» bruta per cápita, en reales.

zioen askatasuna ezartzea, udalek hartutako erabakiak derogatzea, Udalei plenoak egiteko eskubidea kentzea ...

Honetaz gain zigorrak, isunak, soldaduskaratze eta atzerriratze derrigorrezkoak gertatu ziren.

Atal hau amaitzeko, hauxe gehitu nahi dugu: burgesiaren egoera zalantzan jartzen ausartu zen baserritar, langile eta arrantzale zen herri xehea aipatu burgesiak neurri zorrotzez zigortu zuela.

## 7. Arloteak:

Goian aipatu dugun matxinada aztertzen jarrai dezagun:

«Herri-matxinadaren zergatiak XVIII. mendearen erdialdean bilatu behar ditugu. 1766.eko herri altxamendua gipuzkoar gizartea menderatzen zuten klaseek itzali zuten; Probintziako lurjabe haundiek eta Donostiako merkataria ahaltzuek elkarren kontra zeramaten borroka ahantzi eta bat egin zuten, herriaren matxinada haren kontrako errepresioan iharduteko. Baina altxaldia suntsitzean, honen zergatia izan zen gizarte-krisialdia ez zen deuseztatu, ez horixe! Aitzitik, denbora iragan ahala, erabat haziz eta indartuz etorri zen. Biztanleri talde kopurutsuak iharduera marjinaletara bultzaturik aurkitu ziren. Bandolerismoa gaitz endemiko bihurtu zen, gipuzkoar gizartearen baitan tartekatzeraino, gerrate karlista bitartean. Talde marginalak mendialdean bizi ziren, artzantza, kontrabando eta bandolerismoan batera jardunez, lan hirukoitz gisa» (23).

Mendearen azkenaldera baserritar behartsuek ezin zituzten ordaindu beren errentak, eta zorrez josita, utzi baserria eta ihes egiten zuten.

Beste alde batetik, XVIII. mendearen bukaerako «Konbentzioko gerra» eta, batipat Independentziakoa, gipuzkoar udalentsat zeharo garestiak gertatu ziren, herri-sailak saldu beharrean aurkitu bait ziren, udalerrietatik iragaten ziren gualosteei hornikuntzak emateko.

Komunalak saltze honek berehala ekarri zituen bere ondorio kaltegarriak herri xehearentzat. Baserritarrek komunaletatik egurra, belarra, lurra, gaztainak eta abar dohan eskuratzen zituzten. Gipuzkoar gehiengoa nekazaritzatik bizi zenez, hau krisialdian jartzean, arloteen kopurua gehitzen zihoan (24).

Horrela, 1773. urtean, asiloa lortzeko lege berriak eman ziren; adibidez, herri bakoitzean, eliza konkretu bakarrean egon zitezkeen babestuta arlote eta delitu-egileak (25). Lege horrek delikuentzia ugaritzen ari zela adierazten du. Delituen eta beren egileen ezaugarriei buruz hau esan daiteke: delitu-egileak gipuzkoarrak ziren, ez etorkinak, normalki animaliak harrapatzen zituzten, lapurra pertsona bakarra izan ohi zen, taldean egindako lapurreta oso gutxitan gertatzen bait zen (26).

Egoera honen kausarik argiena, langabezia zen eta 1803ko urriaren hiruko errege-aginduak garbi zioen janari-falta, langabezia eta delituen jatorriaz:

---

23. BARCENILLA, MIGUEL A. / GLEZ. DE GARAI, IÑAKI (1989), «Jauntxoak, Burgesak eta Foruak». Gaiak Saila, Bilbao, 76 or.

24. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 437-438 or.

25. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 439 or.

26. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 441 or.

«sin poder adquirir el sustento para si y sus familiares por otro medio que el de la limosna» (27).

Gipuzkoako Korregidoreak, urte berean, Donostiako kartzela eraikitzea proposatu zuen.

Beraz, Gipuzkoan gizarte-egituraketa eta gizarte mailak areagotzen ari ziren; aldi berean, langabezia, ezinbizia, arlotekeria eta beste zenbait lakra sortu ziren, azkenean arazo bilakatzeraino. Horrela, arauak eman eta espetxe berriak sortu ziren.

## 8. Iztuetaren garaiko apezzeria:

Gizarte-eredu tradizionalaren krisialdia esplikatzeko faktore asko aztertu behar dira. Ikusi dugu demografi hazkundera, Gipuzkoako gizartearen bizibide eta maila sozialak aipatu ditugu, eta orain apezzeria jokatu zuen papera azaltzen saiatuko gara.

Apezzeria nekazariei etekinak ateratzetik bizi zen, hamarrenek sortutako diru-iturriek esker, funtsean. Baina diru-iturri hori desberdin banatzen zen apaizgoaren barruan. Behe mailako apaizgoa, baserri giroko eliztarren zerbitzuan ziharduena, pobrezian bizi zen.

Goi mailako apezzeria xurgatzen zuen lehen aipatu dugun diru-iturri horren gehiengoa. Beraz, apaiz xumeak iraupenezko egoeran mantentzen ziren bitartean, goi mailakoak egoki eta erosoago bizi ziren (28).

Fraile eta serorak ere hamarrenen bidez, lurren errenten bitartez edota nekazariei egindako maileguetatik bizi ziren, baina hauek herriari itzuli ohi zioten zati bat eskola, kultu-leku etab.en bidez.

XIX. mendearen lehen herenean hamarrenetan jasotako zati handi bat Estatuaren kutxetara joaten hasi zen, Liberalen eragina zela eta. Honek, noski, galera gorriak ekarri zizkion apezzeriari.

Krisialdiaren izaera ez zen ekonomi arlokoa bakarrik. Gipuzkoako Foru-erakundeak, oinarritzakoak zirenak, dardarka zebiltzan, eta herri xehe eta apezzeria xumearengan mesfidantza handia sortzen ari zen, azken hauek herriko jauntxoenganako beren begirunea ere zalantzan jartzera (29).

Iztuetaren garaiko nekazalgora analfabetoa zen gehienbat, astean behin entzuten zuen apaizaren sermoia izaten zen bere kultur bide bakarra, eta horrek eragin handia zuen herri xumearengan.

Beste alde batetik, liberalismoaren ideia berriek gizartea laikitzea zekarten eta hori ez zen apezzeriaren oso gustoko.

Gizarte aldaketa guzti hauek apaiz asko bultzatu zuten konspiraziora eta karlisten mugimenduan parte hartzera.

Beraz, eztanda karlistaren pizgarriak nagusienak hauen izan ziren:

---

27. FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), aip. ob., 443 or.

28. BARCENILLA, M. / GONZÁLEZ DE GARAI, I. (1989), aip. ob., 79 or.

29. BARCENILLA, M. / GONZÁLEZ DE GARAI, I. (1989), aip. ob., 81 or.

«Baina krisialdiaren izaera ez zen ekonomikoa bakarrik. Aurreko mendearen erdialdeetatik jada, beren tradiziozko boterearen funtsak dardarka zebiltzen. Foru-erakundeak, klergo xume eta nekazarien aurrean, mesfidantza haundiagoa sortzen ari ziren. Eta apezzeria, bere itzala herriko jauntxoaren zerbitzutan jartzeari uko egiten zion».

«Baserri eta hiriko klase xumeen pobrekuntza; gizarte tradizionalaren oinarri ekonomiko eta instituzionalen krisialdia; horien balioen azpijana; dotrina burges berriaren aplikapena, aberatsenen mesedetan eta behartsuenen helmugan kaltetan; ondorioz, biztanleriaren gehiengoaren antiliberalismoa ...» (30).

Gero ikusiko dugu euskal literatura, bai egileen aldetik, bai gaien aldetik, oso erlijioso delako neurri handi batetan. Baina literatura ez-erlijiosoaren ugalketaren hasera, XIX mendean zehar gauzatzen hasi zen, eta hori, I. Sarasolak dioen bezala (31), gertatzen ari zen aldakuntzaren islada zen.

Iztuetak bere obra argitaratu eta Fray Bartolome Santa Teresa-rekin izan zuen eztabaidak, eta Iturriaga apaiza irakaskuntzan erabiltzen zituen metodo razional eta aurrerakoen ondorioz, entziklopedistatzat salatua izan zela ikusteak, apezleriaren urduritasuna frogatzen dute.

Era berean, Azkoitiko Jauntxoek, Bergarako Mintegian ematen zuten irakaskuntza-mota zela medio, euskal apezleriaren etsaigoa lortu zuten. Azkenean, klase intelektual berriaren eta apezleriaren artean antagonismoa sortu zen.

## 9. Gipuzkoako XIX mendeko egoera eta gertakari politikoak:

Napoleon Bonaparteri lagundu ala ez? Gutxiengo ilustratu-sail batek, merkatal eta nekazal talde batzuk bakarrik, eta dirua ateratzeko, lagundu zioten frantses gudaoste inperial eta okupatzaileari. Agintari foralak agertu ziren. Alde batetik, beldurra zioten Bonaparteri eta hau, gainera, liberalismo ekonomikoaren ikurra zeramana zen. Ideia liberal hauek barreiatu zebiltzan Donostia eta gure Herrialdeko zenbait herritan. Azkoitiko «Zalduntxoak» XVIII. mendekoak ziren. Beste aldetik, herriko gehiengoari ere baziote beldurra, ez bait ziren nolana hikoak aurrez nabari ziren gerraren ondorio kaltegarriak, sortuko ziren herri-zorrak, jende arlotearen ugalketa ... (32). Nekazal masaren deskontentua uholdeka igotzen ari zen.

Euskal aduana historikoak non kokatu, Ebron ala Kantauri Itsasoan eta Pirineotan?

Amerikako merkataritzaren porrotak espainiar merkatura bultzatzen zituen euskal merkataria. Horretarako, Ebroko aduanak aldatu behar ziren, hauen orduko kokapena oztupo garbia bait zen.

1812an Korteek Cádizen bildurik eta Napoleonek Espainiako erregea espetxean zeukalarik, Konstituzio berri bat onartu zuten. Han zeuden parlamentari guztiek onartu zuten. Foruak ere barne egon arren, azaleko iritzi-batasun horren azpian, Foruen interpretazioari buruzko adostasun handiegirik ez zegoen: batzuek hitzez hitz gorde behar zirela, beste batzuek gustora aldatu eta gaurkotuko zizketela zioten.

1814ean, Napoleonek Espainiako erregea, Fernando VII.a, espetxetik askatu eta honek Cádizeko Konstituzio berri hori derogatu egin zuen.

1820an, euskal aduana historiko nagusiak Espainiako estatuaren mugetara, gure kasuan Ebrotik Kantauri Itsasora eta Pirineoetara aldatu ziren. Donostiak soilik ospatu zuen efemeride hori gogo biziz, baina 1823an berriro lehengo kokalekura itzul arazi zituzten.

30. BARCENILLA, M. / GONZÁLEZ DE GARAI, I. (1989), aip. ob., 82 or.

31. SARASOLA, IBON (1971), «Euskal Literaturaren Historia». Lur, Donostia, 26-28 or.

32. UGALDE, M (1974), aip. ob., 168-169 or.

Gipuzkoan XIX. mendean, hiri/landa antagonismoa ere sortzen ari zen. Esan dugunaren froga sendo bat emango dugu: Donostiako udal eta merkatalgoak 1831ko Gipuzkoako Batzarre Nagusiei bertako ekonomi egoeran oinarriturik, honen konponbide egoki bati buruzko txostena idatzi zien. Noski, proposatzen zieten irtenbidea hauxe zen: aduanak itsasora ekartzea. Baina eskabide hori zela eta, Azpeitian bildutako Ezohizko Batzarre Nagusiek ezezkoa eman zieten (33).

## 10. Lehen Gerra Karlista, 1833-1839:

Fernando VII.ak Espainiako erregetzarako ez zuen ondorengo garbirik utzi eta hori zela eta, euskaldunak zazpi urtetarako gerran hasi ziren. Bi bando interes desberdinekoak osatu ziren:

Alde batetik, karlistak, Karlos-en aldekoak, eta beste aldetik, isabelinoak, Isabel-en aldekoak, liberalak.

Liberalen taldea, Gipuzkoan hauek osatu zuten: lur-jabetza handiko jauntxo askok, merkatari eta industri-gizonek. Frantsesen aurka gudalostean ibilitako ofizialek ere liberalekin egin zuten gerra.

Karlisten alderdia, berriz, nekazari eta jende apalez osatua zen, orohar, baina apezzeria, noble batzu eta militar gutxi batzu ere, hauen artean Zumalakarregi, karlistekin aritu ziren gerran.

Pentsakera aldetik ere, desberdinak ziren: alde batean, Ilustrazioko ideien aldekoak, Frantziako Iraultzaren defendatzaileak, Foruen gaurkotzea eskatzen zutenak; beste aldean, fedea, Lege Zaharra eta monarkiaren aldekoak biltzen ziren.

Anaien arteko gerla hau, 1839an Bergarako Besarkadarekin amaitu zen, eta Gipuzkoak, noski, Euskalerrriak ere bai, historiaren beste garai berri bati atek ireki zizkion. Irabazle atera zirenak liberalak izan ziren, eta galtzaile karlistak, gero historiak frogatu duenez.

Laburtuz, 1765-1840 urteetan, Gipuzkoako biztanlegoa, beronen egoera soziala eta gizarte-gatazkak agertuz, Iztuetaren kokapena egiten saiatu gara. Baina, gure pertsonaia euskal idazle izanik, une honetan interesatzen zaizkigun beste puntu batzu hauexek dira: XIX. mendeko euskararen egoera, euskarari buruzko «Baskoiberismo» teoria eta gipuzkera literarioaren sorrera, berorren egileak eta Iztuetaren euskal idazle garaikideak.

## 11. Euskararen egoera Iztuetaren garaian:

Koldo Mitxeleneri jarraituz, azter dezagun gaia. Gaur badakigu XVI. mendean Burgi euskalduna zela. Baina mugak, Araba, Nafarroa eta Bizkaia Herrialdeetan atzeraka hasi ziren. Araban, Odon Apraizen ustez, atzerakada hori XVIII mendean gertatu zen batez ere, Nafarroan ostera, hurrengo mendean kausitu omen zen. Koldo Mitxeleneri bi gerrateren eragina aipatzen du gibeleratze horretan: Independentziakoa eta Lehen Karlistada. Antzeko zerbait gertatu bide zen Bizkaiko Enkarterrietan ere, garaia ongi zehaztu gabe dagoen arren.

Eta ondoren, barneko galera aipatzen digu Koldok, Iruñea eta antzeko hirietan gertatu zena:

---

33. BARCENILLA, M. / GONZÁLEZ DE GARAI, I. (1989), aip. ob., 43 or.

«XVIII. mendean susmoa baizik ez zena, aski nahasi eta zehaztu gabea, argi dago XIX.ean, gero eta ageriago, orduan eta etsigarriago. Irakaskuntzaz arduratzen zirenek, Iturriagak adibidez, edota foruen galeraz kezkatuek, Iztueta bezelakoek, erdizka adierazi zutena, argi eta garbi esan zuen, begizorrotz paregabe kanpotarra baina Euskal Herriko maitasunez gainezka genuen G. Humboldték: euskara 1900.erako, haren ustez, izkribuetan gordetako oroitzapena baizik ez genuke izango» (34).

Koldo Mitxelenaren zita horretan agertzen den euskararen egoera latzari berandu eta ahul erantzun zitzaioela esaten digu:

«Hizkuntza lantzean daukagun atzerapenaren froga zuzena Iztueta da, bera baita XIX. mende aurreratuxean erlijioaz ez diren gaiez hitz lauz ari den lehen laikoa» (35).

Iztuetak prosan gai profanoez iharduteaz gain, Gipuzkoako historia aztertu zuenean, gure Herrialdeko euskaldunon nolabaiteko zentsua eman zigun:

«Provincia labur onetaco mugapean contactcen dira eun ta ogeui milla arima bezalatsu; oetatik eun milla bederic izango dira Euscara beste itzcuntzaric ezdaquitenac: gañentceco ogeui milla-etan beguira izan ezlitezquean erdiac baño gueiago, Euscararen ugazume etorqui arrotz, nongoac eta noren odolecoac diran berac ere ezdaquitenac, eta azquenengo amar milla-etan ere izango dira guichienaz sei millaraño, Euscaraz charqui, eta gaztelaniaz gaizqui itzeguiten dutenac, beren buru arroac guizon andi ta jaquintsu eguiteagatic» (36).

Hara hemen Iztueta, euskararen egoeraz eta atzerakadaz kezkatu gizona, 1840 urte inguruko datuak ematen. Nondik atera zituen eta zer erizpide erabili zuen ez dakigun arren, atal honen haseran eman ditugun demografi datuekin bat datoz. Beraz, hiri handietan euskararen barneko galera gertatzen hasia zen eta fenomeno horien lekuko garbietariko bat Iztueta izan zen.

## 12. Baskoiberismoa:

Iztuetaren idatzietan nonnahi eta etengabe agertzen zaigun ideia bat aipatzera goaz, XVIII eta XIX. mendean garrantzi handia izan zuen teoria, euskara eta euskaldunon jatorriari buruzko teoria. Baskoiberismoaren ideiak indartzen ari ziren Iztuetaren garaian. W. von Humboldt alemaniar ikertzailea bi aldiz izan zen Euskalerrian, 1799 eta 1801ean, hain zuzen ere. Bidaia horien ondorioak 1817 eta 1821eko bi liburutan argitaratu zituen: «*Berichtigungen und Zusätze zu Adelsung Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache*» eta «*Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der Vaskischer Sprache*» (37). Bigarren honetan, Ertarotik zetorren teoria frogatzen hasten da: «Baskoiberismoa».

---

34. MITXELENA, KOLDO (1978), «*Euskararen Liburu Zuria*». «*Euskararen bide luze bezain malkarrak*», Euskaltzaindia, Bilbo (15-28 or.), 20 or.

35. MITXELENA, K. (1978), aip. ob., 21 or.

36. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), «*Historia de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Condaira*». La Gran Enciclopedia Vasca, V. or.

37. Erraz eskura daitekeen Humboldt euskaralariaren itzulpena hauxe duzu: «*Primitivos pobladores de España y la Lengua Vasca*». Minotauro, Madrid, 1959.

Alfontso X.aren «*Primera crónica general de España*»n oinarriturik, XVI. mendean Esteban de Garibay-k bere egin zuen teoriak, funtsean, hauxe defendatzen zuen: Noe-ren biloba Tubalek, «*Dilubio*»a jasan ondoren, Espainiako lautadak ezagutu zituen eta Pirineo mendietan kokatu zuen bere herria. Gero hemendik penintsula osora hedatu zen, horrela uler daitekeelarik Eapainiako toponimia. Iberiar penintsulako lehen hizkuntza, beraz, euskara izan zen, gero erromanizazioarekin galdu bazen ere, Euskal Herrian ezik.

Larramendi, Mogel eta Astarloak duda izpirik gabe onartu zuten teoria hau, eta Iztuetakitsu-itsuan sinetsi zien eta bere idatzietan luze eta zabal hedatu zuen.

Lehen, irakur ezazu Aita Larramendik 1754ean, «*Corografía de Guipúzcoa*» liburuan dakarrena (38). Goitik behera onartzen du Baskoiberismoa.

Mogel eta Astarloak ere onartu zuten teoria hori eta penintsulako herri izenen euskal jatorria aurkitzen saiatu ziren, euskararen antzinatasuna frogatu asmoz.

Juan Antonio Mogel ez zen Astarloa bezain itzua, eta hau Jon Etxaidek ongi adierazten digu:

«... gai honetan ere, Mogel eskuarki, oso zuhur eta zentzudun agertzen zaigu, Astarloarekin parekatuz, esate baterako» (39).

Paulo Astarloa, 1752-1806, Durangon jaioa, apaiza, lan gehienak gazteleraz idatzia, apologista amorratua izan zen. 1802. urtean Madrilera bizitzera joan eta «*Apología de la Lengua Bascongada*» argitaratu zuen 1803an. Bere obrarik eza-gunena da; hemen Baskoiberismoaren teoria eta euskararen laudorioak egiten ditu. Joakin Traggia euskaldunon etsai sutsuak argitaratu berria zeukan «*Origen de la lengua vascongada*» izkribu iraingarri bat. Bertan zioenez, euskara Euskalerriko gizakiek VIII. mendean asmatu zuten, inoiz eduki ez zuten nortasuna bereganatu nahirik. Gaztelako idazlearen ausarkeria eta gezurrak isilarazteko Astarloak bere «*Apologia*» idatzi zuen.

Bi idazle hauekin, Mogel/Astarloa, harreman estuak izan zituen Humboldt hizkuntzalariak. Baskoiberismoaren teoriaren zientzi mailako aztarnak ikertu, bildu eta argitaratu zituen, lehen aipatutako bi liburuetan. Euskara Europako unibertsitateetara jaso zuen hizkuntzalaria izan zen.

Iztuetaren garaiko Baskoiberismoa bi sailetan maila daiteke: arlo zientifikokoa bata eta bestea erabilpen herrikoikoa. Alde batetik Humboldt-ek, Mogekek, Astarloak ..., Penintsula Iberiarreko toponimia arakatuz, arlo zientifikoa landu zuten, eta beste aldetik teoria horretatik ateratako gehiegikeriak eta euskararen defentsan funtsik gabeko baieztapen apologistak egin ziren. Azken hauetako bat Iztueta izan zen.

---

38. LARRAMENDI, MANUEL, S.J. (1982), «*Corografía ...*». Larrun, S.A. 280 or. «Es la lengua más antigua, es la primitiva, es la única y universal que, como vernácula y materna, se habló en España antes de la venida de Cristo. Es la lengua legítimamente española, y es la lengua de los primitivos pobladores de España. Entre las cosas que consume el tiempo, no se hallará otra de todas las primeras antigüedades de España, si no es esta lengua, y es la única reliquia que se ha conservado, casi por milagro. Se han acabado las ciudades, provincias, reinos, reyes, gobiernos, leyes, naciones, lenguas, idolatrías y sus templos quedando de todas estas cosas como fueron en los primeros siglos, pocas memorias y ningunas seguras. Solo ha quedado viva, subsistente e inmortal la lengua primera y universal de España, que es la eusquera, el vascuence, el basque, el cantabrismo, y la nación que está hablando entre estos montes».

39. ETXAIDE, JON (1990), «*Hamasei Seme Euskalerriko*». Erein, 286 or.

### 13. Euskara idatzia Iztuetaren garaian (40):

Gai hau hiru zatitan banatuko dugu: lehena, gipuzkera literarioaren sorrerari buruzko autoreak, bai euskaraz bai gazteleraz idatzi zutenak, bigarrena, beste euskalkietako euskal idazle garaikideak, eta hirugarrena, azkena, Iztuetaren garaikide berantiarrak (41).

#### 13.1. Gipuzkera literarioa:

XVIII mendean sortu zen, hain zuzen, Herrialde honek Ameriketara izan zuen merkatal zabalkunde eta botereari esker. Hori zela eta, aberastasun giro bat ekarri zion Gipuzkoari. Garai horretan sortu zen Gipuzkoan euskarazko mugimendu literarioa, buruztat Larramendi zuelarik. Honen lanak markatu zuen Hego Euskalerriko literatura eta esan daiteke, neurri batean, gaur oraindik ere markatzen duela. Sabino Aranaren euskarari buruzko joera ez zen izan Larramendirenaren azken ondorioa baizik (42).

Dena den, gipuzkera literarioaren sorreran, bai euskaraz bai gazteleraz idatzi zutenak labur-labur aipa ditzagun hurrenez hurren:

Aita Larramendi jesuita: 1690-1766, Andoainen jaioa, gipuzkera literarioaren sorreran urrezko letretan idatzi beharrekoa da. Euskararekin loturik, obra garrantzizko hauek utzi zizkigun: «*De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas: Demostración previa al Arte, que se dará a luz de esta lengua*», 1728. Liburu honen edukia hauxe da: Euskara Espainiako hizkuntza zaharrena da, euskararen bidez azal daiteke gaztelerazko hitz askoren etimologia, euskara hizkuntza filosofikoa, garbia, erregularra, gazteleraren aldean, entzumenerako atsegina ... da. Liburu hau euskararen apologia sutua da.

«*El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*», 1729an idatzia, euskararen gramatika da.

«*Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*», 1745. Izenak dioen bezala, hiztegia da, Larramendiren hiztegi hain erabilia eta kritikatu.

Obra hauetaz gain, badiu beste zenbait lan, baina euskaraz gutxi. Hala ere, andoaindar erraldoi honen lorpenik emankorrena bere eskola izan zen eta bere jarraitzaileek gipuzkeraz idatzi zuten (42b).

Larramendiren eskolakoek, beren liburu praktikoetan, ez zuten maisuak defendatzen zuen euskara erabiliko, euskara herrikoi eta natural batetan idatzirik baitaude.

40. MITXELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura vasca*». Erein, 85-123 or.

41. Literatura idatziaren aipamenak egiterakoan, Luis Villasantek, 1979an Aranzazun argitaratu eman zuen «*Historia de la Literatura Vasca*» liburuan oinarritu gara, ez ditugu orrialdeak adierazi, egileak gai bakoitzaren zatiak bereizteko erabili zituen zenbakiak baizik.

42. VILLASANTE, FR. LUIS (1979), «*Historia de la Literatura Vasca*». Aranzazu, 130-153 zka.

42b. Azken urte hauetan, Larramendiren eraginari buruz lan berriak, interesgarriak eta positiboak agertzen ari dira. Ikus SARASOLA, IBON (1986), «*Larramendiren eraginaz eta*». ASJU XX-1. (203-216 or.) eta LAKARRA, JOSEBA ANDONI (1985), «*Larramendiren Hiztegi gintzaren Ingu-ruan*». ASJU XIX-1, (11-50 or.). Diogunaren lekuko hara beronen, Lakarraren hitzak: «Larramendiren obraren garrantzia goregi jartzeko arrisku gutxi dugu, mende t' erdi batez bera izan bait zen euskal literaturaren eta euskal lexikografiaren bultzagile eta ardatz. Honenbestez, bere ezagutza sakonagoa ezinbestekoa da sail horiek argitzen saiatzen diren filologo eta hizkuntz historialarientzat...» Aip. art., 46 or.



DICCIONARIO  
TRILINGUE  
DEL  
CASTELLANO,  
BASCUENCE,  
Y LATIN.  
TOMO SEGUNDO.

SU AUTOR

EL PADRE MANUEL DE LARRAMENDI,  
*de la Compañia de Jesus.*

DEDICADO

A LA MUI NOBLE,  
Y MUI LEAL PROVINCIA  
DE GUIPUZCOA.



CON PRIVILEGIO EN SAN SEBASTIAN:

Por Bartholomè Ricgo y Montero , Impresor de dicha M N y M. L. Provincia,  
Ciudad de San Sebastian , su Confulado, y de la Real Compañia  
Guipuzcoana de Caracas.

Agustin Cardaberaz, jesuita, 1703-1770, Hernanin jaio eta beste batzuren artean obra hauek idatzi zituen: «*Cristauaren Vizitza edo orretarako vide erraza bere amabi pausoaquin*», 1744eko itzulpena (43).

«*Aita S. Ignacio Loyolacoaren Ejercicioak beren consideracio eta afectoaquin*», 1744ean. Lau liburuskak. Baditu beste batzu ere, baina gehienbat erabili zuena prosa erlijiosoa da.

Dena dela, 1761ean, «*Eusqueraren Berri Onac, eta ondo escriptezco, ondo iracurtzeco ta ondo itzegiteco Erreglac*» izena duen liburua eman zigun, izenak adierazten duen bezala ez da gai erlijiosoa duena, hizkuntzari lotutako gaia bait darabil.

Sebastian Mendiburu, 1708-1782, jesuita hau ere, Oiartzunen jaioa, «*Zizeron euskalduna*» deitua eta Orixek dioenez, jostera aldetik euskara honek bezala erabili zuenik ez zuen ezagutzen (44).

«*Jesusen companiaco A. Sebastian Mendiburuc Euscaraz eracusten duen Jesusen Bihotzaren Debociao*», 1747. «*Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz-gai*», 1759-1760.

«*Euscaldun onaren viciera, mezaren entzun-vide labur erreza, errosarioco amarrecoen asiera, eta cembait bederatz-urrun edo Novena*», 1762.

Hiru liburuetan gai erlijiosoa erabili zuen, beraz prosa erlijiosoan sailka daitezke.

Patxi Altunak paratuta, 1982an, «*Mendibururen idazlan argitaratugabeak. Lehen liburua eta bigarren liburua*». Tituluak adierazten duen modura, Mendiburu oiartzuarraren lan argitaragabeak biltzen dituzte bi tomoek.

Larramendiren eskolakoa den beste bat, baina jesuita ez dena dugu jarraian aipatuko dugun hau:

Juan Antonio Ubillos, 1722-1789, apaiza eta prosagile fina. Honek ere gai erlijiosoak erabili zituen. «*Cristau doctriñ berri-ecarlea Cristauari dagozcan Eguia sinis-beharren berria dacarrena. Jaun Claudio Fleuri Abadeac arguitara zuanetic*», 1785. Liburu hau itzulpen-moldaketa da (45).

Francisco Xabier Munibe «*Peñafloridako Kontea*», Azkoitiko «*Zalduntxoen*» sortzaileak, 1729-1785, «*Gabon-sariak*» antzerkitxoa argitaratu zuen 1762an, «*Sor Luisa de la Misericordia*» izenpean. Ilustrazioko lehen izpia eta estilo jolaskorra duen agergarrikerik bereziena da. Handik bi urtera, «*El borracho burlado opera cómica en castellano y vascuence*» antzerkia ere idatzi zuen (46).

Azkoitian jaio, bertako alkate izatera iritsi, Diputatu foral eta Gorteetako Diputatu izan zen politikari honek, garai hartako Gipuzkoari kultur arloetan ere bultzada handia eman zion, zorionez. Gizon jakitun, bai letretan bai zientzietan nabarmendu zen.

Juan Bautista Agirre, Asteasuko erretorea, 1742-1823, fama handiko hizlaria izan zen, eta prosa erlijiosoan «*Eracusaldiac*», igandeetako meza nagusietan eman zituen sermoiak utzi zizkigun. Erabili zuen euskaragatik klasiko preziazatutza hartu da (47).

Agustin Pascual de Iturriaga, 1778-1851, apaiza, irakaskuntza arloan eman zuen bere bizitza eta gai honi buruz egin zituen lanak hauexek dira: «*Arte de*

43. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 154-158 zka.

44. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 159-162 zka.

45. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 163-165 zka.

46. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 129 zka.

47. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 248-250 zka.

*Aprender a hablar la lengua Castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa*» idatzi zuen, eta elkarrizketa bi zutabetan pare pare jarri, argitaratu. Lehen mailako eskoletatik jasotzen zuen euskarak erasorik bortitzena. Umeekin erabiltzen diren sistema antipedagogikoak salatzen ditu. Euskaratik erdarara, horixe da bidea. Menderatzen den euskaratik, ezezaguna zaien erdarara. Ez du uste, beraz, erdara euskararen etsai denik. Bata besterako zubi izan dadin pedagogia egokia erabiltzearen aldekoa da (48).

Osperik handiena eman zion liburua, «*Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*» izango da. Samaniegoren fabuletatik itzulitako berrogeitamabost alegia dira.

Jose Inazio Gerriko, 1740-1824, Seguran jaio eta Mutiloan benefiziatu egona, apaiza eta gai erlijiosoak landu zituen prosagilea dugu. 1858an «*Cristau Dotriña Guztieren Esplicacioaren Sayaquera*» liburua argitaratu zuen. Gipuzkera literarioaren goierrikera soila, hau da, Goierriko azpidialektua erabili zuen (49).

Franzisko Ignazio Lardizabal, 1806-1855, Iztuetaren herrikidea, zaldibiarra eta apaiza zen. Bi obra idatzi zituen. «*Testamentu zarreco eta berrico Condaira*». Biblia osoaren laburpen bat da, garai hartako libururik irakurriena. Bigarrena, berriz, «*Gramática Bascongada*», izenak dioen bezala gramatika-liburua (50).

Bizenta Mogel, 1782-1854, Azkoitian jaioa, Euskalerrian ezagutzen den lehenengo emakume idazlea eta ipuin-itzultzailea da. «*Ipui Onac*», 1804ean argitaratu zuen. Esoporen alegiak itzuli zituen (51).

Aizkibel, F. Franzisko azkoitiarrak, 1798-1865, ia dena erdaraz idatzi zuen, baina badu euskal hiztegi bat: «*Diccionario Vasco-Español titulado Euskeratik erderara bihurtzeko Itzurgia*». Larramendiren hiztegian oinarritu zen. Euskal ortografia berriak asko zor dio eta euskalki bateratu bat sortzeko Akademia baten beharrez ere aritu zen.

### 13.2. Beste euskalkietan, Iztuetaren idazle garaikideak:

Bizkaiera literarioaren sorrera:

Juan Antonio Mogel eta Urkiza, 1745-1804, Eibarren jaioa, bizkaiera literarioari hasera eman zionetako autorea eta apaiza izan zen (52).

Lehen obra «*Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusteac*», 1800ean eta gipuzkeraz dago.

«*Peru Abarca*», 1881ean argitaratua, bizkaieraz idatzia. Ez lehen euskal nobela, baina bai euskal nobelagintzaren lehen urrats sendoak ipini zituen liburua. Euskal literatur arloan, bi mendetan eragin handia izan zuen, tesi-liburua. Bere gaia haxe da: Peru Abarka, pertsonaia nagusia, baserritarra, Basarte «unibertsitatean», baserrian bizi da. Baserriko bizitza, ohitura, pentsakera, jakintza, fedea, dena da ona. Maisu Juan, barberoa du solaskide, baina gai guztietan azken hitza Peruk du. Beraz, tesi-liburua: «baserritar» eta «euskaldun on» gauza berbera.

48. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 283-284 zka.

49. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 251 zka.

50. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 285-286 zka.

51. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 276-277 zka.

52. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 227-238 zka.

Juan Jose Mogel, 1781-1849, apaiza, Bizentaren anaia eta J. Antonioren iloba da. Bere obra: «*Baserritar nequezaleentzaco escolia*», 1816an argitaratutako erdi-nobela den eta bizkaieraz idatzita dagoen liburua.

Frantziskotarrak bizkaieraz:

Pedro Antonio Añibarro, 1748-1830, frantziskotarra, Areatzan jaioa, misiolaria, bizkaiera literarioaren beste sortzaile bat dugu hau ere (53).

Bere obrak: «*Escu liburua*», 1802an argitaratua. «*Lora-sorta espirituala eta Propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*», 1803an. «*Gueroco Guero*». Bizkaierara itzuliak azken bi liburu hauek. Prosa erlijiosoa eta herrikoa erabili zuen, nahiz eta tarteka-marteka Larramendiren gehiegikerien eragina nabari.

Pedro Astarloa, apolojistaren anaia, 1751-1821, frantziskotarra, 1816-1818 urteetan «*Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*», bere sermoiak, bizkaieraz argitaratu zituen, prosa herrikoa erabiliz (54).

Frai Mateo Zabala, 1777-1840, Bilbon jaioa eta frantziskotarra zenak ere bizkaiera erabili zuen. «*Fabulas en dialecto vizcaino*» idatzi zuen (55).

Bizkaieraz idatzi zuena, baina frantziskotarra ez zena hauxe dugu:

Fray Bartolome Santa Teresa, 1768-1835, Markinan jaio eta karmeldar zenari, Iztuetak polemikazko eskutitz bat idatzi zion, dantzak zirela eta ez zirela (56).

«*Euscal Errijetaco olgueeta eta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*» 1816an argitaratua. Liburu hau moral aldetik, dantzei buruzko kritika izan zen. Larramendiren aurka, agian, honen izena ez aipatu arren.

«*Icasiquizunac*», bere sermoiak dira, 1816-1819 urteetan argitaratutako hiru liburu.

Nafarroan, Elkano herrian jaio, jesuita izan eta hauek hemendik jaurtitzean, apaiz bezala bere jaioterrian bikario izan zen Joakin Lizarragak, 1748-1835, Iruñea inguruko euskalkian asko idatzi zuen. Argitaratutako liburuak jarriko ditugu:

«*Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac ...*», 1846an argitaratua.

«*Jesus. Copla gisa batzuc molde guztitacoac, celebratus Jaunaren amoreac ta favoreac*», L. Luziano Bonaparte printzeak Londonen argitaratua, 1868an.

«*Jesus-Cristoren evangelio sandua Juanec dacarren guisara*».

«*Doctrina Christioaren cathechima*» 1979an Juan Apezetxeak paratua.

«*Ongui iltzen laguntzeco itzgaiac*», 1984, Franzisko Ondarrak paratua.

«*Urteco igande guztietaraco predicu laburrac*» 1990ean Patxi Ondarrak paratua.

«*Koplak*», 1984ean Juan Apezetxeak paratua eta J. Lizarragaren koplak argitaragabeen edizio kritikoa, hiztegitxo batez.

Iparraldeko eta Iztuetaren garaiko idazleak:

Martin Duhalde, 1753-1804, Uztaritzen sortu, apaiztu eta prosa erlijiosoa landu zuen. Hara hemen adibide bat: «*Meditacioneac gai premiatsuen gainean*», 1809an lapurtera erabiliz idatzi zuen (57).

---

53. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 239-247 zka. Gazteleraz idatzitako beste obra batzu ere baditu.

54. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 257-259 zka.

55. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 266-271 zka. «*El Verbo Regular Vascongado*» eta beste lan batzu baditu idazle honek.

56. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 260-263 zka. Prosa erlijiosoa eta itzulpenak ere baditu.

57. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 168-171 zka.

Salvat Monho, 1749-1821, Isturitzen jaio zen. Erlijio-gaia duten poesi sail bat utzi zuen. Honek ere lapurteraz idatzi zuen.

Datu hauek ikusita, ondorio hauetara irits gaitezke: lehenik, Iztuetaren garaikide gehienak eliz-gizonak izan ziren, bigarren, horiek erabili zituzten gaiak ere erlijioari buruzkoak izan ziren, eta hirugarren, euskarazko lanen gaiak zabalzen doaz.

### 13.3. Iztuetaren bizitzarekiko euskal idazle berantiarrek:

Atal honetan Iztuetaren zahartzaroarekin batera euskal literaturari eragin handia eman zioten bi korronte aipatuko ditugu: L. Luziano Bonaparterekin euskal dialektologiaren azterketa sakona eta bere lan-taldea, alde batetik, eta beste aldetik, euskal erromantikoen mugimendua.

— L. Luciano Bonaparte:

1813-1891, Ingalaterran jaio eta Napoleon lehenaren iloba zen. Seguru asko, D'Abbadieren bidez izan zuen euskararen lehen berri sakona eta 1856an, Urruñan «Lore-Jokoak» deitu jaietan izan zen.

Euskararekiko bere lanik garrantzitsuena euskalkiak aztertzea eta lehen atlas linguistikoa egitea izan zen. Bost bidaiak luze egin zituen, eta bidaiak horietan ahozko euskalkiak eta euskalki desberdinetan idatzitako testu berberak aztertu zituen. Langintza horien emaitza nagusia hauxe izan zen: «*Le verbe basque en tableaux*», 1869, eta «*Deux cartes des Sept Provinces Basques*», 1869. Euskal dialektologian, gaur oraindik, balio handiko lanak dira. 1987an Txillardegiren zuzendaritzapean argitaratu den «*Euskal Dialektologiaren Hastapenak*» liburua-ren hitzaurrea eta sarrera (58) irakurtzea nahikoa da, hori frogatzeko.

Azpieuskalkietara itzultzen lagundu zioten euskal idazle batzu aipa ditzagun: Emanuel Intxauspe, 1815-1905, Zuberoan jaioa, apaiza, idazle oparoa.

Jean Pierre Duvoisin, 1810-1891, Lapurdin jaioa, aduanako langilea, itzulpen lanak eta sorkuntzakoak ere egin zituen, adibidez, «*Laborantzako liburua*», 1858. urtean nekazaritzari buruz argitaratu zuen obra da.

Jose Antonio Uriarte, 1812-1869, Bizkaian jaioa, frantziskotarra. Biblia osoa itzuli zuen.

Klaudio Otaegi, 1836-1890, Zegamarra eta itzulpen ugari egin zuen gipuzkeraz.

Bruno Etxenike, 1820-1893, naparra eta Bonapartek aginduta nafarrerako itzulpenak egin zituen.

— Euskal Erromantizismoa:

Klasizismo eta akademizismoaren disziplina eta hemezortzigarren mendeko arauak hautsiz, arte-literatur mugimendu berritza hartzen dugu guk hemen Erromantizismoa. Mugimendu hau XVIII. mendearen azken aldera eta XIX. mendearen lehen bi hamarkadetan gauzatu zen Europan zehar. XVIII. mendeko razionalismoaren aurka, XIX. mendean beste balore hauek gailendu ziren: norbe-

---

58. TXILLARDEGI / BESTE AUTORE ASKO (1987), «*Euskal Dialektologiaren Hastapenak*». UEU, XXXVIII - LIX or.

raren sentsibilitatea, melankolia, izadi-zaletasuna, herri-mina, folklorea, ohiturak, exotismoa, edo ertaroaren berpizkundea eta «nitasunaren» kultura, klasiko eta akademi arauen kontra.

Mugimendu honen haserako idazle errepresentatibo bat aipatuko dugu: Jean-Jacques Rousseau, 1712-1778, «*Emile*» liburua 1762. urtean idatzi zuen. Ondorengo literaturan bere eragina oso erabakiorra izan zen.

Rousseau-k liburu horretan, hauxe frogatu nahi izan zuen: gizona, bere izaera basati eta berezkoz ona, jatorra eta perfektoa da, baina, gizarteak eta zibilizazioak hondatu eta usteldu egiten du.

Enziklopedisten aurka, arrazoiaren aurka, ideia hauek defendatu zituen: sentimenduaren garrantzia, «nitasunaren» goraiamena, literaturaren irudi berriak edo ondorengo Erromantizismoaren oinarriak ipini zituen: literatura-idealen eta norberaren sentimenduen defentsa da.

Mugimendu zabala izan zen, herrialde gehientsuenetara iritsi bait zen; zinez eragin handiko mugimendua hauxe, gizartearen arlo nagusietara hedatu zen eta.

Espaniako literaturan erromantizismoa berantiarra gertatu zen, 1833. urte ondorengo hain zuzen.

Katalunian ere, urte horretan agertu zen «*La Patria*» liburua katalanez idatzi eta kultur bideetarako katalanaren errebindikapen osoa eginez (59).

Euskalerrian, zenbait autoreren iritziz prerromantikotzat har genitzake «*Peru Abarka*» eta Iztueta «*Dantzen Condaira*» (60).

Garaiko ideia eta kultur giro erromantikoetan sortu zen Mogelen liburua, giro emozional eta irrazionalista horren euskal itzulpena. Halere, Mogelek ateratzen dituen ondorioak ez zaizkie Rousseau eta ondorengoei gehiegi hurbiltzen, Peru kristau eta ezarritako ordenaren defendatzaileak ez baitu ia zer ikusirik «*Emile*» liburuaren idealarekin, baina baserriko giro herrikoia defentsa sutsua egingo du.

Aldi berri honen hastapenetan, euskal folklorea sistematikoki sailkatu, deskribatu eta balioa ematen hasi zen lehena Iztueta izan zen. Erromantizismoak gerora sortuko zuen «ohiturismo» berriaren hastapenetan agertu zen gure zaldibiar idazle sutsua.

Ondoren aipa ditzagun euskal literaturako Erromantizismoaren adibide garbi batzu:

Pierre Topet «*Etxahun*», 1786-1862, Barkoxen, Zuberoan jaioa, bizitza trafikoa eraman ondoren familiak bere olerki guztiak erre eta herriak ahoz aho kontserbatu zuen bertso-sail handi bat. Horrela, gaur ere oraindik, dastatu ahal ditugu «*Etxahun' en bertsoak gipuzkeraz*» Yon Etxaidek eta Jean Haritschelharrek egindako liburu bikainei esker (61).

Jose Mari Iparragirre, 1820-1881, Urretxun jaio, munduan zehar ibili bere abesti eta gitarrarekin eta hara hor, non utzi zigun abesti mordo, hauen artean ospetsuena «*Gernikako Arbola*» delarik.

Euskal poeta erromantikoen arteko gartsuena eta Euskalerrian sentipenak kantatu zituen koplakari bikaina.

---

59. ARIBAU (1830), «*La Patria*». Ikus Larousse, Nueva Enciclopedia (1984), Planeta, 8.641 or.

60. SAN MARTÍN, JUAN (1967), «Iztueta, el Precursor del Folklore Vasco». *La Gran Enciclopedia Vasca II* Retana. (427-428 or.), 428 or.

61. ETXAIDE, JON (1969), «*Etxahun' en Bertsoak Gipuzkeraz*». Itxaropena, Zarauz. HARITSCHELHAR, JEAN (1969), «*Le Poète Souletin, Pierre Topet-Etxahun, (1786-1862)*». Bayonne.

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx», 1831-1876, Donostian jaioa eta erromantikorik bada euskal literaturan, lehen postua dukeena.

Bere bizitza nahikoa trajikoa izan arren, maitasun kanta ugari utzi zizkigun donostiar erromantiko honek.

Joseph Augustin Chaho, 1810-1858, Zuberoan jaioa, bidaiak eginez bidai liburu, gramatika, «Aitorren lejenda» ... utzi zizkigun. Bere bizitza eta obra aztertu ondoren, beste erromantiko baten aurrean aukitzen gara.

Antoine D'Abbadie, 1810-1897, Irlandan jaioa, aita zuberotarra, Chaho-ren laguna zen. 1849 arte munduan zehar zientzi arloko ikasketak eginez ibili zen, bere egoitza Hendaiaiko jauregian kokatu zuen arte.

Chaho eta D'Abbadie-ren konparaketa adierazgarria egingo dugu: biak lagunak baina Chaho Zuberoan jaioa, D'Abbadie, ordea, Dublinen. Chaho-ren ehorzketa zibila izan zen eta D'Abbadie katoliko sutsua. Chaho irudikorra, erromantikoa, iraultzailea, D'Abbadie, berriz, zientzilaria, ikertzailea eta hotza. Baina elkar ezagutu zuten eta elkar-langintzan «*Etudes gramaticales sur la langue euskarienne*» euskal gramatika 1836an argitaratu zuten (62).

Urruñan hasi eta urteetan, 1853-1901, jarraitu zuten D'Abbadie-k antolatutako euskal festa eta lehiaketek. Leku ezberdinetan ospatzen ziren, lehen Urruñan, gero Saran urte askotan, azkenik urtero leku ezberdinetan eta horrela kirolari eta olerkari berriak sortuz joan ziren.

Erromantizismoaren beste azken agerpen bat aipatu besterik ez dugu egingo: herri-kanten bilketak egiten hasi ziren, G. Borrow, Fr. Michel, Sallaberry eta Manterola; gogoan izan honen «*Cancionero Vasco*» aldizkaria.

Gai hau buka dezagun Juan San Martin-en zita batekin:

«El período romántico del siglo pasado es lo más importante y decisivo para el florecimiento de la literatura vasca. Este gran movimiento se inicia con Iztueta que empieza una recopilación sistemática del folclore, que supone una valoración del acervo popular, del que los extranjeros Borrow y Fr. Michel se interesaron de lleno en fecha inmediata al zaldibiarra» (63).

---

62. ESTORNES LASA, BERNARDO (1969), «*Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*». Literatura I, «*Zuberoa y sus dos hijos Chaho y Abbadie*». Auñamendi, (329-350 or.), 335 or.

63. SAN MARTÍN, JUAN (1977), «*Gogoz: Gure herriko gauzak. Erromantikoen garaia*». CAP, (244-247 or.), 246-247 or.





## BIZITZA

Iztuetaren bizitza hitz gutxitan azaltzea ez da erraza. Juan Inazio Iztueta Etxeberria 1767ko azaroaren 29an jaio zen Zaldibian, «Iztuetaenea» edo «Kantandegi» etxean, eta bertan hil zen, 77 urte zituenean, 1845eko abuztuaren 18an. Gorabehera asko izan ziren XVIII-XIX mende bitarte horretan, eta jakina, Iztuetak ere jasan edota bizi izan zituen.

Bere gurasoak Joseph Iztueta, Lazkaokoa, eta Maria Inazia Etxeberria, Zaldibiakoa, izan ziren. Hauek 1755eko otsailaren 24ean ezkondu ziren Zaldibian, Josephek 23 urte zituen eta Mariak 18. 12 seme-alaba izan zituzten, 7 mutil eta 5 neska. Juan Inaziok 5.a izan behar zuen. Harremanik handienak Diego Inazio, anaia zaharrena, Maria Ana, Joxe Mari eta Frantzisko Inaziorekin izan zituen.

1766. urtean jaso zuten bere gurasoek Iztueta-enea etxea, Juan Inazio jaio baino urtebete lehenago. Honek esan nahi du bere gurasoak ez zirela lastaigile behartsu batzu, zenbaitek esan ohi duen bezala; izan ere 1775eko Martxoaren 4ean Batzarre Nagusiek (1), Erreterian, onartu zuten Iztuetatar hauen noblezia, eta halaxe zegokien Lazkaoko dorretxetik zetozen ondorengoei, Iztueta dorretxea. Gaur egun ere ikus daiteke etxe honen aurrekaldean harrizko armarri handi bat.

Juan Inazioren aita Zaldibiako udaletxeko diruzain bezala agertzen da (2), eta eliza nagusian zeukaten euren hilobia, hau ere bada zerbaiten seinale. Aita, 1789ko irailaren 29an, 53 urte zituela, hil zen. Ama, berriz, 1808ko epailaren 27an, eta gainera gorabehera eta nahigabe ugari pasa ondoren, alde batetik Juan Inazio kartzelan zegoelako eta bestetik Joxe Marik, beste seme bat, jaramonik egiten ez ziolako; honetaz gain Frantzisko Inazio, beste seme bat, izkutatu eta arrastorik gabe gelditu ziren. Esan bezala Juan Inazio espetxean, eta luzaroan gainera, egon zenez eta honen lehenengo emaztea, Linzuaingo Joakina, 1802an hil zenez, hauen umeen ardura ere bere gain hartu behar izan zuenez, uler daiteke nahigaberik asko jasan behar izan zuela.

Iztuetaren bizitza ez da ondo ezagutzen. Une eta denbora batzu ilunak dira, adibidez jaio zenetik 1790 urteko ilbeltzaren 11 arte. Data horretan ezkondu zen Urrietako Linzuaingo Mari Joakinarekin. Iztuetak 23 urte zituen eta Joakinak 19.

---

1. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia vasca, Bilbao, 29 or.

2. GARMENDIA, JOSÉ (1978), «*Iztuetaren Olerkiak*». Kardaberaz bilduma 33, 19 or.

Garai hartan Zaldibian 96 sendi bizi omen ziren nekazaritza edota artzantzatik eta 18 kaleetxe omen zeuden.

Iztueta gorputzez txikia, gaztain koloreko ile eta betileak, bizar zerratua, begirada bizia, argia eta maltzur samarra omen, hitzegitean bere benetako asmoak izkutatzeko zuen diplomazia eta abileziagatik «Txuri» ezizenez ezagutzen zuten. Bere buruaz hauxe zioen berak:

«gizon lego eskolatu bageko jakin ez-bat» (3).

Nahiz eta bere prosak eta bere lanak hori gezurtatu egiten duten. Berehala nabarmetzen da; baina, ez dakigu non ikasi eta hezi zen, beharbada Lazkaoko karmeldarren etxean, horren arrazoi edo hauek izan daitezke: alde batetik amak, bere heriotz-orduan 3 meza agindu zituelako eta bera ere 1827an karmeldar batekin harremanetan, elkarri idazten zioten, zegoelako.

Badakigu tertuliatan parte hartzen zuela, eta kezkatu agertzen da eskolaz eta irakaskuntzaz, alde batetik Zaldibian eskola desagertzeaz zegoelako eta bestetik ez zitzaiolako buruan sartzen nolatan irakasten zuten erdaraz, haurrek hitzik ere ulertzen ez zuten hizkuntza batean.

Lehen esan dugu 1790 urtean ezkondu zela lehenengo aldiz, 5 seme-alaba izan zituzten ezkontza honetan: Joxe Inazio, dantzaria (gerora aitarekin bizi izan zen eta ondoren Irunen), Maria Ana, Maria Antonia, Joxepa Frantziska eta Joxe Manuel. Maria Antonia eta Joxepa Frantziska aitarekin bizi izan ziren denbora dexente.

1790-1800: Bitarte horretako bere bizitzaz, labur-labur esanda, zera dakigu:

1791: Herriko azokan gauza asko hornitu eta saltzen ditu (olio gozoa, balea, ...). Langintza honetan ezkon-anaia, Joxe Antonio, zuen «abalemale».

1792: 2 errota hartzen ditu alkilerrean.

1793: Maria Mikaela, arreba, hil zitzaion 22 urte zituela.

1794: Bere besoetako ilobarik kuttunena jaiotzen da (Juan Inazio Manzisidor).

1794: 3. haurra izaten dute, Maria Antonia.

1798: Oraindik gordetzen den agiri baten bidez, garai hartarako handia zen artaldea, saldu zion Joxe Antonio Lasari. Neguan Donostia aldean larratzen zuen.

1799: Anaia zaharrena, Diego Inazio, hiltzen da.

1799: Juana Frantziska, arreba, ezkondu zen P. Joxe Armendarizekin Azpeitian.

1799: Lehenengo emaztearengandik 5. eta azkeneko semea izan zuen, Joxe Manuel.

Ikus daitekeenez berri gutxi hainbeste denborarako. Aldi honetan Zaldibian bizi izan zen, tarteka Donostiara eta Iruna joaten zelarik.

Hobeto ezagutzen ditugu XIX. mendeko lehenengo urteak. Urte gogorak izan ziren hauek Iztuetaarentzat, bere bizimodua ez omen zen oso zuzena (garai hartako pentsamendu eta ikuspuntutik, jakina). Salaketa asko izan zituen eta auzi ugari erlijio gaietan axolagabekeria eta emakumeekin ibilera txarrak leporatzen zizkiotelarik (4).

3. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), «Guipuzcoa'ko Dantza Gogoangarriak». Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 46 or.

4. ELOSEGI, JESÚS (1971), «Algo sobre la prisión sufrida por Juan Ignacio de Iztueta». BAP XXVII Cuadernos 1.º y 2.º. S.S. 19-46 or.

1801eko abenduaren 6an atxilotu egin zuten Ordizian, eta badirudi Gaintzako Martin Antonio Aldasoro eskribauaren etxean lapurreta (bere anaiarekin batera) egiteagatik izan zela. Hilaren 18an Tolosako espetxera eraman zuten, hemen zegoela hil zitzaion, 32 urte zituela eta Zaldibian, emaztea, hots, Joakina Linzuain.

1802ko maiatzaren 11n Azpeitiko kartzelara eraman zuten.

Duela gutxi arte bere mundualdi hau oso ilun bazegoen ere, Jesus Elosegiri Irazustak (5) Gipuzkoako Artxiboetan aurkitutako idazki batek argibide bikaina ematen digu garai honetako bere egoeraz.

Ondoren, Jesus Elosegiri jarraituko gatzazkio (6), berak asko argitzen bait digu denboraldi hau. Beraz eta labur-labur ikus ditzagun garai honetako datarik aipagarrienak:

1801-1807 bitarteko tarte hau iluna da, izan ere Juan Inazio espetxean egon bait zen eta berak ez digu ezertxo ere esaten, eta argitasun piska bat egiteko tarte horretan gertatutako zenbait pasarte aipatuko ditugu:

Iztuetak Logroñoko kartzelan eman zuen denboraldia Gorosabelen bidez ezagutzen dugu (7), izan ere bere garaikideen artean bera da Iztueta aipatzen duen bakarra. Horrela bada, eta giroa nola zegoen jakiteko zenbait gertakizun aipatzea komenigarria delakoan, ondorengo hurbilketa hau egingo dugu:

1797-1801: J. Elosegiri jarraituz (8), esan zenbait auzi izaten dela Zaldibian, zeinetan Iztueta eta Zaldibiko apaiza zen Joseph Inazio Etxabe, bere salataria, lekuko-idazkaria (Frantzisko Antonio Etxabe, bikarioaren anaia) eta lekuko bat (M. Antonio Lasa), haserretu egin bait ziren, Juan Inaziok egin zituen zenbait adierazpen zirela medio.

1801-V-30: Joxe Etxabek, 30 urteko artzai zaldibitarra, deklaratu zuen aipatu egunean Bergarako ferian izan zela Juan Inazio Iztueta eta Juan Inazio Garmendiarekin. Bidaia horretan sarritan entzun omen zizkion Iztuetari honelako esaldiak: «behin hilez gero ez dagoela ezer», «sexu-iharduera libre dela», «mezatara jendearen ahotan ez ibiltzeagatik joaten zela», etab.

1801-VI-9: Iztuetak auzian deklaritzen du Inazia Lopez de Llerenarekin harreman sexualak izan dituela; baina, ez jendeak zioen bezala beste batzurekin; eta neska edo emakume horrek bere jatorria utzi bazuen ere ez zela izan berarekin ihes egin zuelako, bera, Juan Inazio, ez bait zen Zaldibiatik atera, baizik eta bere aginduz lagun batek, Domingo Kerexetak, Balmasedara eraman zuen, non erditu bait zuen, eta gero Bilbora joan zen neskame.

1801-VII-13: Zaldibiako bikarioak, Joseph Inazio Etxabek, Inkisizioaren aurrean salatzen du Iztueta. Salatariak formal fama du jende artean.

1801. urteko abenduaren 6an atxilotu egin zuten Iztueta, eta hemen hasiko zen gure gizonarentzat zenbait urte iraungo zuen bizimodu latza. Orain arte bere kartzelaldiaz asko ez bagenekien ere, orain Jesus Elosegiri (9) esker gauzak asko argitu dira eta Iztuetaren bizitzaren zati honi aipamen berezia egingo diogu.

---

5. ELOSEGI, JESÚS (1968), «*Iztueta preso en Guipúzcoa y Logroño*». BAP XXIV Cuaderno 1.º. S.S. 57-59 or.

6. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 19-46 or.

7. GOROSABEL, PABLO de (1862), «*Diccionario Histórico Geográfico Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldas y Uniones de Guipúzcoa*». Tolosa, pag. Zaldibia.

8. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 21 or.

9. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 22 or.

Jesus Elozegi da denboraldi honetaz (1801-1807) argibide ugari eman dituen eta berari atxeki gatazka (10) gehienbat.

1801-XII-6. Ordizian Iztueta atxilotzen dute, Martin Antonio Aldasororen etxean gertatutako, Gaintzako izkribaua, lapurreta bat leporatzen ziotelarik. Egun honetan hasi zen Iztuetarentzat kartzelaldi luzea.

1801-XII-18: Ordiziako kartzelatik Tolosakora eramaten dute Iztueta.

1802ko otsaila: Bertsolari-lehiaketa Billabonan.

Ladislao Velascok (11), publizista arabarra berau, bere argitalpen interesgarri batean hauxe dio:

«1802ko otsailean Amezketako Zabala eta Hernaniko Txabalategiren artean bertso-txapelketa bat ospatu zen. Irabazleak urrezko 10 ontza jasoko zituen. Epai-leak, amezketarrarena Iztueta izango zen, bestearen aldetik Aizarnazabalgo sakristaia eta hirugarrena, neutrala, Tolosako apaiza zen Joxe Mendizabal».

Saioak bi ordu iraun zituen eta lau mila lagunetik gora bildu omen ziren.

Ondo dakigu Gorosabelek (12), «Noticia» liburuan, 2. edizioa, 363-364 orrialdeetan, Billabonako lehiaketa 1801ean ospatu zela esaten digula; baina, Iztuetaren ondorengo datuok lantzean okerren bat izan zuela uste dugu.

Iztuetak, bere aldetik, GDK liburuan (13) zertxobait esaten digu lehiaketa honetaz. Hauxe dio:

«Datorren otsailean izango-dire ogeita bi urte, Billabonaco plazan, jocatu zutela itz neurtu edo bertsoetan bostna onza urre, lendanaz apustua eguifnic. Zabala Amezquetarrac eta Chabalategui Ernanicoac, ceñean izandu nintzen ecadoi edo jueztaco billatua; baña egun batzuec aurretik eritasun chiqui-batec artu-ninduelaco, ez nuen serbitu, eta nere ordez eramana zuen bere erritar Fernando ...».

Iztuetaren liburu hau 1824ean argitaratu zen Donostian; baina, uste dugu esaldi horiek 1823an idatzi zituela, 1824eko otsaila baino lehen, eta horregatik ateratzen dugu Billabonako norgehiagoka hori 1802an izan zela. «Eritasun chiqui-batec artu ninduelaco ...», horrela itzuli behar da: «eritasun=espetxe», «gaitz» hori bait zuen bi hilabete lehenagotik.

Billabonako udaletxean ez dago hau baieztatzeko edo ezeztatzeko balio duen agiririk.

1802-III-2: Dirudienez urte hartako ihauterietan izugarrizko bertso-saioa izan zen Tolosan. Iztuetak, Gorosabelek eta Velascok, fetxari dagokionean hirurak bat datozkigularik, Tolosako bertsolari-txapelketa horretaz hitzegiten digute. Velascoren hitzak honako hauek dira:

«el certamen más notable que ha conocido este siglo (siglo XIX)» (14).

10. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 19-46 or.

11. VELASCO, LADISLAO (1879), «Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vitoria. Sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones». Barcelona, 442 or.

12. GOROSABEL, PABLO de (1970), «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa». 2. edizioa, Bilbao, 363-364 or.

13. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), aip. ob., 339 or.

14. GOROSABEL, PABLO de (1970), aip. ob., 364 or.; VELASCO, LADISLAO (1879), aip. ob., 442 or.

Iztuetak, batzutan egia ezkutatzuz, honen berri ematen digu, bera zegoen kartzelatik entzun bait zitezkeen bertsoak. Honelaxe dio (15):

«Tolosako erri leñarguitico batzartar jaunac, 1802-garren urteco Iñauteriaren azkenengo arratsaldean, biribillatu zituzten lau itz neurtulari, Guipuzcoan aurqui altzitezquean onenac; Zabala, Pernando, Chabalategui eta Altamira, lauac letra bat-bacarra ere ezagutzen etzutenac.

Plaza zarreco baranda banatara igoric, cantatu zuten arratsalde guztian bi bitara. Ain atseguintasun aundicoa ta pozquidatsua izandu zan arratsalde gogoangarri ura ezic, illunduta guero ere, deadarda-ceuden enzuleac aurrera ere canta eraguiteco, eta uste det, baldin, eguna zabaldu arterañoico guztian ere izandu balira cantari, etzala-aldenduco enzuleen artecoric inor-ere».

Bera, behintzat, ez zen aldenduko, preso bait zegoen.

1802-III-26: J. Elosegiri jarraituz (16), Juan Inazioaren lehenengo emaztea, Maria Joaquina de Linzuain, hiltzen da Zaldibian.

Berak, Iztuetak, 3 hilabete eta 20 egun preso zeramatzala hil zen bere emaztea, honek 31 urte eta hilabete batzu zituen hiltzean.

Iztuetaren kontrako auzian, Logroñoeko epaitegiko sumarioan daude, lekuko batek deklaratu zuen Juan Inaziori ondorengo hitz hauek entzun zizkiola esanez (17):

«él dormía en un desbán de su casa y su mujer en un cuarto bajo y que esta podía hacer libremente lo que le gustase con cualquier otro de que se alegraría, pues él haría lo mismo con cualquiera que se le franquease en cualquiera parte pues para ello era libre y que para executar acciones de luxuria de nadie le daba cuidado alguno ...».

Beste lekuko batek hitz hauek entzun omen zizkion (18):

«Estaba desesperado de su mujer ... y que observó que en efecto no cohabitaba con ella y que le parecía que la causa era haver perdido el amor a su mujer por el comercio y vida relajada que tenía con otras ...».

Zaldibiako izkribauak bere salaketak baieztatzean bere herritar bati, Franzisko Inazio Albisu Iribe, entzundakoak gehitu zituen, hots, gela desberdinetan egiten zutela lo eta:

«y que si paría nunca creyesen que la prole fuese suya».

Hauek salaketak baino ez dira, eta aurrerago ikusiko dugu epaimahaia arduratu zela salaketa horiek egiak ala gezurrak ziren ikertzen.

Ez dakigu nola hil zen Iztuetaren lehenengo emaztea, gaitzak jota edo sufrimenduak jota.

1802-VI-18: Juan Inazio Iztuetaren ama, alarguna, diru premian azaltzen zaigu. Lau hilabete eta 20 egun zeramatzan preso Tolosako kartzelan, bere amak,

---

15. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), aip. ob., 346 or.

16. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 24 or.

17. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 24 or.

18. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 24 or.

ordurako alargundua, Pedro Joxe Armendarizen aldeko, suhia, «escritura de favor» egin zuenean (19):

«... por la penuria de los tiempos, subsistencia suya y de sus hijos menores y ocurrir a otras urgencias, se ve en precisión de buscar cien ducados de vellón a censo ... hipotecando ... la de su casa de Iztuetaenea y su huerta ... y algunos bienes de su fiador Juan Lorenzo de Echave ...».

1802-V-11: Juan Inazio Iztueta Tolosatik Azpeitiko kartzelara eramaten dute.

1802-V-27/VIII-29: Joxe Mari Iztuetaren, Juan Inazioren anaia, iharduera:

Juan Inazio espetxean dagoen bitartean, bere anaia, Joxe Marik, 23 urte zituelarik, organoa jotzen ikasi zuen Loiolako jesuitetan eta 1803ko maiatzaren 2an Zaldibiko agintariei idatzi bat bidaltzen die herriko organista eta maisu izenda dezaten. Garagarriaren 6an maisu izendatzen dute, 6 hilabetetarako haseran.

Urte bereko uztailaren 7an Zaldibiako organista izendatzen dute, urtean 120 bilion-dukatzat izango ditu soldata gisa. Joxe Mari ikasle izan zen bitartean, Azpeitian, osabaren etxean egon zen eta berari mantenu gastuak zor zizkiotenez, bere amak osabaren aldeko eskritura bat sinatu behar izan zuen zor horiek kitatzeko. Abuztuaren 28an ezkondu zen Joxe Mari Xabiera de Bikuñarekin.

1802-V-29: Bien bitartean, oraindik Elosegiri jarraituz, Etxabe salatariak berean jarraitzen du, eta honelaxe dio (20):

«... reconoció su delación (anterior, de 13-7-1801) y añadió haver oído a su Herm<sup>o</sup> dn, Franc.<sup>o</sup> que este reo había dicho que él no cohabitaba con su propia mujer, ni jamás cohabitaría como se lo tenía dicho a ella, y antes bien sería su maior gusto que ella se juntase con cualesquiera, pero que en esto no le dava gusto».

1803-III-2/IV-15: Iztuetaren amaren egoera ekonomikoa larria da oraindik. Juan Inaziok preso jarraitzen duen bitartean, bere amak, gainera datozkion arazoak ikusirik, 1803ko martxoaren 2an bere etxearen, «Iztuetaenea», tasazioa egiteko agintzen du, etxea 12.992 rs. vn. eta 28 marabeditan baloratzen dute. Zertxobait beranduago, izkribauari dauzkan zorren memoria egiteko agintzen dio, hauek, zorrak, 4.734 rs. eta 10 marabedi dira denera; dirurik gehien suhiari, Armendarizi, zor dio, Joxe Mariren mantenuagatik.

Egun berean, Joxe Mariri etxe erdia saltzen dio, honek zor guztiak bere gain hartzeko baldintzapean. Ez dakigu amak hartu zuen lasaitasuna Juan Inaziok hartu ahal izan zuen.

Baina, Joxe Marik ezin izan zien zorrei aurre egin eta amak hartu behar izan zituen bere gain, eta ez Armendarizi ordaintzeko, Etxaberi, bere fiadoreari, baik.

1803-VI-11/1804-III-14: Juan Inazio espetxean usteltzen ari zen bitartean Zaldibian gertatutako zenbait gauza aipatuko ditugu:

1803ko ekainaren 3an, Joxe Mari eta Xabieraren seme zaharrena, Joxe Inazio, bataiatzen dute.

1804ean Joxe Marik ama babesten du eta bere gain hartzen Etxaberekin zuen zorra.

19. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 25 or.

20. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 26 or.

Orokorrean eta datuen arabera garai gogorak ziren haiek Iztuetarentzat.

1804-IV-28: S. Juan apaiza azaltzen da tartean. Apaiz hau preso dago Azpeitiko konbentu batean, eta ikusten da Valladolideko Chancilleria Errealeko Cantalapiedra Bayon prokuradoreari idazki bat, zeinetan bere esku uzten bait du defentsa, bidaltzen diola. Apaiz honek esaten digu zergatik dagoen preso, eta haxe bide zen arrazoia: Maria Concepción de Bengoetxearen, gero Iztuetaren emaztea izango dena, haurraren hilketagatik.

Ez da garbi geratzen zein izan zen umearen aita, noiz gertatu zen hilketa eta, ezta noiztik zeuden espetxean S. Juan apaiza eta M.<sup>a</sup> Concepcion Bengoetxea ere.

1804-V-3: Joxe Mari eta Xabieraren bigarren haurra, Maria Inazia, bataiatzen dute Zaldibian.

1805-II-12: Garai honetan Olaberriari gertatutako lapurreta baten arrastoak azaltzen dira (21). Frantzisko Inazio, Juan Inazioren anaia gaztea, lapurra omen zen eta lapurtzat zeukaten Goierrin.

Aurrekoarekin lotuta, 1842an, Luis de Usozek eskutitz bat idatzi zuen (22), zeinetan bi anaiak, F. Inazio eta J. Inazio, elkarrekin ibiltzen zirela lapurretan eta lehenengoak, zenbait mesederen truke, bigarrena justiziaren esku utzi zuela esaten bait zuen.

Bestalde, Joxe Garmendiak esaten du F. Inazio auziperatua izan zela Olaberriako elizan kutxatxo (arquilla) bat diru lapurtzeagatik.

Olaberriako eliz liburuetan ematen da lapurreta horren berri eta F. Inaziori leporatzen diote.

1805-II-24: J. Inazio Iztueta gaiso zebilela eta bere koinatuak, Pedro Joxe Armendarizek, medikuaren agiria lortu eta fidantza ordaindu ondoren J. Inazio bere etxera eramaten du, bertan edukitzeko baldintzapean.

Horregatik pentsatzen da hemendik aurrera bere koinatuaren etxean bizi izan zela.

1805-III-2: Joxe Mari Iztueta hil egiten da, une honetan 26 urte baino ez ditu, astebete beranduago organojole berria aukeratu zuten Zaldibian, hau Martin Joseph De Jauregi izango da.

1805-III-13: Logroño. Juan Inazio Iztuetaren kontrako kartzela-epaia:

Azpeitia eta Zaldibian ikusi ditugun gauzak gertatzen ziren bitartean Logroño-ko Inkisizioaren epaimahaiak aurrera jarraitzen zuten Iztuetaren «sumarioa» betetzen. Oraindik J. Elosegiri jarraituz diogu (23).

Logroño gauzak mantso joan ziren. 1805eko martxoaren 13an Madrileko kontseilu nagusiari bidali zion bildutako dokumentazioa, idazki batekin batera; honela zioen idatzi horrek:

«Con esta y 38 foxas útiles acompañamos a V.A. la sumaria seguida en este Santo Oficio contra Juan Ignacio de Iztueta, de estado casado (sic), natural y Maestro de primeras letras de la villa de Zaldivia, Provincia de Guipúzcoa, preso en la cárcel pública de Azpeitia de orden de la RI. Chancillería de Valladolid, por indicios de haber contribuido a un robo, con nuestro voto al fin y esperamos que V.A. se sirva mandarlo ver y a nosotros lo que debemos ejecutar».

21. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art.,

22. IRIGARAY A. (1958), «Yon Etxaide, Amasei Seme Euskalerriko». BAP XIV, San Sebastián, 278-281 or.

23. ELOSEGI, JESUS (1971), aip. art., 25 or.

1805-IV-23: Armendariz kendu eta Iparragirre jartzen dute Iztuetaren zaindari. Iparragirre hau herriko alguazila zen eta aurrera ere parte izango du Iztuetaren zenbait kasutan, lagun onak izan zirela dirudi.

1805-V-1: Madrilen Inkisizio-kontseiluaren zenbait adierazpenen artean ikusten dugu Logroñoeko Inkisizioari froga gehiago eskatzen dizkiola.

1805-V-5: Azpeitia. Luis S. Juan apaizak botere berria ematen du Valladolideko prokuradorearentzat. Badakigu Gipuzkoako korregidoreak S. Juan apaizaren aldeko epaia eman zuela eta orain Valladolideko prokuradoreari ematen zion «poderearen» bidez M. Concepcion Bengoetxearekin batera zuen auzi edota arazoa erabat konpondu nahi zuen; auzi hau, zenbait datu ilun edota falta delako, oraindik argitu gabe dago.

1805-V-24/VI-17: Azpeitia. Herri horretan zegoen espetxeratua M. Concepcion Bengoetxea eta noski, bertatik eskatzen dio behin eta berriz Valladolideko Chancilleria Errealeko Cantalapiedra Bayon prokuradoreari saiatzeko bera handik ateratzen, begira zer dioen (24):

«defienda esforzadamente ... mientras consiga la absolución entera de mi siniestro atributo y la libertad de la larga dejación que ha sufrido mi inocencia y mi sexo en estado de soltería ...».

Ba al zuen Iztuetak jestio hauen berri?, ikusten al zuten elkar?, beranduago sortu al zen elkarrenganako maitasun sutsua?, bera artzai ibiltzen zenetik eza gutzen al zuten elkar? ...

1805eko uztaila: Logroñoeko Inkisizioaren sumarioako sei lekuko, zaldibiarak, berri aztertzen dira. Zaldibiar hauen adierazpenek ez dute Iztuetaren aurkako ezer azaltzen, ez dago aparteko gauzarik adierazpen hauetan.

1805-VIII-6: Logroñoeko tribunalak erabaki bitxia hartzen du: Sumarioa Madriletik Logroñora eta hemendik hara ibiltzen da denboraldi batez, dirudien ez zekitelako garbi zergatik zegoen preso, lapurtzeagatik edota erlijioaren kontra egindako adierazpenengatik. Azkenean, behintzat, espetxe sekretuetan sartzea erabakitzen dute.

1805-1806: Udazken eta negu hartan Azpeitian zenbait gertaera aipagarri jazotzen dira, eta azaletik bada ere aipatuko ditugu:

Alde batetik, Iztuetak, alarguna, eta Kontxesik, ezkongabea, harreman sexualak izan bide zituzten. Ez dakigu zein egoeratan aurkitzen zen Kontxesi, kartzelan, baldintzapeko askatasunean, ...

Bestalde, badakigu (25) Azpeitiko erretoreak, Don Inazio Nikolas Odriozola, zenbait eztabaida eta tirabira izan zituela herriko Alkate eta Iruñeko Goetzaiarekin. Agiriak 1805eko urriaren 23tik 1806ko martxoaren 8 bitartekoak dira, eta haur exposito (ezkongabeena?) bilketa, bataio eta abarrei buruzkoak dira.

Azkenik, Iztuetak «ondoezik» jarrai zezakeen, itxuraz behintzat, hori adierazten du Azpeitiko epaileak Logroñoeko tribunalari bidaltzen dion agiri batean.

Baina, 1806ko urtarrilaren 20an, Iztuetak Inkisizioari idazten dio esanez eskela anonimo bat kaleratu dela eta itxura guztien arabera Etxaberena dela, Etxabe bera salatu duena da, eta bertan egileak Iztuetaren beldur dela esaten du, besteak beste (26).

24. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 33 or.

25. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 36 or.

26. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 37 or.



Autore berarekin jarraituz (27), gorabehera guztiok direla eta sumarioan gero eta orri gehiago pilatzen dira, eta halako batean tribunaleko batek beretzat «he-rejia», «erlijioa iraintzen» dutenak direla etab. dio, beste batek adierazpen ber-dinak egiten ditu.

1806-IV-20: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionalean aurkitutako zenbait agiriren arabera badakigu Iztueta Logroñoeko espetxe sekretura eraman zutela.

1806-IV-23: Juan Inaziok hiru egun zeramatzan Logroñoeko kartzelan le-henengo deklarazioa egin zuenean.

Deklarazio honetan bere aurrekoak kristau zintzoak izan direla eta berak ere bete dituela bere eginbeharrak adierazten du. Ondoren ez duela «facultad» ikasi, atzerrian ez zela inoiz izan (Gasteizen urrutiena) eta dotrina euskaraz zekiela gaineratzen du. Zergatik dagoen espetxeraturik galdetzen diotenean, herriko bi-karioaren salaketaren batengatik izango dela edo erantzuten du. Erlijoaren kontra zerbait egin duen itauntzen diotenean ez duela kontzientziako harrik ihardesten du. Jarraitzen du esaten txikitari buru txarra zeukala eta pekatuak, ondo aitortzeko, paperean apuntatzen zituela, bestela ahaztu egiten bait zitzaizkion; baina, halako batean derrigorrezko betebeharrak egitera joan behar izan zuela paper hori mahai gainean utzita, eta mutil batek hartu omen zuen, Juan Martin Irastorzak, eta Juan Inaziok sekretua gordetzeko eskatu zion mutilari; baita han idatzita zegoena ez zela pekatu ere, ez konfesatzea baizik. Hemendik ateratzen du Iztuetak salaketa; izan ere mutil hau bere etsaiaren laguna bait da, eta dirudenez, Juan Inaziok paperekoak ez zirela pekatu etab. esan ziola kontatu omen zion J. Martin Iras-torzak Iztuetaren etsaiari. Mutil honek, J.M. Irastorzak, 23 urte zituenean de-klaratu zuen eta beste modu batean egin zituen bere aitortpenak. Lehenengo gal-derari erantzuten jarraitzen du Iztuetak, eta infernuari dagokionean, berak inoiz ez dagoela esan baldin badu txantxetan esan duela dio.

Deklarazio honek jarraitu egiten du eta azkenean Juan Inaziok hiru orri aurkezten ditu, bertan Jesukristoren jaiotzari buruzko abesti batzu (euskaraz), Dekalogoak, munduko desengainoak eta infernuko penamenei buruzko abesti batzu zeuden eta epaimahaiari kontutan edukitzeko eskatu zion. Inkisidoreak onartu egin zuen eskari hori.

Eskaera hori onartzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu.

1806-VI-30: Valladolideko Chancilleriak Iztueta bertara eramateko agindua ematen du.

1806-VII-13: Azpeitian M.<sup>a</sup> Concepcion Bengoetxearen alaba bataiatzen dute, eta aita Iztueta omen zen.

1806-VIII-1: Azkoitiko parrokiako paperen arabera egun honetan bataiatu zuten M.<sup>a</sup> Concepcion Bengoetxearen alaba; beraz, dirudenez bi aldiz bataiatua izan zen.

Azpeitiko gertaera hauek eta batez ere, espetxeratua zegoen emakume baten erditzeak, aldi berean Juan Inazio Iztuetaren kasua zeramaten bi jurisdikzio ju-dizialen arteko diligentzia ugari sortu zuen, alde batetik Gipuzkoako Korregi-mentua (Valladolideko Chancilleriarekin batera) eta bestetik Logroñoeko Inkisi-zioa, azkenean Inkisizioak lortu zuen bere lehentasunari eustea.

1806-XI-10: Madril. Oraindik ere J. Elosegiri jarraitzen diogu. Inkisizioaren ofizioak honelaxe dio (28):

27. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 37 or.

28. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 42 or.

«En 201 foxas útiles se os devuelve la causa que remitisteis con carta de 27 de Octubre próximo anterior, seguida en ese Santo Oficio por delitos de proposiciones contra Juan Ygnacio de Yztueta, natural y Maestro de Niños en la villa de Zaldivia, en la Prov<sup>a</sup> de Guipúzcoa; para que hagáis S S justicia como tenéis acordado, suspendiendo las sacas contra Dn. Joseph Ignacio de Echave».

Dena den, eta gauza asko ez jakin arren, 1806ko abenduan Azpeitia aldean dugu berriro. Uste da Inkisizioaren kondena, Gipuzkoako Korregimentuarenari erantsiz, 6 urtetakoa zela; berak ere honelaxe dio «Kontxesiri» bertsoan:

«preso sei urtez, onduco gaituzte nere ustez» (29) .

«Kontxesi»ri lana Logroñon eraman zuen denboraldian, kartzelaldian hobeto esanda, egina da, eta ageri denez, Iztuetak bazuen, zalantzarik gabe, Azpeitia eta Kontxesiren berri.

1806-XII-26: Azpeitian dugu berriro Iztueta. Oraindik preso zegoen, eta Logroñon zazpi hilabete pasa ondoren (berak ez du aipatu ere egiten), Valladolideko Chancilleriako Palacios prokuradoreari boterea ematen dio.

1807. Azpeitian Frantzisko de Iztueta lapurraren atzetik zebiltzan. Ez dakigu Juan Inazio preso ala aske zegoen, kontua, dena den hauxe da: Otsailaren 27an, Azpeitiko alkatearen aurrean, Enparango errotaria, Armendariz, eta bere emazteak, Juana Felipa Larrañagak (Armendarizen lehenengo emaztea, Iztuetaren arreba, hila zen) deklaratu zuten lau gizonak eguna eta gaua euren etxean eman zituztela eta «Justizia» zetorrela ikusi zutenean ihes egin zutela. Alkateak Armendariz atxilotzeko agindua eman zuen.

Martxoaren 18an Armendarizek aitortu zuen bere etxean koinatu bat, hiru lagunekin, izan zela ... eta fidantzapeko askatasuna eskatu zuen, etxea eta erro-taren kargu egiteko.

Maiatzaren 8an Zaldibiako alkateak, Martin Joseph Irastorza, ondorengo hau idazten dio Azpeitiko alkateari (30):

«Respondiendo al atento oficio de V.M. del 4 del corriente, digo que va de cuatro a cinco años se ausentó de esta villa Francisco de Iztueta, natural de ella, de resulta de algún robo que hizo de una arquilla de la Iglesia de Olaberria, según que así corrió la voz, y en la actualidad se dice por público que dicho Iztueta se emplea en robar sin que yo pueda a vd. no obstante asegurar su conducta, ni me consta el pueblo de su residencia, ni si se halla procesado o no por alguna Justicia».

Azpeitiko justiziak, irailaren 5ean (31):

«... mando preparar esta segunda pieza para persecución de los cuatro sujetos espresados en la primera y para que conste firmo con la referencia necesaria ... previo precepto judicial en esta referida villa hoy seis de septiembre de 1806. Escribano Vicuña».

Irailaren 17an, Azpeitiko alkateak, Donostia, Ataun, Errenteria, Hernani, Tolosa, Bergara, Mondragoi eta Lazkaoko alkateei honako ofizio hau bidaltzen die (32):

29. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 43 or.

30. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 45 or.

31. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 45 or.

32. ELOSEGI, JESÚS (1971), aip. art., 45 or.

«Hállome procediendo contra cuatro sujetos prófugos y determinadamente en uno llamado Francisco de Iztueta natural de Zaldivia, otro de cuerpo mediano, flaco, de color semejado a negro y el otro también de cuerpo mediano, flaco y color blanquizo. El primero chamarra de chinchón y calzón de traje amarillo y satas o abarcas con cubiertas de asmandarras en términos bascongados y medias de color azul, y oscuro. El segundo también chamarra de chinchón y calzón azul o que daban a negro. El tercero también chamarra de chinchón y también calzón corto de chinchón, satas o abarcas con asmandarras cortos y medias de color azul o que daban a negro, sin que pueda dar otra razón. Y siendo esto lo resultante de declaración, traslado a noticia de vd. para que pudiendo ser habidos en esa dichos sujetos o cualesquiera de ellos, sean asegurados y conducidos a este juzgado para la continuación de su causa hasta la definitiva».

Ez dakigu zertan eta nola bukatu zen kontu hau.

Biak, Juan Inazio eta Kontxesi, libre zirela, Azpeitiko elizan ezkondu ziren 1808ko otsailaren 9an. Hurrengo hilabeteen jaio zen Zizurkilen Iztuetaren hirugarren emaztea izango zena, Maria Ascension Urruzola.

1808ko martxoaren 27an hil zitzaion ama, honek bazekien semea bigarrenez ezkondu zela; martxoaren 14ean egin zuen emakume honek bere azken nahia.

1808ko abenduaren 16an izan zuten Iztuetak eta Kontxesik bigarren semea, Balentin Eusebio, hau 1824eko abenduaren 20an, 16 urterekin, La Habanan dabil eta handik idazten dio bere aitari. Balentin Eusebiori, geroago Kontxesi eta Juan Inazioren hirugarren semea, eta bere anaia den Joxe Frantzisko elkartuko zaio.

1808. urtearen azkenaldera Azpeitia inguruan zebilela badakigu; baina, hemendik aurrera eta 1813ko uztail edo abuztura arte zer edo non edo zertan ibili zen ez dakigu, ez dugu arrasto handirik.

Oraingoan ere Jesus Elosegik emango digu argibide txiki bat (33), Iztuetaren garai horretako bizimoduaz. Garai horretan Napoleon Espainian sartu zen eta Azpeitian eta beste zenbait tokitan eman ziren gertakizun batzurekin lotuta dago Juan Inazioren bizitza. Historia piska bat eginez, gogoratu 1808ko otsailaren 9an ezkondu zela Kontxesirekin, Azpeitian, eta handik gutxira hasi zela gerra ospetsu hura.

Iztuetaren GPK liburuan, honek Independentzia Gerrari buruzko zehaztasun asko, hainbat eta hainbat bitxi samarrak eta nobelakoak diruditenak ematen dizkigu, eta horregatik zenbait momentutan pentsa erazi dezakete Iztuetaren gudarako kalitateak handiak zirela; baina ez dugu uste horretan inoiz, benetan bederen, ihardun zuenik.

Infidentziaz egindako ikerketa batek, frantsesen mende egon ginen garaian, Iztuetaren bizitzako une edo urte ilun batzuei buruzko argi piska bat egiten digu aipatu Elosegik (34).

Prozesu hau Tolosan aurkitzen da, Fondo Del Corregimiento «Reserva» del Archivo General de Guipuzcoa-n, hain zuzen ere.

Auzia 1813an hasi zen, eta ohizko bideak jarraitu ondoren epaia 1815eko azaroaren 24ean eman zen, eta urte bereko abenduaren 12an konfirmatua edota baieztatua izan zen.

---

33. ELOSEGI, JESÚS (1976), «Iztueta, Afrancesado, procesado por infidencia en Azpeitia». BAP XXXII Cuadernos 1.º y 2.º, S.S. 296-301 or.

34. ELOSEGI, JESÚS (1976), aip. art., 297 or.

Aztertutakoa laburtuz hauxe esango dugu: Azpeitiko zenbait bizilagun, Iztueta tartean, 1809an, frantsesen mende egon ginen urtea, erasotzaileekin, hots, frantsesekin, kolaboratzeagatik edo tratua izategatik, «frantseszaletzat» (afrancesado) hartu zuten edota hartu zituzten herri horretako biztanle askok.

Frantseszale bat, diotenez, Don Juan Angel Errazkin zen, eta beronen etxean biltzen omen ziren, tartean D. Luis de Arozena, honen aita, anaia, e.a. omen zeuden.

Datu interesgarritzat eman dezakegu Azpeitiko iskribauak (35) Juan Inazio Iztuetaz eman zuen deskripzioa, 47 urte zituenean: baju samarra, aurpegi ederra, ile luze gaztain koloreko eta kolore bereko bekainak, sudur zorrotza, kopeta normala eta bizar zerratua. Bere irudia margotu zuten Oñatibia eta Valverderentzat probetxugarriak izango ziren xehetasun horiek.

Iztuetari prozesu honetan hartutako zenbait deklarazioren bidez jakin ahal izan dugu 1810eko apirilaren 24ean Donostiara joan zela bizitzera, bere emazte eta haurrekin, jakina.

Prozesu hau zela eta denboraldi hau eman zuen Tolosako Korregimenduko espetxean:

1814eko otsailaren 28tik maiatzaren 12ra, eta 1815eko maiatzaren 19tik azaroaren 4era, denera 8 hilabete (36). Honetaz gainera beste denboraldi bat eman zuen etxetik atera ezinda, epailearen aginduz, noski, 1814eko maiatzaren 12tik garagarriaren 25era, hain zuzen.

Espetxean egon zen bi denboraldi hauetan, fidantzapean askatu zuten. Fidantza hau, bietan, D. Bixente Legardak ordaindu zion, gizon hori Iztuetaren «Carcelero Comentariense» bihurtu zelarik.

Esan behar da Kontxesi 1815eko martxoaren 28an hil zela, 29 urte zituenean, eta Juan Inazio, justiziarekin arazoetan, 5 seme-alaben famili buru zela.

Egoera honetan eta Iztueta Tolosako kartzelan preso zegoelarik, 1815eko agorraren 15ean, zenbait ondasun enbargatu egin zioten, egia esan eta orain ikusiko dugun bezala «pobrea» benetan, nahiz eta Iztuetak zenbait gauza baliagarri desager eraztea litekeena izan: Mahaitxo bat, ihizko hiru aulki, perkalezko 6 kortina, zartagi bat, burruntzali bat eta bi errada kendu omen zizkieten. Donostian sutea izan zenean ez omen zuten beste ezer salbatzerik izan.

1815eko maiatzaren 16an Tolosan, D. Juan Bautista Ormazabal promotore fiskalak deklaratu zuen behin (37):

«Iztueta fue uno de los testigos en la decantada información recibida por el intruso fiscal de la sanguinaria junta criminal (de San Sebastián, en 1809), el licenciado D. Luis Arocena, información por cuya resulta fueron deportados a Francia hasta quince individuos los más notables, y en la opinión del promotor fiscal tal intervención es la más vehemente presunción de la decidida adhesión al enemigo, pues Arocena para averiguar el grado de opinión patriota de aquellos individuos no se valdría de como no se valió sino de testigos cuya opinión contraria le constaba. Además influye no poco para comprobar el mismo concepto el haber sido empleado Iztueta por el gobierno intruso en el ramo de Hacienda en San Sebastián pues nadie ignora que tales empleos no se conferían sino a personas que habían dado pruebas efectivas de la adhesión al enemigo ...».

35. ELOSEGI, JESÚS (1976), aip. art., 297-298 or.

36. ELOSEGI, JESÚS (1976), aip. art., 298 or.

37. ELOSEGI, JESÚS (1976), aip. art., 299 or.

Zenbait gorabehera izan ondoren, 1815eko azaroaren 24ean izan zen auzi honen amaiera, azken epaia Macia Lleopart korregidoreak eman zuen, hauxe zioen (38):

«sirviendo de parte de pena a dicho Yztueta la prisión que ha sufrido, le condeno a dos años de destierro de la citada villa de Azpeitia y de la ciudad de San Sebastián donde actualmente vive, que podrá evitar pagando cien ducados aplicados a penas de cámara y gastos de justicia, y en las costas de esta causa ...».

Sententzia hori Valladolideko Chancilleriak berretsi zuen.

Sumario honetan azaltzen dira Iztuetak ordaindu behar izan zituen kostuak.

Zenbait datu eman edo baldin baditugu ere, oraindik ez dugu zenbait urtetan egin zuenaren berri handirik, hala nola, 1810, 1811, 1812, eta 1813 urteetako berri hain zuzen ere. Gipuzkoan ibili al zen? GPK liburuko pasarte batzuk pentsa erazi dezaketen bezala, ez al zen mendira joan? Frantsesen lagun eta kolaboratzaile izan al zen? etab., etab. ...

Baina ikusi dugunetik garbi zerbait atera badaiteke, hori bere ezizena da, «Txuri», Juan Inazio Iztuetarentzat aproposa; Zaldibian oraindik orain agureek esaten dutena baieztatuz: «dantzari eta zamargin ... txuri galanta ua ...».

Beste arazo bat, eta bere neurrian argitu beharrekoa, Donostiako frantses-zaleek frantses agintari militarrekin izan zuten erlazioa dugu.

1813.ean Donibane Lohitzune aldean ere ibili zen.

Donostia soldaduz inguratuta egon zen hilabetetan, Donibane Lohitzunen dabil Juan Inazio eta 1814eko ekainean Donostian dugu berriro, eta denda baten jabe da. Urte honetan bertan, abuztuan, idazten dio Iruñetik Martin Onrubiak esanez (39):

«Nere lagun eta jauna. Poz aundia artzen det ondo zaudelako, ta zure sendian lasai ta pakean arkitzen zeralako»

Zer esan nahi du honek? Badirudi arazoren bat izana zuela, ezta?

Juan Inaziok eta Joxe Aranburuk, Martin Onrubiaren bidez, Getarian zegoen frantziar gudaosteari 400 manta eta 260 lastai koltxoi eman zizkieten, 33.276 «vellon-errealetako» kontua zen eta inoiz ez zuten kobratu, 1824ean artean ikusiko dugu, 1813an saldutakoak ez kobratzeagatik kexu dela, horretaz gain, frantsesek beste 10.000 erreale zor zizkieten, beste 400 mantaren kontua, alegia.

Bigarren ezkontza honek, Kontxesirekin egin zuenak, ez zuen asko iraun, 1815eko martxoaren 28an hil bait zen Kontxesi. Bigarren emazte honek azkenahia martxoaren 18an egin zuen, testamentu honetan bizi ziren etxea eta egiten ari ziren beste bat aipatzen ditu.

Iztueta bi etxeren jabe izatera iritsi zen, bat Bildosola kalean, Beko Payueloz ere ezagutua, bestea, Triperia kalean, gaurko S. Juan, hain zuzen ere.

Bigarren alargunaldi honetan (1815-1828) berarekin lehenengo emaztearengandik izan zuen seme dantzaria, Jose Inazio, bizi izan zen, baita Maria Antonia eta Joxepa Frantziska ere. Kontxesirekin izan zituenak ere hantxe ziren, batez ere Inazia, semeak, Balentin Eusebio eta Joxe Frantzisko, La Habanan azaltzen bait dira garai hau bukatu baino lehen.

38. ELOSEGI, JESÚS (1976), aip. art., 299-300 or.

39. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 24 or.

1817ko azaroaren 11n Joxepa Frantziska ezkondu egin zen Donostiako S. Bizente parrokian, bere senarra Joakin Ramon Soroiz izan zen, Donostiako eskribau eta alarguna genuen gizon hau. Honen papel-sortak, 1813-1831 bitartekoak, Oñatiko Unibertsitatean gordetzen dira. Geroxeago, 1818ko urtarrilaren 2an, gorabehera batzuen ondoren, gorago aipatutako eliza horretan bertan Maria Antonia ezkondu zen, Antiguoko Lobaina baserriko Manuel Parisekin.

1820ko Santa Fetan, Zaldibiako festetan, bere jaioterrian aurkitzen dugu Juan Inazio, eta aipatutako urriaren 13an bere esku eta lur-ondasunak, bere arreba Anari eta ezkon-anaia den Joxe Antonio Manzisidorri uzten dizkie.

1824ean, jaurgu eta legezaleek galdu, eta «absolutistek» irabazi zutenean, Iztuetak bere alabari dantza dotore bat egiteko baimena ematen dio, gure dantzak berpizteko asmo bakarrarekin, ardura eta axola bereziarekin irakatsi zizkion eta horretarako hezi zuen. Urte honetan bertan Inazio Ramon Barojaren inprentan argitaratzen da bere «*Dantza-liburua*» (urtebete baino gehiago kostatzen zitzaien egitea).

Londresen erbesteratuta zegoen Pablo Mendibilen bidez, bere liburu honen doinu eta bertso laburpena argitaratzen du hurrengo urtean, 1825ean; «Kontxesiri» olerkiari honako ohar maltzur hau ezarri: «Euskal olerkaria galegoa baino zorionsuagoa izan zen, honi maitasun bertsoak heriotza ekarri bait zioten gartzelan bertan, Iztuetak, aldiz, handik atera eta berehala eman senar eskua hainbeste maite zuen emakumeari».

1824: urriaren 16an Donostiako «Puerta de Tierra»-ko zaindari izendatzen dute.

1826: agindutako dantza-soinuen liburua argitaratzen da.

1828: martxoaren 3an, Donostiako San Bizente parrokian, ezkondu baino lehen Kontxesirekin izan zuen alaba, Inazia, Seguran jaio eta Ataunen bizi den Joxe Antonio Azpiazurekin ezkontzen da.

1828: apirilaren 8an, bere burua seme-alabarik gabe ikusi zuenean, hirugarren aldiz ezkondu zen Juan Inazio. Oraingo honetan emaztea Zizurkilgo Maria Aszension Urruzola izan zen. Iztuetak 60 urte zituen, emazteak 20.

1829: martxoan izaten dute lehenengo haurra, Maria Antonia.

1829: 43 orrialde dituen eskutitz bat idazten du (40), J.J. Mogeli zuzendua, idazki honetan Bartolome de Santa Teresa erasotzen du, hau bere dantza-liburuaren kontra bait dago.

1831: abenduaren 24ean bigarren semea izaten du, Pedro, eta dirudienez gazterik hil zen.

1824etik lehen liburua argitaratzen duenetik aurrera, Iztuetak, egundoko goraipamenak jasotzen ditu eta garaiko pertsonaia ospetsuenekin (politiko nahiz kulturako, euskalzale askorekin) harreman sakon eta iraunkorrek egiten ditu (41).

Urte hauetan asko idazten du Iztuetak, honen adierazgarri dira Santiago Unceta diputatuari eta Aldundiko idazkari izan zen Ramon Gerekari idatzitako eskutitzak (42). Gizon horiekin ezezik Lécluse frantsesarekin, Bautista Arrizabalagarekin, Paskual Iturriagarekin, Pablo Ulibarrirekin eta beste askorekin ere izan zituen harremanak. Juan Inazio Iztuetak ospe handia zuen eta Paristik ere egiten zizkioten galderak eta kontsultak.

40. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 26 or.

41. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 26 or.

42. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 26 or.



Donostiako «Lehorreko Atea», Iztuetak hemen egin zuen lan. (Donostia Gipuzkoaren aurka, I, 109 or.)

1832: Bizente Vinuesa jaunaren kultur etxean euskarari buruzko hitzaldi bat ematera konbidatzen du Madrilgo jaun batek (43).

Donostian, polizia-sailean 10 urte egin ondoren, 1834. urtean «Alcaide de Corregimiento» egiten dute. Urte honetan, azaroan, bere arreba Mari Ana hiltzen da Zaldibian.

1840. urtean kexu da, 1834 urtean ez zituela sei hilabete kobratu, hauek azkenean kobratuko zituen. 1844eko abuztuaren 7tik hasi eta 1845eko uztailaren 1 arte, Gipuzkoako Gordairuan izandako diruen sarrera- irteerak aztertzen badira, langileen soldata eta hartzekodunen artean hauxe ikusiko dugu:

«A don Juan Ignacio de Iztueta por el importe de dos libramientos que expidió a su favor la Diputación Foral con fechas de 1 de noviembre y 1 de diciembre de 1835 para pago de sus sueldo como Alcaide de Corregimiento de esta provincia, 910 reales» (44).

1837an Villafrancan, Esteban Gaztañagaren aurrean egindako idazki batean, Zaldibiako bizilagun bezala agertzen da. Baina galde genezake: Liberala izanik, eta Donostia beroien mende egonda, nolatan joan zen Iztueta karlisten esku zegoen Goierriara? Ez da erraza galdera horri erantzutea. Egia hauxe da: 1840 baino lehen Zaldibian bizi dela, eguneko 6 erreal eskuratzen dituela, jubilazio gisa edo. Ordainketa hau baldintza batekin eman zioten, bera hildakoan Euskal Herriko dantza eta musikari buruz dituen liburuak, edota E. Herriko ezaugarri, usadio eta ohiturei buruz argitaratzen edota idazten duen edozer Probintzia honen ja-begoan gelditzekotan, alegia (45).

1841eko gastu-zerrendetan ikusten dugu Bergarako Besarkadaren urtemuga-ospakizunetan Iztuetaren kontua, (dantza?) taldearengatik 3.250 errealetakoa dela, *bazkari kontuak kenduz gero handiena*.

Azken urte hauetan gogor eta sutsu ekiten dio GPK liburuari, bai egiteari eta baita zuzentzeari ere.

1845eko abuztuaren 18an, 78 urte zituela, bere azkenahia egiten du eta egun berean hiltzen da Zaldibian. Egun horretan, bere bizitzan gorabehera handiak izan zituen gizon baten bizitza bukatzen da. Batzuk maixeatu egin zuten, beste batzuk atsekabetu egin ziren. Geldi eta sakabanaturik jo zituzten hil-kanpaiak inguru guztietan zabaldu ziren.

Bere heriotzean Lardizabal idazlearen anaia batek lagundu zion.

Dirudienez bere emaztea ez zen oso egoera ekonomiko onean gelditu; izan ere, ikus dezakegu nola 1846. urtean Foru Aldundiari diru-laguntza bat eskatzen dion (46).

Orain arteko bibliografia ikusi eta aztertu ondoren, penagarria bada ere, oraindik orain ez direla bere bizitzako zenbait gertaera, ekintza eta une ezagutzen esan eta aitortu beharrean gaude. Hori horrela izanik, gaur egun badira erantzunik gabeko hainbat galdera, besteak beste:

43. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 28 or.

44. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 28 or.

45. GARMENDIA, J. (1978), aip. ob., 28 or.

46. GARMENDIA, JOSÉ (1974), «Noticia sobre Iztueta en los registros de las Juntas Generales de Guipúzcoa» BAP XXX Cuadernos 3.º y 4.º, S.S. 476 or.



1) Gartzelan hainbeste denbora pasatzeko, zein izan zen benetako arrazoia? Haur-hilketa?, lapurreta?, (gogoratu honetaz zer dioen Usozen eskutitzak (47)), erlijio eta moral-eritziak ...?

2) Gartzela-zigorra pasatakoa izateko, nolatan lortu zituen hain azkar:

a) Halako kargu garrantzitsuak Donostian. (Erakunde publikoen konfidantza)?

b) Halako harreman-sarea hain jende inportantearekin?

c) Etxebizitza batzuren jabe izatea?

3) Zein zen Juan Inazio Iztuetaren benetako pentsakera eta jokabide politikoa?

Eta horrelako zenbait galdera gehiago egin genitzake.

Kontura gaitzkeen bezala puntu ilun asko daude argitzeke egun; baina, bere bizitza, lana, harremanak etab. ikusi ondoren berehala nabari daiteke «Txuri» Juan Inazio Iztuetaren izengoitia, aproposa baino aproposagoa dela gure gizonarentzat. Denok dakigu «Txuri» hitza gehienetan «Faltsu» adierazteko erabiltzen dugula, edota hizkera loxintxagilea dela adierazteko. Esku artean daukagun kasu honetan bigarren arrazoiagatik dela esan genezake, bestela nola ulertu, esate baterako, karlistekin nahiz liberalekin izan zituen harremanak.

Ukaezinekoa da, eta ikertzaile eta autore gehienak bat datoz honetan, bere mundualdia oso mugitua eta gora behera askokoa izan zela (48).

Bestalde, bera nekazal mundukoa izan arren, eta berak aitortzen duen bezala: «Eskolagabea» izan, esan beharrean gaude bere garairako asko mugitzen zela eta noizbait eta nonbait ikasi zuela, kultura orokor bat lortu zuela, kultura munduko jende handi eta askorekin harremanak izan zituela, eta lan erraldoi batzu egin zituela, munduaren ezagutza bazuela, alegia, eta guzti hori ez du lortzen ezjakin batek. Berak aurrez eta berehala ikusi zituen herri hau egun oraindik jasaten ari den arazo asko, eta horren alde ere etengabeko lana egin zuen bere bizitzan zehar, hala nola eskolatako arazoa, hizkuntza, ohiturak, ... Gainera, eta gure ustez oso puntu inportantea, herri-kulturaren jabe da, badaki zer eta nola pentsatzen duen herriak, gizon apala eta aldi berean ospetsua, bertsolari trebea, ohiturak gordetzen

---

47. IRIGARAY, A. (1958), «*Yon Etxaide, Amasei Seme Euskalerriko*». BAP XIV, San Sebastián, 278-281 or.

48. Erabili ditugu beste autore batzuk: IRIGARAY, A (1965), «Esbozo crítico con textos de Literatura euscara profana. Separata de la revista "Príncipe de Viana"», 98 eta 99 Diputación Foral de Navarra. Pamplona, 153-154. ORMAETXEA, NIKOLAS (ORIXE) (1987), «*Quiton arrebarrekin*». Euskal Editoreen Elkarte. Euskal Klasikoak 20. ETXAIDE, JON (1990), «*Amasei Seme Euskalerriko*», 205-232 or. ARANBURU, XABIER (1972), «*Juan Ignacio de Iztueta*». CAP Donostia. Gráficas Izarra, 46-48, 56-58 or. VILLASANTE, Fr. LUIS (1979), «Historia de la Literatura Vasca», Aránzazu, 278-282 zka. ZABALA, A. (1966), «*Pernando Amezketarra*». Bertsolaria, Auspoa 54, 38-39, 43-45 or. TORREALDAY, JUAN M.<sup>a</sup>. (1977), «*Euskal Idazleak gaur. Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas*». Jakin. SILVAN, LEANDRO (1974), «*Las villas de la unión del río Oria ... Zaldibia*». Publicaciones de CAM de San Sebastián, Pueblos Guipuzcoanos. MICHELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura Vasca*». Erein, 118-120 or. SARASOLA, IBON (1976), «*Historia social de la Literatura Vasca*». Akal, 74 or. DORRONSORO, JOANITO (1981), «*Bertsotan 1789-1936*». Guipuzkoako Ikastolen Elkarte (G.I.E.). Elxepuru 3-4, 15-17 or. SUQUIA, J.M. (1975), «*Monografía Histórica de Zaldibia*». Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. *Pueblos de Guipúzcoa*, 161-168 or. MANIEROLA, JOSÉ (1981), «*Cancionero Basco*». Sendoa, Donostia. IMAZ, J.M. (1945), «*El centenario de un dantzari*». BAP I, 4 San Sebastián, 407 or. AITA DONOSTIA (1952), «*Lecaroz*» aldizkaria. Maiatza-Iraila. «*Iztueta, la poesia vasca y el churripampli*». Elgoibarko EHL, 3; EGIPV, Literatura 1.

dakiena, ... eta biak ondo uztartzen jakin zuen. Bera izan zen Larramendiren belaunaldian apaiz izan ez zen bakarra.

Bukatzeko esan Juan Inazio Iztuetak izan zituen gorabehera guztiak izanda ez dela batere erraza berak lortu zituen itzal eta goraipamen bikain horiek lortzea eta ez ligukeela kalterik egingo horrelako gizon gehiago gure artean izateak.

## J.I. IZTUETAREN OBRA

Iztuetaren bizitza, nahasia bezain bitxia, luzea bezain harreman handikoa izan zela ikusi ondoren, azter dezagun bere obrek zer eman zioten lan honen haseran azaldu dugun garai eta ingurueari.

Iztuetak utzi zizkigun obrak hauexek dira: «*Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira...*» eta «*Guipuzcoaco Provinciaren Condaira ...*». Baina bi liburu nagusi hauetaz gain, baditu olerkiak, Mogeli zuzendutako karta famatu bat, erdarazko lantxo pare bat, etab. ere.

### 1. Gipuzkoako dantzen kondaira

Juan Inazio jaiotzerako, herri-abestiei eta herriko ohiturei nahiz usteei garrantzia ematen hasiak baziren ere, artean ez zen «folklore» hitza ezagutzen. Iztueta hil eta gutxira azaldu zen lehenengo aldiz hitz hau, Londoneko kazeta zientifiko batetan, 1846. urtean (1).

Xabier Aranburuk «*Juan Ignacio de Iztueta*» izeneko liburuan, 13-14 orrialdeetan, hauxe zioen 1972an:

«Guziak aitortu dute, Suecia, bere dantzak gordetzen beste herriei aurreratu zitzaie. Esandako hau, ez zuen inork zalantzan jartzen, 1963'ean Alemaniako Eerbach-Odenwarden "Folklore eta jantzi berezien IV herri arteko astea" ospatu zen arte. Bertan, Suecia, dantzak gorde ahaleginetan lehenengoa zelakoan agertzen zelarik bertan zegoen Gipuzkoar "Goizaldi" euskal dantza taldeak, Suezitarrak baino 56 urte lehenago (1824'an, alegia), Gipuzkoako dantzak jasotzen zituen euskarazko liburu bat erakutsi zuen. Liburu hau Juan Inazio Iztuetak idatzia zen» (2).

Gure zaldibiarra ez zen karrera-gizona, baina bai gizon kezkatua, euskaltzalea, herri-ohituen maitalea eta, batipat, dantzaria. Bere garaiko eta Gipuzkoako tradizioen ezagule fina dugu GDK (3) liburuaren egilea, eta baldintza hori

---

1. SAN MARTÍN, JUAN (1967), «*Iztueta, el Precursor del Folklore Vasco*». La Gran Enciclopedia Vasca II, Retana, (427-428 or.), 427 or.

2. ARANBURU, XABIER (1972), «*Juan Ignacio de Iztueta*». CAP, Donostia, 13-14 or.

3. «*Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira edo Historia, beren soiñu zar eta itz neurtu edo versoquin...*» liburuaren aipamena egitean laburdura hauxe erabiliko dugu: GDK.

oinarrizkoa izanik, lan hau euskaraz burutu zuen. Hara hor beste ezaugarri nagusienetako bat: garaiko gai teknikoak landu zuen eta herri-hizkuntzan, euskaraz, nahiz orduko hizkuntza kultoa ez izan.

1824ean, berrogeitamazazpi urte zituelarik eman zigun J.I. Iztuetak bere lehen obra «*Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia, beren soiñu zar eta itz neurtu edo versoquin. Baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioac ere*». Baroja, Donostia, 1824/1826.

GDK liburuaren argitalpenak:

1895. urtean birargitalpena Tolosako Eusebio Lopez-enean.

1929. urtean Dantza-doinu eta hitz-neurtuen bigarren argitalpena, Sociedad de Estudios Vascos erakundeak eman zuen.

1932. urtean «*Guipuzcoaco Dantzak, Cuaderno de melodias*», Eusko-Ikaskuntza, Burdeos.

1968. urtean lehen argitalpen elebiduna. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. Santiago Onaindiak itzulia eta Gaizka Barandiaranen hitzaurrearekin. Iztuetaren GDKko zitak hemendik hartu ditugu (4).

1990. urtean Ezeizabarrena M<sup>a</sup> Josek prestatutako edizioa: Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero, Klasikoak 37.

GDK liburua honako atalez osatua dago: (5)

— Liburuaren Argitalpen-Lizentzia.

Gipuzkoako diputatu eta bergararra zen Santiago Unceta jaunak emandako Onarpena, 16-18 or.

Azkoitiko Jose Ramon Elorza apaizak emandako Iritzia, 19-23 or.

Aipatutako bi horien zentsurak ikusi ondoren, Martin de Muzquizek liburuaren Lizentzia luzatu zuen, 24 or.

— Eskaintza: Iztuetak Donostiari egina, 26-36 or.

— Hitzaurrea, 38-46 or.

— GDK liburuaren hiru zatiak, 48-389 or.

— Gipuzkoako dantzen hitz-neurtuak eta doinuak (6).

— GDKren bigarren eskaintza, Gipuzkoari egina (7).

Iztuetari fama eman zion liburuaren zatiak banan-banan ikus ditzagun:

### 1.1. Lizentzia:

Liburuaren argitalpen-lizentzia lortzeko, bi lekukoren oneritzia behar izan zuen eta, horrela, liburua argitaratzeko baimena eman zion zentsoreak. Kasu honetan, Martin Javier de Muzquiz, Nafarroako Kontseilariaren eta Gipuzkoako Korrejidorearen zentsura pasa zuen.

---

4. Azterketa hau egiterakoan GDK liburuaren hirugarren argitalpena erabili dugu, 1968. urtean La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak Bilbon emana, eta liburuko Hitz-neurtuak aztertzeko, berriz, 1990ean M.J. Ezeizabarrenak prestatua.

5. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), «*Viejas Danzas de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Dantza Gogoangarriac*». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. Argitalpen honetatik egingo ditugu aipamen guztiak.

6. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1990), «*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*». Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero. Klasikoak 37. Prestatzailea: Ezeizabarrena, M.<sup>a</sup> Jose.

7. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 307-311 or.

# GUIPUZCOACO DANTZA

GOGOANGARRIEN CONDAIRA EDO HISTORIA

BEREN SOÑU ZAR, ETA ITZ NEURTU

EDO VERSOQUIN.

*BAITA BERAC ONGUI DANTZATZECO IRACASTE*

*EDO INSTRUCCIOAC ERE.*

*Obra halio andicoa eta chit premiazcoa, Guipuzcoatarren jostaldia gaitzic gabecoquin, lendabico etorqui España argui eta garbi aien oitura maitagarrien gordaciatceco.*

BERAREN EGUILLEA

*D. JUAN IGNACIO DE IZTUETA,*

*Guipuzcoaco erri leial Zaldivan jaioa.*

BEARDAN ESCUBIDEAREGIN.

DONOSTIAN,

IGNACIO RAMON BAROJA-ren moldizteguian

1824 garren urtean eguiña.



Lizentzia hori eman aurretik, Bergaran jaio eta Gipuzkoako Diputatu izan zen Santiago Unceta jauna Iztuetaren ideien defentsore agertu zen, bai liburuaren onespenean, bai, ondoren, Iztuetarekin gutunez izan zituen harremanetan. Gero, harreman horiek aztertzean agerian azalduko zaigu. Unceta politikariak zentsoreari liburuaren argitalpena eta udaletxeetako artxibo guztietan ale bana izan zedila eskatu zion, eta Iztuetari, berriz, dantzen musika presta zezala. Bergaran, 1824eko martxoaren 25ean sinatua eta erdaraz idatzia dago.

Azkoitiko apaiz izan zen Jose Ramon Elorzak aspalditik ezagutzen zuen Iztueta dantzaria, dantza horiek zuzentzen askotan ikusia bait zuen. Bete-betean onartzen du Iztuetaren liburuko dantza eta doinu zaharren berreskuratzea. Bat dator dantzei eman dien gerra-giroko interpretazioarekin. Eta bukatzeko, maitasunezko bertso batzuren letrekin bat ez datorrenez, aldatzeko eskatzen dio. Azkoitian, 1824-IX-18an sinatu zuen.

### 1.2. Eskaintza:

«Donostiaco uri chit leñarguiti eta guztiz leyal maite maitagarriari».

Donostiaren tragedia eta egoera beltzari buruz ari zaigu Iztueta GDK liburuaren eskaintza honetan. Independentzia gerraren bukaeran gertatutako erreketa giroan kokatzen du eskaintza hau, «Ama»ren irudia erabiliz: Benetako amaren antzera onartu zenituen, zu askatzera zetozen haiek. Ia bost urte, 1807-1813, zurean pasa, zure alaba maiteak bortxatu, seme prestuak hil, zeu bipildu eta erre zintuzten. Baina denbora labur baten epean, Donostia berria errautsetatik eraiki zen. «Erretaco Uri negargarria ondakiñez guzia beterik arkitzen zala ...», Zuk, Donostiak, egoera horretan, zeundela, atera dituzu baserriko zoko ilunetara igesi joanik, azkenengo arnasetan arkitzen ziren zure dantza eta soinu gogoangarriak. Iztuetaren testua moldatu egin dugu.

«Amodiozco naitasun irazekiarekin deituric atera dituzu zulo illunetatik plaza aguiricora, lenagoco beren jantzi eder galant aberatsakin chukunkiro apainduric, zure asaba maitagarriac erabilli oi zituzten guisa ber berean» (8).

Donostia, Iztuetaren ama eta Gipuzkoaren eredu agurtzen du Iztuetak, dantza eta musika zaharren indarberritzea zeruari eskatuz.

### 1.3. Hitzaurrea edo prologoa:

«Euskaldunai osasuna, zori ona eta betiko atseguña».

GDK liburuaren oinarriak emango dizkigu hitzaurre honetan, Larramendik HHean (9) azaltzen dituen ideiei jarraiki. Oso laburki bederen adieraz ditzagun Iztuetaren pentsamenduaren urratsak:

Euskaldunon jatorria Baskoiberismoaren teoriak argitzen digu: Euskaldunok beti errespetatuak izan gara, gure ohitura, dantza, soinu zahar, kirol eta guztien

8. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 32 or.

9. LARRAMENDIREN DICCIONARIO TRILINGÜE, «Hiztegi Hirukoitza» deitua.

gainetik, euskaragatik. Euskararen bidez munduko gauza guztien izenak adieraz ditzakegu. Ideia hauen arerioak liburuan zehar aipatzen ditu, baina defendatzaile leial, langile eta jakitunak hitzaurreko testuan eta ondo kalifikaturik ematen dizkigu:

«Aita Larramendi beargilletsua, Astarloa jakintia eta Erro zentzu aundi-koa» (10),

Seinalatuenak hauek izanik. Ondoren, aipatu dugun hirukote horren ideiak defenditu zituzten autore atzerritarren zerrenda dakar Iztuetak. GDKko 3. zatiaren amaierako bertsoetan ere goraiapatuko ditu.

Euskaldunak bakarrik iritsi dira bide zuzenetik lehen gizonengan zegoen izaera garbi hartara. Greziarrak ibili ziren bide horren bila, azkenean nahasturik akabatzeke. Baina lehen aipatu dituen horiek, euskaldunak zirenez, lehenbiziko denbora zoriontsu haietaraino «igo» ahal izan dira.

Donostiako udalaren izenean, gazte batek emanda, Errukietzeko gaztetaldari gipuzkoarron dantzak irakasteko enkargua hartu zuen, 1819an, GDK argitaratu baino bost urte lehenago. Eginkizun hori gauzatu du, eta hogeitamasei dantzen ezaugarriak eta ondo dantzatzeko arauak emango dizkigu liburu honetan.

Jarraian, liburuaren aurkezpena dator, baina badirudi aipatzen duen laugarren zatia:

«soñu-zar gogoangarriac beren bersoakin musican» (11),

Elortzaren oneritzi baldintzatua zela medio, atzeratu beharra izan zuela 1926. urte arte.

Iztuetak, zenbaitek hain erraz sinetsi dion sasiapaltasunezko ezjakintasuna aldarrikatuz, eta amaren bularretik edoskitako hizkuntza hobeki erabiltzeko gai ez denaren umiltasuna aitortuz, sinistarazi dio bere buruari hutsegite eta okerrak zuzenduko dituela gipuzkoarren batek.

«Ala guerta dedilla euscaldunen odol garbi indartsua dirauen arte guzian» (12).

Horrela amaitzen du bere GDK liburuaren hitzaurrea (13).

*1.4. «Lenengo zatia. Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar eta itz neurtu edo bertsoakin, baita berac ongui dantzatzeko iracaste edo instruccioac ere».*

Iztuetak GDK liburuko lehen atalean, baieztapen biribil hau dakar:

«munduan ezagutzen diraden soñu-mota guzieren artean lenengoa da danbolña, zeñaren chilibitua, are guerozcoa bada ere ...» (14).

---

10. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 40 or.

11. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 227 orriko oharrekin bat gatoz.

12. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 46 or.

13. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 434 or. 1824erako Iztuetak garbi zeukan euskaldunon akatsetako bat zein zen: «Greciatarraz bezalaco gogoia balute Euscaldunac, beren jaioterrico usuario gogoangarriac itzcribatzeco, gaurco egunean aurkitzen-diraden baño apainduagoac, indartsuagoac, eta goratuagoac egongo-lirake ...».

14. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 50 or.

Beraz, danbolina, ritmoa lehen, gero txistua, behin eta berriro esango digu Iztuetak.

Gaur egun, nahikoa frogaturik dago, antzinako herrietan, musika-arloari dagokionez eta garatu gabeko leinuetan, ritmoari zer-nolako garrantzia ematen zaion. Ez dituzke ezagutuko solfeoko notak, baina ritmoaren zantzu aberatsa darabilte. Musikari buruz gaur ere lasai esan daiteke, Iztuetak 1824ean esan zuena: lehenik ritmoa izan zen. Antzinasunean datza oinarria.

Iztuetak bere garaiko danbolindari eta txistularien (15) egoera aztertzean, aldaketa sakon baten aurrean aurkitzen zela mundu hori dio (16).

Entzute hutsez, musikako irakaslerik gabe, ikasi ohi zuten txistua jotzen lehengo txistulari zaharrek eta, gainera, ez ziren langintza horretatik bizi. Egin-kizun horretaz gain, errota, baserri, baso eta mendietako lanbideetatik mantendu ohi ziren. Lanik premiazkoenak egin ondoren, olgetan edo denbora pasa, ikasten zuten tresna horiek erabiltzen, bai txistua, bai dultzaina ...

Edozein herri, auzo, txokotan sortzen zen txistulari edo dultzainari-saila. Gipuzkoako mendi, haitz, haran eta ibaietan txistularien jatorrizko oihartzunak datozkio Iztuetari burura.

Txistulari edo danbolindari zaharra hiltzean, nahiz jotzeari uztean, edozein herritan haren ordezkapena egiteko, edonondik ernetzen ziren kimu gazteak, mintegia aberatsa bait zen. Jarraian, herriak aukeratzen zuen hark pauso hauek eman ohi zituen: herriko dantzari trebeenak aurkitu eta Gipuzkoako dantzen doinu guztiak eta danbolinaren erabilera ikasten zituen. Hauek, atsegin osoz eta dohainik, irakasten zioten danbolina jotzen eta dantzan, danbolindari zahar denak bait ziren dantzari iaioak.

Herriko jaietan hogeit hamar dukat eta mantenua jasotzen zuten. Urtean zehar egiten zituzten beste ekitaldietan, dantzari bakoitzak pezeta bana ordaindu ohi zion txistulariari.

Hauen emanaldiak herriko plazetan, tabernetan, sagardotegietan eta erromerietan izaten ziren.

Eztai guztietara joateko ohitura zuten herriko danbolindariak. Ezkongaiak jatzten ari ziren etxean «alborada» jo, «San Ignazioaren martxa» interpretatu, elizara lagundu «alkate doinuarekin» eta ondoren, berriro, ezkongaiak jantzi ziren etxera joaten ziren, baraua une honetan hausten zutelarik.

Eztai-eguna aurrera zihoala, kasu bakoitzaren arabera, aukera ezberdinak gertatzen ziren: herriko plazako dantza-saioa, bazkalondokoa, ezkonberriak lotaraztekoa ...

«Danboliñ escolatu gabeco aien demboran aste ta jai non nai oizan soñua ugari eta merke, zegatic etziran irtengo echetic elizara ere chilibitua gabetanic» (17).

Baziren herriak, txiki-txikiak izan arren, bina eta hiruna zituztenak. Iztuetak ezagutu zituen Amezketeta eta Idiazabalen hiruna, Lazkao eta Ormaiztegin bina eta Donostiako auzoetan zortzina.

---

15. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 234 or.

16. GASCUE, FRANCISCO (1915), «*El aurreku en Guipúzcoa a fines del siglo XVIII, segun Iztueta*». Euskalerriaren Alde, (659-668, 680-693, 715-728, 743-759 or.), 685 or. ARANA MARTIJA, JOSÉ ANTONIO (1987), «*Música Vasca*». CAV de Bilbao, 153-165 or.

17. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 56 or.



Iztueta asaldatu egiten zen eskola berriko txistulariek soinu zaharrak ez zekizkitelako, doinu desegokiak aukeratzeagatik, edota harroputz eta hantusteko horiek beren eta gure herriko ohitura hain maitagarriak gaitzetsi eta baztertzen zituztelako. Doinu zaharrak ez ezagutze hori iraina zen Gipuzkoako herritarrentzat, eta dohainik ere ez zuten nahi izaten horrelako txistularirik (18).

Danbolindariak plazan lehenik interpretatuko zuen doinua «alkate soinua» zen, zer esanik ez, noski, udalari laguntzen zionean; prozesioetan, berriz, «hamabost mirarien soinua»; alboradetan «zortzikoren» bat; zezen-plazetan, ordea, «zezenen soinua»; eta edozein herritan «ezpata dantza», «brokel dantza», «jorrai dantza» edo antzekoren bat. Lehen, barietate handia baina egoera zehatzetarako bakarria izan ohi zen. Txistulari zaharrek guzti hauek ongi zekizkiten, eta kanpo herriko dantzari berriak laster igarriko zion benetako txistulari zen ala ez.

Iztuetak ez du akaberarik danbolindari, txistulari eta soinu zaharrak gorai-patzen, eta erleak lorez lore ibiltzen diren bezala aldatzen da gaiz, baina beti lehengora itzultzeko.

Dantzari onenak ere sarritan izan ohi zuen danbolinaren premia bere dantzaldian. Danbolindariak arreta handiz begiratzen zion honen oinen mugimenduari eta horretara egokitu ohi zuen bere soinua.

Zaldibiako dantzari zahararen belarriak erraz bereizten zituen soinu hauek.

«Arratzaren colpe-etatik ezagutzen guenduen noiz errico Alkateari laguntzen zioten: arratzaren otsetic prozecioa, arratzaren otsetic alboradac; itz batean, arratzaren otsetic jostaldia eta soñu-mota guzi-guziac» (19).

Danbolinaren laudorioetan ari delarik, gehiegikeriak ere ateratzen zaizkio Iztuetari, adibidez, danbolinaren izenak berak adierazten omen digu zer den:

«Edozein euscaldunec daki nola esan oi dan gure errian: dan dan jotzen dute atea: dan dan ari dira ezkillak: da da emandiozca bi bellarrondoco ...» (20).

Iztueta etimologizale ere bai, nonbait!.

Txistuak eta danbolinak lehen gaurkoak baino haundiagoak ziren tamainuz, eta hotsez, berriz, ozenagoak. Honen frogatzat bi adibide ematen dizkigu: Ordiziako danbor-hotsa Auza-Gaztelutik eta Orendaingoa Lazkao-mendiko Albitxuelatik entzun omen zituen Iztuetak. Ez zen oso zabaldua izango atabala, behin bakarrik ikusi dugu aipatua Iztuetaren obran (21).

«Danbolin escolatu gabeco oek jo oizituzten soñu guziac ziraden gozoac, leunac, garbiac, eta icasten chit errazac» (22).

Soinuaren kalitatea aipatetik dantzen interpretazioa ematera pasako da, inolako esplikaziorik gabe:

«Alkate soinuak» agintaritza eta legearen errespetoa adierazten du.

---

18. Badirudi Iztuetari ez zitzaiola burutik pasatzen danbolindari ez zen txistularirik, eta alderantziz, bi kontzeptuok nahasian erabiltzen baitzuten.

19. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 58 eta 60 or.

20. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 60 or.

21. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 126 or. «...nola gudari-samalda-batek atabalarenetic eza-gutzen dituan bere eguincariac».

22. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 60 or.

Prozesioetan jotzen direnek gauza sakratuen zantzuak dituzte.

«Alboradak», balentria handiak egin ondoren, etxera garaile itzultzen direnentzat dira egoki baino egokiagoak.

«Bordon-dantza» Beotibarko guduaeren oihartzuna da.

Luze eta zabal hedatzen da Jovellanosek, folkloreaki buruzko adituak, 1791-1797 urteetan Euskalerrira egin zituen bidaien ondorioz dantzei eskainitako laudorioez eta iritzi zoragarriez.

«España guzico Probinzia-etan ibilli bazan ere guizon jakinti au, beretaco dantza eta jostalluac icusten, bacar-bacarric naikidatu zitayozcan euscal-erricoac ...» (23).

Iztuetaren pozik handiena hauxe zen: Jovellanos bezalako gizon aditu batek euskal dantzen bilduma egin zezala, beren musika, letra eta adierazpenekin, horrela dantzen handitasuna mundu osoari adierazteko. Baina horren faltan, Iztuetak, berak ematen digu ezagutu zituen 36 dantzen berri (24).

— «*Bigarren zatia. Guipuzcoan zenbateraño azturic arkitzen-diraden gaurco egunean: lenagoco dantza-eder-oneritziac; eta oenordez eguiten-dituzten, eta nondic eta zer-guisatan etorri-dan beren galera-negargarrizcoa. arguitasun-gueyagorekin eta obekiago adierazotzeagatic ipiñico-ditut bere-ecabilde edo claseetan*».

Orain dela hogeitamar urtetako ohituren galera. Iztuetak erreferenzi hori bere GDK liburuan askotan ematen digu, beraz, hamazortzigarren mendearen azkenean ipintzen du muga.

Herriko senar-emazte ospetsu eta dantzari ziren dozena baten izenak dakartzatza. Hauek herriko plazan, jai-egun handietan, askotan herri xehearekin nahasirik eta gazteak aho zabalik utzirik, dantzatu ohi zituzten. Gipuzkoako igandeetako erlijio eta jai-giro idilikoaren goraiapamen sutsua egin zigun. Iztuetarentzat dantza, oinekin kantatzea zen, arte bat.

Bai herriko Jai Nagusietan, bai Korpus egunean, ia Gipuzkoako herri guztietan, «ezpata-dantza» egiten zen.

Galdu zen beste ohitura batetaz ere hitz egingo digu: gizon ezkondu guztiek zuten beren etxean gorderik ezpata luze dizdiratsua, Korpus egunerako.

Lehenago benetako danbolindariak zokoratuak izan dira. Igandeetan eta Jai Nagusietan ez da dantzatzen gure plaza agiritan, edota jantzi traketsak erabiltzen dituzte. Iztuetaren gazte denboran inor gutxi ausartuko zen alkandora zuri, besoluze, harizko galtzerdi zuri, zapata zuri-arin, galtza motz eta gerriko gorririk gabe dantzan egitera ateratzen. Bai, baziren salbuespenak: Donostia, Andoain, Tolosa, Ordizia, Idiazabal eta Zaldibia aipatzen ditu. Orohar, esan daiteke, herriskak jaso eta hiriak kritikatzan dituela (25).

23. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 68 or. «El citado sabio recorrió todas las provincias de España para ver y estudiar las diversas danzas y juegos populares que le interesaban, más sólo le convencieron los del país vasco». Onaindiaren itzulpena eman dugu hemen.

24. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 60 eta 70 or. Iztuetaren gogo hori bere ondorengoek bete zuten: Borrow, Fr. Michel, Sallaberry, Manterola ... eta abarrek. Lan hori, nolabait, gaur esan daiteke buruturik dugula, Urbeltz Navarro, Juan Antoniori esker. «*Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los Vascos*» (1978). Lankide Aurrezkia.

25. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 84 or.

Iztuetaren liburua, edozein unetan, gertaera bitxien lekuko da. Adibide bakar batzu aipatzera goaz. Herriko Jai Nagusietan, ez du non esaten, alkateak, «dantzari harro, lizun, nazkagarri bat» espetxean sartu behar izan zuen. Irungo alkateak ere, beste behin batetan, gauza bera egin omen zuen (26).

Baserritarrak lehengo dantza zaharrak dantzatzen hasten zirenean, zenbait «txoriburu harro eta ezjakinek» egin ohi zituen iseka eta marmar arbuigarriak ere aipatzen ditu Iztuetak.

Ikasketak egitera kanpora joaten ziren gipuzkoarren jokabideei buruz ere luze hitz egin zuen, kritika gogorrek jaurtikiz. Dantzekiko hauen ezjakintasuna, mesprezua, iguinak, eta abar, luze agertzen ditu GDK liburuan:

«Au esatearekin batean asico da, zaldiño ezi gabearen gisa, aztalca ta puzca, zilipurdica ta izulamica: batari ostico, besteari aldajoca: eta ez da geldituco barautsa ta pitxa purrustaca dariola, alic eta chit arras aunatu darin arteraño» (27).

Beren ikasketak utzi eta jaioterrira itzultzean, ez dute euskararik entzun nahi eta lelokeriak eta astakeriak parra-parra lotsarik gabe botatzen dituzte. Eta okerrera, jokabide hauen aurrean, gurasoek jasan behar duten eraso psikologikoa, eta, azkenik, euskarak berak nozitzen duen atzerakada da.

Euskalerriko seme gaizto hauen ahoetan, euskal dantzei buruzko komentario hau ipini zuen Iztuetak:

«Nuestros bailes son muy semejantes a recua de machos».

Iritzi honen kontra Espainiako lau idazle jakintsuren zita batez ihardetsi zuen:

«Los bailes son graves y majestuosos, especialmente cuando lo empiezan los hombres solos ...» (28).

Lehengo dantza eta ohituren aldaketaren arrazoiak ere eman zizkigun. Azken hogeitamar urte hauetan beheraka doaz ohiturak, baztertzen ari txistulariak, herriko gazte «ikasiek» mesprezatu egiten dituzte. Iztuetarentzat guzti hau honela gertatu da, eta duda izpirik gabe, atzerakada horren arrazoia hauxe da: Dantza zaharrak, musika idatziz jartzeak galdu ditu. Gaur txistulariek, lanbidea ikasteko, musikaren bidez egiten dute eta ez belarriz. Askotan soinu arrotzak nagusitzen dira eta hori da txistulari zaharraren hondamendia. Kasu honetan salbuespen bakarra ipintzen digu, Donostiako Latierrarena.

Iztuetak orduko egoera kritikaten du, ohituren atzerakadari buruz arrazoiak eta kausak ematen ditu, baina, batez ere, konponbidea agertuko digu, eta hori herriko alkatearen baitan dagoke.

Iztuetaren dantzen konponbiderako arautegia: (29)

1. Gipuzkoako 36 soinu zaharrak ezagutzen ez dituen txistulari edo danbolindaririk ez bezate onar alkateek.

2. Alkate izendatu berriak, izendapenetik zortzi eguneko epean, herriko txistulariak ea soinu zaharrak ezagutzen dituen hauteman behar du, eta akatsen bat aurkituz gero, erremedioa ipini.

---

26. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 88 eta 90 or.

27. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 94 or.

28. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 101 or.

29. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 146-153 or.

3. Igandero herriko plazan «gizon-dantza» jo erazi beza.

4. Korpus egunean «ezpatadantza», San Juan egunean «bordon-dantza», Eguberri egunean «billantzikoa», Urteberri egunean «chipiritona», Ihauterietan «jorrai», «azeri» eta «txakolin-dantzak» jo erazi behar ditu.

5. Herri txiki guztietara danbolindariaren lanpostua heda bedi.

Eta Gipuzkoako alkate guztiei aholkuak emanez eta «gizon-dantzaren» soinua ondo interpretatzeko txistulariei segidako baldintzok ipiniz, amaitzen du bigarren zati hau: (30).

a) dantzan jakitea.

b) dantzariari oinak begiestea.

c) dantzaren soinua ondo neurtzea.

d) dantza bukatu ondoren, andere edo andereñoak lehengo eserlekuetarako bidean, soinua jarraituz, laguntzea.

e) «gizon-dantzetan» ez ezik, beste guztietan ere, deiak zortzi modutara jo behar ditu.

f) Dantza hauen gerrako bost esanahiak adieraziz amaitzen du atala.

— «*Irugarren zatia. Guipuzcoaco 36 dantza-motac bear bezala dantzatzeko iracaste edo instruccioac beren senaerakin*».

1. «Gizon-dantzaren iracastea» (170-187. or.)

Dantza honen mugimendu eta xehetasun guztiak zazpi orrialdetan luze eta zabal eman zizkigun Iztuetak. Goierriko herri zehatzetan noiz dantzatzen zen, zein alkatek zein mugakideri deitzen zion eta ritual osoa adierazi zigun Iztuetak, herrien arteko armoni giroa azpimarratuz.

2. «Gazte-dantza» (186-188. or.)

Herriko gazteek helduek egiten zutena errepikatu ohi zuten.

3. «Eche-andre-dantza» (188. or.)

Herriko Jaiak amaitzen ziren unean egiten zuten etxekoandreek, herriko plazan.

4. «Galayen escu-dantza» (190. or.)

5. «Nescachen escu-dantza» (192-196. or.)

6. «Edate edo Carrica-dantza» (196-198. or.)

Etxean gaixo edo geratu direnen ohorean egiten da dantza hau.

7. «Ezpata-dantza» (200-214. or.)

Tratamendu berezia eman zion Iztuetak dantza honi. Pertsonaia ospetsuren bat herrira etortzean, Herriko Jaietan eta Korpus egunean dantzatu ohi zen. Gipuzkoako lurraren defentsa adierazteko dantza da, Iztuetaren ustetan. Dantzariak egin behar dituzten mugimendu guztiak, gorde beharreko kokapenak, grafiko eta guzti, adierazi zituen. Xehetasun eta ñabardurez, zubiak ere noiz, nola eta norekin gauzatzekoak ziren zehazteraino iritsi zen. Zortzi orrialdetan zehar, gai tekniko hau euskaraz lantzea zor diogu zaldibiarrari.

8. «Brokel-dantza» (214-222. or.)

«Dantza onetaraco bear-dira 12 lagun eta buruzaria edo capitana 13 garren; errian aurki alditzekan galairic galantenac eta egokienac. Jantzi berdin-berdiñac bear dituzte 12 dantzariac, eta oen gain gañecoa buruzariac» (31).

30. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 154-169 or.

31. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 214 or.

Jantzi, janzkera eta dantzari buruzko aholku interesgarri bezain bitxiak eman zituen, tamalez 1824erako galdu samarra omen zegoen.

9. «Pordon-dantza» (222-226. or.)

Tolosako San Juanetan dantzatzen zen eta, Beotibarko gudaren oroimenean sortua zenez, gertakizunaren laburpen historikoari eta Tolosako herriaren jokabide, Gipuzkoako beste herrientzat eredugarri zenari garrantzi gehiago eman zion dantza beraren xehetasunei baino.

10. «Jorrai-dantza» (226-228. or.)

Herrietako festak amaitzear zirenean, zahagi puztu eta jorraiekin egin ohi zen. Dantza honen mezua hauxe dateke, Iztuetaren arabera: amaitu dira festak, goazen lanera.

11. «Azeri-dantza» (228-230. or.)

Herriko Jai Nagusietan baserri baserri oilaskoak bilduz, festa giroan egiten zen.

12. «Bizcai-dantza» (230-232. or.)

Bizkaitik etorri zitzaigun dantza omen zen, Iztueta ez zen oso zehatza izan beronetaz. Badirudi Herrialde horretako dantzak ez zituela Gipuzkoakoak bezain ongi ezagutzen.

13. «Cuarentaco-erreguela» (236. or.) (32).

14. «San Sebastian-en izenarekin deitzen dan soñu-zarra» (238. or.)

15. «Galantac» (240. or.)

16. «Chanchacac» (240-242. or.)

17. «Eun ducatecoa» (242. or.)

18. «Betronio chikia» (244. or.)

19. «Betronio andia» (244. or.)

20. «Azalandare» (244. or.)

21. «Erreguela zarra» (244-246. or.)

22. «Eunda bicoa» (248. or.)

23. «Amorea Margaritacho» (248. or.)

24. «Erribera» (248. or.)

25. «Punta motz» (250. or.)

26. «Ondarribia andia» (250. or.)

27. «Ondarribia chikia» (250. or.)

28. «Naparcho» (250. or.)

29. «Ormachulo» (252. or.)

30. «Upelategui» (252. or.)

31. «Chipiritona» (252, 256-262. or.)

Behin bakarrik ikusi omen zuen Iztuetak hau dantzatzen, Ordizian, Santa Ana egunean, baina mugimendu eta pauso guztien berri eman zigun.

32. «Erreberenzia» (252. or.)

33. «Chacolin» (254. or.)

34. «Mizpirotz» (254. or.)

35. «Graziana» (254. or.)

36. «Billanzicoa» (256. or.)

---

32. 13. dantza honetatik 36.era arte, azken dantzara arte, alegia, ez zigun dantzen kontesturik utzi. Non, noiz dantzatzen zen edo nondik jaso zen ez zigun adierazi, dantzen zatiak, puntuak, errepikaldirak, eta dantzarien konpasak adierazter mugatu zen soilik. Beraz, izenak eta GDK liburuko orrialdeak bakarrik zehaztuko ditugu guk ere.

Ondoren Gipuzkoako dantza-mota guztiak behar bezala dantzatzeko behar diren aldairak, hogeitabi orrialdetan landu zituen. Azken zati hau, dantza-ikaslego kuttunari zuzendua dagoela dirudi, batipat. Makina bat aldaira ezberdin, pauso nahiz mugimendu zehatzekin argitu zizkien euskal dantza zaharren sekretu konplikatuak (33).

Hirugarrenengo zati honen amaieran Jovellanos-en itzulpen luze bat dator, Iztuetaren liburuaren xedeekin bete-betean bat zetorrena. Hauxe da Iztuetak jasotzen duen zitaren laburpena: Herria bi zatitan banatzen du, aberatsak eta «necatzalleac», bata «bearra eguiten duena», eta bestea «jostatzen dana». Herri-langileak jokuak behar-beharrezkoak ditu, baina, kontuz, ez espektakuluak! Herri xehearen dibertsioei begira, ez du Jovellanos-ek, Iztuetak ere ez noski, polizi lege estuegirik onartzen. Gobernuak herriari dibertitzen utzi egin behar dio, dibertsio libre eta leku publikoetan. Eginkizun honetan alkate/bikario agintari bikoteari paper handia ematen zion.

— «*Laugarren zatia*».

Iztuetaren GDK liburuaren 1968ko argitalpenean, ondoren landuko dugun hau, laugarren zati bezala agertzen da. Gure ustez, Iztuetak, Jovellanos-en ideiak oinarritzat hartuta, Gipuzkoako herri xehe edo «necatzalle»-aren dibertsio-mota guztien garaiko kronika egin zuen. Lehen edizioan, laugarren zatia 1826an argitaratu zuena izango litzateke, eta aipatzen ari garen hau 3.aren amaiera.

Goazen mendearen lehen bi hamarkadetan Gipuzkoako nekazalgora nola dibertitzen zen ikustera:

«Pillotariac» (328-338. or.)

Munduko nazio guztien artean, pelota arloan, ez dago guri inguratzen zai-gunik ere. Jovellanos-en zita batez baliaturik:

«También en esto se distingue el pais bascongado. No hay pueblo considerable, en el que no tenga su juego de pelota, grande, cómodo, gratuito y bien establecido» (34).

Gure antzinako arbasoek, jakintsu arrotz hauen ahotik horrelako laudoriozko loreak entzun izan balituzte, pelotaren alde zer ez zuten egingo! Baina, kirol-mota hau ere, dantzen antzera, gaitzak jotzen hasia dago. Orain hogeitaz inguru, eskuz jokatzeko eskularruak erabiltzen hasi ziren, eta aldi berean trinkete ugari sortu zen. Frontoi-mota honek pelotariari indarra eta partidu luzeetarako sasoiak kendu dizkio.

Pelotari ospetsu baten izena eman zigun, Bernardo Armendariz, frontoiak bete eta inguruko herriak husten omen zituen gizona. Oraingoak, ordea, «izena bai ta izanic ez duten ichuragabeco moldacaitzac» dira (35).

Partiduak ere erabat murriztu ziren. Donostian azken lau urte haietan ez zen benetako pelota-partidurik jokatu. Pelotariak erreglamentuzko jantziak ere ez zituzten errespetatzen. Pelotaren orduko gaitza «izurri likits» bataiatu zuen Iztuetak. Honentzat konponbide bakarra eta azkar hartu beharrekoa zen: trinketeetan eskularruz pelotan egitea debekatu.

33. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 262-306 or.

34. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 329 or.

35. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 334 or.

«Itz-neurtulari edo bersolarien jostaketa» (338-356. or.)

Atal hau Iztueta bertsolariaren alderdia aztertzean, zabalago landuko dugu. Iztueta bertsolaritzaren lehen kronista izan zen eta euskaraz egin zuen hori ere.

«Idi-apustuac» (356-358. or.)

Urte osoan egiten ziren. Dirua jokatzeko joera handia zegoen. Proba-harrien eta idien pisuak eman zizkigun. Atal berean, beste apustu-mota batzu ere aitatu zizkigun: gizon-froga, gizonak idien kontra, pisua garraiatzeko apustua, zakuak jasotzen ...

«Ari-apustuac» (358. or.)

Zaletasun handiko dema zen. Herriko plazan egiten zuten talkan ahariak. Iztuetak, 1812. urte inguruan, berak ezagutu zuen Bidaniako ahari txiki-txikiren bat. Tamainuz txikia bazen ere, ez zen makala bere artezia.

«Bi-urteren barruan jocatu-zan geienez amar-aldiz, berau alaco-bi andi-ziradenakiñ, eta guzietan irabazi-zuen, bere jocotriaz baliaturic, chit aissa».

«Makill-urrutilariakiñ, saltalari, eta chingolariac» (360. or.)

Artzaiek irrika bizia izaten omen zuten joku hauetan: eskuko hiru behatze makila jaurtkitzen. Michelto harrigarria omen zen. Makilaren bidez jauziak egiten, txingoan saltoak egiten ... (36)

«Makilcariac» (360-362. or.)

Gipuzkoarrek trebezia handia izan dute, Iztuetaren arabera. Hiru izen sonatu ageri dira liburuan: Jose Domingo Barrendain Beasaingoa, Bidaniako Bautista eta Zizurkilgo Juan Jose Iguayen.

«Palancariac» (362-364. or.)

Gipuzkoan palankari ugari eta onak izan ziren, dena den, Juan Bautista Mendizabal bere herrikidea bezalakorik ez zuen ezagutu zaldibiarrek.

Eta hirugarren zatiaren bukaeran, obrari amaiera emanez hogeitabat bertso berri idatzi zituen.

Korrejidoreak, GDK liburuko lizentzian dioen bezala, ez zion Iztuetari laugarren zatia argitaratzen utzi. Bi urte geroago argitaratu ahal izango zuen (37).

1.5. «Euscaldun anziña anziñako ta are lendabiziko etorkien dantza oniritzi, pozkarri, gaitzik gabekoen soñu gogoangarriak, beren itz neurtu edo ber-soakin» (38).

M.J. Ezeizabarrenaren liburuko testuan, 271-302 orrialdeetan oinarritu gara GDK liburuauren laugarren zatia aztertzerakoan.

---

36. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 36 or.

37. IZTUETA, J.I. (1968), aip. ob., 370 or. «Oarkera edo adbertentzia». Obra-onen zatiric-gueienetan agindu-deran bezala, jarriac-neuzcan soñu-zar gogoan-garrien itz-neurtuac: baña Correjidore jaunaren-aguindua egitearren (beraren lizentzian icusico dezuten bezala) ez ditut ezarri. Guisa-berean escañi-det, soñu-beraen otsakinda edo musica; zeña arkitzen dan moldizki edo prensan, eta arguitaratuco deran egun guchiren-epean. Nere naikida zan obrarekin-batean, musica-ere ematea; bañan aimbesterañokoa izanic, ochandiki edo publicoaren eresia, lembait-len aguertaratzeco; beartu-naiz bacarric ura, au baño lenago ematera».

Ondoren, 372-377 orrietan «Iztueta-ren Liburu onen osagarritxo» dator, Aita Meagher-en ardoari buruzko bi zortzikok osatzen dute eranskin hori.

38. GDK liburuauren laugarren zatia aztertzerakoan, IZTUETA, J.I. (1990), M.J. EZEIZABARRENAK prestatu duen aip. ob., 271-302 orrialdeetan oinarritu gara.

Hitzaurrea: M.N. Y M.L. Provincia de Guipúzcoa.

Hitzaurre honek bi zati ditu: bata ia dena erdaraz idatzia, 1827-VII-2koa da, eta bestea datarik gabea.

Lehen partean, GDK liburuko dantzen letra eta musikaren zain zegoen irakurle goari diskulpak eskatuz (39) eta Pedro de Albéniz, musikako irakasleari eskerrak emanez, zati honen aurkezpena egin zuen. Hitzaurrearen azken lerroak, euskaraz, hauexek dira:

«Bizi bedi Gipuzkoatarren biotz biguñetan beti betiko sarturik aurkitzen dan Errege on Fernando zaspigarren maite maitagarria. Bizi bedi doatsueraz betetako gure ama Gipuzkoa oneski gozatsua. Bizi bitez batzarre aundientsu orretan jaioterriko oitura gogoangariak iroztozera baturik dauden etxejaun prestu leialak. J.I. Iztueta» (40).

Bigarren zatian, lehenik, Iztuetak historiari buruzko iturriak ematen dizkigu: Garibay, Sandobal, Moret, Oyenart, Bachiller Zaldivia, Isasti, Camino. Eta hizkuntzaren arloan, berriz, Larramendi, Astarloa, Erro eta D'Iharce de Bidassoueten «*Historia de los Cantabros*» obran oinarritu zen. Iztuetak berak esango digu bere helburu zehatza eta aipatutako idazleetatik bereizten duena zein izan zen:

1. Herriaren ohitura, dibertsio eta barne sentimendu arrunten azterketa egitea.
2. Galtzorian zeuden herri-abestiak salbatzea.
3. Herrien arteko konparaketak egiteko baliabideak jasotzea.

Iztuetak egin zuen lan honetan zenbait herri-baloreren ñabardurak eman zizkigun. Aipa ditzagun bakar batzu:

- euskal abestietan emakumezkoenganako maitasun neurtuxea agertzen da.
- alkateari, dantzatzerakoan, baimena eskatzeak lege eta Foruekiko begirunea adierazten omen du.
- plaza agirian egiten den dantza eta jo edo kantatzen diren abestiek euskaldunon arintasun eta sasoi nabarmentzen dituzte.
- Letra batzu antzinakoak dira.

«No diré que todos los retazos que he reunido sean de una remota antigüedad, pero muchas, es evidente que la tienen» (41).

Jarraian, Iztuetaren garaian hilda baina ezagunak ziren musikagileen zerrenda luzea utzi zigun, Peñafloredako Kontea, Manuel Sagastiu jauna, Fausto Corral jauna, Joaquin Yun jauna ... Hauen ondoren, bizi zirenen artetik bi aukeratu eta biekiko zuen zorra aitortu zigun, bai Hernaniko organista zen Manuel Larrarterekikoa, bai lan hauen egile eta bere maisu izan zen Pedro Albeniz jaunarekikoa (42).

Iztuetaren GDK liburuko Letra eta soinuak:

Berrogeitamar soinu aipatzen dizkigu, hogeitamasei dantzen soinuak gehi hamahiru aldairanak eta, amaitzeko, Aita Meagherrek ardoari jarritakoarena (43).

39. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 273-274 or.

40. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 274 or.

41. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 277 or.

42. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 279 or.

43. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 280-302 or.



Dantza eta aldaira guztiei Iztuetak ez zien tratamendu bera eman; batzuek letra luzea daukate, beste batzuek labur-laburra, eta beste multzo batek ez du letrarik. Adibidez, Kuarrentako Erregela, San Sebastian, Galantak, Txantxakak, Erregela Zarra, Eun da Bikoa, Mizpirotz, Ezpata Dantza izenekoek letra luzea dute, batzutan hamabost bertsozara iristen dira. Beste kasu batzutan, berriz, ez daramate letrarik, Gizon Dantza, Gazte Dantza, Etxeandre Dantza, Galaien Esku Dantza, Neskatxen Esku Dantza, Edate Dantza, Brokel Dantza, Pordon Dantza, Jorrai Dantza, Azeri Dantza, Bizkai Dantza e.a.en kasuan bezala.

Letren antzinatasunari buruz, lehenik esan behar da Iztuetak aitortu zuela denak ez zirela antzinakoak, baina ez zuen esan berak sortuak ere bazirela tartean. Gaur badirudi gehienak berak asmatuak izan zirela. Gai hau ongien aztertu zuena Orixe da (44).

### 1.6. GDK liburuan bigarren eskaintza Gipuzkoari egin zion (45).

GDK liburuko lehen eskaintza Donostiari egin bazion ere, oraingo hau Gipuzkoari oparitu zion. Biek badute egitura aldetik antzik, baina gauzarik harri-garriena zera da: irudimenezko zatiak eta errealitatezkoak hain ongi daude nahasirik, ze non hasten diren batzuek eta non besteak ez da erraz bereizten.

«Zirikatu zinduzten Fenizioak, kaltarriatu Kartagoak, erazo Erromatarrek, atsekabetu Godoak, sumindu Arabeak: bañan zu ama illezkorra ...» (46).

Augusto Erromatarra iritsi zen Gipuzkoara, «Tubalengandik 2160garren urtean, eta 26 urtez Jesucristo jaio baño lenago».

Ernio inguruan jokatu zen borroka latza eta azken gudua, berriz, Errezilgo zelaian 300 erromatarrek 300 euskaldunen aurka egin zuten; irabazi zuen Gipuzkoak.

Augustok, txunditurik eta Erromako Senatua konbentzitzeko, antzeko gudu bat Erroman egitea eskatu zien gipuzkoarrei. Hauek onartu zuten eta ehun soldadu erromatar beste ehun gipuzkoarren aurka lehiatu ziren Trans Tiber izeneko leku batetan. Han ere, erraz irabazi zuten euskaldunek. Saritzat Gipuzkoaren pakea eta larogei soldadu gipuzkoar Senatuko alabekin ezkontzeko aukera eman zieten.

Oiartzungo Lartaungo semea zen Erromara joan ziren ehun gipuzkoarren buruzagia. Honek eliza bat eraiki zuen Erroman, bere izena zeramana, San Juan de Letran, hain zuzen.

GDK liburu honen bidez, Euskara eta Gipuzkoa amari irtenbide ona eskainiaz, hitzaurrea amaitzen du eta 1824-X-12an sinatzen.

### GDK liburuaren Ekarpena

Iztuetak 1815. urtean amaitu zituen epaitegi eta espetxeekiko harremanak. Handik bederatzi urtetara GDK liburuaren hiru zatiak argitaratu zituen Unceta

44. ORMAETXEA, NIKOLAS (ORIXE) (1931), «Iztueta y sus canciones. El elemento tradicional y la aportación personal de Iztueta en las letras de las canciones de Guipuzcoaco Dantzac». Euskal Esnalea, XXI, 9-16 or.

45. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 307-311 or. Eskaintza hau 1977an, BAP XXXIII, 545-549 or. Garmendia, Josek argitara eman zuen izenburu honekin: «Una dedicatoria inédita de Guipuzcoaco Dantzac».

46. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 307 or.

politikari eta J.R. Elorza apaizaren oneritziak jaso eta gero; laugarren zatia, aitzitik, 1826an, eta 1830ean Donostiako «Puerta de Tierra»-ko Zeladore lanpostuarenean jabe egin zuten. 1826ko abenduan Diputazioko idazkariak olerkiren bat euskaratzeko eskatzen dio (47). Iztuetaren bizitzako mugarria bilakatu zen GDK, bere garai berriaren hasera izango zena, ospetsu egingo zuena: euskal ohitura, dantza, dibertsio eta bertsoaren lehen euskal idazle bihurtu zuen GDK liburuak.

Irakurleri aholku hau emango genioke: orain dela bi urte, Ezeizabarrenak argitaratu zuen liburu eder hori irakur dezala, adibidez, liburuaren laburpena, 20-21 orrialdeak edota GDK liburuan Iztuetak agertzen duen pentsakera eta bere iturriak, 22-27 orrialdeetan.

Jose A. Donostia musikari trebeak GDK liburuaz haxe idatzi zuen:

«Los comentarios de Iztueta en su libro nos descubren que lo que él describió es algo vivo, observado por él, no aprendido en libros. Lo cual da a su obra un sello de autenticidad incontestable» (48).

GDK liburuak euskarari buruz asko hitzegin daiteke. Idazlan honen boskarren atalean Iztuetaren euskara aztertzen dugunerako uzten dugu gai nagusi hau, baina zertxobait aurreratuko dizuegu, bai euskarari, bai idazkerari buruz.

Lexiko aldetik Larramendizale itsua, itzulpenetan traketsa, joskera erdarakadaz josia, estilo puztua eta errepikakorra, eta diskurtsu korapilotsua erabili zituen, baina lexikogintza teknikoari aurre egin zion, folklore gaia euskaraz lantzen aitzindari izan zen, XVIII-XIX mendeetako Goierriko eta Gipuzkoako dibertsioen lekukotasun bakarra dugu, eta liburu horren edozein orrialdetan aurkitu ditugu adibide zoragarriak, herrietako datu xehe eta zehatzak, pertsonaien zerrendatxoak, eta hitz batean esateko, sorpresaz betetako liburu ederra dugu.

Liburu hori aitzindari izan bazen ere, ez zen igarle gertatu. Francisco Gascue idazleak 1915 urtean Euskalerraren Alde aldizkarian GDK sakonki aztertu zuen «*El aurreku en Guipúzcoa a fines del siglo XVIII, según Iztueta*» artikuluetan, eta beraien sarreran aitormen hau egin zuen:

«Varias veces había tenido el libro en mis manos, y varias veces me había enterado de alguno que otro capítulo suelto, al acaso. De esas rápidas exploraciones, sacaba siempre la opinión de que era pesada su lectura, y de ningún interés. He cometido un grave pecado de ligereza; de él me acuso, como particular y como vasco» (49).

Beste pasarte batetan idazle bera darraio:

«El hecho es que, aquellas melodías habían ido desapareciéndose poco a poco, y que Iztueta sabiéndolas de memoria, las podía cantar ante Albeniz ó ante quien fuese» (50).


---

47. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras Inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia Vasca, Retana, Bilbao, 139 or.

48. DONOSTIA, JOSÉ A. (1952), «*Historia de las Danzas de Guipúzcoa, de sus melodias antiguas y sus versos. Instrumentos musicales del Pueblo Vasco*». Icharopena, Zarauz, 2 or.

49. GASCUE, F. (1974), aip. art., 659 or.

50. GASCUE, F. (1915), aip. art., 665 or. ARANA MARTIJA, JOSÉ ANTONIO (1987), «*Música Vasca*». CAV de Bilbao, 143 or.



Jose I. Pujana, Iztuetaren jarraitzailea. (Garmendia, Obras Inéditas)

Gascuek Donostiako bere laguna eta musikolari herrikoi ezaguna zen Basurkori bisita bat egin zion, eta honek danbolinez jotzeko bi koaderno, eskuz idatziak eta soñuz osatuak erakutsi zizkion, 1836 eta 1850 urtetakoak. Ondorio hau ateratzen du Gascuek:

«Quiere decir que, en San Sebastián, en 1850, los tamborileros no conocían, ó, cuando menos no usaban todavía el famoso 5 por 8, que se nos dice ser algo muy antiguo y casi legendario» (51).

Erruak erru, akatsak akats eta lorpenak lorpen, Iztuetak asko zor dio GDKri eta zeresanik ez guk, euskaldun guztiok liburu honi eta beronen egileari.

## 2. Gipuzkoako probintziaren kondaira

GPK liburuaren argitalpenak:

Liburu honek bi argitalpen izan ditu: bata 1847an eta bestea 1975ean. Lehenengoaren izena hauxe da: «*Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia ceñetan jarritzen diraden arguiro beraren asieratic orain arte dagozquion barri gogoangarriac*». Baroja. Egilea hil ondoren Diputazioak argitaratutako liburua.

1975ean berrargitalpen faksimila egin zitzaion, La Gran Enciclopedia Vascan; hitzaurrea, oharrak eta itzulpena Jose Lasa Apalategik gauzatu zituen. Guk testu hau erabili dugu.

### 2.1. Hitzaurrea

Juan Inazio Iztuetak bere liburuaren hitzaurrean goraiatzen ditu lehenengoz eta ia etengabe Gipuzkoa eta gipuzkoarrak. Goraiatze hori konstante bat izango da bere obra guztian; baina, bere kezka eta haserre batzu ere ikus ditzakegu hasierako lerro hauetan.

Sarrera honetan Iztueta «Baskoiberismo» teoriaren aldeko defendatzaile sutsu azaltzen zaigu, hots, gipuzkoarrok garelako Tubal Aitalehenaren ondorengo jatorrak, gu izan garelako Iberiar penintsulako lehen biztanleak, odol garbia gordetzen dugun bakarrak, gezurrezko jainkorik gurtu ez dugunak, e.a., alegia.

Geu gara lege zaharrak gordetzen ditugunak; kanpotik etorritako etsaien aurrean amore eman gabe eta beroriei aurre eginez bizi izan gara.

Ondoren, Gipuzkoaren goraiapmena egiten digu, bertan badagoela zer jan eta edan ugari eta menditsua izan arren paregabea dela esaten digu.

Gero, hitzaurrearen zatirik handiena eta garrantzitsuena datorkigu, hau da, hizkuntzari eskainia. Gure euskara akatsik gabea, garbia, gure askatasunaren ezaugarrietako bat, e.a.; halere badituela etsaiak esaten digu; kanpoan nahiz etxean, eta horren arrazoitzat ezjakintasuna jotzen du.

Bertan, Gipuzkoan, bizi diren 120.000 lagunetatik 100.000 euskaldun garbiak direla esanez jarraitzen du, eta 20.000 horietatik, erdiak, euskaraz ez dakitenak eta beste erdiak erdi euskaraz erdi erdaraz mintzo dira.

---

51. GASCUE, F. (1915), aip. art., 668 or. ARANA MARTIJA, J.A. (1987), aip. ob., 104-105 or.

Hizkuntzarekin lotuta daudela arbasoen legeak, eta haserre eta kezkatu agertzen zaigu zenbait puntutan, adib. apaiz guztiek euskaldunak izan behar dute, eta gogor kritikatzeko du eskoletan ematen den egoera, hots, dena erdaraz ikasi beharra alde batetik eta euskaraz hitzegiteagatik jasaten diren zigorrak bestetik.

Foruetatik datorkigu zoriona; baina, jakina, Foruak ondo gordetzeko tresnarik onena euskara da, hauxe dio honetaz:

«Cergaitic alcarri laztanduric arras itsatchiac arquitzen diran, batac bestea ecin laga dezaquean moduan. Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan euscara bici bada, Fueroac piztuco dira. Fueroac nai dituanac, maite izan bear du euscara; eta euscara maite dabenac, euscaldunai euscaraz bear die itzeguin ta adierazo, berai, dagozquioten gauza guzti guztiac. bestela, zapuztuco da euscara, muishinduco dira euscaldunac, eta igues-eguingo dute Fueroac» (52).

Foruek eta euskarak duten arazo honekin lotuta aita Larramendiren zita bat dakarkigu gogora, 1747ko martxoaren 15ean lagun bati idatzitako iskribu bat, hain zuzen ere.

Izuetak hitzaurre honetan bere burua ezjakintzat hartzen du, berak aitortzen du bera ez dela gauza liburu hau behar bezala idazteko; baina, ...

Sarrera honekin bukatzeko liburuaren egitura azaltzen digu, eta guk Manterolak bezala banatu dugu (53):

- 1) 3 kapitulu: «Orígenes de Gipuzkoa y del euskara en España»  
«Relación de las principales regiones, pueblos, montañas y ríos del mundo»
- 2) 14 kapitulu: «Descripción física y topográfica de Gipuzkoa»  
«Reseña de sus principales productos naturales»
- 3) 25 kapitulu: 6 atal: «Religión, usos y costumbres de los guipuzcoanos»

19 atal: «Parte verdaderamente histórica, hecha con gran naturalidad y sencillez»

Hauxe gaineratzen du Manteroak Kondairaren lehen edizioaz:

«1847. Un volumen en 8ª, prólogo 1-X, 524 páginas. Quedan contadísimos ejemplares a la venta (1877an, alegia). Escrito bajo los auspicios, según creo, del celoso y distinguido vascófilo Agustín P. Iturriaga» (54).

Azkenik esan beharrean gaude liburu laburtu egin dugula luzeegia gerta ez dadin, eta bestetik kapitulu bakoitzaren amaieran bertso bat dakarrela, guk bat edo beste baino jartzen ez baditugu ere.

«Provinciaco gende leial ta arguia,  
izaite dezutelaco ceren sort-erria;  
Ezquiñitzen dizutet Euscaraz jarria,  
Ama Guipuzco onen bicitza garbia».

---

52. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), «Historia de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Condaira». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, VI or.

53. MANTEROLA, JOSÉ (1981), «Cancionero Vasco» I, 1. Sendoa, Donostia, 37-38 or.

54. MANTEROLA, JOSÉ (1981), aip. ob., 37 or.

## 2.2. *Gipuzkoako Kondairaren aurreneko zatia*

«Ceñetan icusico diran argui eta garbi, provincia chit anciñaco onen asiera noiztic eta nola izandu zan, eta beraren lendabizico etorqui ta guerozco jaiotarrac cer itzcuntza izan duten beti» (55).

Lehenengo zati honek 3 atal ditu eta berorietan Gipuzkoaren haseraz mintzo da aurrenekoz, Tubal izan zela Iberia etorri zen lehen gizona gure lurraldean finkatu zelarik, izan ere bizitzeko baldintzarik egokienak hemen aurkitu bide zituen.

Ondoren Tubalen euskalduntasunaz hitzegiten digu Iztuetak, euskara dela Espainiako aurreneko hizkuntza; bertako mendi, ibai, belar ... Armeniako erara izendatuz, behar bezala jarritakoak direla gaineratuz. Halere euskarak badituela etsaiak eransten du; dena den jende hau ezjakintzat hartzen du. Bestalde, Larramendi, Astarloa eta Erroren lan bikainak goraiatzten ditu.

Gero, eta lehenengo zati honekin bukatzeko, Tubalismoaren defendatzaile sutsu agertzen zaigu, ondorioz lehenengo probintzia, mendi, izen e.a. euskaldunak direla dio. Adibide gisa, hauxe: ASIA «hasi»tik omen dator, ASIRIA «hasi zen hiria» e.a., eta hau zalantzan jartzen duena J.B. Erroren liburua, 1815ean argitaratua, ikustera konbidatzen du.

«O Euscara gozatsu cintzo jaquintia!  
Ezagun da zu bici ceraden toquia;  
Izan ta izango da beti maitatia,  
Gogoz edan debana cedorren titia» (56).

Ikus dezakegu Gipuzkoa eta euskararen goraipen biziak egiten dituela.

## 2.3. *Gipuzkoako Kondairaren bigarren zatia*

«Ceñetan jarrico ditudan Guipuzcoaco provinciaren lur, mendi, berar, arri, meatze, iturri, ibai, zuaitz, garau, abere, egazti, arrain eta beste cembait gauza gogoangarri cer ta nolacoac diraden» (57).

Bigarren zati hau 13 kapitulutan dago banatuta eta bertan izenburuan agertzen den bezala Gipuzkoaz eta bertako lur, mendi, belar eta abarrez mintzo zaigu.

Ordena bat jarraituz esan Gipuzkoaren kokapenarekin hasten dela, hori zehatz-mehatz adierazi ondoren lurralde honek dituen mugak eta mugakideak aipatzen ditu, hedadurarekin jarraitzen du eta hemengo klimaz hitzeginez bukatzen du hasiera hau.

Lehenengo sarrera hau amaituta probintzia honetako lurren ezaugarriak ematen dizkigu, beti ere laudorio handiak eginez, eta hemengo nekazaritzara bideratzen du ondoren bere luma, hori goi-mailakoa eta Gaztelakoa baino aberatsagoa eta oparagoa delarik. Hemen ereiten denaren berri zehatza ere ematen digu, artoa delarik begiramenik handiena duena; jakina, soroak eta baratzak oso ondo zainduak daude eta garai batean hemengo produktuak, baratza eta soroetakoak, esportatu egiten zirela diosku.

55. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 1 or.

56. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 23 or.

57. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 23 or.

Aurreneko bi kapitulu hauek orokor samar tratatzen baditu ere, ondoren datozenetan gai edota puntu bakoitza zehatz-mehatz, eta nola ez, etengabeko goraipamenak eginez eskaintzen dizkigu.

Mendiekin jarraitzen du bere iharduna, ondo hornituta gaudela eta eskaintzen diguten babesaren zenbaterainokoa den ez dagoela jakiterik gaineratzen du, berauetatik makina bat gudaoste jipoi ederrak hartuta atera dela eranstean du. Oparotasunaz mintzo zaigu ondoren eta horren adibide gisa Pliniok, erromatar famatua, berorietan aurkitutako 200 sendabelar mota baino gehiago aipatzen digu, eta bide batez kezu da Izueta bertako dirudunak kanpora joan eta euren etxea ezagutzen ez dutelako. (Berriki hil den On Joxemiel Barandiarani ere behin baino gehiagotan entzun diogu kontu hau).

Belar kontuari heltzen dio gero, eta haxe dio: handiusteko askok pentsatzen duela hainbat eta hainbat belarrek ez duela izenik eta zenbait sendagile euskaldun erdara txarrean aritzen dela belar horiek izendatzen. Ondoren anitz belarren izenak ematen dizkigu.

Harrobi kontuak dakartzkigu gero, eta aski dela hemengo eliza, jauregi eta abarrei begirada bat botatzea dauzkagun harrobien ugaritasun eta aberastasunez jabetzeko, gainera kanpotarrek ere aitortzen dute hori. Apenas dagoen harrobirik gabeko herririk.

Meatzei dagokie hurren eta hauek ospetsuagoak ditugu, kanpotik ere etortzen bait dira guregana menasta bila. Beruna, burnia, kobrea eta zilarra dira ugariak. Meategien zerrenda luze bat ere badugu liburuan.

Iturriak dira mintzagai ondoren, hauek ugari, agortezin eta hainbat klase-takoak dira, bere barnean propietate askotxoren jabe direlarik. Gaur egun oraindik bizirik dagoen eta hainbatetan entzun dugun kontua zentzugabekotzat dauka Iztuetak, perretxikoak eta arraia jan ondoren ura edatea txarra dela, alegia. Hemen ere ematen digu iturrien zerrenda luzea, bere xehetasun eta guzti.

Ibaien txanda dugu oraingoan, zeintzu diren esan ondoren ibilbidea zehazten digu, goraipamenaz ahaztu gabe, noski.

Basoei tokatzen zaie orain, hemengoetan ematen diren zuhaitzen aipamen luzea eman ondoren, ugariak pagoa eta aretxa (haritza) dira eta «pinurik ez dago». Egurra asko erabiltzen da Gipuzkoan, untzioletan e. a., eta gainera kanpora eramaten da. Hemen haserre azaltzen zaigu, izan ere

«Españaco Itztegui Condairazco ta Luceazaltar Nafarroaco Erresuma eta iru Provincia Euscaldunac»

liburuan hemen baso gutxi dagoela esaten da eta Juan Inaziok ea nora begira egon zen egilea datu horiek hartzerakoan esaten du.

Hurrengo garauen ataltxoak dugu, baliotsuenak gaztaina, sagarra, intxaurra eta ezkurra ditugularik. Eskualde bakoitzean zer ematen den gehien esanez jarraitzen du, eta sagardoari buruzko arau batzu ere azaltzen dira, eta bere ustez edari hau ez da Tolosatik beherakoa, goialdekoa baizik, goiko herriak zaharragoak bait dira. Segidan hemen biltzen diren zenbait fruituren ondasunak eta dohaiak dakartza, gaztaina da nagusi eta garrantzitsuena, bera bait da hemengo elikaduraren ardatzetako bat.

Abereak datoz garauen atzetik, eta egia esan bada ugari, lanerako ere baliagarriak dira oso. Probintzia honetako abere eskurakoien zerrenda eman ondoren, berorien sailkapena dakar, bakoitza dagokion sailan kokatuz eta bako-

tzaren ezaugarriak aipatuz. Hemen eta bukatzeko gure mendietan bizi diren piztien zerrenda dakarkigu.

Hauen ondoan Gipuzkoan hazten diren hegazti eskurakoiak dauzkagu eta baita bakoitzak zenbat diru egiten duen ere! Hiztegi bat ere, hegazti eta piztiei buruzkoa, badugu.

Eta bigarren zati hau bukatzeko gure probintziaren mugapeko itsaso eta ibaietan harrapatzen edo arrantzatzen diren arraien azalpena daukagu. Arlo honi dagokionez, ezin ditxa handiagorik izan, ondo hornituak bait gaude, eta gainera hemengo arrantzaleak punta-puntakoak dira. Kanpora ere, Madrila esate baterako, eramaten da arraina hemendik.

«Bale arrapatzalle azcar ta cintzoac  
Guipuztarrac ciraden lendabicoak;  
Bide bague quendurik oci itsasoac,  
Ingueles ta Francesac dira guerozcoac» (58).

#### 2.4. Gipuzkoako Kondairaren hirugarren zatia

— Kondairaren hirugarren zatiaren lehen partea

«Guipuzcoaco biztanle-en erligioa, doain, griña, languintza, jostaldi ta oiturac, beren gurasoak eguindaco azaña andiaquin» (59).

Gipuzkoako Kondairaren hirugarren zatia bi sailetan edo bana dezakegu, alde batetik lehenengo 7 kapituluak, zeintzutan, izenburuan jartzen duen bezalaxe, gipuzkoarren erlijioaz, langintzaz eta abarrez hitzegiten digun eta, bestetik, geratzen diren beste hamazazpiak. Azken hauek dira kondairari buruzkoak.

Zati honetan, beste bietan legez, gipuzkoarren etengabeko goraipamena egiten du J.I. Iztuetak, hori liburu honetan konstante bat da.

Esan bezala, bi zatitan bereiztu dugu 3. saila eta hasteko erlijioaz mintzo da autorea, gai honetaz hauxe dio:

«euskaldunek betidanik gurtu dute arimako begiekin baino ikusten ez den zeru eta lurraren Egile Handia, Jaungoikoa deitzen diotelarik. Gipuzkoarrek ez dute beste inor adoratu eta Jesukristoren Ebangelioa entzun bezain laster laztandu zuten berau. San Saturninok ekarri omen zuen kristautasuna gure lurretara, eta beregan fede handia dute euskaldunek, Zaldibian santu honi eskainitakoa inguruko zaharrenetakoa dugularik».

Probintzia honetako jendearen sinismena frogatzeko nahikoa da Gipuzkoako Foru-liburuan begiratzea, honelaxe esaten da honetan:

«Kristau ez denari ez dakioko bizilekurik eman gure Probintzian».

Elizkizunak dirauen bitartean salerosketako lekuak itxita egoten dira eta plazan ezin da jostaketan ibili.

Ondoren gure jendearen dohaiak, grinak, izaerak eta eginbideak ditu mintzagai. Horiek dira Espainiara lehendabizi etorritakoen ondorengo zuzenak, odol garbikoak, ondratuak, leialak, bulartsuak, ..., kanpotarrek ere aitortu dituzte dohai hauek.

58. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 208 or.

59. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 209 or.



Igandeetan herriko plazan biltzen dira beren denborapasa eta jolasetarako, beti ere alkate eta apaizaren begiradapean. Jolas hauek dantza, pelota, palanka, ... dira; eta hauetaz aparte bada beste bat guztiz miragarria, hots, bertsolaritza edo hitz-neurtuak, eta hauen bidez pasatzen ziren gurasoengandik semeengana ohiturak, hazainak, ...

Adituek diotenez, musika Jovellanosek asmatu zuen; baina Iztuetaren arabera gipuzkoarrek askoz ere lehenagotik jotzen zuten txilibitua.

Bertsotarako eta dantzarako dohaiak hemendik kanpo ez dira gehiegi eza-gutzen, eta honen arrazoia euskaldunak izatean datza.

Gero hemengo lanbideen txanda da eta ezagunenak artzantza, atxurgintza, ikazkintza, burdingintza (ezpata, su-arma, aingurea, ...) e.a. dira. Artzantza da, autorearen arabera, gizonaren lehenengo ogibidea, eta bizimodu horren xehetasun oro ere badamaigu.

Nekazaritza datorkigu ondoren eta liburuan noiztik hasia den, langintza honetarako behar diren lanabesen zerrenda eta xehetasunak ere ematen dizkigu. Bizibide hau, artzantzaren ondorengoa dugu. Euskaraz erraminta horiek hitz gar-bia ba ote duten galdetu omen zion 1832. urtean madrildar batek Iztuetari, eta baita honek eman ere.

Gaineratzen du nekazariak artzaiengandik gauza on asko ikasi dituztela, elkarri laguntza eta laguntasun handia eman diotela, eta ez hitzez bakarrik ...

Eta hirugarren zatiaren lehenengo sail honekin bukatzeko, gipuzkoarrek plaza jokatu ohi dituzten pelota-partidu, idi-dema eta abarren berri daukagu.

Denetan ezagunena pelota dugu, eta jakintsu askoren arabera gure herrian sortua da. Jovellanos jakintsuak hau dio pelotaz hitzegiten duenean:

«También en esto se distingue el País Bascongado. No hay pueblo considerable en el que no tenga su juego de pelota grande, cómodo, gratuito, y bien establecido y frecuentado; y así como juzgamos que los bailes públicos influyen en el carácter moral, hallamos también en ellos, y en estos juegos la razón de la robustez, fuerza y agilidad de que están dotados aquellos naturales» (60).

Ikusgarria da pelotarien bizkortasuna, azkartasuna, ... jai guztietan jokatzen da eta jende-mota guztiek, nahiz agintariak nahiz herri xeheak, nahiz apaizek. Sona handikoa da, Hernaniko plazan lau nafarrek eta lau gipuzkoarrek jokatutako partiduan, izugarritzko dirutza jokatu omen zen; baina, azkenean, irabazleak eta galtzaileak adiskide, hau bait da gure herriaren ezaugarrietako bat, adiskidetasuna, alegia.

Pelotaz gain badira beste joku-mota asko, ezagunenak idi-demak, aizkol-jokuak, ahari-jokuak, pultsuak, makila jaurtiketa, saltoak eta korrika zirelarik.

— Kondairaren hirugarren zatiaren bigarren partea

Hemen hasten da hirugarren zatiaren bigarren partea. Hau da kondaira dei dezakeguna.

Historia hau orain dela lau mila urte baino gehiago hasten da, Tubal Espainiara etorri zenetik oraindaino. Denboraldi horren barruan joan-etorri asko

60. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 242 or.

**GUIPUZCOACO PROVINCIAREN**  
**CONDAIRA EDO HISTORIA**

CEÑETAN JARRITZEN DIRADEN ARGUIBO

BERAREN ASIERATIC OBAIN-ARTE DAGOZQUION

BARRI GOGOANGARRIAC.

EGUIN ETA ZUCENDU CEBANA

**D. Juan Ignacio de Oñueta**

*Guipuzcoaco dantza anciñacoen condaira-ren  
eguillea, eta bertaco soñu zarrac bildu  
ta arguitaratu cituenac.*



**DONOSTIA**

IGNACIO RAMON BAROJA-ren moldizteguiari  
1847 garren urtean eguiña.

izan dira: baina, denei jakin eta eman die aurpegia gure herriak. Espainiako Erresuma handia Tubaltar euskaldun garbiez bete aurkitzen zelarik, bertako urre eta zilarrak harrapatzeri etorri ohi ziren, eskubiderik gabe, zeltak, fenizioak, kartagiarrak, erromarrak, arabeak eta godoak; euren lege eta hizkuntzak Espainian ezarri zituzten; baina Gipuzkoan sekula ez, gure herritarrek ez bait zieten sartzen utzi.

Zelta, fenizio eta kartagiarren ondoren, K.a. 29 urtean etorri ziren erromatarrek Espainiara. Hauekin hasten dira gure historiaren xehetasunak. Hauek gure probintzia menderatu asmoz etorri ziren; baina, izugarrizko jipoiak jasan zituzten. Pasara hauen berri iritsi omen zen Erromara eta hango Senatuak normaltzat jo omen zuen, izan ere gu geure etxean ari ginen, eta haiek ere gauza bera egingo zuketela euren gaineratuz. Hori entzunda 100 euskaldun joan ziren haien lurraldera bertako 100 erromatarren aurka borrokatzeko, eta denak harri eta zur utzi zituzten, haienak denak lurrean altxa ezinik gelditu ziren bitartean gureetako 20 baino ez ziren erori eta.

K.o. 427. urtean bisigodoak, sueboak eta alanoak sartu ziren Espainian, Asturias eta Euskalerra izan ezik beste guztia euren mende hartuz. Godoen etorrerarekin Erromako Senatuak estima handiagoa hartu zion gure herriari, honen leialtasuna zela medio.

Geroago arabeak agertu ziren Espainian, ia denen jabe egin zirelarik, hauek ere ez zuten gurean sartzetik lortu eta Pelayok errekonkista hasi zuenean euskaldun askoren laguntza izan zuen.

Mairuak Espainiatik bota ondoren bertako herriek hasi zituzten euren arteko borrokak, gureak hau ikusirik Nafarroako Errege Garzia Jimenezekin elkartu ziren 825. urtean; baina beti ere bere etorkizuna eurek aukeratzeko baldintzarekin.

Baina halako batean eta zenbait arrazoi zirela medio Gipuzkoa Nafarroatik banandu eta Gaztelarekin elkartu zen, honek izugarrizko ezineramana sortu zuen nafarren artean, ondorioz lapurreta eta hilketa ugari burutu zirelarik. Ezinikusi hauek zirela eta, gertatu zen Beotibarko bataila ospetsua, bertan nafarrek jipoi handi samarra hartu zuten eta gipuzkoarrek urtero ospatzen dute garaipen hau Tolosan.

Gipuzkoa baino 312 urte beranduago elkartu zen Nafarroa Gaztelara, eta bitarte horretan guda eta liskar ugari izan zituzten gipuzkoarrek nafarrekin; horrela, horietako batean Tolosako biztanleek, auzo-herrien laguntzaz, Leitza eta Areso kendu zizkioten Nafarroari. Oso pozgarria izan zen hau Gaztelako erregearentzat eta horrela ematen du aditzera Tolosako herriari bidalitako gutun batean.

1474. urtean egin ziren Fernando eta Isabel, Errege Katolikoak, Gaztelako errege. Garai honetan Portugalgo erregeak eta Frantziakoak bat egin zuten Espainiaren kontra. Borrokaldi honetan ere laguntza bikaina eman zieten gipuzkoarrek, alde batetik frantsesei Hondarribian eutsiz eta bestetik Burgos e.a. askatzen laguntzeko 2.000 gizon bidaliz.

Hau ikustean frantsesek herri batzu erretzea pentsatu zuten; baina, hartu zuten jipoiak ez zen nolana hinkoa izan.

1512an Fernando eta Isabel Nafarroako erresumaren jabe egin ziren. Bertako erregeak, Don Juan, ikusi zuenean ez zuela eskubiderik, Frantziara jo zuen eta indarrak bildu ondoren Nafarroa berreskuratzea bururatu zitzaion. Horrelaxe egin zuen eta egun gutxi barru bi martizti handi bildu zituen; bata, Irundik sartuz, Gipuzkoa erasotu behar zuen, Donostia hain zuzen, besteak Iruñea.

Carlos Duque Borbongoa etorri zen Hernaniraino, eta 1512.eko azaroaren 14ean Donostia inguratu zuen; baina, gipuzkoarrek nola borrokatzen zuten ikustean ihes egin zuen.

Beste talde handi bat, D. Juanen ardurapean, Iruñea erasotzera joan zen. Iruñean Albako Dukea aurkitzen zen eta hemen ere amore eman behar izan zuten erasotzaileek. Espainiako erregea Logroñon zen eta frantsesak ihesari emateko prest zeudela jakitean gipuzkoarrei agindu zien bidea mozteko, eta baita hauek moztu ere Belate eta Elizondoko harkaitzetan; kendu zizkieten gauza baliotsuen artean 12 kainoi zeuden, hauek Albako Dukeari eskaini zizkieten eta erregeak agindu zuen ordain edo sari gisa Gipuzkoako armarrarian 12 kainoi jartzeko.

1522. urtean gipuzkoarrak frantses eta alemaniarren kontrako bataila eman zen; hauek bat egirik Gipuzkoari lur zatiren bat kendu nahi izan zioten; baina, ezinezkoa gertatu zitzairen, izan ere, San Martzialen izugarritzko pasada eman zieten gure probintziako gudariek.

1524. urtean berriro frantses ejerzittoa inguratu zen gure lurraldera, batzuk Oiartzun erretzeko agindua zekarten; baina, gaizki irten zitzairen, izan ere herrira ailegatu zirenean emakume bat konturatu eta elizako kanpaiak jotzen hasi zen; nahiz eta emakume honi besoa moztu zioten, herritarrak oharteraziak zituen ordurako eta hauek Hondarribira ailegatzerako harrapatu eta sekulako jipoia eman zieten, 2 soldadu frantses baino ez omen ziren iritsi euren kanpamendura.

1525. urtean Frantziako errege zen Frantzisko martizti handi batekin Italiara abiatu zen, Paviara hain zuzen ere. Hiri horretan Espainiako soldaduak zeuden, euskaldun dexente tartean, eta horien artean Hernaniko Juanes de Urbieta. Honek Frantziako erregea preso hartu zuen. Carlos enperadoreak saritzat Santiagoko Gomendaritza eman zion. Han zegoela, Frantziako erregeak eraman nahi izan zuen berarekin; baina, Juanes Italiara itzuli zen Espainiako erregea zerbitzatzera.

Gipuzkoarrak borrokalari handi eta trebeak izan dira betidanik, orain arteko adibide horietan ikusi ahal izan dugun bezala eta luze joan ez dakigun beste bat baino ez dugu aipatuko: 1544. urtean Monsier Chanfarron izeneko frantses zaldun batek, sona handikoa berau, Frantzia osoan azaldutako etsai guztiak menderatu ondoren erronka bat bota zuen edozein gipuzkoarren kontra jokatu eta borrokatuko zuela arma berdinekin; laster azaldu zitzaion Hondarribiko Juan Perez de Azkune kapitaina, eta baita aisa menderatu ere euskaldunak frantses harroa.

Donibane Lohizune asko estimatzen zuen Frantziako erregeak, izan ere herri horretako asko eta asko kortsario-lanetan ibiltzen zen, eta ondorioz izugarritzko aberastasunak biltzen zituzten; baina, halako batean Espainiako erregearen herri bat erre zuten eta Felipe II.ak, Espainiako errege, aipaturiko herri hori txikitu eta erretzeko agindua emanik azkar joan ziren gipuzkoarrak eta naparrak eta berehalako batean erre zuten. Hau ikusirik Frantziako erregeak mendekua hartu nahi izan zuen; baina, muga zaintzen 5.000 gipuzkoar zeudela konturatzean, isil-isilik etxeratu ziren.

Berdintsu gertatu zen Gravelingasen ere, hara ere banan-banan aukeratutako 600 euskaldun bidali zituzten eta hauen ausardia ikusirik Espainiako zaldizkoak ere piztu egin ziren, horrela 8.000 frantses gelditu ziren hilik, eta hainbat zaldun handizki atzemanik.

Hurrengo mendeetan ere, 1638 eta 1719. urteetan esate baterako, hazaina handiak egin zituzten gipuzkoarrek, gehienetan frantsesen aurka, eta horrela ikusten dugu hondarribitarrek, adibidez, zenbait sari jaso zituztela erregearengandik.

1789. urtean Frantziako erresuma guztiz horniturik aurkitzen zen; uztailearen 14ean iraultza eman zen eta erregea, Luis XVI, atxilotu egin zuten. 1793an erregea ihesi ziholarik harrapatu eta gilotinatu egin zuten, eta ondoren bere ahaideak. Frantsesak mugak zabaldu asmoz zebiltzala jakin zuten hemen, eta 1793. urtean Gipuzkoako probintziak erabaki zuen 4.600 gizon prestatzea Espainiako erregearen zerbitzurako eta baita probintzia defendatzeko ere. Gerrak aurrera egin zuen neurrian, gero eta bakartiago aurkitzen zen Gipuzkoa; gauzak horrela Espainiako tropak Gaztelarantz erretiratu ziren eta Araba eta Bizkaiak ez zioten lagundu Gipuzkoari. Frantsesek euren mende hartu zituzten herri batzu, denak ez. Gipuzkoak bere mugapeko herriein batzarre bat egin zuen Getarian, frantsesen baimenarekin, eta bertan erabakitakoa igorri zieten frantsesei; baina, hori gertatu aurretik frantsesek baldintza batzu jarri zizkieten, onartezinak asko eta asko. Gauzez frantsesek tropak bidali eta atxilotu egin zituzten batzarkide guztiak, handik hilabete t'erdira eta Baionara eraman ondoren, aske utzi zituztelarik. Horrelako iskanbilatan zebiltzala etorri zitzaizen mandatari bat esanez Frantziak eta Espainiak bakeak egin zituztela; baina, ez ziren gustora geratu gipuzkoarrak.

1808. urtean, Napoleonek, ingelesak Espainian sar ez zitezen, izugarritzko ejerzittoa bidali zuen Espainiara. Horrela hartu zituen plazarik garrantzitsuenak.

Fernando VII.ari Gasteiza joateko abisua bidali zion Napoleonek; baina, hura etorri zenean frantsesak ezin zuela eta Baionara joan arazi zuen. Bere kontseilariak ez joateko aholkatu arren Fernando VII.a joan egin zen eta han Napoleonek agintea kendu egin zion, bere ordeaz, Jose Napoleon, anaia, izendatu zuen Espainiako errege.

Fernando VII.aren batera 4 probintzietako diputatuak ere joan ziren Napoleonekin hitzegitera, eta Frantziako erregeak ez zuela lurralde hauek hondatzeko asmorik azaldu zien. Gezurra badirudi ere, Napoleon ez omen zen ausartzen probintzia hauei ohitura eta eskubideak ukatzera.

Gipuzkoarrek, halere, mendira jo omen zuten frantsesei kalte handiak sortaraziz.

Azkenean, behintzat, Napoleonek Frantziara ihes egin beharra izan zuen, Espainian 200.000 gizon utzita.

Fernando VII.a hiltzean, Espainia erdia bere anaia Karlosen alde jarri zen bitartean, beste erdiak Isabelen alde, Fernandoren alde jarri ziren, eta ondorioz 6 urte iraun zuen gerra izan zen. Gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak berehalako batean altxatu ziren, eta edonoren kontra borrokatzeko prest zeuden. Nafarrak lasaiago ibili ziren eta T. Zumalakarregi aukeratu zuten buru; honek azkar bildu zituen euskaldunak. Espainiatik eta berauek ordainduta kanpotik ere tropa asko etorri zen Euskalerrira; baina, alferrik, ezin zuten Zumalakarregi menderatu, gainera apenas armarik zuten euskaldunek, halere, ia plaza guztiak berreskuratu zituen.

Halako batean, Bilbon zegoela, bala batek hankan zauritu zuen Zumalakarregi eta handik lasterrera hil egin zen. Heriotza horrek ederki mindu zituen euskaldunak. Ondoren buruzagi berria aukeratu beharra zegoela eta, zenbait sesio izan bazuten ere Maroto hautatu zuten buruzagitzarako. Honek euskaldunak asko goraiatzeko zituen, eta batez ere gipuzkoarrak.

Horrela zebiltzala, borroka gora eta borroka behera, Marotok eta Esparterok, etsaien buruzagia, elkarturik pentsatu zuten gerra kaltegarri harekin bukatu egin behar zela, euskaldunei uzten zitzaizkielarik, osorik, Foruak, ohiturak eta eskubidea. 1839ko abuztuaren 31n izan zen «Bergarako Besarkada».

24. atalean gipuzkoarrek itsasoan egindako hazainen berri daukagu. Denak ezin dira azaldu eta luzeegi gerta ez dakigun, batzu baino ez ditugu aipatuko:

1526. urtean Erretereriako Martin de la Renteria kapitaina Alikantetik Sizi-  
liara zihoala Barbarrojaren untzidia 17 «fustaz» osatua bazegoen ere, egun oso  
batez eutsi zion untzi batekin Martin de la Renteriak, gainera gauean ihesari eman  
behar izan zion itsaslapurrak.

1535. urtean Enperadore D. Karlosek Tunezko Goleta inguratuta zeukala,  
Tristan de Ugarte, kapitain oiartzuarra izan zen lehendabizi han bandera jarri  
zuen. Turkoek, bere atzetik ibili zirenean, hainbat euskaldun hil zituzten; baina,  
kapitain honek ondo hartu zuen mendekua, izugarritzko jipoia eman ez.

Ez zen hazaina makalagoa izan D. Antonio Okendo gipuzkoar kapitainak  
egin zuena, artean 27 urte bete gabe zegoelarik, ingelesten aurka. Hazaina hau  
eta horrelako beste batzu egin ondoren, erregeak Kantauriko Eskuadraren Kapitain  
General izendatu zuen, geroago «General de Flotas de Nueva España». Beran-  
duxeago, berriz, 1625. urtean Galeoien General egin zuten eta 1626. ean Almi-  
rante General. Gizon hau Gerra-Kontseilari izatera ere iritsi zen.

Eta hor dugu Elkano ere, munduari lehenengo aldiz buelta eman zion getariar  
ospetsua.

Hasieran esan bezala asko eta asko izan dira Gipuzkoan sona handiko itsas-  
gizonak.

«Mendietan ez ezic itsasoan ere,  
Guipuzcoatarrac chit azcarrac dirade:  
Beren azañac ongui gordeac alere,  
Urteac joan arren aguirian daude» (61).

Ondoren, 25. kapituluari, Gipuzkoako herrietako semerik ospetsuenen ze-  
rrenda, herriz herri, dakarkigu.

Bukatzeko, eta liburua ahalik eta ondoen uler dezagun, hiztegitxo bat dau-  
kagu.

Iztuetaren GPK liburuko hiru zatiak ikusi eta horietan agertzen diren ideia  
nagusiak eman ondoren, obraren balorazioa egitera goaz.

1) GDKtik GPKra, 1824-26tik 1847ra mende laurdena igaro zen. Iztueta,  
biak idatzi zituenean, adinez pertsona heldua zen, eta bere pentsakera, usteak eta  
ideiak adierazteko estiloa ez zen asko aldatu.

Bi obretan Baskoiberismoaren ideia garbi-garbiak azaltzen dira. Hiru euskal  
pentsalari eta idazleenganako uste osoa agertu zuen.

— Larramendiren «*El imposible vencido*» ondo ezagutu eta erruz erabili  
zuen. Autore honen «*Corografía de Guipúzcoa*» liburuaren antz izugarria du,  
nahiz eta Iztuetaren urteetan argitaratu gabea izan.

— Astarloaren «*Apologia*» liburuko ideiak fede-gaiak izan ziren Iztuetaren-  
tzat.

— Eta errespeto berezia agertu zion zaldibiarrek bere bi liburuetan Erro  
jaunari.

---

61. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 451 or.

Bi liburuetako diskurtsoa errepikakorra eta laudoriotan gehiegizkoa da: ba-  
dirudi bere helburu bakarra Gipuzkoa edo bere seme-alabak gorestea eta maiz  
bere arerioak gutxiestea dela.

2) Iztuetaren bi obretako euskara Larramendizalea, garbizalea da, baina  
GPKn euskara gozoagoa, helduagoa, landuagoa agertzen da.

3) Koldo Mitxelenari jarraituz, Iztuetaren GPK liburuak balore oso ezber-  
dinetako bi zati dauzka: bata berak zuzen-zuzenean ezagutu eta kontatu ziguna,  
zoragarria bezain onuragarria bere garaia ezagutzeko, paisaia, flora, fauna, lu-  
rraren ekoizpenak, tresnak, jokuak, ohiturak, herri xehearen bizitza ... eta bestea,  
liburuaren lehen eta azken partea, gehienbat, «historikoa», Gipuzkoaren hasera  
eta bere seme gerlari ospetsuen hazañak, histori sakontasun handirik gabe egina  
delarik. Dena den, Iztuetarentzat historiaren kontzeptua ez zen agortzen gerletako  
gertakizunetan bakarrik, alderdi zabalagoak eman zizkigun. Hori bere meritua  
da (62).

4) José Lasa Apalategik esaten duenez, Batxiler Zaldibiaren «Suma...»ren  
azken argitalpenean, F. Arozenak hauxe dio sarreran:

«Iztueta, cuya Condaira viene a ser una versión amplia de la Suma ...» (63).

Arozenaren ideia hori gezurtatzeko Jose Lasaren frogetan oinarrituko gara.  
Honek 1975ean GPK gaztelerara itzuli zuen lehen aldiz. Itzulpen horren hitzau-  
rrean zera dio:

— Ikus eta konpara bitez Iztuetaren GPKko 263 eta ondorengo orrialdeak  
eta Batxiler Zaldibiaren «Suma...»ko 124 eta hurrengoak.

— Aipatu «Suman...»n ez dago Gipuzkoako datu etnografiko, geografiko,  
metalezko meatzen informaziorik, Aralarko kobrezko meatzaren hustiaketarik ...  
zerrenda luzea; ez goaz osorik ematera.

— Gertakizun historikoei buruz, hau da, Iztuetak ezagutu zituen hiru gerlei  
dagokienez, Lasak hauxe gehitzen du: Zaldibiak orri t'erdia eskaini bazigun, Iz-  
tuetak, aldiz, 47 orrialdetan zehar eman zizkigun (64).

Beraz, uste dugu, ataundarrak arrazoi osoa duela eta beronen zita bat berrituz,  
amaitzen dugu Iztuetaren GPKren komentario hau.

«Desde su rincón apartado de Zaldibia, desde su profesión de kapagiñe, Iztueta  
es un testigo de excepción de la historia y geografía de Guipúzcoa, de su euskera,  
de sus instituciones forales en los siglos XVIII y XIX, de los males que comienzan  
a roer la cultura y la lengua vascas, de los remedios eficaces y certeros, que es  
inaplazable aplicarles, antes de que sea tarde, demasiado tarde» (65).

GDK eta GPK idatzi zituen idazlea euskal klasiko bilakatu zen.

---

62. MITXELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura Vasca*». Erein, Donostia/Zarautz,  
118-120 or.

63. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 17 or. (LASA APALATEGI, JOSEREN erdarazko  
sarreratik jasoa)

64. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 18 or. (LASA APALATEGI, JOSEREN erdarazko  
sarreratik jasoa)

65. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1975), aip. ob., 19 or. (LASA APALATEGI, JOSEREN erdarazko  
sarreratik jasoa).

### 3. Poesi bertsogintza

Iztueta folklore-biltzaile, idazle, ... baino lehen bertsolari izan genuen, hori ezin da zalantzan jarri. Gainera oso gaztetatik nabarmendu zen fazeta honetan, eta nola nabarmendu! Horren adibiderik garbiena Billabonako lehia ospetsu horretan daukagu, artean 34 urte baino ez zituela epaimahaikide izendatu zuen Zabala amezketarrak, berak joaterik izan ez bazuen ere aski ezaguna zela bertsolari-munduan adierazten digu detaile horrek, eta kontutan izan behar dugu horrelako lanetarako itzal handiko jendea eramaten zela, ez zegoela bertsolari-eskolarik, ...; beraz, esan genezake berezko dohaia eta zaletasuna zuela eta ondo landu zuena, gainera. Iztuetak bertsotarako zuen afizioa nonahi ikus dezakegu, badakigu ezteietara, eta abarretara eramaten zutela, Kondairan ere atal bakoitzaren ondorenean ikus ditzakegu bere bertsoak, eta bere bertso-olerkigintza ere hortxe daukagu. Denetan ezagunenak «Kontxesi»renak dira, ba ote da inor bertso horiek entzun ez dituenik?

Iztuetari bere idazlan guztietan nabari zaio freskotasun handia, gauzak kontatzeko abilezia aparta du, aspertezina da, lanak ondo borobiltzen dakiena dugu.

Beraz esan dezakegu Iztuetaren arlo hau bere lan guztietan nabari dela, eta beti ere baztertuxea izan bada ere, oso garrantzitsua dela bere bizitzan eta obran.

Atal honetan Garmendiaren (66) liburuja jarraitzen dugu, honela liburuaren aitzinsolasean Manuel Lekuonak hauxe esaten digu Juan Inazio Iztuetaren olerkigintzaz:

1. Iztueta ezaguna dantzari, batez ere, eta kondairazale bezala da, denak olerkiz apainduak. Iztueta ezagutzeko beharrezkoa da bere olerkigintza ezagutzea, nahiko berezia.

Garai berezietan bizi izan zen: bi frantsesteren eta bi gerrate zibilen barruan.

2. Lekuonaren ustez zerbaiten sortzaile ere bada.

Bere lanak bi alderdi ditu: a) bertsolari alderdia eta b) olerkari alderdia (olerkari-poeta), hau da, bertsolari ahozko literaturzalea, eta olerkari, idatzizko literaturzalea.

3. Olerkari bezala, arrunta, eta bertsolari alderdia nabari zaio, hitz neurtua eta «aire ta bote» oso ondo erabiltzen ditu. Errepikakor samarra da, batez ere, tematika beretsuko lanetan, adib. Gipuzkoaren goralmenean.

4. Iztuetaren bertsolari alorrean, eredu gisa bat hartzen du: «Kontxesiri» edo «Maite bat maitatzen det maitagarria». Eredu honetan batez ere «puntu-jokua» edo «rima-jokua» da nabarmena. Iztuetak garrantzi berezia ematen dio errimari, eta horrek olerki-estilo bat sorrarazten dio.

#### 3.1. Errima-puntua

Errimak, euskal bertsolaritzan garrantzi handia izan du, bera axaleko gauza den arren, koplak zaharretan mami izaterainoko garrantzia ematen zaio. Iztuetaren eskuetan errima, askotan, ustekabe sortzen da, berak airoski jarraitzen dio errima berari, pelotariak pelota «aire ta bote» erabiltzen duten bezala. Ikus, hain zuzen, «Kontxesiri»ren hurrengo bertsoa:

---

66. GARMENDIA, JOSÉ (1978), «Iztuetaren olerkiak», *Kardaberaz bilduma* 33, 9-15 or.



«begi ederra du, ta guztiz argia,  
daukat URRUTI;  
bañan ezin kendu det BURUTI  
aren ITXURA  
saldu al baliteke PIXURA  
urrearen TRUKE  
nork erosi faltako ez LUKE».

Puntuaren, errimaren indarra darabil hor aire ta bote hain egoki. Iztuetak joku hori, errima-jokua, eskola bezala erabiltzen du, hori Iztuetaren eskola eta sistema berezia da, puntuari barruko muina bapatean, jarraian ateratzea. Beste bertsolariek puntua gehienetan bi errenkadaz behin erabiltzen dute, berak segi ta jarraituan darabil. Adibidez:

«Atseginetan arkitzen naiz ni  
arkitzen naiz ni,  
ezkontzen diralako maite gozo bi  
GUSTORA;  
artako jaio ziran MUNDURA;  
Gipuzkoa guztia txit POZTU DA».

Edota beste hau:

«Gaur EZPATADANTZARI  
aurren-AZKENDARI  
korpus ta SAN JOAN  
dituztela GOGOAN,  
ZALDIBIARRAK,  
gazte ta ZARRAK,  
or dabilza DANTZAN  
beren herriko PLAZAN».

### 3.2. *Erritmoa*

Bere bertsoak kantatzeko, doinu zaharrez gainera, doinu berriak ere aukeratu zituen. Iztuetak, orduan kalerik-kale kantatzen zen «Churripanpli» izeneko kanta, bere «Kontsesiri»rentzat aukeratu zuen. Gero beste batzuek erabili zuten doinu hori (lehenengo karlistadan, ...) Iztuetak inork baino lehenago, 1806. aldera, Logroñoko Inkisizioaren kartzelan egin bait zuen bere lana.

Erritmoari buruz, gogora dezagun «Kontsesiri»ren lehenengo bertsoa:

«Maite bat maitatzen det maitagarria  
begia ederra du, guztiz argia,  
daukat URRUTI,  
bañan ezin det kendu BURUTI  
aren ITXURA;  
saldu al baliteke PIXURA,  
urrearen TRUKE  
nork erosi faltako ez LUKE».

José Garmendiaren «*Iztueta'ren Olerkiak*» liburuaren sarreran, Lekuonak dionarekin jarraituz (67), gauza bitxi asko dago bertso honetan: URRUTI, BURUTI, ITXURA, ... baina oso bitxia darabilen erritmo-jokua da: erdaraz «pie

---

67. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 9-15 or.

quebrado» esan ohi dena. M. Lekuonak «oin errena» esaten dio. Joku horrek bertsoaren erritmoa eten egiten bait du. Gehienetan erabiltzen ditugun bertsoetan, erritmoa eta errima, hasi eta buka, beti berak izan ohi dira bertsoaren barruan; baina, Iztuetaren honetan ez da horrela. Sorpresa-jokua erabiltzen du.

«Oin errena» esate hori nondik datorren, esan dezagun txalapartan, pausu berean ari denari TUKUTUNA deitzen zaio, tartean jotzen denari, aldiz, ERRENA.

Bukatzeko «Kontsesiri»ren lehenengo bertsoan azaltzen diren oin errenak aztertuko ditugu:

«Maite bat / maitatzen / det mai/tagarri/a;  
begia / du ede/rra guz/tiz argi/a.  
Dau/kat urru/ti,  
bañan e/zin kendu / det buru/ti  
a/ren itxu/ra;  
saldu al / balite/ke pixu/ra,  
u/rrearen tru/ke  
nork ero/si falta/ko ez lu/ke».

«Daukat urruti», «aren itxura» eta «urrearen truke», hiru «oin erren». Grazia erriman ezezik erritmoan ere badu.

Lehenengo biak bost oinekoak, laugarrena, seigarrena eta zortzigarrena, berriz, launa oinekoak.

Hiru oin errenak, bina oinekoak; baina, hasieran anakrusis bana dute. Errenkada bakoitzaren bukaerak, oin trinkotu zorrotzak dira.

Errima honelaxe doa, 1-2, 3-4, 5-6, 7-8.

Bukatzeko esan Iztuetak ezagutzen zituela baita beste bertso mota batzu ere, gero «Betroiarena» eta «Prantxisku, zer dakarrek?» esango zitzaion zortzi edo bederatzi puntuko bertso famatua esate baterako. Adibidez, zortzi puntukoa:

«Arruiz'ko balleko  
koplari berria:  
goi-goieneko mallan  
ago jarria,  
lurreratu naye  
agure elbarria;  
nere urte-joanaz  
nai baduk balia,  
para juzkaria,  
naiz predikaria,  
errain dik egia  
zeñengan gelditzen dan  
jakinduria».

### 3.3. *Bertsolari*

Ikus dezagun aurrena Iztuetak bere Dantza-Liburuaren aurkezpenerako idatzi zuen sarreraren zatitxo bat. Hau Pablo de Mendibilek argitaratu zuen ondoren (68):

---

68. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 31 or.

«Las contiendas poéticas a juicio de árbitros que las califiquen, como se practicaba entre los famosos arcades, son uno de los juegos más frecuentes entre la gente campesina, marinera y artesana de Guipúzcoa. Todos, puede decirse, nacen poetas, todos versean y ninguno escribe sus versos; pero apenas los cantan, corren de boca en boca por todos los pueblos, y la alabanza o vituperio del magistrado íntegro o injusto, del hombre o de la mujer viciosos o ridículos, el elogio o la burla del diestro vencedor o del presuntuoso vencido en los juegos públicos, todo está sujeto a esta inexorable magistratura de los bersolaris populares, cuya libertad es indestructible y se puede decir inatacable. Siendo esta verdadera costumbre un verdadero baluarte que, fundado como el de la imprenta en la opinión pública, ataca las usurpaciones y atentados de la arbitrariedad, no es extraño que los satélites de ésta, que por igual los encuentra aun en los países más libres, procuren socavarlo y cuando no, dirigir a él a los menos sus rabiosos e inútiles tiros».

Iztuetak dauzkan hainbeste alderdi eder eta harrigarriren artean, bada bat oso gutxi ezagutzen dena; baina aldi berean oso garrantzitsua dena, bere bertso-gintza eta bere olerkigintza. Zalantzarik gabe, esan dezakegu, oraindik orain Iztuetaren alderdi hau ez dela behar bezala aztertua izan. Eta hori, herriko gaiak erabiltzea eta bertsotan eta abesten ihardutea bere joerarik handiena zelarik. Lan horretan hain zuzen, sendotu eta zabaldu ziren Iztuetaren nortasuna eta ospea.

Juan Inazio Iztueta mutil argia zen. Musikarako belarri onekoa eta gaztetatik sortu zitzaien olerkari antzera mintzatzeko gogoia. Hil arte izan zituen oso gogoko bertsoaritza eta olerkigintza. Zentzu guztiak zabaltzen zizkion edozein eratako giroari, bere barruan horrelako zera bat sentitzen zuelarik, espiritu hori da esate baterako, prosan idatzitako «*Guipuzcoaco Condaira*» liburuaren ataletan lau aha-palditako bertsotan agertzen zaiguna.

1802ko otsailean, Billabonan, Amezketako Zabala eta Hernaniko Txabalategiren artean eratu zen lehiaketan epaile lanetarako aukeratua izan zen, berak joaterik ez eta Amezketako Fernando bidali zuen bere ordean. Garai honetan Iztuetak 33 urte zituen, franko gaztea artean, eta Goierriko mugetatik harantz, Gipuzkoa osoan, bederen, ezaguna zela adierazten digu datu honek.

Lehiaketa hauei zeinen lotua zegoen, eta beroietara nolako zaletasuna zeukan, garbi asko adierazten digu Ladislao Velascok (69) hitzegiten digunean

«Del certamen más notable que ha conocido este siglo (XIX)».

Tolosako ihauterietan azken egunean eman zenaz, 1802ko martxoaren 2an.

Iztuetak bertsotarako zeuzkan joera eta zaletasun hauek (bere bertso gutxi ezagutzen baditugu ere) Karmelo Etxegarayk (70) esandakoa ezeztatzen dute:

«Iztueta manejaba a su arbitrio la prosa vascongada, pero no así el verso, que se le mostró siempre rebelde ... A excepción de una sola, en que su alma apenas gimio con acentos tan intensamente sinceros, que logró encontrar la expresión artística del estado de ánimo».

---

69. VELASCO, LADISLAO (1879), «*Los Eúskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones*». Barcelona, 442 or.

70. GOROSABEL, PABLO de (1967), «*Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa ...*» III. (Carmelo de Etxegarayen Sarrera). La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 236 or.

Gutziz desberdin pentsatzen du Manterolak, 1787ko bere «*Cancionero*»n (71) esaten duenean:

«Iztueta es uno de los que con más entusiasmo han cultivado en este siglo la hermosa lengua euskera».

Ondoren hauxe esaten digu:

«Como poeta nos ha legado además de un buen número de versos sueltos desparramados en sus obras y varias pastorales y villancicos, una preciosa composición que se publicó por primera vez hacia el año 1844 con el título de “Iztuetac bere emazte Contxesi’ri biac ezcongai zeudela ipinitaco itz neurtuac”».

Ikus daitekeen bezala Iztuetak bazuen goi-hatsik asko bere bertso eta olerkietan. Artzantza eta beste gai askori buruz bertso asko egin zituen. Gabon kantak ere idatzi zituen, baita, asko ez badira ere, ohiturazkoak ere. Zoritxarrez ez ditugu ezagutzen artzaienak eta gabon kanta horiek; baina, bertan agertzen zaizkigu bere garrantzia, irri-zuria eta ziurtasuna, bere gazte denborakoak, noski.

Jesus Elosegi Irazustak aurkitu duen agiri batean (72), 1806ko apirilaren 23koa, Iztuetak Logroñoeko kartzela ixilean hiru egun zeramatzala, eta zehaztasunak Juan Inaziok berak auzitegiari ematen zizkiolarik, irakurtzen dugu:

«El reo presentó tres pliegos de papel que había pedido para hacer unos apuntes, los que se le dieron, y en ellos extendió en Bascuence unas canciones que compuso en Zaldivia sobre el nacimiento de Nuestro Señor Jesucristo, sobre los preceptos del Decálogo, desengaños del mundo y penas del infierno, los que suplicó se tuvieran presentes para prueba de su modo de sentir en los puntos de creencia cristiana que obraron; y aunque por las dificultades de su inteligencia parecía inútil el unirlos a la causa, mandó al Inquisidor se unieran, y en ella existen» (4).

Honekin jarraituz, hemen dugu balio handiko aipamen edo aitormen bat, nahiz bakarrik «Kristau-fedea nola sentitzen zuen jakiteko» izan. Honek ez du esan nahi, beste gai batzuz ere tankera honetako aitormenik egin ez zuenik.

Garmendiari jarraituz orain aipatutako agiri honetan azaltzen diren abestiak, «*Gau pozgarriagorik*» eta «*Gure Jaincoac*» izenburuarekin, erlijio-kontuen atalean jartzen ditugun aurrenekoak izan daitezke. Ez «*Jesusen jayotzaco gau pozgarritsuan*» datozenak, hauek, aita Antonio Zavalak (73) dioen bezala beranduagokoak dira, hau frogatzeko arrazoirik bada, adibidez, haietako batean Iztuetari «*jauna*» ezartzen diote. Bertso-paper hau Aita Zavalari Bonaparte printzeak egin zuen eusko olerki herrikoien bildumatik eman zioten, gaur egun Chicago-ko New Library’n (74) aurkitzen da. S. Ageda, Eguberri, Urtezahar, San Joan ... gauekoen antza dute bertso hauek. Eta Iztuetak horrela erabiltzen ditu.

Iztuetak Dekalogoaz egin zituen kantak ez ditugu ezagutzen. Inpernuko zigorrak eta mundu honetako etsipenaz egin zituenak, berriz, «*Nere cristau maiteac*» izenburuarekin, Tolosan, 1895ean bere bigarren agerraldian, argitaratu zuen

71. MANTEROLA, JOSÉ (1981), «*Cancionero Basco*». Senda. Donostia-San Sebastián, 35 or.

72. ELOSEGI, JESÚS (1971), BAP XXVII, Cuadernos 1.º y 2.º. San Sebastián, 38-39 or.

73. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 34-36 or.

74. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 37 or.



Iztuetari lehen omenaldia, Zaldibia, 1929: Aita Donostiaren hitzaldia. (EGIPV, XXI, 177 or.)

bere dantza liburuko 191-194 orrietan daudenak dira, seguruenik edo hobeto esateko, «*Aste Santua dator*» deritzanak. Hauek baldarragoak dira. Besteak ikasitakoak eta finagoak, eta Zaldibiko lapur baten auzian aurkitzen ditugu, «*Zubitako lapurra*», gero «*Nere cristau maiteac*» ean finduak izan ziren.

Iztuetarekin harreman handiak zeuzkan Juan Frantzisko de Yrivek idatzi eta aldatu zituen. Baina ez zortziko, bost bertsoko ahapaldietan baizik, hitz bukaera gordez, ez, ordea, metrika. Lorentzo Sukiaren (75) arabera hori eskas samarra da. Horregatik «*Iztueta'ren olerkiak*» liburuan zortzikoan eskaintzen ditu Jose Garmendia Arruabarrenak. Horiek dira Iztuetaren aurreneko kantak. Baldar samarrak? Janseniotarrak?, Manikeotarra, agian? Iztuetak, dotrina ikasterakoan, sermoi eta mixioetan entzun zituen gauzen oihartzuna.

Ohitura olerkietan sartzen ditugunak ere garai honetakoak direla dirudi: «*Eiztarianac*», «*Erbia jan orduan*» e.a. Maiteminezko batzu ere tartean dira.

Juan Inazioren idazketan bi zati bereiztu behar direla esan beharrean gaude. Alde batetik Iztueta bertsolaria eta bestetik Iztueta olerkaria. Hazten zihoan eran, bertsoan ohitzen ari zen moduan, liburu-ikasketak egiten zituen neurrian ... Juan Inazio aurrera zihoan, benetako olerkari izatera iritsi zen. Eresiz eta goi-hatsez betetako olerkiak badauzka Iztuetak. Bere idazki askatueta ere, olerkia eta goihatsa aurkitzen ditugu. Aralar eta Nañarriz (Txindoki) idazten duenean bezala:

«Campo zabal icusgarriari beguira ezin aspertuz» (76).

Edota Zaldibiatik igarotzen den Amondarain ibaiari kantatutakoak.

75. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 36 or.

76. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 38 or.

Liburu honetan sartzen ditugun bertsoen artean (eta ezagutzen diren guztiak sartzen ditugu), maitasunezkoek leku berezia dute. Iztueta ondoen maitasun-bertsoetan azaltzen da, bere izaera horietan dago batipat. Hortxe dago bere indarra, bihotza, ... adib. (77):

«Eguin det aleguiña  
sartuzat zure miña  
egun da santa seculaco  
nere aingeru piña»

Guda-izpiritua, aberritasuna, ... hainbeste goraiatzten dituen Iztueta (dantza-liburua horixe da) bere idazkietan, ia beti, maite miñetan ari da. Harritzekoa, baina, hortxe dago Juan Inazioren olerkiaren izakera eta bihotza.

Liburu honetan, berez, ezteietan, familian edota lagunartean botatako bertsoak agertzen dira. Jakina, gehiago ere izango zirela; baina asko eta asko galdu egingo ziren.

Joan Gorostiagak (78), arrazoi handiz, honako hau idatzi zuen:

«La poesía vasca no ha sido escrita para ser leída como un producto a la venta; ella ha sido creada para ser recitada o contada; para ser contada o recitada en presencia del público, hasta que el público participa de ella».

Beste horrenbeste esaten dugu Iztuetaren bertsoez. Batzuk euskal olerki onenetakoen ondoan jar litezke eta jarri dira. Iztuetak beroietan eguneroko bizimodua eta herriaren gorabeherak kantatzen ditu, alai, maltzurkeriarik ez zaie falta, eta batez ere maiteminezkoak eta ezteietakoak nabarmentzen dira. Ohitura zaharrak, Foruak eta Euskalerrria kantatzen ez da atzean gelditzen.

Atera ziren denborari eta batez ere gaien muinari begiratuz, Iztuetaren bertsoak, ondorengo atalotan bildu ditugu: Erljiokoak, ohiturazkoak (bere adiskide edo lagun artekoak), amodiozkoak eta Gipuzkoako Foru eta kondairakoak.

Batzu bere letraz idatziak daude, eta ia denetan bere espiritua ageri da.

Erdal bertsoa gutxi landu zuen, eta «*Doce banderillas de fuego al compadre Legarda*» obran aditzera ematen duenez ez zuen gehiegi menderatzen erdal metrika.

Baina esan, beti izan zuela gogoko bertsoa, edozein eratakoa.

Bere paperen artean «Estudiantina de Salamanca» abestiaren estrofak e.a. aurkitu dira.

### 3.4. Olerkari

Bere olerkiak tipo askotakoak dira eta dirudienez zenbaiten orijinalik ez da gordetzen. Dena den, bere lan hau ikusita esan dezakegu berari egotzitako zenbait salaketa eta bizimodu motak ez duela zentzu handirik edota bestela oso azkarra zela. Goazen bada bere olerkigintza ikustera, eta errazago gerta dakigun sailkatu egingo dugu:

77. GARMENDIA, JOSÉ (1978), aip. ob., 38 or.

78. GOROSTIAGA, JUAN (1973), «*Antología de Poesía Popular Vasca*». La Gran Enciclopedia Vasca, 417 or.

— Erliziozkoak: Ez dira asko.

- *Gau pozgarriagoric* (sarrera, zortzikoa, eta euskaritxoa). Gabonetako kanta bat dugu hau, letrak ez dirudi Iztuetarena.

- *Gure Jaincoac* (errezitatu bat da). Idazkerak ez dirudi Iztuetarena. Aha-paldi laburrak, baina mamitsuak.

- *Jesusen jayotzaco gau pozgarritasun (euscal gazteriac cantatzeco Iztueta jaunac ipinitaco itz neurtuac)*. Gabon kantak. Bertso batzuk *Gau pozgarriagoric* saileko zenbaitekin parekotasun handia dute. Puska batzu falta dira eta gaur egun Chicago'ko «New Library»n daude.

- *Atseguñac*. Bizkaieraz daude. Beste baten lanaren eraketa dirudi. 10 bertso dira.

- *Aste santua dator*. 1817an lapur baten kontrako auzian aurkitu zituzten. 18 bertso dira.

- *Nere cristau maiteac*. 26 bertso ditu. Tolosan 1895ean bigarren aldiz argitaratu zituzten. Bere dantza liburuan, 191-194 orrietan, Iztuetak agintariei eskaintzen dizkie.

Bere gaztaroan gehiago egin zituela uste da, izan ere Logroñon izan zuen auzi paperetan aipatzen dira.

— Ohiturazkoak

- *Eiztarianac*. Iztuetaren idazkera, hizkera eta era. Bere dantza liburuan, Iztuetak askotan aipatzen du Idiazabal, eta dioenez oso dantza zalea eta ehiz zalea zen herri hau. Zerbaitegatik, Goierrin «azariak» derizte. 21 bertso.

- *Erbia jan orduan (ondoan)* Iztuetarenak. Bertso hauetan Iztuetaren as-mamen bikaina ikusten da.

- *Nere lagun maite*. Iztuetaren idazkera, hizkuntza ... Gertaldi honen aitzindaria Camara da. 14 bertso.

- *Noticia berri bat*. 13 bertso.

- *Guizon batec eman dit*. 15 bertso.

- *Churrut zaleari adisquide batec (Bolera-doñuan)*. Idazkerak ez dirudi Iztuetarena, bertsoak izan daitezke, ondoren bertso berak zortzikoan jarrita Iztuetarenak diren bezala.

— Lagun artekoak

- *Vice-presidente*. 5 bertso.

- *Ay, au consueloa*. 7 bertso.

- *Nere adisquide on*. Zenbait adizkera eta bizkaieraz. Badakigu bertso hauetan aipatzen den gizonarekin harremanak izan zituela. Oso bitxia da «Buru-ontar» Fernando hitza «Borbon»-dar adierazteko.

- *Au da farragarria*.

- *Poema musical*. Badirudi Pedro Albeniz eta Manuel Larrarterekin ibili zen garaikoa dela.

— Maitasunezkoak

- *Contzeciri*. Iztuetaren olerkirik garrantzitsuena eta ospetsuena dela esatearekin ez dugula gezur handirik esaten uste dugu. Kontxesi Iztuetaren bigarren emaztea izan zen eta Logroñoko espetxean zegoela idatzi zuen. 1825ean argitaratu

zuen Londresen Pablo Mendibilek. Badirudi gainera «churripampli» izeneko doinua sartu nahi izan zuela euskal olerkigintzan. «Churripampli» hori garai hartan oso modan omen zegoen, baita Gipuzkoan ere, eta zortzikoari lekua jaten ari omen zitzaion.

- *Atseguñetan arquitcen naiz*. Bertso hautsiaren beste eredu bat. 12 bertso.
- *Amodio beroac* (79). Aita Santiago Onaindiak, hau eta hurrengoa (*Amodioa cer dan*) euskarak dituen maiteminezko ehun olerkirik onenen artean sartzen ditu. 12 bertso. Idazkera, hizkuntza eta erak Iztuetarenak.
- *Amodioa cer dan*. Ikus aurrekoagatik esan duguna. 16 bertso.
- *Docen erdi bat verso*. Idazkera, hizkera eta erak Iztuetarenak. 6 bertso.
- *Mundu gustian dauca*. Idazkera, hizkera eta erak Iztuetarenak. 7 bertso.
- *Noiz izango ote ditugu*. Eskutitz bezala idatzia.
- *Iztueta'ren eskutitza*. (*Agustin Pascual Iturriaga'ri*). Bere alabaren ezkontzaz ari da. Bertso hauek Arozamenak bilduak dira.
- *Nire maite polita*.
- *Manuelatxo*.
- *Ezkon berriak*.

— Herriei botatako bertsoak

Iztuetak herri askori eskeini zizkion bertsoak: *Ordizia, Tolosa, Hondarribia, Erresteria, ...*

- *Villafranca-co herri*. 7 bertso dira. Zortziko txikian daude. Letrak ez dirudi Iztuetarena.
- *Villafrancatar jaun prestu*.

Iztueta jaunak 1832 urtean Ordiziako Herriko-Etxearentzat eta bere enkarguz euskaraz ipini zituen Gomez Manriqueren bertsoak Toledoko Herri-Etxean eta bere atean daudenak. Erdaraz honela diote:

«Nobles, discretos varones  
que gobernáis a Toledo.  
En aquestos escalones  
desechad las opiniones,  
codicias, amor y miedo.  
Por los comunes provechos  
dexad los particulares.  
Pues vos fizo Dios pilares  
de tan riquísimos techos,  
estad firmes y derechos»

- *Viva Tolosaco erria*. 14 bertso.
- *Tolosaco gazteria prestu leialac*. (1845-garren urteco zalduna iñute egunean, *Beren errico languin maizuac iduricatuaz, plazan eguitera dijoazen jostallu atseguingarria*). Hiru zati: a) *Marcha* (2 bertso) b) *languñen itz-neurtuac* (6 bertso) eta c) *zortzicoa* (4 bertso).
- *Guipuzcoaco fueroen atseguin leloac* (*Zortzicoan*). 19 bertso zortziko txikian.

---

79. ONAINDIA, SANTIAGO (1975), «Las cien mejores poesías de amor de la Lengua Vasca», 116-117 or.



● *Eusquerarequin euscaldunen atseguin-leloac (Zortzicoan)*. 21 bertso Donostian egon zen garaikoak.

● *Guipuzcoa-tarren condaira erroma-tarren denboran (oguei amarreco-aunditan)*. Iztuetak dantza-liburuaren bukaeran ipintzen dituen ahapaldiak.

● *Condairaco bertsoak*. Orijinala Donostian, Aldundiaren Artxiboan dago.

Aurkitu izan dira Iztuetaren paper artean beste bertso batzu; baina idazkera, hizkera, metrika etab., ez dira Iztuetarenak. Orain ezin esan dugu bertsoak ez direla bereak. Hemen izenburuak jarriko ditugu:

*Verso berriac* (16 bertso)

*Guizon batec eman dit* (15 bertso zortziko txikian)

*Coplas nuevas* (13 bertso zortziko txikian)

*Coplas a la sagardoa* (25 koplak)

*Yo soy un erótico (una docena de banderillas de fuego al compadre Legarda)* (12 bertso erdaraz).

*La estudiantina de Salamanca (En S. Sebastian el martes de Carnaval del año de 1827)* Erdaraz. Ez omen Iztuetarenak.

*Bolero*. Erdaraz.

Juan Inazio Iztueta historiara bere Dantza-Liburua eta Kondairagatik, batez ere, pasatu bada ere, ez dugu eta ezin dugu ahaztu beste zenbait arlo ere landu zituela; besteak beste bertsolari/olerkaritza, kronista, ... Iztueta lehenik eta behin bertsolari izan zela esan behar eta gaztetatik nabarmendu zen alor horretan, horren adibide gisa 34 urte bete aurretik Bilabonako apostu sonatu hartarako epai-lanetarako hautatzea da, gero, kartzelan zegoelako, joaterik izan ez bazuen ere. Aipatu detaile hori, berak zuen maila (ez ahaztu epaia bertsoan eman zutela), nahiz aditu bezala adierazteko aski garbia dela uste dugu. Horretaz gain, asko ez badira ere, badira bere zenbait lan.

Bestalde, Juan Inazio Iztueta da, euskal literatura osoan bertsolaritza eta bertsolarien berri ematen digun lehenengo idazlea, bera da orduko bertso-lehiaketa eta pasadizoen berri ematen diguna, honi esker ezagutzen ditugu Fernando Amezketarra eta bere garaiko beste hainbat bertsolari eta baita ohitura ere, berak esaten digu nola bertsolariak desafioak, apustuak e.a. egiten zituzten, esate baterako Pernandori 1799. urtean Azpeitian gertatutakoa, Zabalak eta Txabalategik Bilabonan 1801ean bostna ontza urre jokatu zutenekoa, 1802ko ihauterietan Zabala, Fernando, Txabalategi eta Altamirak jokatu zutena e.a. (80). Berak esaten digu bertsoak oso zaharrak eta aspaldikoak direla gure herrian, eta horretan, nahiz eta irakurtzen eta idazten ez jakin, oso iaioak zirela asko eta asko. Bera dugu ohitura, dantza, bertso, musika e.a. lehenegoz, Gorosabelekin batera, biltzen dituenak.

Honetaz gain, bertsolaritza eta bertsolarien defendatzaile agertzen zaigu, izan ere garai hartan zenbait herritako alkateek debekatu egiten zuten bertsolaritza eta Iztueta oso kexu eta kritikoa agertzen da debeku horien aurrean (81).

Lehen ere esan dugu Iztueta ez dela oso ospetsua bere bertso/olerkigintzagatik, nork ez du entzun «*Contzeciri*» eskainitako bertso-sorta hori, berori da Juan Inazio Iztuetaren bertso onena eta sonatuena, kartzelan zegoen garaian, Concepcion Bengoetxeari (Kontxesiri), hau ere kartzelan, eskainia. Hau da adituen ustez Iztuetaren konposiziorik bikainena.

---

80. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), «*Guipuzkoako Dantza Gogoangarriak*». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 338, 340, 344, 346 or.

81. IZTUETA, JUAN IGNACIO (1968), aip. ob., 348 or.

Hamar bertsoz osatutako lan horri maitasuna eta erromantizismoa dario eta arlo honetan egindako beste lanak bigarren mailan geratzen dira.

Bere bertso/olerkigintzan hainbat gai jorratu zituen, maitasuna, ohitura, lagunartea, erlijioa, ...; eta bere beste lanetan ere, GDK eta GPK liburuetan kasu, nabari zaio freskotasan hori, gauzak kontatzeko abilezia, horrela GK liburuaren atal bakoitzaren bukaeran hutsik egin gabe bertso txo bat eskaintzen digu.

Alor hauetan, autore gehienek dioten bezala, besteak beste, Mitxelena, M. Lekuona, Zabalak e.a. punta-puntakoa ez izanagatik ezin daitekeela bere lan hau baztertu uste dugu.

#### 4. Karta Mogeli

Iztuetaren idazkien artean, bere bi obra nagusiak alde batera lagata, bada aipamen berezia merezi duen karta luze famatu bat. Karta hau Juan Jose Mogel apaizari zuzendua bada ere, bertan gure zaldibiar dantza- maitaleak Fr. Bartolome de Santa Teresa, dantzen etsai porrokatuari erasotzen dio, egundoko jipioia, zorrotza bezain jostaria, emanez aita karmeldarrari.

43 orrialdeko idazlantxo honek izenburu luze hauxe darama:

«Carta eguiten diona D. Juan Ignacio Iztuetac apez D. Juan José Mogueli, Aita beacurtsu fraile Santa Teresacoac Plauto Euscaldunaren icenarequin izquidatu duen obrachoaren gañean, ceña arguitaratu duen Moguel berac».

1829an eman zuen argitara Mogelek Donostian, Ignazio Ramon Barojaren moldiztegian.

Bi hizkuntzatan dago idatzia: euskaraz eta gazteleraz. Euskarazkoa, eskuin aldeko zutabekoa, Iztuetaren lana da. Erdarazkoak, ezkerraldekoak, Iturriagarena, Iztuetaren lagun min eta aholkuemale/hartzaile handiarena izan behar du. Dena den, aski ziurtzat jo badaiteke ere, ez dagoke zeharo frogatua erdal testua Iturriagarena denik. Bestalde, bada Iztuetarena bestearenaren itzulpen kaskar baino ez dela dioenik ere (82).

1988an birrargitaratu zen «*Julio de Urquijo*» Euskal Filologi Mintegiaren Urtekarian Iztueta/Iturriagaren karta elebidun hau (83). 1990ean Ezeizabarrenak eman digu argitara, GDKren eranskin gisa, euskarazko testua, ortografia gaurkotuan (84). Biok lirateke, gaur egun, Iztuetaren lantxo hau aztertu gura lukeenarentzat ediziorik eskuragarrienak.

Karta polemiko honen edukina arakatu aurretik, Iztuetak berau idazteko izan bide zituen arrazoen iruzkin luze samarra egin beharrean gaude. Ekin diezaiogun, bada, lanari:

---

82. VILLASANTE, FR. LUIS (1979), «*Historia de la Literatura Vasca*». Aranzazu, 280.2 zka. Eta LAKARRA, JOSEBA A./URGELL, BLANKA (1988), «*Plauto Bascongadoren eztabaida: testu-bilduma*». ASJU XXII-2. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia (479-529 or.), 480-481 or. (Fr. Bartolomek «*Madama Chilla*» (Iturriaga) jotzen du Iztueta eta Lécluseren ihardespengutun bizkien aitatzat).

83. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 520-529 or. Ikus, halaber, 480 or.ko 8 ohar.

84. IZTUETA, JUAN INAZIO (1990), «*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*». Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero, Oiartzun. Klasikoak 37. (Edizioaren Prestatzailea: Ezeizabarrena, M.<sup>a</sup> Jose), 321-333 or.

XIX. mendea zinez aberatsa izan genuen euskarari buruzko ikerlanetan eta, ondorioz, iritzi kontrajarri eta eztabaida bizi-bizi, sutsu eta zakarretan joria: Astarloa eta Montuengaren artekoa aipatu baino ez. Gogoan izan Humboldten lana eta eragina euskal hizkuntzalaritza «zientifikoa»ren hastapenotan. Bonaparte eta beronen kolaboratzaileen ahaleginak ere mende honen erdialdekoak ditugu (85).

Eztabaida-oihan honetan sonatuenetakoa Bartolomek, alde batetik, eta Lécluse/Iztueta bikoteak, bestetik, 1826-1829 aldera izan zutena dugu. Atzetik, animatzaile eta zirikatzaile gisa ihardun zuten Mogel, Iturriaga, Unzeta (eta hainbat isilpeko) ahazteke (86).

Hasteko egin dezagun liskar honetako partaide arerioen aipamentxo bat berderen:

— Frai Bartolome de Santa Teresa, Markina-Etxebarriko fraile karmeldarra (1768-1835). Lazkaoko karmeldarren (orain beneditarren) komentuan ikasia. Hego Euskalerrian barrena sermoilari ibilia; ospe handikoa, bere liburuengatik baino areago sermoilari sutsu eta bikain bezala. 1816an «*Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*» argitaratzen du Iruñean. Bere garaiko hainbat eta hainbat fraile sermoilariren antzera (Mendiburu, Añibarro (87), Palacios ...), herrietako dantzetan egiten diren gehiegikerien kontra altxatzen du bere abotsa; euskal dantzen etsai amorratu agertzen zaigu. Iztueta dantzazale porrokatuak argitaratu berri zuen bere GDK (1824/1826). Zaldibiarraren liburu honek Bartolome haserrekoia dantzen eta hauen defendatzaileen kontrako jarrerara areagotu egin bide zuen. Hara, bada, bion arteko tirabiren eta etsaigoaren arrazoietako bat!

1826-1829 aldera Santanderren aurkitzen dugu Bartolome. Hemen egiten du Plautoren bertsoen euskal interpretazioa eta lan honen inguruko arazoez lau gutun zuzentzen Mogeli (honek «*Plauto Bascongado*» izenaz plazaratuko dituenak); baita «*Anti-Plauto Polígloto*», Lécluse eta Iztueta/Iturriagaren aurkako azken eraso ere. Idazlantxo guztiok erdaraz egin zituen (88).

— Fleury Lécluse, Toulouseko Unibertsitateko irakasle jakintsua. Euskaldun ez izan arren, euskararen inguruko ikerketan gogotsu aritu zen. 1826tik aurrera zenbait lantxo argitaratzen du frantsesez, baina, betiere, euskararen auzietan: «*Dissertation sur la langue basque*», «*Grammaire basque*», eta, batez ere, «*Manuel de la langue basque*». Liburu hau 1826an argitaratu zuen, Baionan, eta

---

85. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 479-480 or. Bestalde, Iztueta paperen artean Astarloaren «*Apología de la Lengua Bascongada*» eta Montuengaren kontrako oharrez beteriko koaderno bat aurkitu dira (GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras Inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 221, 223 or.).

86. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 480-481 or.

87. AÑIBARRO, PEDRO ANTONIO (1748-1830), frantziskotarra; «*Misionari Euskalduna, Cristiñau dotriña ta Sermotac Bizcai-errietan iracasten*», Misisio Santuetako sermoiekin bi liburu lodiren egilea. Dantzen arazo txit eztabaidatua jorratzen du honek ere, zabal eta oparo, hauen etsai zorrotz azalduz. Liburuaren hitzaurrean dio: «Ttuntun-jotzaileak bakarrik balira dantzen defentzaileak, gauzak ez luke axolarik; badira, ordea, kreditudun pertsonak, defendatzen dituztenak, eta hori da txarra» (Etxaideri jaso). Zeinetaz ari ote zaigu hemen Añibarro?: Villasanteren ustez, Iztueta du gogoan. Etxaidek, aldiz, Larramendiz ari dela uste du: Izan ere, honen «*Corografía de Guipuzcoa*» (bertan dantzak defendatu egiten ditu) artean argitaratzeke egon arren, jesuita (Mendiburu bezala) handi honen dantzen aldeko jarrera aski ezaguna zen guztientzat eta, duda barik, Larramendik, moral-gaetan, Iztueta «halamoduzkoak» baino pisu handiagoa zukeen. Ikus, VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 246, 247 zka. Eta ETXAIDE, Jon (1990), «*Hamasei Seme Euskalerriko*». Erein, Itxaropena, Zarautz (19-27 or.), 22 or.

88. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 260-263 zka.

berau bilakatuko da sesio zakar honen supiztaile. Bere lanak «*Lor. Urhersigarria*» euskal ezizenaz sinatzen zituen (Bartolomek, trufaz, «Urhers» deitzen dio eta hark honi «Zoilo»). Iztuetarekin eskutitz-harreman handia izan zuen (89).

— Iztuetaren aipamenik egin beharrik ez dago, noski. Iturriaga eta Unzetarenak (biok zaldibiarren lagun, aholkari eta akuilari), berriz, gure lanaren beste atal batzutan egiten ditugu.

— Eta tartean, Juan Jose Mogel apaiza: Alde bateko eta bestekoen gutunak, kritikak (tarteka purrustadak eta zakarkeriak) jaso, bildu eta argitaratuz. Mogelen aipamena ikus gure lanaren lehen atalean.

Protagonistak ezagutu ostean, goazen orain liskar honen «*historia*» kontatzera: Eztabaida guztiaren azpian, lehen ere esan dugu baina, nolabaiteko elkar ezineramana somatzen bada ere, «*kontua*» 1826an hasten da, Léclusek bere «*Manuel de la lange basque*», euskal gramatika/hiztegitxo argitaratzean. Liburu honen sarreran egileak behin eta berriz errepikatzen du Iztuetaren laudorioak jaso dituela; eta berak ere, ordainetan, bestearen GDK argitaratu berria goaraipatzen du, egilea «*Respectable Sabio*» ohorezko tituluaz ondratuz. (Bartolome bion kontra jartzeko beste arrazoi bat!).

Bestalde, bere liburuaren sarrera honetan bertan Léclusek Plauto latindar antzerkigile eta poeta handiaren «*Poenulus*» komediaren inguruko auzi zaharra birplazaratzen du, ordurako burutu-abartua zegoen Iztuetaren «itzulpenaren» aipamena eginez. «*Poenulus*»eko 5. ekitaldiko 1. eskenako bertso batzu (10 lerrotxo guztira), nahiz eta argudioaren arabera, punikeraz edo idatziak egon behar («bertso punikoak» izenez ere ezagutzen dira), hizkuntzalarientzat zeharo ulertezinak ziren; Plautok bertsootan darabilen hizkera ezin igarrian zebiltzan aspalditxotik; zein hizkuntzatan ote zeuden zorioneko bertso misterioitsu horiek: hebraieraz, libieraz, afrikeraz ...? Auskalo! (90).

Iztuetak, bere lehen liburua argitaratu berritan, saiotxo bat egin zuen: bertsook euskararen laguntzaz interpretatu zituen eta bere lana Parisko Société Asiatiquera bidali. Ahalegin honengatik, Pariskoenez aparte, euskaltzale askoren txaloak jaso zituen (Lécluserenak, Unzetarenak ...).

Zeinek eta noiz bultzatu ote zuen Iztueta hizkuntzalarien egiteko horretara? Lakarra/Urgellen arabera, Lécluseri otu bide zitzaion euskararekin froga egitea eta lan horretarako egokientzat gure Iztueta hautatu, hain zuzen ere! (91). Halere, Garmendiak bildutako eskutitzak irakurriz zera ikusten dugu: 1826ko gutunetan Lécluse arren eta arren ari zaio Iztuetari Parisa bidalitako lanaren eske, ez duela zuzenean eta osorik ezagutzen eta. Bestalde, Unzetak 1824ean egindako karta batean Iztuetak jadanik bere saioa burutua duela ikusten da, Parisa bidalia, handik berriro igorria, Parisko gorazarreak jasoak ditu egileak, eta Unzetak berak ere zorionak ematen dizkio (92).

Aidean geratzen da, beraz, haserako galdera: Nork sartu ote zuen gure zaldibiar «ez jakina» eremu ezin gaitzago horretan? Lécluse eta Unzeta, biok «bertso punikoez» ari dira, baina data ezberdinetan. Dena den, hemen garbi

89. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 173 zka.

90. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 481 or. Lécluseren «*Manuel...*», ikus LAKARRA, JOSEBA A. (1987), «*Lécluse-ren "Manuel de la Lange Basque"*». ASJU XXI-3, (833-916 or.).

91. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 481 or.

92. GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 141-145 or. (Lécluseren 1826-IV-9ko karta); eta 132-135 or. (Unzetaren 1824-VII-1eko eta XI-29koak).

ikusten dena zera da: Ordurako Iztuetak (GDK azaldu berria) euskararen alorrean «goi-maila», fama, izena eta itzala lortuak zituela. Eta Euskalerritik at ere bai: Espainian, Frantzian, Ingalaterran ... Itzulpenak egiteko eskaerak jasotzen ditu, eta enkarguzko itzulpengintza-lanotan dihardu, jotake. (Egia esan, bere hizkuntz ezagutza-maila puntarenekoa ez izan arren, bere euskal sen herritar apartaz ederki asko baliatuz) (93).

Beste euskaltzale batek ere, Luis Frantzisko Graslin, Frantziako Kotsulak, batekin eta besterekin hainbat saio egin ondoren, baina itxurazko emaitzik lortu gabe, garai hartan Santanderren aurkitzen zen Bartolomeri eskatu zion bertso punikoon itzulpena, euskara oinarritzat erabiliz, egin zezan. Bartolomek ere egin zuen bere saiotoxa.

Graslinek Bartolomerren lana Lécluseri bidaltzen dio. Honek Toulousen Iparaldeko zenbait euskaldun jantzi bildu eta hauen eskuetan jartzen ditu hiru bertsiok: Iztueta eta Bartolomerrenak (euskarazkoak) eta Bochart hizkuntzalariarena (hebraierazkoa). Tolosako jakintsuen taldeak Bartolomerren saioari ez dio inolako egi itxurarik ere ikusten eta Léclusek Bocharten hebraierazkoa hobesten du. Iztuetaren lanak ere ez zuen, ziur aski, Bartolomerrenak baino balio handiagorik izango! Hara beste arrazoi bat Bartolome haserretzeko eta Lécluseren lana gutxiesten hasteko aitzakia polita!) (94).

Bestalde, Mogel ere erabat interesatu zen auzi honetaz eta Bartolomerekin harremanetan jarri. Bartolomek eginiko lana eta beronen inguruan Santandertik jasotako lau gutun bildu eta argitaratu egiten ditu 1828an, «*Plauto bascongado ó el bascuence de plauto en su comedia Poenulo acto 5.º Escena 1.ª ... Y la impugnación del Manual de la Lengua Vasca impreso en Bayona de Francia año 1826 por Mr. Lecluse, Profesor de las lenguas hebrea, y griega ...*» izenarekin. Bartolomerren gutunok argitaratzailearen izenarekin, Mogelenarekin atera ziren. Horregatik zuzentzen zaio Iztueta Mogeli, eta ez lanaren benetako egileari, Bartolomeri (95).

«*Plauto Bascongado*» (edo Iztuetaren hitzetan «*Plauto Euskalduna*») hau, izenburu osoak adierazten duen bezala, aipatu komediako zati ilun horren inguruko arazoez ari da lehen bi gutunetan; euskararen bidez nola interpreta daitekeen proposatzen dio Mogeli, eta bere ahalegina erakusten. Baina haserako kontu horiek alde batera utzi eta 3. kartzan, bapatean, Lécluseri eta honen «*Manuel*» argitaratu berriari erasoka hasten da; eta liburu honen sarreran, lehenago

93. Ikus, besterik beste, GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 132-138 or. (Unzetaren gutunak), 139-140 or. (Gerekarenak), 141-149 or. (Lécluserenak), 154-156 or. (D'Abbadierena) ...

94. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 481-482 or.

Kuriositatez, hona hurrenez hurren Plautoren bertsootako lerrotxo bat, eta Bartolome de Santa Teresa eta Iztuetaren itzulpen «*hieroglifiko bitxiak*»:

—Plauto: “Ny thalonim valon uth si corathisima consith”.

—Bartolome: “Nic Al oni mun. (0) Al on utsa! Ic oratuijon. Ac on zic”.

—Iztueta: “Ni hal oni nua onutsi gorat hisi macon, silh”.

Esan, oinarritzko arazo bat Plautoren hitzen ebakeran zegoela. Bestalde, bertsiok ezberdinak zeuden. (Ikus, LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 494-507 or. («*Plauto Bascongado ...*»ko lehen bi gutunak), eta GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 146-147 or. (Lécluseren 1826-VI-9ko gutuna). Antzinarako bertsook euskaraz ote zeudeneko ustea garaian hain indarrean aurkitzen zen “baskoiberismo” edo “tubalismoaren” teorian oinarritzen da (Euskara munduko hizkuntzarik zaharretakoa, bere erroak Paradisuan dituen izaki, beharbada hizkuntza hauxe zatekeen bertso ulergaitzok interpretatzeko egokiena!).

95. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 482 or. Halaber, 494-519 or. («*Plauto Bascongado ...*»ko lau gutunak) eta 482-484 or. (Hauei buruzko iruzkinak).

ere esan dugun bezala, Iztueta «*Jakintsu Errespetagarria*» azaltzen denez, honen kontra ere bai (3. gutun honen bukaera aldera, Lécluserekikoak egin ostean), oso zakar eta era nahiko iraingarrian, gainera. Nola ez aprobetxatu, ba, Léclusek hain eskura jarri dion aukera paregabea Iztuetarekiko aspaldiko gorroto ezkutua purustadan Mogel lagunari konfesatzeko !!!

Hara zer dioen, besterik beste, Bartolomek Iztuetaz:

«Según nos dice Mr. Lecluse ha merecido su manual basco distinguido aprecio, y repetidos aplausos del Sr. Iztueta, Autor de un tomo sobre bayles, sones, festines ...en dialecto guipuzcoano. Mr. Lecluse dos veces hace mérito de la obra del Sr. Iztueta y otras dos, ó tres veces nos hace presente, como el Sr. Iztueta ha elegido, y honrrado su Manual basco. Asi Mr. Lecluse en agradecimiento á este señalado favor le llama al Sr. Iztueta Respetable Sabio. No hay duda, que la opinion decidida de un Respetable Sabio, Escritor bascongado con repetidos elogios á favor de la obra basca de Mr. Lecluse pesa mucho. Yo convengo, que al Sr. Iztueta tributará acaso por su obra de bayles ... juegos ... sumisos respetos aquella gente, que tiene vocacion para la distinguida carrera de danzantes, cómicos, y mimos. Y no espere el Autor por su obra mas respetos del religioso, y honesto pais bascongado. Pregunte V. á sus paisanos el concepto que ha formado el público de la dicha obra de bayles ... y verá V. que no me engaño en mi juicio. Busque V. pues saviduria en ella. Yo no la hallo. Si considera V. la dicha obra, por lo que tiene de estilo, y pureza del idioma bascongado, tendrá V. que corregirla, y expurgarla en muchísimos pasajes, y puntos, principiando desde su título, de donde se deven borrar: historia ... versoaquin ... En las muchachas de los separados caserios de Guipuzcoa, Bizcaya, y Navarra hallará V. mas modos, y mas graciosas, y mas encantadoras artes de diversiones, que en el Autor de bayles. Estas sin conocer una letra, pueden ser maestras del Sr. Iztueta en la invencion, y gracia de las diversiones de su pais. Con que por nada de lo que hay en la sobredicha obra merece su Autor, se le llame ni Respetable, ni Sabio. Y no será extraño que apliquen a Mr. Lecluse aquello de Yriarte: “Guarde para su regalo/ Esta sentencia un Autor:/ Si el sabio no aprueba, malo; / Si el necio aplaude, peor” ...» (96).

Aipamen luze samarra egin dugu, eta gainera erdaraz, baina, geroxeago ikusiko dugun bezala, Iztuetaren erantzuna, neurri handi batean, Bartolomeren «irain» horietan oinarritua dago. Iztuetak, gainera, Bartolomeren erdarazko pasarteok euskaratu egiten ditu bere ihardespen-kartan.

Bartolomeren 3. gutun honetan argi asko ikusten da Iztueta ez duela batere gogoko, ezin duela inondik ere idazle bikaintzat onartu; Léclusek emandako «*Respetable Sabio*» deitura Bartolomek ukatu egiten dio. Eta zergatik? Euskara traketsa, gaiztoa, erdal kutsukoa darabilelako baino areago (Iztuetaren euskaramodu hori ere aipatzen du, baina pasadan), Iztueta dantzazale delako, eta dantzen aldeko liburu lodi bat idazteko «ausardia» izan duena, gainera! Bekatu larriegia Bartolomeren moralaren baitan, alafede! Horrexegatik gutxiesten eta ridikulizatzen du Bartolomek Iztueta. Deabrua bera baino gaiztoagoa iruditzen zaio gipuzkoar lotsagabe halako hori !!! (97).

Léclusek Bartolomeri bere aldetik erantzuten dio:

«Plauto Polígloto, o sea, hablando libremente hebreo, cántabro, céltico, irlandés, húngaro, etcétera, seguido de una respuesta a la impugnación del Manual de la Lengua Basca».

96. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 516-517 or.

97. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 482-484 or.



Iztuetari lehen omenaldia, Zaldibia, 1929. Eusko-Ikaskuntzaren oroitarria

Toulousen, 1828an, «*Lor. Urhersigarria*» izengoitiaz argitaratzen du idazkitxo hau. Haseran, Bartolomeren Plautoren itzulpena baliogabetuz ekiten dio, baina segidan Bartolomeren ezjakituria nabarmentzera igarotzen da, honen akatsak (frantsesik ez dakiela, euskararik ere ez ...) aipatuz eta berauez irri eginez; Iztuetaren kartaren antzeratsu (98).

Bartolomerengandik jasotako guztien aurrean, Iztueta ere ezin isilik gera, eta horra non idazten dion karta bat Mogeli, nolabait esateko, bere buruaren defentsan, baina, aldi berean, Lécluse egurtuaren alde azalduz eta, batez ere, kolpeari kolpez erantzunez, Bartolomeren lana kritikatzuz, gutxietsiz, «ezjakin moldakaitz handi»tzat tratatuz, honek harekin jokatu hein beretsuan.

Azter dezagun, bada, Iztuetaren ihardespen-karta famatu hau:

Errespetuzko agurraren ondoren, honela hasten du gutuna:

«...iracurri det oarrez ta artezaz Plauto euscalduna ... Guciz asco ... dira eguin nitzaquean oarquerac, á la Plautoren amar itz neurtuetan icusten ditudan josi ascaturen aldean (99); nola euscarazco obraren esamesana (100) ... baña lagatcen diodalaric eguiteco oni guizon jaquintsunen iritcira ... eta Mr. Lecluse-ri leguezco escubidea adiarretu dedin aita fraile Bartolomé Santa Teresaco beacurtsuarequin onguien derizquion moduan, mugartuco naiz escudatcera uquitzen zaidan zatian, icust-eraguiten diodalaric bedorri, chit pisu guchi edo batere ezduela izan bear euscaldun jaquintsunen beguietan, aita fraileac Mr. Leclus-en obrari eguiten dion erizmateac ...» (101).

98. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 485 or.

99. "Bertso punikoez" ari da, Iztueta bera ere ibilia bait dugu bertsookin borrokan.

100. Lécluseren «*Manuel ...*»i Bartolomek egindako inpuñazioaz.

101. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 520-521 or.

Sarreratik azaltzen digu Iztuetak bere kartaren xedea eta, aldi berean, Bartolomez duen iritzia aurreratzen digu: gutxiespenezkoa, noski.

Segidan, Léccluseren lana zergatik txalotu duen azaltzen digu Iztuetak, bere ohizko estilo «erretoriko puztuan»:

«Chit gaitz anditzat artu du fraile Bartolomé jaunac Leclusen euscarazco obrari nic eguin diodan andigotcea, eta aguertaratcen du beguirunezcoac ez diraden itzaquin ... Mr. Leclusen obra andigotceaz ezdet eguin besteric ezpada Guipuzcoar eguiazcoa naizan aldetic biotzari diraquiona mingañaz jalquitcea, icustearequin atcerritar arguidore bortiz darraicari bat aïñ gogotsu equiñic nequeaz ere oroitu bague aridala, ceña iritsi dan zañic meenetañocoac ezagutcera bere oarquera ta centzu garbico arguitasuna beste laguntza baguetanic, heragati eguiten dala mundu izquerazcoa miresteco diña, eta euscaldun bere erria ta errico izcuntza maite dituzten gucien onesbedagarri» (102).

(Esan dugu Léccluse euskaraz ez zekien frantsesa zela). («Gipuzkoar egiazkoa naizen aldetik, bihotzari dirakiona mingainaz jalkitzea baino ez dut egin» esamolde eder honetan ikusten da Iztuetaren Gipuzkoarekiko (eta euskararenganako) maitasun bero-beroa).

Eta Bartolomek jaurtiki dizkion irainen aurrean, bere buruaren defentsari ekiten dio. Horretarako, Bartolomek «Plauto Bascongado»ko 3. gutun hartan kontra esan zizkionak hartu, euskaratu eta puntuz puntu erantzuten dio guztiari:

«Bereala igarotcen da aita carmentarra nic 1824 garren urtean Guipuzcoaco dantza gogoan garrien condaira ... icenarequin arguitaratu nuen obrari chirola jotcera, eta itzcho bat bacarra ere dauzcanetatic esan bague, eguiten dalaric goz-itztun, gozo bague badarausquio onela (gorago jaso dugun Bartolomeren erdal pasartea euskaraturik eskaintzen digu Iztuetak, bidebatez, gramatika-zuzenketaren bat ere egiten ausartuz) ... ¡Cembat eta nola engañatcen dan bada aita beacurtsua! Ezagunda beraren mesedea dana araco aicebelatsquiro itceguin oiduten aietacoa, ezquillac enzun jaquin bague nun, eta nere obraren berriric gueiago ez duela ezpada icena bacar bacarric debede edo fallo gogorrac bota dizquidana. Iracurri izan balitu ... Unceta beacurgariaren eta Apez Elorza jaunaren ontzate edo aprobacioac, icusico zuen arguiroqui noloc beguiruneaz etartua izandan nere obra ... Eta ¿cer esango du aita Bartolomec jaquitzen duenean Provincia Guipuzcoaco lenarguitiac eta bere Ecautuac gallaldiatu nautela ...? ¿Donedatitzat eta onesquitizat dauzca edo ez fraile Bartolomé Guipuzcoa lenarguiti au eta bere Ecautua? ... Nere obraren ontzat-etzalle Provincia Guipuzcoacoa, bere Ecautua, eta aita Bartolomé Santa Teresacoaren artean ¿nor da jaquintsuna, eta cein barbulloa? Nic esan deguioquedana da Moguel jaunari atseguin andietan arquitcen naizala aita Carmentarrac olagaratu ez nauelaco». (Ukabilkada ederra hauxe!) «Nere jaquinduriaren gañean baldin aita Santa Teresacoac debedeac bota baño lenago iracurri balu nere obraren itzaurrea bederic icusico cituen arguiroqui gai onen aldean nic ditudan goitiristec ... Ezarri det ... nic ... nere obraren ... itzaurrean toles bague ta buru macurtce guciarequin nere ez jaquiña (103) ¿Nola da bada aita beacurtsuac nerequin izatea aïñ barcacio guchi? ¿Cergatic tratatcen nau aimbeste gogortasun eta urruñequin? ... ecin utzi izandet ori isillic igarotcen, cergatic eritcen nauen portizqui nere arimaco zatiric miñbera enean» (104).

102. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 521 or.

103. Iztueta, eskola gutxiko gizona: Besterik beste, bere GDK, 44-46 or. Halaber, ikus gure lan honen «Iztuetaren Obraren Ezaugarriak» izeneko VI. atalean, 16 puntuan.

104. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 521-523 or.



(Zenbat esamolde eder eta hitz-joko polit asko pasarte hauetan ere!).

Hara Iztuetak zein argiro azaltzen duen bere buruaren defentsa, 2 arrazoitan oinarriturik: 1) Zein da «gehiago» Gipuzkoako Probintzia eta bere Diputazioa (zeintzuren ontzateak eta goratzarreak jaso dituen Iztuetak) ala Bartolome? eta 2) Iztuetak berak, apaltasun osoz, argi eta garbi esan zuen bere GDK liburuaren hitzaurrean jakituria eskaseko idazle zela. Guzti honen aurrean zer kontu exiji diezaioke, bada, Bartolome horrek? Aipatzekoa:

«Ezin utzi izan det hori isilik igarotzen, zergatik eritzen nauen bortizki nere arimako zatirik minberenean»!!!

Eta bere burua zuritu ondoren, Bartolomeraren kontrako erasoa, eraso gogorra, inolako kontzesiorik gabekoa, «harroputz halakoak merezi modukoa» (?) dator: Hitz gutxitan azaltzeko, hauxe esaten dio Iztuetak Mogeli: Bere lagun hori gizon ezjakina dela (ez dialektiko bezala, ez etimologista-lanean, ez duela tutik ere balio; erdaraz ez dakiela: ez frantsesez, ez gazteleraz; eta ezta euskaraz ere!) eta, gainera, batere gizatasunik, edukaziorik gabeko gizakumea dela. Eta guztiau «*Plauto Bascongado*»tik jaso eta berak euskaratutako adibide ugari horniturik (105).

Puntuz puntuko kritika luze eta zehatzaren amaieran, honela laburbiltzen du bere arrazoiketa osoa:

«Beguien aurrean dacuscu arguiro aita fraile Santa Teresacoa dana billeguidari guciz charra, euscara ezagutzen ez duena ta are guchiago erdara, ez edolaric bere eranzunquidan duela itzquera beguirunezcoa ta cortesa, ceña arquite oidan azquera sarritango ta traturic guchiena ere gende ongui aciaquin izandaco edoceñengan, beragatic da bedorren adisquidea jaquiñez bat izateaz gañera moldacaitz andi bat. Esanic dago beraren erizmateac utsbetatu dezaquean lecua Dieronde edo Republica asco jaquiñecoan» (106).

Eta honela bukatzen du bere karta, Mogelen jokabidea justifikatuz (baina ez honen lagunarena), estilo eder askoan:

«Bedorrec Moguel jauna iñolaz ere eresiaric onenaquin eta ecasi sencildez-coagaz animaturic nai izan ditu arguitcera atera aita frailearen chinchariac, eta icus beza otseztatcen dutena dumba zarren guisa. Sinistu ere du bedorrec etzala iñor ausartatuco chist bat eguitera ere gucia jaquintsun dan baten erabaqui ezarcatsien contra, baña oroitu bear zuen bedorrec ezdala asqui itzquidatcea, ez moldeari icer eraguitea, beguirunezco izen ondroso au oncaitutceco, badirala ere jaquintsunen icenecoac jaquintsunac izan baguetanic nola deitu oidiegun ille baguecoai calpar motzac, eta «*Soillqui atce epaquiatic mandoai/ Euliac cerequin quendu ezdutenai*». Bedorrena da beti, escuetan muñ eguiten diolaric Juan Ignacio Iztueta» (107).

Lécluse eta Iztueta/Iturriagaren ihardespen bikoitzari Bartolomek berriro erasotzen dio beste idazkitxo batekin, oraingoan hirurak zaku berean sartu eta batera tratatuz: «*Anti-Plauto Polígloto ó Defensa de Plauto Bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca, de Mr. Lecluse*». Hau Santanderren

105. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 523-528 or.

106. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 528-529 or.

107. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 529 or. Halaber, 485-486 or.

argitaratua, 1829an. «*Urhers*» (Lécluse) eta «*Chilla*» (Iztueta/Iturriaga) bizkiak direla dio, jaso dituen bi kritikak hildo beretsutik dabilzala adierazi nahian edo (108). Bartolomeren azken eraso honek ez zuen besteen ihardespelik jaso, (merezki ere ez, agian!) (109).

Iztuetaren lantxo honekin amaitzeko, bere euskaraz eta idazkeraz hitz pare bat:

Euskara, argi ikusten da jasotako pasarteotatik, Larramendiren neologismoz josia du; GDK liburukoaren antzeratsukoa da. Honek ia-ia ulertezin bihurtzen du testua; eskerrak aldean Iturriagaren erdarazkoa daramanari! Dena den, tartekamarteka, zailtasun horiek leuntzeko edo, «edo» juntagailuaz lotzen ditu hitz zaila eta ulerterrezagoa: «ontzate edo aprobacio», «debede edo fallo», «araude edo egemplar», «igaburtari edo sumulista», «Dieronde edo Republica» ...

Alde bateko eta besteko lexikoa, deklinabide-formak eta adizkerak etengabe erabiltzen ditu (Iztuetaren ezaugarrietako bat dugu hau): «esamesagaz», «lagatcen», «bortiz/portizqui», «bague/baguetanic», «jalquitcea», «baizican», «andi», «guichi», «euscara», «erdara», «anitz», «usu», «uquitcen», «dabenac», «menturaz», «deguioquena», «bederic» ... ..

Estiloa, berriz, batzutan oso erretorikoa eta puztua, adjektibu eta izenlagunez pilatu samarra du (hau ere GDK liburuan bezalatsu, eta autore honen ezaugarriak nagusienetakoa). Erdal joskera traketsak, batzutan oso itsusiak, sarri-sarri erabiltzen ditu. Baina, baitere, zenbait eta zenbait esamolde jator baino jatorrago, herri-hizkera bizi-bizikoak, bertsoxo, esaera-zahar eta ateraldi polit askoz hornituak. (Jaso ditugun testu-zatiak irakurriz, aisa jabe daiteke bat Iztuetaren lehen aldietako euskaraz eta estiloaz (nola Karta honetakoz, hala GDK liburu osokoz). (110).

## 5. Erdarazko lanak

### 5.1. *Trabajo sobre el método que se debiera seguir en las escuelas de primera enseñanza de esta región, para enseñar el castellano*

Entseiu honetan hizkuntzak nola gordetzen diren, nola kutsatzen eta nola galtzen diren esaten du.

Euskararen atzerakada ikaragarriaz oharturik dago eta arrazoi bat eskoletan gertatzen denagatik dela dio, hau da, dena erdara hutsean irakasten delako.

Aita Larramendiren arabera ez dago euskal izkriburik XVI mendearen erditik baino zaharragorik, eta Larramendi bera izan zen hiztegi bat eta euskal gramatika bat utzi ziguna, beraz ia ezinezkoa zen metodorik izatea.

---

108. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 487-493 or. («*Anti-Plauto Poligloto ...*»ren testua) eta 486 or. (Honi buruzko iruzkina).

109. LAKARRA, J.A./URGELL, B. (1988), aip. art., 486 or. Ikus, halaber, Unzetaren 1829-V-7 eta VI-18ko gutunak: Bartolomeri kasurik ere ez egiteko esaten dio lagunari, ez duela merezi eta (GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 136-138 or.).

110. Iztuetak Mogeli egindako Karta honen inguruko iruzkin batzu, ikus, ARANBURU, XABIER (1972), «*Juan Ignacio de Iztueta*». Caja de Ahorros Provincial, Donostia, Gráficas Izarra, 54-56 or. ETXAIDE, J. (1990), aip. ob., «Iztueta» Kapitulu (205-232 or.). 222-223 or. («Iztuetak irmoki erantzuten dio»). MICHELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura Vasca*». Erein, Donostia/Zarautz. (118-120 or.), 118 or. ('Iztueta le dió una respuesta muy digna'). VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 173, 260-263, 278-282 zka. («Iztueta contesta con bastante libertad y desenfado»). Ikus, halaber, IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 17-18, 321-333 or.

Zeintzu metodo jarraitzen diren eta zeintzu erabili beharko liratekeen ere aipatzen du, baita hizkuntzak nola ikasten diren ere.

Berak bere izkribuan proposatzen duen metodoari euskaraz egindako lantxo batzu eransteko aukerarik balego emaitzak askoz hobeak lirateke; baina euskararen mundu txikiak, euskalkiek ere mugatzen dutelarik, oso zaila egiten du lan hau, berak dioen bezala inpresio gastuak kubritzeko ere ez litzateke aterako; bestela izango litzateke lan horiek egitera prestatuko litzatekeenik balego (111).

### 5.2. *Trabajo escrito en castellano sobre el origen de los apellidos bascongados*

Lan honetan, euskal abizenen jatorriaz mintzo zaigu, euskaldunak bere abizena zenbat maite duen ikusteko nahikoa dela baserriari jartzen dizkieten izenetan fijaszea, horrela abizenen benetako esanahia ilundu delarik (112).

### 5.3. *Relación de los curas de Guipúzcoa*

Lantxo honetan Gipuzkoako elizen eta hauen hornikuntzen berri ematen digu herriz herri, tartean zenbait aipamen geografiko eta historiko egiten dituelarik (113).

---

111. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras Inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 109-115 or.

112. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 116 or.

113. GARMENDIA, JOSÉ (1977), «*Relación de los curas de Guipúzcoa. Un trabajo inédito de Juan Ignacio de Iztueta*». BAP XXXIII, San Sebastián, 179-203 or.



## IZTUETAREN HARREMANAK

Ez dago zalantzarik bere garaian oso ezaguna eta miretsia zela, jakina, etsaiak ere bazituen. Bere jaioterrian «Txuri» deitzen zioten, bere bertsoak ahoz-ahoz ibiltzen ziren eta batzu kopiatu ere egin ohi zituzten.

Ekintza, ikuskizun edota festa popularra non Iztueta han, hutsik gabe. Ez-teietara bertsolari eramaten zuten.

Dantza-taldea zuzentzen zuen eta asko ibiltzen zirenez leku askotxotan ezagutzen zuten.

«*Dantza-liburua*» argitaratu zuenean bere izenak Gipuzkoatik kanpora salto egin zuen eta Estebanez Calderon (politikari, nobelagile, historiagile eta poeta) bera ere interesatu zen.

Estebanez Calderonek (1) bere ohitura liburuan (Colec. Austral, 128 or.) Iztuetaren laguna dela esaten du; non ezagutu zuten elkar? noiz? ... Bien arteko harreman pertsonala ere izan zen, kezka kulturalak bultzatuta, noski.

Are gehiago, Mendivilek (2) Londresen argitaratutako foileto bati esker, —beharbada Iztuetak berak idatzia— Inghaterrako jendeak ere ezagutu zuen.

Jorge Borrow-enak (3) omen dira Iztuetaren lanaz hitzegiten duten bi artikulak, eta dirudienez idazle horrek bazituen Iztuetaren orijinalak.

Zer esanik ez dago Iparraldeko adituek ere ezagutzen zutela. Horixe frogatzen bait dute Lécluse, A. D'Abbadie, Ansoborlo (4) (Donibane Lohizuneko eskola-zuzendaria) eta abarrek izan zuen korrespondentziak, eta baita Parisekin izan zuenak ere.

Juan Inazioaren alaba bat Gasteizen bizi zen ezkondua eta beste bat Burgosen. Berak esana da zenbaitetan izana zela Gasteizen. 1832. urtean, Donostian bizi zela, Madrileko jaun batek (5) Vicente Vinuesaren kultur etxean hitzaldi bat ematera konbidatu zuen, hitzaldia euskarari buruz izango zen.

Zaldibian gordetzen diren gorbatek Burgosko zigilua daramate. Han ere pasako zituen denboralditxo batzu.

---

1. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras Inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 118 or.

2. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 119 or.

3. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 119 or.

4. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 119 or.

5. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 119 or.

1814. urte aldera eta aurrerantzean Donostian ezaguna baino ezagunagoa zela korrespondentziak frogatzen digu, hauetan ez baita azaltzen ez kalea, ezta etxearen izena ere. Lécusek, beste batzu bezala, «verificateur de passeport» jartzen du (6).

Demwoski (7) idazleak ere izan zuen Iztuetaren berri eta «Kontxesi»-ren estrofa batzu kopiatu zituen.

Iztuetak zuen afanak eta dinamismoak ia alor guztietara bultzatu zuten, eta maila askotako harremanak mantendu zituen.

Guzti hau ikusirik ez gaitu harritzen Iztuetak hainbeste harreman izan zituela ikusteak.

Perez-Yarza Bajineta-ren (8) etxeko artxiboan Iztuetak leku nabarmena du eta hori, zenbait arrazoi tarteko direlarik, gertatu zen. Ikus ditzagun Iztuetaren korrespondentziaren alderdi batzu: kantitatea, barietatea eta igorleen izen batzu.

70 kartatik gora dira 1824-1844 bitartean egin zituenak eta guregana iritsi zaizkigunak (9).

Hizkuntz barietateari dagokionez, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez daudela esan behar.

Igortzaileak asko dira, batzu besteak baino ezagunagoak, eta besteak beste (10), Juan de Erro, Lécuse, D'Abbadie, Agustin Pascual Iturriaga, Luis de Astigarraga, Ramon Guereca, Mogel, Mogelen iloba, Santiago de Unceta ...

Hemen denak aipatzea oso luzea izango litzateke, eta dataz data aztertzea berriz ia ezinezkoa, batzu datarik gabe bait daude. Beraz, sailka eta multzoka aztertuko ditugu (11).

Lehen multzoa Agustin Pascual Iturriagak idatzitakoa da. Guztira hogeitabi eskutitzek osatzen dute sorta hau, euskaraz eta erdaraz taxutuak, ez da agertzen Donostiako helbiderik, Zaldibiara zuzenduetakoetan bai, ordea. Hauen artean, Oriamendi mendiskarako eguna eta ordua jarriaz papertxo ugari agertzen omen dira, Garmendiak dioenez.

Iturriaga eta Iztuetaren arteko eskutitzek bien harreman sakon eta ia denak euskarari buruzkoak direla adierazten dute. Iturriagak etengabe aholku eta laguntza bila Iztuetarengana jotzen du, honek zintzoki uneoro ematen diolarik: itzulpen-lanak, zuzenketak egin dizkiolako eskerrak sarritan ematen dizkio Iturriagak. Euskararen aldeko erabaki eta ideia praktikoak, funtzionalak bultzatu nahi dituzte: euskara eskoletan sartu, euskal liburu errazak eta didaktikoak sortu e. a.

Zenbait eskutitzetan elkarrekiko arazo familiarak ere nabarmentzen dira, adibidez, Iztuetaren semea, Valentin Kuban hil ondoren, Zuaznabar eta Iturriagak Juan Inazioren heredentzi eskubideak aurrera ateratzen laguntzen diotenean.

2. multzoan Luis de Astigarraga eta Ugarte Segurako maisuak idatzitako sei eskutitzak sartzen ditugu. Seiak 1840. urtean, bi Azpeitiatik eta lau Seguratik idatzi zizkion. Maisu hau, idazlea eta liburugilea bai gazteleraz bai euskaraz izanik, eskutitzotan Juan Inaziori bere liburuei gainbegirada bat ematera joateko

---

6. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 119-120 or.

7. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 120 or.

8. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 120-122 or.

9. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 121 or.

10. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 122 or.

11. GARMENDIA, JOSÉ (1968), aip. ob., 122-207 or.



Goizaldik Izuetari egindako omenaldia, Donostia, 1967: Oroitarria

erregu eta erregu ari zaio. Badirudi lorpen handirik ez zuela eduki, nahiz eta Iztuetak hitz eman zion behin baino gehiagotan.

3. multzoa, Bergaran jaio, diputatu izatera iritsi eta Iztuetaren GDK liburuaren hitzaurrea egin zuen Santiago de Unceta politikariaren eskutitzek osatzen dute. Santiagok Juan Inaziori 1824-1829 urteetan egin zizkion karta hauek, Iztuetak Mogeli egindako karta eta GDK liburuaren argitalpenak direla eta. Iztuetaren euskararen balio eta bere euskararekiko zaletasuna azpimarratzen digu, laudorioak intzentsu gisara isuriz, Fray Bartolo (sic) gutxietsi eta Juan Bautista Erro politikari handiarenganako bidea urratzen dio.

4. multzoa frantsesez Lécusek idatzitako beste bost eskutitzek osatzen dute, 1826-1830 urte bitartean hain zuzen. Frantziako Tolosako irakasle zen Lécusek Iztuetari bost karta zuzendu zizkion. Hauetako gaiak hauexek dira: euskara eta euskalkiei buruzko zalantzak planteatzen dizkio, elkarren lanen laudorio, iruzkin eta liburu berrien eskabideak trukatu zituzten.

5. multzoan Ulibarri Galindez, Jose Paulo Abandoko perratzaile eta euskaltzalearen eta Iztuetaren arteko gutun batzu sartzen ditugu. Korrespondentzia hau 1827. urtean hasi eta bi urte beranduago amaitu zen, sei karta trukatu zituzten, eta badirudi Iztueta ez zela hain erraz bere liburuak bidaltzera prestatzen. Jose Paulok behin eta berriro Dantza Liburua eta eranskina eskatzen dio, ez alperrik. Iztuetak aitzakiak, handik eta hemendik sortuz, dantzak irakatsi beharra, idazten eskubete lanez osaturik dagoela ..., erantzuten dio. Azkenean, bi urte pasa ondoren, 40 errealetan bidaltzen dio liburua. Gutun hauetan agertzen den beste ideia nagusia Tubalismoa da (12).

6. multzoan Iztuetari egindako eskutitz solteak aipatzen ditugu. Hara hemen eskutitzen egile batzuren izenak: Juan Jose Mogel, Martin Onrubia, Valentin Iztueta, Ramon Guereca, M. Ansoborlo, Joaquin de Michelena, Juan Bautista de Erro (Gerardo Elorzak baditu Iztuetak Errori zuzendutako eta argitaratu gabeko eskutitz ezezagun batzu. Ikus 2. eranskina).

Garbi ageri da Iztuetak harreman zabalak eta nabardura ugarikoak mantendu zituela batzurekin eta besterekin.

---

12. BERRIOCHOA, VALENTÍN (1961), «Del epistolario inédito del herrador bascófilo de Abando. Correspondencia de Juan Ignacio de Iztueta y José Pablo de Ulibarri y Galindez». BAP XVII, 3, San Sebastián 313-321 or.



## IZTUETAREN EUSKARA ETA IDAZKERA

### 1. Iztuetaren lan nagusiak banan-banan arakatu ondoren, azter dezagun orain honen euskara eta idazkera:

Hasteko, esan behar iritzi nahiko kontrajarriak dauzkagula zaldibiarraren euskaraz eta estiloaz. Iztuetaren bizitza aski nahasia, korapilotsua izanik, makina bat puntu ilun eta eztabaidatu azaltzen zaizkigun bezala, bere obrari dagokionez ere bada hamaikatxo iritzi kontrajarri: Batzuk goi-goiko mailan eta eredutzat jartzen duten bitartean, zenbaitek, aldiz, ez dio aparteko baliorik aitortzen, eta bada idazle kaskar, gaiztotzat jotzen duenik ere.

Dena den, gehienek aitortzen dituzte Iztuetaren obran segidako puntuok:

a) Erabili dituen gaien garrantzia (Dantzena, zinez apartekoa).

b) Gai horiek euskara hutsean landu izana (Ordurarteko apurra erdaraz egin bait zen).

c) Iztuetak «goranzko bilakaera» izan zuela, hots, 2. liburua lehena baino hobe delako, bai darabilen euskararen aldetik, bai gaiak azaltzeko era edo estiloari dagokionez.

d) Aldi berean, zati bikainak eta oso kaskarrak dituela, pasarte ederrak eta joskera arras traketsekoak: Lehenak bere euskal sen jatorrizkoari, herri-hizkuntzaren ezagutza sakonari zor zaizkionak, eta bigarrenak, berriz, Larramendiren Hiztegiaren mirabe izan «nahi/behar» horren eta erdal joskera, euskararenaren galeran, hobestearen ondoriozkoak, neurri handi batean.

### 2. Jaso dezagun lehenik gure egunotako hainbat euskaltzaleren zenbait iritzi:

Mitxelenaren arabera, Iztuetak «erredundantziarako» joera nabarmena du, ideiak eta esan beharrekoak behin eta berriro, asperkaitz, errepikatzekoa. Bestalde, ez zuen Larramendik bere kabuz «sortu» zituen neologismoak behar bezalako «zuhurtziaz» manejatzen asmatu; asmatzaileak bere sorkariei ezarritako barrutitxoaren mugapetan ibiltzen ez zuen jakin izan. Dena den, bere kabuz eta senez iharduten duenean, Iztuetaren hizkera ezin jatorragoa da, naturala bilakatzen zaigu; atsegina, bizia eta aberatsa, zinez (1).

---

1. MICHELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura Vasca*». Erein, Donostia/Zarautz, 119 or. TORREALDAY, JUAN MARI (1977), «*Euskal Idazleak Gaur. Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas*». Jakin, 239-240 or. Ikus, halaber, zeharkako aipamena, MITXELENA, KOLDO (1988), «*Euskal Idazlan Guztiak I*». Euskal Editoreen Elkarte, Erein, Donostia/Zarautz. Klasikoak 21. 219 or.

GPK liburuaz iruzkin hau egiten du: Liburu honetan bi parte zeharo desberdin bereizi beharko genituzke: a) Lehen partean badira oso gustora, atsegin handiz eta probetxu ez gutxiagoz irakurtzen diren pasarte zoragarriak; dena den, autore honen hain ohizko eta etengabeko «goraipamen errepikatze puztuak» alde batera laga behar, eta b) Azken partea gipuzkoarren gerra-hazainen aipamen luze, aspergarria baino ez da (2). Bestalde, euskal literatura klasikoko 10 idazle/obraren zerrendatxoa eskatzen zaionean, Iztuetaren GPK hau hautatzen du Mitxelenak 10 libururik onenen artean sartzeko modukoa, eta «ez bere balore literarioengatik bakarrik, baita politikoengatik ere» (3).

Iztuetaren «Larramendizaletasunaz», «garbizaletasunaz»:

«Ez dakit zenbat jende baliatu zen Larramendik sortutakoaz ... (Hiribarren ez; Asteasuko Agirre, neurri zuhurrean, bai). Orduko idazleek, halaz guztiz, kontuz erabili zituzten hitz asmaberriak, sortzailearen oinazetan, pozoitsu zitezkeelako, dirudienez, harraldi larriegitan. Ezagunik baztertu bazen usuario horretatik 1850 arte, Iztueta izan zen hori. Honek ... ezinesanezko gosez ekin baitzien arbola erdi debekatuaren fruituei ez ezik, baita hosto eta adaxkei ere ... Bazterrak ongi arakaturaz gero, Iztueta ez legoke hain bakarti. Hau izan zen, halaz guztiz, Larramendiren bidea saiatu zuena inork baino lehenago eta areago, mundu honetako gauzak (dantza zein erabateko kondaira) tratatzeko. Gure egunotaraino begira egon gabe, horrexek erakusten digu Larramendi izan zela, lehengo eta behin, “aldiritarren” hizkuntza hiritartu nahi izan zuen euskaltzalea ...».

(Baserri-munduko euskara hizkuntza «moderno», «tekniko», bihurtu nahi izan zuena, alegia. Iztuetak ere asmo horixe izan bide zuen, neurri batean bederen).

«Iztuetak ondorengo gutxi utzi zuela pentsatzen duena ez dabil guztiz zuzen, 1876tik aurrera ... idazle laikoak ugaritu ahala ...» (4).

Iztuetaren (eta gure klasikoen) euskara aberatsaz eta estilo jatorraz, berriz:

«Egia da gure euskal idazleek ezagutu zituztela aski beste euskalkietako autorenak ... Ubillos ... Iztuetak ere, hangoak eta hemengoak ezagutu zituen eta hango eta hemengoaren esakerak eta hitzak jaso. Halere, bakoitza bere aldetik dabil, eta horrexek egin du kalte izugarria».

Eta gai beronetaz beste leku batean:

«Gure idazle klasikoak ez ziren beren euskalkitxora mugatzen: Ubillos ... Larramendi ... Lardizabal ... Agirre Asteasukoa ... eta, besteak beste, ez zaigu ahaztu behar bizkaierako idazleak ere hain ederki ikasi zituen Iztueta. Honek zera frogatzen digu: giputz horiek, aldi joanetako beste edozein euskaldunen antzera, ez zirela batera “inperialistak” izan, eta landuagoetatik ikasteko ez zutela kupidarik».

---

2. MICHELENA, L. (1988), aip. ob., 119 or. TORREALDAY, J.M. (1977), aip. ob., 239-240 or.

3. TORREALDAY, J.M. (1977), aip. ob., 192 or.

4. MITXELENA, KOLDO (1988), «*Euskal Idazlan Guztiak VII. Hizkuntzalaritza II*». Euskal Editoreen Elkarte, Erein, Donostia/Zarautz. Klasikoak 27. 33-34, 55 or. SARASOLA, IBON (1984), «*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*» I. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia; (Mitxelenaren Sarrera); 15-16 or.

Are gehiago oraindik:

«1936 baino lehen, dena genekiela uste genuen, gero eta hobeto genbiltzala, zaharrek (c eta ch) ez zuten sekula atarramentu onik atera. Ez ote zuen ezagun batek esan, Iztuetaren Condaira (bata nahiz bestea) erakusaldi batean ikusi zuenean: "Hobe, guzti hauek erreko balira!". Oker geunden, noski. Zaharrek, zaharretan onenek, guk baino hobeki idazten zuten euskaraz, lehen eta oinarritzko hizkuntza zutelako guk ez bezalako moduan; hitz egin, noski, guk baino ederkiago egiten zuen edozein nekazarik, edozein bertsolarik, euskaraz funtsaren funtsean ederkiago zekielako» (5).

Jaso dezagun ondoren Villasanteren iritzia ere: Iztuetaren «Larramendizaletasunaz»: Iztueta dugu, morroi txintxo-txintxo gisa, Larramendiren neologismoetara gehien jotzen duen idazle klasikoa; baina joera honek ez dio, Hiztegi Hirukoitza alde batera laga eta bere kabuz ekiten dionean, naturaltasun eta etorri handiz idaztea eragozten.

GDKko euskaraz: Iztueta oso sarri Larramendiren Hiztegiari trabatua, kabitatua senti ohi da; baina bere kontura idazten duenean, beste gauza bat da; nahiz eta, orduan ere, Larramendik asmatutako hitz berriak, tarteka, sartu beharrenden «obligazioa» edo sentitu. GPK liburuz, ostera: Liburu honek, hizkuntz testu bezala, besteak baino gehiago balio du, dudarik gabe; ez dago hau bezain lotua Larramendiren Hiztegiari (6).

Sarasolak ere egiten digu bere iruzkina: Iztuetak ez du beti berdin idazten. Bere hizkera arras desberdina da:

a) Orohar, erabat jatorra, herrikoa, peto-petoa, baina

b) Itzulpenetarako eta Larramendiren Hiztegiari baliatzen denean, erabat aldrebesa, traketsa.

Eta beste leku batean:

«Hegoaldean bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa gaudituz duten euskal idazlan gehienek atzean Larramendiren eragina nabari daiteke. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik. Gaiak, kultur edukiak, eta irakurlekoak baldintzatzen zuten haren erabilera».

(Iztuetaren bi liburuak, Dantzena batez ere, liburu teknikoak dira eta, horregatik, hizkera landuagoan, «goi-mailakoan» burutu behar) (7).

Hara Irigarayrena ere: GDK hitz arraroz josia dago; gaiak baino ez du erakartzen. GPKn, berriz, gerrez eta itzulketan ari denean baino euskara naturalagoa, txukunagoa darabil Iztuetak Probintziaren geografia eta ohituren berri luze-zabal eskaintzen digunean (8).

---

5. MITXELENA, KOLDO (1988), «Euskal Idazlan Guztiak IV. Literaturaren Inguruan I». Euskal Editoreen Elkarte, Elkar, Donostia. Klasikoak 24. 64 or. MITXELENA, K. (1988), «Euskal Idazlan Guztiak VIII». Euskal Editoreen Elkarte, Labayru. Klasikoak 28. 165 or. SARASOLA, I. (1984), aip. ob., 18 or. IZTUETA, JUAN INAZIO (1990), «Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia». Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero, Oiartzun. Klasikoak 37. (Edizioaren Prestatzailea: Ezeizabarrena, M.<sup>a</sup> Jose); 28 or.

6. VILLASANTE, FR. LUIS (1979), «Historia de la Literatura Vasca». Aranzazu, 279-282 zka.

7. SARASOLA, IBON (1976), «Historia Social de la Literatura Vasca». Akal, Madrid, 132 or. Ikus, halaber, aipamena, IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 31 or.

8. IRIGARAY, A. (1965), «Esbozo crítico con textos de literatura eúscara profana». Separata de la Revista *Príncipe de Viana*, 98 eta 99, Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 21-22 or.

Imazentzat Iztuetak euskara onean eta estilo arin eta askean idatzi zuen (9).

Eta gure egunotako euskaltzaleen iritziekin amaitzeko, jaso dezagun labur-bildurik E. Zabalarena ere: Iztuetak oso idazkera desberdina du: Bere gisara ari denean, prosa nahiko naturala, jatorra, gozoa eta zalua darabil; baina, autore eta dokumentu batzuren itzulpen edo moldaketa egitean, trakets eta ulerkaitz, galdurik eta loturik ageri zaigu, bere joskera baldartu egiten du, eta Larramendik asmatu-rik hitzetan arras tratatua azaltzen da (10).

Jaso ditugu gure garaiotako zenbait idazleren iritziak. Eta ikusi dugu denak iritzi beretsukoak direla Iztuetaren euskaraz eta idazkeraz: Denek Iztuetaren alde on eta txar berberak azpimarratzen dituzte.

### 3. Goazen orain zaharragoetara, Iztuetaren beraren garaikideetatik hasita:

Iztuetari zuzendutako korrespondentzia eta bere liburuen atariko Aprobazioetan ikus daitekeenez, honek bere garaiko hainbat eta hainbat euskaltzaleren (gizarte-maila ezberdinetakoen, eta Euskalerritik kanpoko askoren) berebiziko goraiamenak, laudorioak jaso zituen. Guzti hau, dena den, bere mugetan ulertu behar da: Goratzarre gehienok ez bait diote euskararen aberastasun eta jatortasunari begiratzen; Iztuetak erabili dituen gaiak txit interesgarriak direla, eta are gehiago, ordurarte ez bezala, euskaraz landu dituelako, aitortzen da, batez ere, gutunotan; formari ez zaio kasu handiegirik egiten (11).

Fr. Bartolomerena azaldu dugu lehentxoago. Dena den, Bartolomek Iztuetari honen euskara eta idazkeragatik baino areago (honengatik ere zertxobait esaten dio baina: erdal hitzak —«historia, versoquin ...»— darabiltzala eta) dantzen aldeko agertzeagatik erasotzen dio, euskal idazle-nortasun eta balio guztia ukatuz (ez «jakintsu», ez «errespetagarri»). Beste askok ere ez zuten Iztuetaren lana askorik estimatuko; baina, batez ere, moral-arrazoiengatik.

Aipa dezagun Juan Mateo Zabala frantziskotarraren liburu bat: «*Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi*». Donostian, 1856an argitaratua, egilea hil eta 16 urtera. Larramendik bere Hiztegiaren Atarikoan 10 libururen katalogotxoak dakar, ia denak lapurtarrenak; baina batzu ez ditu jasotzen, ez bide zituen ezagutu eta. Zabalak, bere liburuan, Larramendiren 10 horiei 52 gehitzen dizkie, 23 gipuzkoarrenak eta hauen artean Iztuetaren «*Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira ...*» ere jasotzen da; (bestea artean azaltzeko zegoen). Baina Zabalak, dirudienez, ez du iritzi onik liburu horretaz. Izan ere, bere ustez onak diren liburuez atniruzkin baliotsuak egiten ditu eta beretzat txarrak direnez, aldiz, ez du tutik ere esaten eta, jakina, Iztuetarena bigarren multzo honetan aurkitzen da, Zabalarentzat bali-iorik ez duten liburuen artean, alegia.

Zabala (1777-1840) Bilbon jaio zen eta Zarauzko komentuan hil. Añibarroren garai beretsuan herriz herri Misio Santuetan sermoilari ibili zen. Bere liburu

9. IMAZ, JOSÉ MANUEL (1945), «*El centenario de un dantzari*». BAP I, 4. San Sebastián, 407-414 or.

10. ZABALA, ENRIKE (1981), «*Euskal Literatura, Alfabetatzeko*». Pax, Lazkao, 127-128 or.

11. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «*Obras Inéditas de Iztueta*». La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 132-156 or. (Unzeta, Gereka, Lécluse, D'Abbadieren gutunak), besterik beste. D'Abbadiek esaten dio: «Su estilo guipuscoano me gusta mucho, me parece más legítimo bascongado que el de las pocas obras que se han salido a luz en el Labourt». Ikus, halaber, IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 16-19 or. Baita Iztuetaren beraren liburuetako «*Ontzate edo Aprobacioac*».

guztiak egilea hil eta geroago argitaratu ziren. Inportanteena, «*El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaino*» (Donostia, 1848), argitaratu ahal izateko onespena, Probintziako Diputazioak hala eskaturik, Iztuetak eta Iturriagak eman zuten. Euskal aditzari buruzko ikerketa zehatz honetaz txostena egiteko erakunde publikoek Iztueta hautatzeak «zerbait» adierazten duela uste dugu: Gramatika-gai teknikoetan ere Iztueta aditutzat jotzen zutela bere garaiko euskaltzaleek, besterik-beste (12).

Bestalde, gorago ere azaldu dugu, Iztuetak Gipuzkoako Batzarre Nagusiek emandako biziarteko pentsioa jaso zuen 1840tik aurrera, egiten zuen lan guztia Probintziaren jabetzara pasatzearen truk. Honela, GPK erakunde publikoen enkarguzko lan bat izan zela esan dezakegu. Erakundeok bazuten konfidantzarik gure zaldibiarrenarentzat! (13).

Bonaparte eta Uriarte, aldiz, ez dira uste horretakoak. Luis Luziano Bonaparte printzea, hizkuntzalari eta euskaltzale ospetsua, euskalkien ikerketa-lanetan aritu zen, garai hartako euskal idazle ezagunenei Idazteuneko zati hautatu batzuren euskalkiz euskalkiko bertsio ezberdinak enkargatuz eta parekatuz. Kolaboratzaileen artean leialenetarikoa Jose Antonio Uriarte (1812-1869), Arrigorriagan jaio eta Markinan bizi izan zena dugu (14). Bibliaren gipuzkerazko bertsioa Uriarteri enkargatu zionean, euskalki honetako eredu bila ibili ziren: Lardizabal eta Asteasuko Agirre jo ziren egokientzat; Iztueta, berriz, baztertua izan zen. Dena den, Gipuzkoan ez bide zuten lan horretarako itxurazko inor aurkitu eta Uriartek berak ekin behar izan zion gipuzkerazko itzulpenari, aparteko emaitzik lortzeke baina (bizkaitarra izaki Uriarte eta gipuzkera ezin behar bezain sakonki menderatu) (15).

1856tik aurrera karta-trukaketa zabala izan zuten Bonaparte eta Uriartek, beren helburuko lanerako gipuzkoar eredugarriren bila. Eskutitzaotan sarritan aipatzen da Iztuetaren izena, 1857ko Uztailaren 2 eta Abuztuaren 1ekoan, adibidez. Baina aipagarriena Uriartek, printzearen aurrekoari erantzunez, 1857-8-17an egindakoa dugu:

«Después de Lardizábal prefiero a Aguirre ... Convengo también con S.A. en que el bascuence de Iztueta es afectado y malo, y que, como dice muy bien S.A., debemos precavernos de él como de “lupuac” (Iztuetarengandik lupuegandik bezala gorde behar genukeela idazten dio printzeak laguntzaileari). Pero creo que no todos los términos sean malos: creo pues, que no debe dejarse el término “done, uría, erría, dirade, eguiazqui, gabetanic, andican” y otros. Bajo estas observaciones hago uso de todos los autores bascongados, dando la preferencia a Lardizábal y luego a Aguirre; pero tomando de cada uno lo que creo mejor para hacer la traducción literal, ligada, bíblica de dialecto guipuzcoano de Beterri; pero, en cuanto se pueda, diferente del vizcaíno y labortano, a fin de que se conozca la diferencia de los dialectos ...» (16).

---

12. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 266-271, 282 zka. ETXAIDE, JON(1990), «*Hamasei Seme Euskalerriko*». Erein, Itxaropena, Zarautz, 311 or. ZABALA, JUAN MATEO (1986), «*Fábulas en dialecto vizcaino*». Euskal Editoreen Elkarte, Labayru, Bilbo. Klasikoak 2. 21-22 or.

13. GARMENDIA, JOSÉ (1974), «*Noticias sobre Iztueta en los Registros de las Juntas Generales de Guipúzcoa*». BAP XXX, 3 eta 4. San Sebastián, (467-470 or.), 469-470 or.

14. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 291-298 zka.

15. RUIZ DE LARRÍNAGA, JUAN (1954), «*Cartas del P. Uriarte al Príncipe Bonaparte. Con notas bio-bibliográficas*». BAP X. San Sebastián, (231-302 or.).

16. RUIZ DE LARRÍNAGA, JUAN (1954), aip. art., 247-248, 251 or. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 282 zka. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 28 or.

Bonaparteren helburuetarako Iztuetaren idazkera, noski, ezin izan aproposena: Batetik, Beterri aldeko gipuzkera iruditzen zizaion euskalki honen eredu eta, bestetik, Iztuetaren lanetan, hitz asmaberri askoz aparte, euskalki ezberdinetako lexikoa eta gramatika-formak ikusten zituen etengabe. Iztueta ez zen inolaz ere gipuzkeraren (ez Goierrikoaren, ez Beterrikoaren) eredu.

Jaso dezagun, halaber, Irigarayk Bonaparteren paperen artean aurkitutako Luis Usoz del Río, nafar kuakeroak Gräberg konteari egindako karta bateko iruzkin bat edo beste ere: Jose Bizente Etxegarairen euskalkia, adituen arabera, Iztuetarena baino garbiagoa da, haren poesiak honenak baino txukunagoak. Gipuzkoarren ustez, Iztuetak ez omen du hizkuntza garbia erabiltzen, Iparraldeko, bizkaierako eta beste euskalkietako hitz asko sartzen omen ditu, ez omen du Irun inguruko euskara garbia soil-soilik erabiltzen. Hitz oso zailak, arraroak omen-darabiltza:

«Buca, ayenatu, izucariaz, ingui, maco, griña ... Zer esan nahi ote dute? Nik ez dakit!»

-dio Usozek erdaraz. Usozek ez zekien euskaraz eta, gainera, Iztuetari buruzko informazioa zehar-bidez jaso zuen. Bere iruzkinak, beraz, nola Iztuetaren bizitzaz, hala honen obrari buruzkoak, oso balio eskasekotzat jo behar (17).

Gorosabelek dioenez, Iztuetaren bertsoak oso estimagarriak dira, hizkuntzaren garbitasun, erraztasun eta adierazkortasunagatik (18).

Manterolak ere goraipamen handiak egiten dizkio Iztuetari (19).

Aranaren ustez, Iztuetak euskara garbi, jator eta txukuna darabil, beste euskalkietako hitzez nahasia, Mendiburuk bezala. GPKko estiloa puztuegia da, «gongorista» samarra (20).

C. Echegarayrentzat, Iztuetaren hitz-neurtuek, «Conchesiri» kenduta, ez dute poesi mailarik, nahiko balio eskasekoak eta «arruntegiak» dira. GPK, aldiz, akats historiko nabarmenez ahazturik, hizkuntz testu bikain-bikaina dugu; euskarazko literatur lanak egin nahi dituen edonorentzat hizkera eta idazkera jatorraren eredutzat har ditzakegu hainbat eta hainbat pasarte. Iztuetaren prosa, bera hain kultura apalekoa izanik ere, txit joria, oparoa, lexikoari dagokionez beste inor baino aberatsagoa dugu; euskara aisa baino aisago menderatzen zuen. Baina, beste leku batean, kritika hau ere egiten dio: Batzutan erdal joskeraren menpeko agertzen da, batez ere erlatiboko esaldietan, esanahia ilunduz eta euskal joskeraren legeak nabarmen-nabarmen hautsiz (21).

Azkueren ustez, GPK liburuak balio historiko baino literario handiagoa du. Bihotz garbiko gizaseme gutxi-ikasi baina agurgarri honen lan bikainari asko zor diote euskarak, arkeologiak eta musikak (22).

17. IRIGARAY, A. (1949), «Glosas a un nuevo Cancionero Vasco». BAP V, 4. San Sebastián, (451-457 or.), 451 or. eta IRIGARAY, A. (1958), «Yon Eixaide, Amasei Seme Euskalerrri'ko». BAP XIV, 2. San Sebastián, (278-281 or.).

18. GOROSABEL, PABLO DE (1967), «Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa ...» IV. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 634 or. eta SUQUÍA, JOSÉ MARÍA (1975), «Monografía histórica de Zaldivia». Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian, 164-165 or.

19. MANTEROLA, JOSÉ (1981), «Cancionero Vasco» I, 1. Sendoa, 35-39 or.

20. ARANA, JOSÉ (1882), «Poesía Literaria Euskara». Euskal-Erria, VII. (15-22 or.), 21 or.

21. GOROSABEL, P. (1967), aip. ob., III, (Carmelo Echegarayren Apendizea), 235-236 or. ECHEGARAY, CARMELO (1901), «De mi País: Miscelánea histórica y literaria ...». («Iztueta» artikulua), F. Jorret, San Sebastián. 1-10 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 28 or.

22. AZKUE, R.M. (1916-1919). «Los Bascos en la Nación Argentina». José R. de Uriarte, Buenos Aires, (99-104 or.).

Eta bukatzeko, Orixeren iritzia:

«Iztueta'k etzuan igesegin gauzak nola edo ala esatetik, euskal itzik etzuanean, gaur zenbaitek egin oi degun bezela. Naiz neolojismoz, naiz erdal-itzez, ixiltzea baiño saiatzea obe da, euskera landu dedin. Joannes Etcheberri'k Laphurdi'n eta Iztueta'k Gipuzkoa'n ez dute berdiñik izan beren egunetaraño, gure izkuntza jakingaietara zabaltzen. Iztueta'ren Gipuzkoa'ko Kondaira gaur ere atseginez ta etekiñez irakurri diteke, noski. Iztueta'ren euskera, tankeraz beroa, gorra, ele-eder elocuentea da; esatez jalkia, ixurbera, gozoa; itzez ugaria ta aukeratua. Itz berriak, eskuarki, Larramendi'rengandik artuak ditu. Banakaen batzuk bai bereak ere» (23).

#### 4. Iztuetaren euskara eta idazkerari buruzko iritzi-bilketa luze honen ondotik, goazen orain berau puntuz puntu arakatzera: (24)

##### 4.1. Ortografia:

Bere garaiko idazkiekin alderatuz, Iztuetaren idazkera orduko normala dela ikusten dugu; ortografi arau bateratzaile ezean, zenbait aldaera, duda-muda eta «arazotxo» gora behera:

a) Hitz bera idazteko bi/hiru forma ezberdin: «itz/hitz, biotz/viotz, icen/izen, bortiz/portiz, lenarguiti/leñarguiti, arratsalde/arrasalde, dizquizutet/dizquitutet ...».

b) Maiuskulak: «Provincia, Guipuzcoar/Guipuzcoatar, Donostiar, España-tar, Euscara ...».

c) Azentua: «garbiró, arguiró, osotoró, portitzquiró, zucenquiró, maiteró/maitaró, ciertoró, gozotoró, doacaberó, comunquiró, olagará, balió, troparíc, portitcí, daquí, ¡Há Euscara!, á la, ó, án, ló, bé, zár ...».

d) Lotura mota ezberdinak:

— «zer nai, nor nai, non nai ... lotsa gabequeria, eche andre, jan toqui, jayot erri/jaioterri ... josi ascatuac ...».

— «gogoan garrien, miñbera enean, maita garri ...».

— «señalatu-enac, jaquintsu-enac, irme-ena, mirari-ena ... aldapa-etan, milla-etan, nai-era, euscal-erri, zori-oneco ... icust-eraguiten, igues-eguingo, sar-erazo, on-eguitea ...».

— «otenaiz, oteda, aldu, oida/oi-diranac/oidiegun, baida, ezda/ezta, al-ditequean, aldateque, ezdezutenac, ezlitezquean ...».

— «beardan, esandan, aridala, ezagunda, izandedala, biralcequidala, naidu, ecindala ...».

e) b/v: «verso, voz, biotz/viotz, desverdintza, vitezcoa, vicicorra, valore, motivo, navaro, inconveniente, Amavirgiña, Provincia, Zaldivia ...».

f) c/z, tc/tz: «itzquidatu/iztcuntzan/iztcuntzaren/izcuntzarequico, goz-itztun, itz eztitsu goxo, euscalduna, guciz, deitzen, baizican/baicic, escudatcera, instruccio ...».

23. ORMAETXEA, NIKOLAS (1930), «Iztuetaren euskera ...». «Euskal Esnalea» aldizkaria, 316, (61-65 or.).

24. Azpiatal hau lantzeko, besterik beste, hiru autorcotan oinarritu gara: ETXAIDE, J. (1990), aip. ob., 226-231 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 28-33 or. eta ORMAETXEA, N. (1930), aip. art., 61-65 or.

g) ch: «chit, chist, chalma, chiquiratzalle, guichi, chilibitua, chichirioa, chunchurra, dicha, chinchur, oechec, chandan, itzcho ...».

h) x/sh: «ixill, goxo ... aisha, mushinduco, isheca, ishecatu, maishiatsu, lumisharra, ishurten, guishaihoa, goisho, gaishoari ...».

i) gue,gui/g/j: «paciaguille, leñarguiti, guerade, igues, guichi ... gendadi, egemplar, egecucio, Amavirgiña ...».

j) h: «historia, hipuin, honore, hitz/itz, ... hai!, ha!, oh! ...».

k) ll,ñ: «billatzallea, lilluratu, jostalluagoric ... aiñ, iñon, iñoiz, gain, gañeco, beñere, soiñu, ceñegaz, miñbera enean ...».

l) mb, mp: «aimbeste, dumba, cembat, damboliña ... egemplar, campotarrac, barrumpe, mempean, dempora, memperatua ...».

m) qu: «nitzaquean, uquitcen, banuque, arquitcen, onesquietatic ...».

n) ü: «üanditu ...».

ñ) y: «jayotaco, gueyago, leyal, Bizcaya ...».

#### 4.2. *Lexikoa:*

Iztueta, ez lexikoari dagokionez bakarrik, baita hizkuntz formen alor guztietan ere (deklinabide-atzizkiak, adizkerak ...) euskalki ezberdinetako formen erabiltzaile oparoa dugu: Bizkaierako eta Ekialdeko euskalkietako lexikoa eta hizkuntz formak etengabe azaltzen zaizkigu bere idazkietan, nagusiki gipuzkerakoak direnekin tartekaturik. Honek zera erakusten digu:

a) Bateko eta besteko formak aski ongi ezagutzen dituela (irakurrita, entzunda ...).

b) Nolabait esateko, euskararen batasun bidean ez bada ere (hau urrutitxoegi joatea litzateke, agian), euskararen goi maila, maila «kultoa», «teknikoa» edo horrelako zerbaiten bila dabilela antzematen zaio.

c) Eta, gainera, forma ezberdinak elkarren segidan, nahasturik erabiltzen dizkigu, etengabe eta asperkaitz. Badirudi «nahita», «apropos» egiten duela, euskara «ederragoa», «jantziagoa», «kultoagoa», «aberatsagoa» («batuagoa») azaldu nahian bezala edo.

Bestalde, Iztuetaren idazki guztiak Larramendiren Hiztegiko neologismoz, «hitz asmaberri»z josiak daude: Neologismook etengabe azaltzen dira bere lanetan; batzutan, gainera, Iztuetak berak aldaketaxoren bat ezarrita. (Egia esan, batzutan ez da batere erraza zenbait hitz Larramendirena, Iztuetak berak asmatu edo moldatua ala benetan herri-hizkeratik jasotakoa den antzematea. Bada honetaz makina bat duda-muda adituen artean).

Neologismoon erabilera askoz ere nabarmenagoa da GDK liburuan, eta, batez ere, itzulpenetan hasten denean. (Badira liburu honetan herri-dantza, ohitura eta jolasen defentsan Jovellanosen erdal pasarte luze batzu. Iztuetak bi hizkuntzatan transkribatu dizkigu eta, egia esan, alboan jatorrizko erdarazkoa ez edukitzea, gaitza baino gaitzagoa egingo litzazukeela euskal itzulpena ulertzea

---

25. Aztertu, besterik beste, IZTUETA, J.I., GDK, 308-321 or. (Jovellanosen obrako testu-zati batzuren Iztuetaren itzulpena), edota «*Karta Mogeli*» (honctaz, ikus gure lanaren III. 4 kapituluan aztertzen duguna: LAKARRA, JOSEBA A./URGELL, BLANKA (1988), «*Plauto Bascongadorez eztabaida: testu-bilduma*». ASJU XXII-2. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, (479-529 or.), 520-529 or. Iztuetaren euskarazko karta arras ulertezina litzateke alboan Iturriagaren erdarazko bertsoia ez balerama).



: baxi, zuzaitz (1), gaur (2) abere, wazti, azarain eta berei sem bair  
 gaurza gozoz gaur: eta zu nola was diadon. Yagorazet, oan  
 ifinico ditur berare bidez: i-en (3), gaita, dain, laquintza za  
 oiruan. eta gaur was diadan; bai ta beren amestagoc gaurana  
 gaurin daz azara andi oressua (4), euei eta gauran icindasur ditur,  
 Gauruzwan ulain daino ezagutu dikan gauric biaz biaz biaz: u. n.  
 wa ta oin lalita was izan diaden.

Gauruzwanak paxiti paxias,  
 Dia euen biaz gauraz gaurial:  
 Zuen gauris unizagallias,  
 Ez gaurin daz azara andine.

Zuzaitz baxi

Gauruzwan azaraz, (1)

Ama onakien biazta oia,  
 ; Gaurtiz gauria zu dit gauria  
 Zuen se biazta, biazta,  
 Yzan ta izan daz cada baxi,  
 Ania amodios biazta was;  
 Sena daz,

Juan Jonnis Zuzaitz-Gaur

19 Zuzaitz Abol.

2 19 Abol. Abol.

«Gipuzkoako Kondaira»ren lehen ataleko azken orrialdea, Iztuetaren eskuizkribua (Garmendia, Obras Inéditas).

aitortu behar, hain dago lotua Larramendiren Hiztegiari —eta erdal joskerari— ...!) (25). GPKn, aldiz, asko murrizten ditu «hitz berriok», eta, horrela, testua askoz ere irakurterrezago, arinago —eta jatorrago— bilakatzen da (26).

Dena den, hitzok irakurleari sor liezaioketen zailtasunaz oharturik edo, tar-teka-marteka, hitz berriaren segidan hitz zaharragoa, ezagunagoa ere ezartzen du, biak «edo» juntagailu disjuntiboaz loturik. Honen arrazoia Iztuetak berak ematen digu bere GDK liburuaren «Lenengo Zatia»ren haseran:

«Obra au izcribatcen asi nintzanean esan izan ciraten euscara maite zuten guizon jaquinti ascoc, bear nuela ezarri izcuntza berean gaztelaniaren cutsu gabetic; baña icusiric gure izquierda gozoaren itz erazco anitz gaurco egunean ez daudena usuan, oen ondorean ifinten ditut erdararenac. Eguia da izango dezuna iracurtceco demboran arazo pisca bat; baña bidez icas ditzquetzu azturic arquitcen diraden zure echapecoac errazquiro» (27).

(Iztuetarentzat, noski, neologismook dira euskal hitz zaharrak, jatorrizkoak, eta ez besteak; egun herrian usu dabiltzan horiek erdaratik hartu berriak baino ez dira). Hona adibide batzu:

«Condaira edo historia, itz-neurtu edo versoquin, iracaste edo instruccioac, oslancai edo instrumento, aldaira edo mudantza, itz-aurrea edo prologoa, beacurtua edo errespetatua, leñargui edo noble, batzarre edo Ayuntamientoaren, gorde lecu zucen edo archiboan, Urriquiaco edo Misericordiac, articaste edo estudioric, erodisqui edo mamatu ...».

Benetan aipagarria D'Abbadiek 1827-10-20an Iztuetari egiten dion karta:

«... Su estilo guipuscoano me gusta mucho, me parece más legítimo bascongado que el de las pocas obras que se han salido a luz en el Labourt, estas tienen en parte cierta mezcla de latín y francés que disfraza y profana la antigüedad y fuerza de nuestro incomparable idioma ... quiero ... escribir ... en basquence ... y ... podré ... sustituir a los muchos términos intrusos que me enfadan en nuestro basquence francés, aquellos legítimos más adecuados y armoniosos que nuestros hermanos de Guipúzcoa han tenido la dicha de conservar a pesar de tantos siglos de tinieblas e ignorancia ...».

D'Abbadie Iztuetak GDK liburuan hain sarri darabiltzan Larramendiren «hitez» erabat liluraturik, maitemindurik geratzen da, bere euskalkikoak gutxies-teraino eroturik. (Hona hemen «garbizaleen» beste aitzindarietako bat!) (28).

Hara zer dioen Ezeizabarrenak guzti honetaz:

«Hiztegiari dagokionean, Larramendiren “Hiztegi Hirukoitza”ren pisua aitortu beharra dago Iztuetaren (GDK) Kondairan, eta ez “tonu, ejekutatatu, musika” esateko “okasta, osekitu, otsankida” bezalako hitz teknikoaren bila abiatutakoan bakarrik. Eragina, Iztuetak hitz zahar bailiren aurkezten dituen andoaindarraren zenbait hitzen agertzeak —“luziazaltar edo jeografiko, geibetxia edo silaba, banaita

26. MICHELENA, L. (1988), aip. ob., 119 or. TORREALDAY, J.M. (1977), aip. ob., 239-240 or. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 279-282 zka. ZABALA, E. (1981), aip. ob., 127-128 or., besterik beste.

27. IZTUETA, J.I., GDK, 50 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 27, 28 or. ORMAETXEA, N. (1930), aip. art., 61-65 or.

28. GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 154-156 or.

edo partikularra”—erakusten duena da, eta baita piskaren bat aldatuta erabiltzen dituen DT-ko hitzek ere: “estalpetzalle (DT:estaltzalle) edo gaubilladia (DT:gaubillaria)”, adibidez. Bestalde, badira berak asmatutako hitzak ere —ez umore gutxirekin—: “okerdantza edo kontradantza, tximuokasta (erdarazko ‘monotono’ esateko)”, gipuzkeraz beste euskalkietako “zaldiño, jaramon, jauzi” bezalakoen ondoan ageri direnak» (29).

Etxaidek berriz:

«Lexikoari dagokionez, Gipuzkoan eskuarki erabiltzen direnez gainera, Iztuetak hiru hitz-mota darabiltza: Bizkaitik eta Nafarroa-Lapurditik jasoak; zahar-usainekoak, gaur galduak edo galdu-antzean daudenak, eta hitz berriak. Hauetan batzuk bere asmamenezkoak izan daitezke, baina badirudi Larramendiren uztakoak edo eskolakoak direla. Beraz, Iztuetak euskara aberastu nahi zuen jatorri guztietako hitzez: Euskara batuaren aitzindari bat izan zen ...» (30).

Eta Orixek:

«Iztueta’k erabili zuen euskeraren azterketa egiteko ... Iztueta’ren liburuak ondo irakurri izatea beardanezkoa da. Baita Larramendi’ren Iztegia ere ... Iru galdetan txeatu diteke gai au: ¿Erri-euskera nolakoa du Iztueta’k? darabiltzan itz berri edo moldatueta, ¿zenbaten arioan edo proportzioan ditu berak asmatuak? ¿zenbaten giñoan Larramendi’rengandik artuak? ... ¿Zer esan, Iztueta’k erriaren aotik artu zituan itzetaz? ¿Eta zer, itz berri ta berritueta, zeñenak badira ere? Azkeneko oni erantzuten errez da, eunetatik larogei ta amar Larramendi’renak dirala esatearekin ...Gipuzkoa’ko dantzak liburuan itz moldatuak ugariagoak dira askoz ere (GPKN BAINO), gaiak dakarren bezela, ta Jovellanos’en zatiak erderatik euskeraratzeak eskatzen duanez ... Ba ditu itz zar ederrak, ordura arteko Gipuzkoa’ko euskal-idazleetan ageri ez diranak. Irakurri izana zan Iztueta euskeraz ere, ta erriko euskera ondo zekiana ...» (31).

Hona segidan, Iztueta’ren lexikoaren ezaugarri gisa, adibide-multzotxo batzu:

a) Bizkaierako hitz batzu: «bague, barri, bacocho, oratu, guichi, garau, premiña, berba, andi, bearra (lana), ortoz, doaric, laga, bardindu, chicar, arda, arecha, mustur, egotci, ormidu, achaquia, autortu, Cemendia ...».

b) Ekialdeko euskalkietakoak: «euscara, erdara, erresuma, bortitz, fite, anitz, oro, aguitz, deus, arras, usu, apezpicu, carrica, landa, ebatsi, igorri, pillotariac, alegueratu, iori, eritasun, cerbitzatzea, izcribu, bezala, oian, xume, artzain, ezquilla, ele, segurqui, borchatu, mocanes, adreztua, ausardia, chichirioa, cilleguia ...».

c) Larramendirenak eta honen eskolakoak: «aitalenen, leñarguiti, Dieronde, araude, arguibidea, banaita, Condaira, eguiñeratu, Ecautua, itz-neurtua, lancaia, icasola, gomendari, euquida, mingrana, gordairutu, gozandea/gozandetsu, eza-dea/ezadetsu, beacurtsu, jostaldiatu, irudicatu, diaquinde, terecha, donedati, gudan-de, bolin/bolingozo, locabe, osequitu, dierri, bacunde, etorquiarra, bitezarte, oslancai, arguidotarra, caltarquitsua, Cantauria, diabetatu, izarquida, luceazaltar ...». (Hitzotako asko eta asko gureganaino heldu dira eta egun, betiko geure bagenitu bezalaxe, ohartzeko erabiltzen ditugu, bere horretan nahiz zertxobait aldatuak: «argibideak, hitz-neurtuak, hitzaurrea, ikas(t)ola ...»).

29. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 31-32 or.

30. ETXAIDE, J. (1990), aip. ob., 226-229 or.

31. ORMAETXEA, N. (1930), aip. art., 61-65 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 28 or.

d) Herri-kutsu eder-ederrekoak: «echetar, arguibide, jatorri, etorqui, cupidacor, osacai, ondaquin, gogoangarri, plaza aguericoan, birjaiotu, egurastu, etsai ozpindu, saiaquera, salatzallea, sinitsgaia, buruzaria, mugape, biribillatu, arcaitzerra, apaizteguia, buruzpidea, bilguma, azaburubildua, orburua, azaloratua, itzen-jaiotza, izaquia, iracaslea, apaizaitagoa, aomena, al-izatea, itsumustu, itzal-andicoa, equintza eliztar, bidastia, lurbira ...».

e) «-kida» eta «-ro» atzizkiez osatuak: «pozquida, naiquida, lagunquida, anaiquida ... maitaró, arguiró, garbiró, gozotoró, osotoró, jaquintsuró, portitzquiró, zucenquiró, zabalquiró, gaindiró, naroró, locabequiró, ciertoró, oparó, arguiroqui, maitaroagoric, gozarotsuagoric ...» (Gehiegitxo, Orixeren ustez) (32).

Eta lexikoaren ataltxo honekin amaitzeko: Iztuetak berak GPKren bukaeran «Liburu onetan arquitzendiran cembait itz euscarazco garbiac adierazotzeco arguibidea» hiztegitxo polita eskaintzen digu (33). Gainera, GPKn bertan barrena hiztegitxo-multzoak dakartza (landare, barazki, fruitu, zuhaitz, arbola, etxabere, hegazti, nekazari, artzain edota arrantzaleen lanbideetakoak ...) (34). Bestalde, bada Iztuetaren hiztegi bat oraindik argitaratu gabea, Aizkibelek berea burutzeko eskuartean izan zuena. Aizkibelek berak dioenez, eskuizkribu hau Larramendiren Hiztegiaren osagarri gisa moldatua dago eta liburuetatik eta herrian jasotako bizkaierako hitzez osatua da (35).

#### 4.3. Deklinabidea:

Deklinabidearen morfologiari dagokionez, batez ere Goierriko azpieskalkiko formak erabiltzen ditu, noski; baina baita beste aldetakoak ere:

a) Beterrierako formak askotan: «baicican/baizican, dirurican, gueroztican, bestegandican ...».

b) Bizkaierazkoak ere oso sarri azaltzen dira, batez ere kasu asoziatiboa egiteko: «esamesagaz, sencildezcoagaz, andiagaz ...».

c) «beragati, oengati ...» eta antzerakoak ere bai, tarteka-marteka.

d) Erakusle hurbiletan: «obec/oec, obei, oben ...».

Bestalde hitzoina eta atzizkia lotzeko era ezberdinak azaltzen dira (nahiko normala, idazkera arauturik ez zegoen artean eta): «echetican ... aldapa-etan, maitagarri-en, betetaco-en ... miñbera enean, lendabicico etara ...».

#### 4.4. Aditza:

Idazle zahar gehienek bezala, Iztuetak ere oso ongi erabiltzen du aditza. Iztuetaren eta aldi hartako beste idazleen liburuetatik igarri dezakegu euskal aditzak ez duela aspaldiko urteotan aldakuntza nabarmenik izan, gaurkoen berdin-berdinak bait dira orain 200 urteko aditz-flexioak.

32. ORMAETXEA, N. (1930), aip. art., 61-65 or.

33. IZTUETA, J.I., GPK, 511-519 or.

34. IZTUETA, J.I., GPK, 40-48, 124-125, 133-135, 137, 155, 160, 167-168, 197-200, 204-207, 221-224, 232-236 or., etab., etab.

35. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 16 or. MICHELENA, LUIS (1987), «Orotariko Euskal Hiztegia» I. Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer/Mensajero, Bilbao, XXXII or.

Alde bateko eta besteko formak jasotzen ditu nahasian eta, oso sarri, aditz-flexio bera bi/hiru era desberdinetara azaltzen zaigu bere idatzietan; Gipuzkoako Goierri aldeko azpieuskalkikoak direlarik, noski, nagusi: «naiz, guera/guerade, cerate, dira/dirade, ninzan, zan, ciran/ciraden, det, degu, dezute, cénituen/cénituen...».

a) Lotura «-a»: «zan, ciran, naizan, luqueala, aridala ...».

b) «-b» (bizkaieraren antzeratsu): «daben/dabeen/duten, deban/duen, ceban/zuen, ceben/zuten, neban/nuen, dabelaco, dabenean, debala/dabela/duela, ...».

c) Nor eta Nork Pluralegileak «-te»: «guerade, dirade, guñaden, ciraden, dezute, diozcatzute ...».

d) «-zki» Nori Pluralegilearen orde: «diozcate, ciozcaten, zaiozca, citzaiozcan, daguiozcaque/dizaiozcaque/dizaizquioque, diozcala, ciozcalaco ... dizquit ...».

e) «-e» Nori-ren orde: «zaiote (zaie), esan deguioten (degien), datorquiota(datorkiela), dagozquioten(dagozkien) ...».

f) «-da» Nork eta Nori-ren orde, «-ra»: «daucaralaco, daran, ez derala, citzairan ...».

g) Indikatiboerako formak askotan Subjuntiboeran: «diete/diezate, cieten/ciezaten, diezatela, diezatenac, ciezatelaco ...». (Beharbada, honelaxe izango zen jatorrizko forma, hots, subjuntiboerakoa, zeren gaurko indikatiboeran ez bait da aditz-erroa ikusten, NNN sisteman).

h) Baldintzera: «baluque, baluqueteque, albadezaque ... balu, baguendu ...».

i) Subjuntiboeran, «ezan» erroaren orde, «egin» (bizkaieraren antzeratsu): «eman etcequion (ez ziezaion), eguin cequiola, eraso daquion, deguiquedaten, deguiozcaque, bota cequiola, beguie (biezaie), onetsi daguioten, eguin aldaguizquioquean, daguiquean ...».

j) Aditz trinkoetan oso jator eta aberatsa dugu Iztueta. Ezbairik gabe, gaur herrian galdurik ditugun hainbat eta hainbat aditz-flexiok bere garaian bizi-bizirik zirauen; bestela, Iztuetak ez zituzkeen hain egoki erabiliko, ezin bait da, inolaz ere, aditz-sistema ezagutzeke, aditz berririk asmatu, eta Iztuetak, ziur aski, ez zuen euskal gramatika oso sakon ezagutzen; «deutson, badarausquio, darausquiotela, dacuscu, derizquion, dagozquioten, diraquiona, darraicari ...»; «jario, iritzi, erabili ...» trinkoak sarri-sarri azaltzen zaizkigu Iztuetaren idazkietan.

k) Ustekera (?): Puntutxo hau azpimarratzekoa da: Badu Iztuetak tartekamarteka erabili ohi duen adizkera berezi bat, Indikatiboerari «-(te)ke-» erantsita egiten duena, eta «Ustekera» edo dei genezakeena. (Gaur egun, «dirudienez, antza, nonbait, omen» eta horrelakoekin moldatzen dena. Oraindik, «dateke, duke» eta erabiltzen dira Iparraldean eta hizkuntza idatzian). Hara zer dioen Mitxelenak honetaz:

«-zatekeen, ziokean- eta honelako adizkera hauen balio berezia Iztuetaren pasarte batzutatik ezagutzen dugu ozta-ozta. “-(te)ke-” hori “omen”-en antzekoa litzateke. Iztuetak berak ere, maizenik, «omen» erabiltzen du; beste forma horiek baino bere garaian ere usuagoa eta arruntagoa zelako, noski; “-(te)ke-” hori, berriz, ordurako ere zahartuxea dirudi».

Eta galdera hau egiten du:

«Aurkitzen ote da horrelakorik besterengan? Guk (Mitxelenak) ez dugu besterik ezagutzen».

Hona adibide batzu:

«joan ciatezquean(joan omen ziren), necatu zatequean(nekatu omen zen), erori zaquean(erori omen zen), batu zatequean(batu omen zen), oratu nai cioquean, guelditu izan zatequean, guertatuco bazatequean, csan zuquean, zaquean, jarri zatequean, il zatequean ...» (36).

1) Testu neutroan ere «Hitanoa» sartzen du, kontaktari egundoko bixitasuna emanez: «ederra dec auxe! obe ezdec, jo ezac andic eta jo ezac emendic ...».

Bestalde, aditz-elementuen loturatan zenbait era ezberdin ageri dira: «ezdu, esandan, ezbaida, aridala, otenaiz, asquidu, biralcequidala, albadezaque ... icusi-eraguiten, igues-eguingo ...».

#### 4.5. *Sintaxia:*

Hauxe da Iztuetari gehien kritikatu izan zaion akatsa: Sarritan, oso joskera traketsa, baldarra, kaskarra erabiltzen du Iztuetak; bere garaiko inor gutxi bezala lotzen zaio erdal joskerari, bere ustez horrela behar zuelakoan edo. Honela, esaldi txukun eta arras jatorren alboan etengabe azaltzen zaizkigu ez buru eta ez hankako erdal joskerakoak ere:

a) Berezi-bereziki, esaldiak lotzeko, menpeko esaldien ohizko lotura-atzizki arruntan ordeztu, galdekariak etengabe eta batere beharrik gabe erabiltzen ditu: «ceren/cerren, cergatic/cegartican, ceñagatic, ceñagandic, ceñarequin ... ecic, ecen, ecen + -la, non, nola ...» subordinazio-lotura txit arruntak dira Iztuetarentzat: «Gauza anditzat esaten du, ecic, Gaztelan badirala lurrac ...», «Guisa-onetan mintzatcearequin nai-dute-eman aditcera ezic, badaquitela dana eta datequean gucia ...», «Chori-buru puztu oec uste izaten-dute ecic, lotsagarrizco moldacaitzqueri ichusi aiec eguiñarequin ...», «... obra gogoangarri anitzetan; alaco moduan ecic, oraindano beti ucoan ...», «Ifini izan zuten legue zucen bidezcoa, ecen, ...», «Iturri onec ura botatcen du irrin-arte batetic purrustadaca, ain iori ecen, erreca pizcor larricho bat eguineraturic ...», «Ezda sortu eta asmatuco ere euscaldunentzaco oslancai edo instrumento pozcarriagoric, nola diraden damboliña eta chilibitua», «Guipuzcoaco mugapeco lurrac matsarentzaco ain onac dira, nola sagarrarentzat», «Non topatcen diran chit zulo asco ta andiac», «Ecin naiquidatu guentzaque arguibide zucenagoric eta indar andiagocoric, nola dan, ...», «Cergatic naizan irurogueita emezortci urte bizcarrean dauzcadana ...»

\*\*\*

b) Erlatibo itsusi samarrak, «ceñac» eta erabiliz: « ... ceñac nocitu ceban martirioa» ...

c) Esaldiko elementuen ordena desegokia, galdegaiaren kokapen traketsa, etab.: «Eta dago ere sortaldean ...», «Bergai au izanic emacumezcoac eguiten dabena ...», «Iritsi citzaion ontci Placeres berreun toneladacua», «Mendi Izarraitzcoan», «Itctegui Luceazaltar Barcelonan moldizquidatuari», «Beartu gabetanica bata bestearen, izango cerate maitetuagoac beretatic» ...

36. MITXELENA, K. (1988), aip. ob., Klasikoak 21. 219-221 or.

## IZTUETAREN OBRAREN EZAUGARRIAK

Iztuetaren liburuetakoa euskara eta idazkera zertxobait zehaztu ondoren, bere ezaugarri nagusien laburbilketa egin behar dugu, gure lanari amaiera emateko. Aipa ditzagun, bada, era eskematikoan bederen, aztertzen ari garen pertsonaia honen ezaugarririk garrantzitsuenak:

### 1. Idazle laikoa eta gai profanoez aritu zen:

Euskal literatura ia guztia XIX. mendearen bukaera aldera arte, elizgizonek sortua dugu; apenas daukagun XVI. mendetik (Etxeparetik) aurreko mendera arte fraile edo apaiz ez den idazlerik. Eta literatur produkzio guztia elizgizonena izanik, jakina, gai dagokienez ere, erlijio- eta moral-gaiak, Kristau-Dotrinaren ingurukoak dira nagusiki lantzen direnak; euskal herri xeheari, euskara beste hizkuntzarik ez duenari, erlijio-gaiak azaltzea eta irakastea bait da idazle guztion xede nagusia. (Tarteka, euskararen beraren inguruko zertxobait, gramatika/hiztegi eta horrelakoak ere azaltzen dira). Honek, dudarik gabe, asko baldintzatu du euskal literatura klasikoa. Mendetan ezarritako barruti estu horren hesiak saltatu eta kanpoko larreetan bazkatzen abiatzeak ez du «trauma» gutxi suposatu!

Garibay (16. mendean) eta Oihenart (17. ean), «esaera-zahar» biltzaile, Sarako Etxeberri, Barrutia eta X. Munibe (Peñafloridako kontea) (18. ean) eta Bizenta Mogel (19. aren haseran). Hauen ondotik, Iztueta dugu euskal literaturan laikoa den lehenengoetakoa.

Bestalde, Iztuetaren obra literario guztia gai ez-erlijiosoez, profanoez da. Ordurarteko joera nagusia eta XIX. mendean bertan ere horrela izaten jarraitzen duen joera apurtuz eta erlijio-literatura elizgizonen eskuetan lagaz, mundu honetako gai ekitean, Iztueta gure literatura laikoaren sorreran aitzindari bikain izan genuen.

Hara zer dioen Mitxelenak, 1700-1880 bitartea aztertzean:

«XIX. mendean euskarazko lanen gaiak zabaltzen doaz. Batez ere, gero eta ugariago dira mundu honetako gauzez mintzatzen direnak eta elizgizon ez diren idazleak. Gogora datozkit orain “*Peru Abarca*” ... Iztuetaren “*Guipuzcoaco Condaira*” (Gipuzkoako euskaldunei beren izaera eta arbasoek esanak eta eginak irakasteko asmoz ondua) ...».

Eta beste leku batean, euskararen atzerakadaz ari delarik:

«Mugak atzeraka datoz: Araban ...XVIII. mendean ... Nafarroan ... hurrengo mendean ... XVIII. mendean susmoa baizik ez zena, artean nahasi eta zehaztu gabea, argi dago XIX.ean, gero eta ageriago, orduan eta etsigarriagoa ... edota Foruen gain-beheraz kezkatuek, Iztueta bezalakoek (Sobera ezaguna da "Guipuzcoaco Provinciaren Condaira"-n, VI. or., datorren pasarte), erdizka adierazi zutena argi eta garbi esan zuten ... G. Humboldtek ...».

Eta jarraitzen du:

«Harrigarria da zein berandu eta ahul iritsi den erantzuna ... Hizkuntza lantzean daukagun atzerapenaren frogaz zuzena Iztueta da, bera da XIX. mende aurreratuean erlijioaz ez diren gaiez hitz lauz ari den lehen laikoa ...» (1).

Sarasolak, berriz: XIX. mendean zehar literatura profanoa hedatzen, zabal-tzen doa; Bizenta Mogel, Goyetche, Iturriaga eta beste alegigileren baten lanarekin hasten da. Literatura eliztarra ere bere bideari darraio, F. Bartolome, Aslarloa, Agirre, Arrue, Lardizabal, Lapurdiko apaizen eta askoz gehiagoren lanarekin; prosaren kalitateari dagokionez, historiako mailarik gorena lortzen duelarik. Baina garai honen ezaugarri berezia, nabarmenena literatura profanoaren ugaltzea da: Euskalerrriaren aldi honetan ematen ari diren gizarte-aldakuntzen islada literario, noski (2).

Erromantizismoaren atarian, eliz-liburuak, erlijio-literaturak bere bide joriari jarraitzen dio; baina idazle laikoak eta hauekin literatura mundutarra ere politikopoliki burua altxatzen hasten dira, orain arte inoiz erabili gabeko gaiak plazaratuz: Iztuetaren GDK eta GPK liburuak ditugu lekukorik bikainenak (3).

## 2. Ordurarte ukitu gabeko gaiez:

Bere herriko dantzak, ohiturak, bizikera defenditzen eta jasotzen aitzindari dugu Iztueta. Ordurarte inork ez zuen honelako saiarik egin (Mogelen «Peru Abarca»n zantzuren bat edo soma daiteke, baina liburu honen xedea Iztuetare-naren arras ezberdina da). Honek sekulako meritua du: Iztueta dugu, gure Euskalerrian, honelako lan bat sistematikoki burutu zuten lehena.

---

1. MITXELENA, KOLDO (1988), «*Euskal Idazlan Guztiak VI. Hizkuntzalaritza I*». Euskal Editoreen Elkarte, Kriselu, Ixtaropena, Zarautz, Klasikoak 26; 62, 35-37 or.

2. SARASOLA, IBON (1976), «*Historia Social de la Literatura Vasca*». Akal, 67-68 or. edota (1971), «*Euskal Literaturaren Historia*». Lur, Donostia, 41-43 or.

3. MICHELENA, LUIS (1988), «*Historia de la Literatura Vasca*». Erein, Donostia/Zarautz, 118-120 or.: Mitxelenak Aita Donostiak aurkitu, jaso eta argitaratu gabeko eskuizkribu batetako komentario hauxe dakar: «El pueblo guipuzcoano carece ... de las grandes ventajas de la prensa; lo uno porque en su lengua apenas hay más escritos que los necesarios para enseñar los principios de la religión, algunos ejercicios devotos y tal cual obra filológica ...; lo otro, porque aun cuando algunos guipuzcoanos quisieran como Iztueta escribir sobre varias materias, tendrían que sujetarse a la censura del corregidor, cuya autoridad en nombre de un gobierno despótico se hace sentir con tanto más peso en este punto, cuanto que es el único en que no esté templado por los fueros y franquicias del país». Ikus, halaber, VILLASANTE, FR. LUIS (1979), «*Historia de la Literatura Vasca*». Aranzazu, 166-167, 278-282 zka. ZABALA, ENRIKE (1981), «*Euskal Literatura, Alfabetatzeko*». Pax, Lazkao, 109-110 or. SAN MARTIN, JUAN (1977), «*Gogoz: Gure Herriko Gauzak. Erromantikoen Garaia*». CAP, Donostia, 244-247 or.



Beste ezergatik ez balitz ere, Gipuzkoak eta Euskalerrri osoak egundoko zorra du zaldibiar dantza-maisu honekin, betirako galtzeko arrisku bizian zeuden gure dantza zaharrak jaso eta berpizten egin zuen ahalegin teoriko-praktikoagatik.

## 6. Bertsolari eta bertsozale:

Zaldibian, nekazal herri batean jaioa izaki, Iztuetak herri-sen jator-jatorra agertzen du bere obra guztian zehar; eta benetan aipatzekoa bere bertsolari-sen eta izaera bikaina: Poesia edo bertso («hitz-neurtuak», bere hitzetan) jarriak, idatziak ahazteke, Iztuetaren obra osoan barreiaturik, konta ezin ahala bertso txo irakur ditzakegu. Harrigarria da benetan zein azkar eta arin pasatzen den hitz-lauzko idazkeratik bertso gintzara, estiloa inolaz ere bortxatu beharrik gabe, prosaren eta poesiararen arteko lotura txit naturala eginez.

Bertso-jartzailez aparte, ziur aski bapateko bertsolari ere izan genuen Iztueta, eta, zenbaiten ustez, herrietako jaietan, ezteietan eta antzerako jai-ospakizunetan bertsoarako deituko zioten.

Bestalde, dantza eta gainerako euskal ohitura eta joko zaharren bezala, bertsolariaren defendatzaile sutsu azaltzen zaigu GDK liburuaren azken partean, bertso-jolasaren aipamenak eta goraiamenak eginez, eta hauen arerioen, zenbait herritako alkate eta agintariak barne, jokabide itsusia salatuz. Alor honetan ere aitzindari dugu Iztueta: berak egiten dizkigu Euskalerrriko bertsolarien lehen aipamenak (Pernando Amezketarrarena, etab.).

Iztuetak berak (eta geroxeago Gorosabelek) esaten digutenez, badakigu XIX. mende haseran Billabonan jokatu zen bertso-desafio sonaturako epaile hautatua izan zela, (gero, parte hartzerik izan ez bazuen ere). Hautaketa honek zerbait adierazten digu: Ordurako «ezaguna» zela zaldibiarra bertso-munduan, bertsoan «aditua» eta bertsolari, ziur aski. (Gogoan izan Billabonako epaileek bertsoan eman zutela beren erabakia) (10).

## 7. Iztueta eta Gipuzkoa:

Gipuzkoa da Iztuetaren «aberria»: Gipuzkoa, Ama maite-maiteari eskaintzen dizkio bere lan guztiak; Herrialde honen dantzak, ohiturak, hizkuntza (euskara), Foruak, Geografia, Historia eta Pertsonaia handien egite bikainak jasotzen ditu, eta bere Ama kuttunaz harro, ezin harroago sentitzen den semerik xumeena bezala aitortzen du bere burua. Gipuzkoa eta beronen «zera» guzti-guztiak onak, txalogarriak, ezin bikainagoak dira Iztuetarentzat. Gipuzkoaren etsaiak (erromatarrak, mairuak, naparrak berak eta baita, gipuzkoar izan arren, beren Ama maite ez duten seme bihozgabeak ere), aldiz, «gaiztoak», gizatxarrak eta, noski, beti galtzaile suertatuko dira! Gipuzkoaren eta honen etsaien arteko aldea «zuriaren» eta «beltzaren» artekoa bezala ageri zaigu bere obra osoan zehar.

Iztuetaren obra osoa, goitik beheraino, Gipuzkoaren kantu errepikakorra baino ez da. Adibide bat edo beste baino ez:

---

10. IZTUETA, J.I., GDK, 338-356 or. Ikus, halaber, «*Guipuzcoa*» (1968). Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 225-242 or. (Zavala, Antonioren atala).

«Guipuzcoatar nere anaia maite leialac; mundu osoac badaqui, zuec ceratela ... Erbestecoen uztarribean iñoiz ere egon baguecoac ... beguien aurrean dacuscu argui eta garbi, Guipuzcoatarrac dirala España Erresuma andiari lenengo asiera eman izan cioten guizon doatsueraz betetacoen jatorri eguiazcoac; Guipuzcoatarrac dirala, beren itzcuntza ta jaiot-erria garbiró gorde izan dituztenac, erbeste ascotatic asaldatcera sarritan etorri izan zaiozcaten etsai talde andiai lecuric eman bague; eta Guipuzcoatarrac dirala, Asaba onac ifinitaco legue zucen bidezcoac maitaró gordetzen dituztelaco, bici oi-diranac naierara beren berenquia duten toqui labur goisho onetan millaca urteac igarota ere ... arquitcenda Guipuzcoaco mugape guztia, bertaco jaiotar bearguilletsuen bidez, ecin gueiagorañoco edertasunean apaindua. Eguiazqui ¿non billatuco da beste Provincia bat, Guipuzcoac aibat etsai portitcí arpegui emanic, aín oso ta garbi gorde izan danic, eta gaurco egunean ere bera becin chucun ta gaindiró jancia aguertcen danic? Etorri izan ciran, bada, Fenicioac, Cartagoac, Erromatarrac, Godoac, Arabeac, ...; bañan Guipuzcoaco Provincia, etsai talde guztiai gogor eguiñic, guelditu izan da beti lenagoco oñean bere jaiotzaco itzcuntz garbi gozoarequin; ceñac adierazten daben arguiroqui, ez dala beñere izan Erbestecoen uztarripera memperatua ...» (11). «Guipuzcoaco Provincia guztiz Arguidotar, eta chit Leiala»ri «gure Ama on Guipuzcoarequin bere seme prestuen izaera ta bicitza garbia»

eskaintzen dio seme zintzoak bere GPK liburuan

«Guipuzcoaren ondraraco»: «Provinciaco gende leial ta arguia,/ Maite dezutelaco ceuen sort-erria; / Ezquiñitzen dizutet Euscaraz jarria,/ Ama guipuzcoaren bicitza garbia» (12).

Eta hara nola amaitzen duen bere GPK liburua:

«Guipuzcoaco seme ta jatorriac; ara non dauzcatzuten azalduric gure Ama on Guipuzcoaren izaera ta vicitza, bear aibat eypadere, nere laburtasun eta moztasunac aguindu direanaño; nic orain opa dedana da, asitaco lambide andi au guizon argui ta jaquinti beren erriari ondo nai diotenac, eta gure itzcuntz gozo parebaguea maite dabeenac escuicutu, apaindu eta edertutzea, ezagutu dezaten guizon arrotz guztia, iñori ezer ere zor ez diona, eta beneric ez bezalaco doain andi ta ederraz jancia dala Guipuzcoaco orua. Non necatu badute guizon jaquinti/ Eman nai badituzte emengo barriac; / Bestec ez bezalaco doai on andiac/ Dauzca Guipuzcoaco baztar maitatiac» (13).

## 8. Iztueta eta Euskalerrria:

Gipuzkoako Probintziaren maitale kuttunak ez zuen, jakina, «nazionalismo»aren senik izan; Iztuetaren obran ez da, inondik ere, «Euskalerrria: Euskaldunon Aberria» bezalako ideiarik agertzen. Geroxeago, gerra karlisten eta Foruen galeraren ondorioz, hasiko da «Naziolanismoa»ren ideia berri hau emetzen: Iparragirre (zertxobait; dena den, gogora: «Hara Espainia ...!»), Xaho aitalehena eta, mende-bukaeran Arana-Goiri ... Garai hori heldu arte, euskal etniak, nazioak ez du zentzurik: Herrialde bakoitzak bere nortasuna du, alboko anaiengandik berezia eta, noski, Espainiako edota Frantziako Erresumetan erabat integratuak, hauen «parte natural» gisa ikusten dira Probintziok.

11. IZTUETA, J.I., GPK, I-IV or.

12. IZTUETA, J.I., GPK, 23, IX-X or.

13. IZTUETA, J.I., GPK, 509 or.

gogorrac ontzat eramatea. ¡Cer bada! ¿aíñ becatu andia da Euscaldunai Euscarazco itza jalquitzea? ¡Há Euscara maitagarri bicicor guishaishoa! Ez dira, ez, campotarrac bacarric zu icusi nai etzaituztenac; badituzu urrean ere, beren izate guztia zuri zor dizutenac, zu irozotceco buru ausitce andiric eguingo ez luquetequeanac» (19).

Euskalerritik kanpora, gurasoek bidalita, beren ikasketak egitera irten diren gazte harroputz txori buruek beren jaioterrira itzultzean euskararen eta euskal ohituren kontra agertu ohi duten jokabide itsusia ere erarik gogorrean salatzen du Iztuetak:

«Jaquinduriaren-billa erbesteetan urteac igaroric, joan ciradenean aimbatequin, edo guchiagorequin, jaioterrira biribillatu oi-diraden üaunditu oen galanteoric aundiena da, echera sartu bezain laister, beren guraso, eta senideai esatea ecic, “Eh, called, no habléis más esa gerigonza propia sola de salvajes o de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo también soy de turris eburnia”. Eta oraindic, are icusgarriagoac eta adigarriagoac dirade oen guraso, eta senide choroac, nola egon oidiran beren auzoetacoai esanaz. Gure seme campoetan guenduena bart etorri zaicu echera, chit galanturic, osasunarequin, eta guztiz jaquinduria aundiaquicoa. Aztu zaio bada eusquera guzi-guzia: ez du itzcho bat bacarra-ere ez-esaten, eta ez endeglatcen edo comprenditcen itzcuntza onetan: eta are-guchiago nai-du bestec itzeguitea ere; beragatic, baldin arequin nai badezute itzeguin, erderaz bearco diozcatzute adierazi zuen-esacariac, nola-bait-bederic, bestela aserratuco zaio, portizquiro ala-ere. Oec eta beste onelaco milla astoqueria esanarequin, uste dute-eguin chit jaquintsun, beren seme ta anaia chori-buru puztua. Jaquinduriaren gorde-lecu guziac chit beteric, gañez eguinta, alde guzietatic chirrian badariotela uste-duten oec, edocein biltoquitan beren erritarrakin batutcean, iraiñtzat daucate itzcho bat-ere euscaraz esatea. Eta iñoz edo berriz, aguertcen badu nor-baitec euscarazco itzcriburic, galanteoric aundiena dute esatea ezic, ecin iracurri-dutela, eta are-guchiago endeglatu edo comprenditu cer esan-nai-deban. Guisa-onetan mintzatcearequin nai-dute-eman aditcera ezic, badaquitela dana eta datequean guzia. Eguiazqui: izan oi-dirade enzuleen artean, ez ala-ere guchi, uste-izaten-dutenac ezen, erausle char beretan arquitcen dana, jaquinduriaco putzu ondoric gabecoa dala; baña ez derizquiot nic, euscara ezin-iracurri duena, eta are-guchiago endeglatu esaten-duen euscalduna, izan alditequeala, chit cenzu andico guizona» (20).

Hara zer dioen puntu honetaz Villasantek: Iztuetak, bere aparteko senaz, gure hizkuntzaren eta izaera osoaren hondamendiaren oinarria argi ikusten du: Euskalerrriaren akatsik handienetakoa bertako klase kulto, intelektualik ez sortu izana dugu, euskal kulturarik ez sortu izana, eta, ondorioz, jakintzaren eta ikasketaren bide bakarra gaztelera (edota frantsesa) bilakatu izana. Horrela, Euskalerrriko seme askok, beren ikasketak herritik at eta erdaraz eginak izaki, euskara eta euskal kulturaren ezaugarriak gutxietsi, gorrotatu, iraindu egin dituzte. Eta, ikusten denez, gaitza oso aspaldikoa dugu: Gaztelako kultur etxeetan garatu dute euskal semeek beren «kultura» bakarra. Iztuetak, beretzat hain maitagarria, bi-

19. IZTUETA, J.I., GPK, V-VIII or. (Gipuzkoako eskoletan euskaraz irakatsi beharraz eta badu Iztuetak erdarazko lantxo bat; bertan Iturriagaren ideia pedagogiko aurrerakoiak azaltzen ditu. Ikus gure lanonen III. 5 atala. Ikus, halaber, IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 18-19 or. (GARMENDIA, JOSÉ (1968), «Obras Inéditas de Iztueta». La Gran Enciclopedia Vasca, Retana, Bilbao. «Trabajo sobre el método que se debiera seguir en las escuelas de primera enseñanza de esta región, para enseñar el castellano» Iztuetaeren erdarazko saiakeratxo, 109-115 or.).

20. IZTUETA, J.I., GDK, 96 or.

kaina den euskara horrela baztertua, zokoratua, arbuiatua ikustean, sufritu egiten du, eta horrela gerta ez dadin bere ahalegin osoz borrokatzen (21).

## 10. Larramendizale:

Iztuetak gehien mirestu zituen hiru gizon Larramendi, Astarloa eta Erro izan ziren. Hauek euskararen defentsan egindako lan erraldoia goraiatzeko ez da aspertzeko, eta hauek (eta beste zenbaitek) urratutako euskararen eta Euskalerriko «zera» guztien apologia bideari gogotsu ekin zion.

Sarritan aipatu dugu Iztuetak Larramendiren Hiztegiko neologismoak etengabe erabiltzen dituela, beste euskal idazle inork baino areago.

«Aita Larramendi gogoangarriac azaldu cituen zucenqui ta garbiró Euscarazco Iztzeguia, eta gramatica, ceñari izena jarri izan cion El imposible vencido; non adierazten ceban arguiró, Euscararen maishiatzalle guztia direala itz-jario erausle motel ez-jaquiñac. Larramendi doatsuaren ondoren, Astarloa jauintia, eta Erro ernaiaren irten ciran plaza aguiricora, Euscarazco illezcor cintzo maitagarria janci aberatsaquin ederqui apainduric, mundu osoari beguien aurrean ifintera, icusi cezaten donarioz ondo, oraindaño ezagutu diran itzcuntza guztien artean bera dala bacar baccaric, munduaren lembicico asieran sortua. Beragaitic arkitzen zaiozca, bada, Euscarari bere colco zabalean ondo gordeac, guztion Eguille andiac guizonaren izatearequin batean eman izan ciozcan doai maitagarri ain gain gañecoac. Guizon itsutu bat bere itsu-aurrecoac, nora nai ta ara, eramaten deban bezin zucen, edo are zucenago ta bide erosoagoetic Euscarazco cintzoac escua gogoz emanic, oídaramazqui seme eguiazcoac, beraren sustrai pin ta zain iraunconrac arkitzen diran toquietara. Guisa berperean igo dirade, bada, Astarloa, ta Erro beren Euscarazco maitagarriarequin bideric galdu bague zucen zucen, munduaren lenengo adinera; non billatu dituzten Euscararen jaiotzaco arguibide eguiazcoac zucenquiró, baita aguertaratu ere beren izen garbiaquin mundu osoari, Euscararen bere berequiatic direala iñorc ezin uca dezaquean moduan» (22).

Bertsotxo hauxe eskaintzen dio hain maite-maitea duen Aita Larramendiri:

«¡Ah gure Aita on Larramendi Larramendi!/ Bost onelaco eguia esanic joan ciñan emendi» (23).

## 11. Apologista eta Baskoiberista:

Bere garaian puri-purian zegoen «baskoiberismo» hizkuntz teoriaren adarrik mitikoenaren, «tubalismoaren» defendatzaile itsu-itsu dugu Iztueta. Etengabe azaltzen da teoria hau Iztuetaren obra osoan. Bere maisu handiek bezala, Iztuetak ere, teoria honekin euskararen apologia sutua egiten du: Gure hizkuntzaren jatorria Giza Historiaren sorreretan kokatuz, hots, Paradisuan, eta hemendik Noeren biloba Tubalek Espainiara ekarri zuela «frogatuz», euskararen bikaintasuna (munduko hizkuntzarik zaharrenaren bikaintasuna) azaltzen digu eta die, harroharro, euskaldun «zabarroi» eta euskararen arerioei.

---

21. Ikus Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura I (1969), Auñamendi. Iztuetari buruzko Estornes Lasa, Bernardoren artikulua (581-589 or.), 587-588 or. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 279, 280 zka. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 95 or.

22. IZTUETA, J.I., GPK, 9-10 or.

23. IZTUETA, J.I., GPK, VIII or. Errorekin eskutitz-harreman handia izan zuen (Ikus gure lanaren IV kapituluan).

Iztuetaren ideiak, bere aurreko eta garaiko apologistei jasotakook, ez dute, noski, inolako balio zientifikorik, baina euskararen apologia egiteko aproposenak bide ziren aurreko mendeetan; eta gure zaldibiar euskaltzaleak duda-mudarik gabe defendatzen eta aldarrikatzen ditu. Eta ideia hauen bere aurreko «berriemale» handiak (Larramendi, Astarloa, Erro) miresten eta goraiatzen ditu.

GDKren «Itz-aurrea edo prologoa» honela hasten du:

«Euscaldunai osasuna, zori ona ta betico atseguña. Nere erritar maiteac, badaquigu jatorriz gueradena España uts-utsac, anciñacoen eta are lembicicoen etorquiac eta ondocoac; beragatic nasteric gabeco garbienac, piñenac, leyalenac eta leñargui edo noble-enac: erbesteco nagusiren uztarripetan bein ere egon ez gueradenac. Ez eta egon nai ere. Euscaldunen icen ondragarri au mundutar gucien artean beti izan da, eta izango ere da, beacurtua edo errespetatua: ¿cergatic ordea? Ez bestegatic ez bada gure oitura onesqui, dantza miraritsu, soñu-zar-gogoangarri, jostaqueta pozcarri, eta gucien gañean, gure izcuntza-jaquintsun ezti gozoan arquitec diralaco arguiro, lendabico guizon doatsu-eraz betetaco-en izaera gaitcic gabeco, eta berac gucion zori oneraco jarri cituzten legue zucen maitagarri-en señale seguracu. Oraindiño ezagutu diraden izcuntza gucien artean bacaric gure euscaru cenzu aundico cintzoac gorde ditu garbiro ... Jaincoac eguin cituen gauza mota gucien icenac, ain arreta aundiarequin ...».

Eta aurreraxeago, bere maisu kuttunak goraiatuz:

«Gucia zor zaie, araco beren etorqui onari, eta jaiot errico oitura maitagarriai amodiozco naitasun iracequia izanic, saill necosoai gogotic equin ta, indar aundico etsai ascoren contra guda gogorrac eguin ondoan guciac garaituric oñ azpiratu dituzten gure anaia leyal bearguilletsu jaquintiai. Onelacoac izan ditugu beste ascoren artean señalatu-enac, Aita Larramendi bearguilletsua, Astarloa jaquintia eta Erro cenzu aundicoa. Gucez dirade sinis-gaitzac guizon gogoangarri oec eguin dituzten neque-gogor eta aleguin portizac, aitz zuloetara bazterturic arquitec dan gure euscaru maitagarri gozoa bere lenagoco janci-eder-galant-aberatsaquin chuquinquero apainduric, mundo osoari beguien aurrean ipini ta ezaguerazo dioten artean, cembat-erañocoa dan beraren aunditasuna. Argatic orain arquitec guerade euscaldun gucioc, ecin gueiago naiquidatu guentzaquean atseguingarrizco ondra aundiarequin, aitortcen digutelaco Hervas Panduroc, Masdeu, Scaligiro eta beste guizon jaquinti euscaldun ez diradenac beren obra gogoangarrietan, Españiara lendabizi etorri ciraden biztanle edo pamiliac euscaldunac ciradela. Beraz ecin iñorc uca-dezaque gu aien jatorriac gueradena ...» (24).

GPK liburuan ere ideia berberak azaltzen dizkigu, estilo beretsuan. «Itz-aurrea»n:

«Guipuzcoatar nere anaia maite leialac; mundu osoac badaqui, zuec ceratela Españara lendabici etorri izan zan zori-oneco Tubal Aitalenenaren jatorri eguiazcoac; zuec ceratela, Buruzari doatsu onec bere echetarraquin batean Armeniatic ecarritaco itzcuntz ederra, eta oni darraiozcan oitza ta oitura gozoac garbiró gorde izan dituzutenac, eta zuec ceratela, guezurrezco Jaungoico eta Taiu ustelcorric beñere adonatu ezdezutenac, eta Erbestecoen uztarripecan iñoiz ere egon baguecoac» (25).

24. IZTUETA, J.I., GDK, 38-40 or.

25. IZTUETA, J.I., GPK, I-II or. Halaber, 1, 5-6 or.

## 12. Foruzale:

Bere Herriarekin eta herri-ohitura zahar guztiakin bat eginik ageri zaigun Iztuetak Euskara eta Foruak (Lege Zaharrak) elkar-uztarturik ikusten ditu: «Euskara hiltzen bada akabo Foruak ere; baina Euskara bizi bada, Foruak ere biziko dira. Foruak maite dituenak euskara ere berdin maite izan bear du». Pentsakera harrigarria benetan hauxe, gure egunotan ere egundoko balioa, esanahia duena.

Aurreko mendearen lehen partean, eta lehen gerra karlistaren ondoren, eskal Foruen hondamenaren lehen susmoa izanik (geroago egia bilakatuko denaren aurikuspen argia eginez), hara zer nolako «harribitxia» eskaini zigun Iztueta zaharrak bere GPKn:

«Guipuzcoaco biztanle prestu guztiac badaquite arguiroqui, bere zoriona datorquiotela jatorriz dituzten Fuero onesquietatic; bañan oec oso ta garbi gordetceco gauzaric bearrena cer dan ezagutcen dutenac, guichi dira chit. Fueroac beren oñean irozotceco quirtenic irme-ena eta euscarriric seguruena da Euscarazco itzcuntzari ondo contu eguitea; cergaitic alcarri laztanduric arras itsatchiac arquitecen diran, batac bestea ecin laga dezaquean moduan. Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan Euscara bici bada, Fueroac piztuco dira. Fueroac nai dituanac, maite izan bear du Euscara; eta Euscara maite dabenac, Euscaldunai Euscaraz bear die itzeguin ta adierazo, berai dagozquioten gauza guzti guztiac. Bestela, zapuztuco da Euscara, muishinduco dira Euscaldunac, eta igues-eguingo dute Fueroac» (26).

Honetaz Mitxelenak dio:

« ... Eta horrexegatik eta horientzat, euskaldunentzat, egin zuen euskaraz liburu hau (GPK) Iztuetak. Unatuxe eta are gehiago unatzeko bidean zegoelarik, hizkuntzak iraun zuen dirudienetz uztarkideak (Foruek) baino luzarago. Eta Iztueta ez zen, oraingoz ikusten dugunez, arras oker ibili bere etorkizunarekiko usteetan ...» (27).

Ez horixe!

## 13. Herria/Hiria:

Iztueta, Zaldibian, Goierriko herri txiki batean jaioa, Donostian bizi izan zen urte askotan. Honela, bietako: herriko eta hiriko «kultura» jaso zuen: herriko ohitura, tradizio eta euskara zaharrak eta hiriko joera, pentsakera, bizimodu berriak.

Bere bizitzan biak ederki uztartu zituen: alde bateko eta bestekoekin, kultura-munduko eta pentsakera ezberdinetako jendearekin aise moldatu zen, nola Zaldibian, hala Donostian, nekazal munduko gizon xehe nahiz hiriko burges ttipiaren papera txukun bete zuen.

Bere obra, halere, nekazal munduaren goraiamena areago da hiriko bizimoduarena baino: Gure arbaso zintzo, jator haiek Gipuzkoako mendietan sortu ziren. (Honetan badu antzik Mogelen «Peru Abarca»rekin). Herri-kultura xumea (bertsolaritza, jokoak, dantzak, ohiturak, euskara bera) jaso eta kantatzen dizkigu.

26. IZTUETA, J.I., GPK, VI or.

27. MITXELENA, K. (1988), Klasikoak 26, aip. ob., 71-72 or.



Iztueta. (H. Oñatiaren Koadroa. 1922. Zaldibiako Udaletxean).

Hiria/Baserria-ren auzi honetan bigarrenaren alde azaltzen zaigu, merkataritzaren aurrean nekazaritzaren alde. Dena den, ez da zeharo tradizionalista, antiliberal; adibidez, «desamortizazio zibila» goستن du, hau nekazaritza eta abeltzantzaren suspertzaile aurrerakoi gisa ikusten duelako (28).

#### 14. Iztuetaren pentsakera eta jokabide politikoa:

Puntu honetaz ere bada hamaikatxo zalantza. Bizitzan zehar hainbat gora-behera politiko, Gobernu-aldaketa eta gerra ezagutu zituen arren, bere obran ez du inoiz batzuren edo besteren aldeko politika-adierazpen zehatzik egiten, ez du inoren aldeko posizio nabarmenik agertzen; alde bateko eta bestekoekin ahalik eta ongien konpontzen ahalegindu zela esan dezakegu.

1809 aldera, Napoleonen tropa frantsesek Donostia harturik zutela, hauek hornitzen aritu zen, merkatal tratuak izan zituen hauekin. Horregatik, bere «espainiartasuna» zalantzan jarria izan zelako edo, Iparraldean (Frantzian) igaro zuen denboralditxo bat eta berriro itzultzean, 1813-1815 bitartean, «frantsesetua» izatearen akusaziopean prozesu luze batean nahastua ibili zen, bitan Tolosako gartzela eta hainbat zigor jasan behar izan zituelarik (29).

Absolutista-erregezaleen eta liberal-konstituzionalista «beltzen» arteko gatazka luzean ez dakigu justu-justu zeintzuren alde ibili zen. Usozek Erregeren aldekoa eta hauekin borrokatu zuela badio ere, Mitxelenaren estez, Iztueta ez zen izan (ez Iturriaga, ezta Muñagorri ere) ez erregezale, absolutista, karlista, katoliko itsu, ezta liberal, konstituzionalista, «iraultzaile» fanatiko ere. Alde bateko eta besteko lagun onak izan zituen, bere gutunetatik eta ikus daitekeenez (Iturriaga, Unzeta, Gereka, Erro, Astigaraga, Zuaznabar, Ulibarri erregezale eta antikonstituzionalista porrokatua ...). Horregatik ez zuen Iztuetak, Mitxelenak dioen bezala, bere liburuak argitaratu ahal izateko aparteko zentsura-eragozpenik izan, bere garaikide askok eta askok izan zuten bezala (30).

Labayen eta Bujandaren estez, aldiz, Iztuetak, Iturriaga «beltzaren» lagun mina izaki, Hernani aldeko liberal-konstituzionalistekin harreman estu-estuak eduki bide zituen eta, agian, hauen bilera eta isilpeko lanetan ere parte zuzena hartuko zuen (31).

Lehen gerrate karlista hastean, Donostia liberalean aurkitzen da, Korrejimenduko Alkaide lanean; halere, gerra amaitu baino bi urte lehenago edo Zaldibiara aldatu zen eta hemengo agintari karlistekin ere ondo konpondu zen. Aurrerantzean, berak prestatutako dantza-taldea Bergarako Besarkadaren urteurrenak ospatzeko eta Madrilgo pertsonaia politikoen omenezko jaietan sarritan aritu zen. Bestalde, jadanik Zaldibian aurkitzen zelarik, Probintziako Aldundi Liberal-Fo-

28. PAUL ARZAC, J.I. (1986), aip. ob., 362-363 or.

29. ELÓSEGUI, JESÚS (1976), «Iztueta, afrancesado, procesado por infidencia en Azpeitia». BAP XXXII 1 eta 2. San Sebastián, (296-300 or.), 296-300 or. ELÓSEGUI, JESÚS (1969), «Juan Ignacio de Iztueta Echeberria». Auñamendi, 65 eta 66; 185-188 or. GARMENDIA, JOSÉ (1968), «Obras Inéditas de Iztueta». La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 125-126 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 13-14 or. GARMENDIA, JOSÉ (1967), «Acontecimientos en Zaldivia en vida de Iztueta. 1767-1845». DV 1967-10-4.

30. MICHELENA, L. (1988), aip. ob., 118-120 or. ELÓSEGUI, J.(1969), aip. ob., 167-179 or.

31. BUJANDA, JOSÉ MANUEL (1991), «Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoiak: Agustín Pascual Iturriaga. Hernani 1778-1815». UEUko HEDA saila 10; 198-216, 224 or. LABAYEN, ANTONIO MARIA (1976), «Muñagorri, eskribau, pakegille ta fuerozale ...». Sociedad de Ediciones y Publicaciones S.A., San Sebastián, 34- 47 or.



ruzaleak biziarteko pentsioa eskaini zion, zenbait diputatu liberalek eskatu-rik (32).

Hara zer esaten digun Iztuetak berak GPKren 23. kapituluan amaitu berria den gerrate karlista kontatzen ari zaigularik:

«Guertacari caltarquitsu onen bidez, Españaco gendearen erdia ... jarri zan Isabel-en alde eta beste erdia Carlos-engana. Ez naiz ni sartzen errazoia ceñ aldetacoac zuten erabaquitsera, cergaitic ezagutzen ez ditudan legueac, itsu eguiaz-coac coloreac baino gueiago ...» (33).

Bestalde, ezagutu behar izan zituen hainbeste gerra eta sesioz, eta batez ere, azkenekoaz (1. karlistadaz) zeharo asperturik, etsiturik, bakearen aldeko, «Alcarran arteco errierta luce» hori behingoz amaitu delako (Bergarako Besarkada) pozik agertzen zaigu Iztueta. Aipatu 23. kapituluan sarritan mintzo zaigu bakearen alde (34).

Iztueta, batez ere, «Foruzale» izan genuen, Foruen aldeko defendatzaile sutsu. Gainera, Foruak Euskararekin lotu-lotuak ikusten zituen; baten galera bestearena ere bazela argi eta garbi ikusi zuen XIX. mendearen hasera haietan, geroago hain nabarmena izango zenaren aurrikuspen zorrotza eginez. Euskara du bere babes-arma nagusi, eta honetan bat dator garaiko euskal karlista zein liberalekin, Frantziako Iraultzak zabaldu dotrina «pozointsuen» aurka (35).

Eta Gipuzkoa Probintzia (bere «Ama maitea») Espainiako Erresuma handiaren barnean eta bere Erregeren babesean ikusten du (Larramendik, eta garaikide guztiek, bezalaxe).

## 15. Iztuetaren harreman handiak:

Puntu honetaz aipamentxo bat besterik ez, lehen zabalago aritu bait gara beronetaz.

Donostiara bizitzera joan bitarteko harremanez ezer askorik ez badakigu ere, hiri honetan kokatu zenetik hil arteraino egundoko harreman-sarea lortu zuen gure zaldibiar «Txuri»k. Harremanon berri bere eskutitz-trukaketatik daukagu, bereziki. Garmendiak bildutako gutun-multzoari esker, gizarte-maila eta pentsakera ezberdinetako jendearekin lotura estu-estuak izan zituela ikus dezakegu; pertsonaia politiko eta intelektual askoren onespina eta babesa lortu ahal izan zuen, batez ere, 1824ean bere lehen liburua, GDK argitaratu zuenetik aurrera. Erakunde publikoen oneritzia, geriza eta laguntza ere jaso zuen. Estimatu, mirestua, askok eskatu zizkioten aholku eta lantxoak (itzulpenak, poesiak ...) eta «bitartekoak» (Ulibarrik Erregeren aurrerako bidea errazteko laguntza eskatzen dio) enkargatu ere bai. Eta honela, bere «diplomazia»-rako abilezia apartari eta guztiekikoa egiten asmatzeari esker, lortu zuen bere lana aurrera atera ahal izatea (36).

Arerioak eta etsaiak ere ezin falta, eta kritikak ezezik, gartzelaldi luzeak jasan behar izan zituen.

---

32. GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 204, 207 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 15 or. GARMENDIA, JOSÉ (1982), «En el centenario de José Antonio Olano, sucesor de Iztueta». BAP XXXVIII. San Sebastián, 340 or.

33. IZTUETA, J.I., GPK, 415 or.

34. IZTUETA, J.I., GPK, 23. kapitulua, 415-421 or.

35. PAUL ARZAC, J.I. (1986), aip. ob., 347-348, 362-363 or. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 18-20 or.

36. Ikus, besterik beste, GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 117-207 or. (Iztuetari zuzendutako karta-bilduma). Halaber, ELÓSEGUI, J. (1969), aip. ob.

Hara zer dioen Ezeizabarrenak:

«Dударik ez dago horrenbeste joan-etorri egin beharra ezagutu duen edonoren adiskibe mami-lagun-ezagun-etsai zerrendak luzea izan behar duela, gurea bezalako lurralde txiki batean 77 urte bizita, bizitzaren hamarretik bat espetxean pasa badu ere. Hauxe da Juan Inazioren kasua, Donostiara bizitzera joan zenez geroztik jasotako gutunek adieraz diezaguketen bezala»

eta jarraitzen du:

«Espainiako Independentzi gerra aurreko datadunik ez badaukagu ere ugariak dira Fernando VIIaren hamarkada absolutistan maisu dantzariari idatziak, Iztuetak bere izena garbitzea eta kultur gizonen artean norbait izatea lortua zuen garaian ...» (37).

Adiskideren artean aipatu gabe utzi ezinezkoa Agustin Paskual Iturriaga, Hernaniko apaiz prestua dugu. Garmendiak jasotako oharretatik ikus dezakegunez, sarri-sarri bildu ohi ziren lagun biak Oriamendi erdibidean, Iztueta Donostiatic, Iturriaga Hernanitik. Zertaz hitzegiten ote zuten? «Eskola Berria»ren proiektuez bai, dudarik gabe (biok batera lan polita egin zuten alor honetan), politikaz? ... Auskalo! (38).

## 16. Iztueta, «Kultura gutxiko gizona»?:

Bere garaikideetatik hasita, etengabe errepikatzen den leloa dugu hauxe, Iztueta ez zela gizon kultoa, «jantzia» izan, eskola gutxikoa izan zela, ikasketarik gabea, etab. etab. Echegarayk dio:

« ... careció de cultura literaria ... no pudo consagrarse al estudio de la literatura eúskara por falta de instrucción sólida y suficiente ...» (39).

Mitxelenak, Villasantek, etab. luze batek ere uste bera azaltzen dute (40). Iztuetak berak ere horrelaxe juzgatzen du bere burua:

«Ez du iñorc ere cer uste izan asi naizala ni lan onetan nere burua jaquintsun eguiten deralaco, eta ain guchi gogoangarri izateagatic; baicican, zorioneco nere etorquiarequin jaiot errico oitura onesquiai amodiozco naitasun bero bizi gartsua izanic, icusten dituralaco oec daudela azquenengo arnasetan, deadarrez, laguntzaren esque, iñorc escuric eman nai ez diotela. Badaquit nic balio aundico gai oni equiteco nere mingaña baño meagoa, eta luma obequiago zorrotua bear liraqueana, zergatic naizan articaste edo estudioric gabeco guizon jaquinde chit guchicoa; ozta-ozta iracurtcecodin bat baicic escolatu gabea; bularrarequin batean erodisqui edo mamatu nuen izcuntza besteric ez daquidana, eta au ere ez bear bezala, ez bada nere amari icasi nion guisa ber berean; beragatic aitortcen det eguiazqui billatuco dizquidatena guizon jaquintsunac, uts-aldi aundiatic, eta oquer ezarritaco itz asco: guciaz ere uste det ezagutuco dutela oec, gueyago ecin dezaqueana nere guisaco guizon gai ez dan batec. Sinesterazo ere diot nere buruari izango dala Guipuzcoatar-embat nere uts-

37. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 16-17, 17-20 or.

38. GARMENDIA, J. (1968), aip. ob., 166-196 or., besterik beste.

39. GOROSABEL, PABLO de (1967), «Noticia de la Cosas Memorables de Guipúzcoa ...» III. (Carmelo de Echegarayren Apendizea). La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 235-236 or.

40. MICHELENA, L. (1988), aip. ob., 118-120 or. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 278-282 zka. ZABALA E. (1981), aip. ob., 127-128 or.

aldia ongiu biteric, oquerrac zucendu ta chuquiquiro apainduco dituena bere jayot-errico jostaldi gogoangarriac. Ala guerta dedilla euscaldunen odol garbi indartsua dirauen arte gucian» (41).

GDKn dioen gauza berbera errepikatzen du, geroago, GPKn ere:

«Ezagaturic garbiró cein gauza preminazcoa dan Guipuzcoaco biztanle ondraduai Euscarazco itzcuntz gozoan adieraztea beren Ama onaren bicitza doatsua eta Asaba maitagarriac eguindaco azaña andiac, eta millaca urteac igarota ere icusten ez deralaco ñor lambide balio andico oni equiten; nere motztasunean artu det asiera nolapait bederic emateco asmoa. Badaquit nic, nere indar laburrac quemem guichicoac dirala chit, lambide andi oni equiteco; cergaitic naizan iruroguei ta emezortzi urte bizcarrean dauzcan guizon lego escolatu bagueco jaquin-ez bat, eta buruaz goitico aizcolquetari gueldi gueldi laga bear nioqueana. Bañan icusten deralaco arguiroqui, gure Ama maitati Guipuzcoac jaiotzatic dituen doain eder ta escubide andiac, Euscarazco itzcuntz garbian aguertaratu baguez, arquitzen dirala, ez balira bezalaishen, chocora baztertuac, beretarontz dedan amodiozco naitasan bero bici gartsuac murguildu nau, ezdagoquidan lan andi oni equitera; uste osoa-requin, ecen, izango aldala Guipuzcoatar ernairen bat, nic esaten ditudan molda-caitzqueri ta uts-aldia egoquitu ta biteric, igoco dabena condaira balioso au goienngo mallara» (42).

«Ezjakina» izan arren, ordurarte inortxo ere ausartu ez zen lanbide erraldoiari heltzeko «ausardia» agertzen du, eta, zergatik ez?, EUSKARAZ, gainera! Arra-zoia: Bere Herriari dion maitasan mugagabea!

Halere, Iztueta, urteetan aurrera, gaztetan izan ez zuen kultura hori jasotzen ahalegindu zela uste dugu: Zerbait baino gehixeago irakurri bide zuen, bai euskaraz, bai erdaraz (badirudi frantsesez ere moldatzen zela, Lécluserekin izandako karta-trukaketan eta ikus daitekeenez). Esaten dugunaren lekuko, bere liburuetan eskaintzen digun Geografia eta Historiari buruzko dokumentazio ugaria eta euskalki ezberdinetako formen erabilera oparoa, besterik beste.

Bestalde, Iztuetak, mundu asko «korritua» izaki, alde bateko eta besteko gorabeherak, ideiak, pentsakerak, iritziak, hizkerak ... jaso zituen, eta bere egiten saiatu; Mitxelenak dioen bezala, «landuagoetatik ikasteko kupidarik gabe». Iztueta ez zen eskolan ikasia izan, bizitzak eta ahalegin pertsonalak «jantzi» zuten: Nolabait esateko, «autodidakta» izan genuen.

Dena den, «ezjakin» batek hain lan erraldoia burutu bazigun, ongietorriak horrelako «ezjakin» gehiago!!!

## 17. «Txuri» ezizenez:

Lehen ere aipatu dugu puntu hau eta hitz pare bat baino ez. Iztueta «Txuri» omen genuen ezizenez.

Bere bizitza hain katramilatuko hainbat eta hainbat gorabehera eta arazo ekonomiko, sozial, politikoetan aurrera irten ahal izateko «diplomazia» handiaz jokatu zuela argi dakusagu. Guztiekikoa egiten, alde bateko eta bestekoekin ongi geratzen eta konpontzen asmatu zuen; hitz leun, goxo samurrekoa eta jendea komentitzeko, bereganatzeko aparteko «abileziaduna» izaki, nonbait. Honela, zenbait arerrioren artean, pentsakera eta gizarte-maila ezberdinetako adiskide asko

41. IZTUETA, J.I., GDK, 44-46 or.

42. IZTUETA, J.I., GPK, VIII-IX or.

izan zituen eta hauen laguntzarekin eta babesean bizitzan aurrera egin zuen eta obra ederra burutu (43).

## 18. Iztueta, Euskalerriko gizaseme eredugarri:

Iztueta gure arbasoen birtute eta dohai guztien eredutzat hartu ohi izan da; bere obra osoan zehar nabari den halako egloga-giro, baserri-kutsu bitxiagatik, beharbada (44).

Iztueta dugu euskal «arrazaren» eta honen jatorrizko, bere-berezko adierazpen guztien eredu: Herriko seme jator, Herriari eta honen ezaugarri guztiei: Hizkuntza, Ohitura, Dantza, Paisaia, Lurrari tinko itsatsia, euskal gizartean (berak hain maitekiro deskribatzen digun elkarbizitza anaikor horretan) errotua, sesio eta liskar ororen gaindik bizitza naturaltasunez, xume-xume, gizatasun eta solidaritate trinkoz bizi izanez. Iztuetarentzat Dantzak eta Euskara eta Foruak gure Herriaren ezaugarri etnikoak dira, «Euskalduntasunaren» oinarri-oinarriko ezau-garri. Horrexegatik maite eta defenditu zituen bihotz-bihotzez (45).

Mogelen «Peru» baserriar zintzo, gizaseme peto-petoaren, nolabait esateko, «hedapena» egiten digu: Euskaldun oro, bere Herria eta honen adierazpen guztiak maite dituen edozein euskaldun da Iztuetarentzat gizaseme eredugarri; Iztuetarentzat «benetako euskalduna» berez da jator, zintzo, birtute guztien jabe; baina «euskal izaera» hori are nabariagoa da herri xumearen (nekazarien, artzainen, beharginen) baitan.

Honela, Iztuetaren GPKren barne-asmoa Gipuzkoan gehiago den nekazal mundu isil, areago, mutu hau herri-bizitzaren plazara ateratzea, «jasotzea», «protagonista» bihurtzea litzateke, horretarako, herri xehe, xume honi bere hizkuntza bakarrean bere Herriaren iragana eta oraina kontatzen diolarik (46).

Arerioak ere izan zituen, eta ez gutxi. Zenbait elizgizon, alkate eta agintarik ezin gehiegi estimatu, nahiko moral hertsiko gizarte hartan, herri xumearen jolasbideak, ohizko «ihesbideak» (dantzak, erromeriak, jokoak, eta zergatik ez, parrandak (?)) maite zituen herriko-seme argi hura. Txit interesantea iruditzen zaigu zein pozik jasotzen duen GDK liburuan Jovellanosek agintarien polizi jokabide itxuragabea, herri xehearen kalterakoa baino ez dena, salatuz idatzitako pasarte luzea (47). Antzerako salaketa ugari ageri da Iztuetaren obraren barrera, herrietako alkate «cascabel» eta abarren moral estuegia kritikatzu: Nola daiteke hain ezer gutxiagatik jendea zigortzea, isunak ezartzea, gartzelaratzeta ...? Iztuetarentzat honelako jokabide «errepresiboak» inolaz onartezinak dirateke (gogoratu berak ere gartzelaldi luzea jasan behar izan zuela) (48).

Bere akats guztiak gorabehera, Iztueta, estimatua eta gaitzetsia, maitatua eta gorrotatua, XIX. mendearen lehen partean bere Herriaren eta honen berenezko ezaugarrien (Euskara, Foru, Ohitura Zaharren) alde (etsaiak egurtuz eta bertakooi gure izatearen «harrotasuna» erakutsiz) gehien borrokatu zuenetako euskal idazle bikaina dugu. Orain arte izan den baino gehixeago aztertua izatea merezi lukeena duda barik, gure ustez.

43. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 278 zka. IZTUETA, J.I. (1990), aip. ob., 19-20 or.

44. MICHELENA, L. (1988), aip. ob., 118-120 or.

45. VILLASANTE, L. (1979), aip. ob., 282 zka.

46. PAUL ARZAC, J.I. (1986), aip. ob., 362-363 or.

47. IZTUETA, J.I., GDK, 308-321 or. Halaber, 329 or. ...

48. IZTUETA, J.I., GDK, 312-314, 348 or.

ekintzak antolatu ziren Zaldibia herrian: hitzaldiak, filma-emanaldiak, antzerkiak eta abar, abenduaren 3an txistulari, txalaparta, dantzari, ttuntturru eta ... amaitu zelarik.

Eta abenduaren bosteko DV egunkariko izenik gabeko iruzkin batek hauxe dio:

«Se celebraron con gran brillantez los actos programados en honor del ilustre coreógrafo, Juan Ignacio de Iztueta» (8).

5. Zaldibian, 1972-V-7an, Dantzari Txiki Eguna eta beste omenaldi bat eskaini zitzaion Iztuetari. Egun horretan, Tolosako Lope eskulturgileak Iztuetari egindako bustoa Zaldibiako plazan ipini zen (9).

---

8. 1967ko mendeurren-omenaldian egunkari eta kazeta ugaritan idazle askok parte hartu zuen Iztuetaren ohoretan. Diario Vasco egunkarian Irailean 4, 20, 27 eta 29an; Urrian 4, 11, 20 eta 27an; Azaroan 1, 5, 9, 16, 18, 25, 26 eta 29an eta Abenduan 3an.

La Voz de España egunkarian, berriz,: Abuztuaren 9an; Urriaren 19an; Azaroaren 10, 19, 20, 22, 28, 29 eta 30ean eta Abenduan 3, 5, 10 eta 29an.

Unidad egunkarian Irailaren 28 eta 29an; Azaroaren 26an eta Abenduaren 1ean. Hoja de Lunes astekarrian Abenduaren 11n soilik ikusi dugu.

Egunkari guzti horietan idatzi zuten kazetari batzuren izenak emango ditugu: José Garmendia, Juan San Martín, Ignacio de Zuberoa, Basarri, José María Donosti, Luis de Cortaberría, Iñaki Linazasoro, Luis Pedro Peña, Ramírez Pinto, A. Aguirre ...

9. «Se celebró el Dantzari Txiki Eguna y el homenaje a Iztueta» zioen, 1972-V-9ko Diario Vasco egunkariak. Izenik gabeko artikulua da.

## 2. ERANSKINA

Al Excmo Señor D. Juan Bauta de Erro  
Consejero de S.M. & &  
E.S.P.M.  
Tolosa

On Juan Bautista Erro-co Jauna

Zaldivia-n 1839.garren urteco Apirillaren 12-an eguiña Nere Jabe on ta Adisquide mamia: ezaguturic ondo, esan-al guztien gañecoa dala, bedorrec/ niganaco duen amodiozco naitasun bero bici gartsua, eta arquitcen naizalaric neca-eraguiteco bide/ estura(?) larri andicoan chit, natorquio laguntzaren esque, eguiaz-co Aita biotz biguñ nere nerequiagana/ banijoaque bezala.

Nere emazteac daramazquien arguibide-etan icusico du garbiroqui, nolaco egoitza moduan na/ goen, baita ere cer nainuquean, nere egun laburrac laguna-bar(?) igarotceco, eta uste det escaria/ izango dala ondo entzuna, bedorrec daucan itzal andiaren bitartez. Ez naiz bada ni, araco, guizon/ berencoi(?) goseti ayetacoa, baicican gauza quichirequin erraz betetzen naizana, eta bear bearrera/ iritsi artean, iñor necatzen ezdaquidana; bañan nola premia ain estuac urratu oidituen catearic gogorre/ nac, guisa berperean puscatu ditu nereac ere, sendoac izan arren.

Agur nere onguille ta Adisquide cutun(?), biotzaren erdi erdico mami(?) gurian(?) guztiz maitaro beti/ gordetzen derana. Bedorren bicitza balio andicoa osasun onarequin urte anitzetan iroso dezala gure Eguille/ andiac, berari otoiztuaz quelditzen da, escu leun(?) indartsu orre-etan muñ eguiten dion/

Juan Ignacio Iztueta-coa

(Juan Inazio Iztuetak bere lagun min Errori idatzitako eskutitz honen transkripzioa Jerardo Elorza, Bergarako UNEDeko irakasleak eskuratu digu. Bertan ikus daiteke Iztuetaren ohizko estiloa; baita gure zaldibiarren egoera ekonomiko koxkorra ere).

## Bibliografía

- AIZKIBEL, FRANCISCO (1883-1885), «Diccionario Vasco-Español ...». Eusebio Lopez.  
AMILLAITZ (1967), «Iztuetari omenaldia». *Zeruko Argia* 1967-IX-3.
- APAT ECHEBARNE, A. (1971), «Otro libro sobre el escritor Iztueta». *El Diario de Navarra* 1971-II-?
- AQUESOLO, LINO (1968), «Fray Bartolomé de Santa Teresa y su 'Plauto Bascongado'». *BAP XXIV*, San Sebastián, (357-376 or.).
- ARANA, JOSÉ, S.J. (1882), «Poesía literaria euskara». *Euskal-Erria VII*, (15-22 or.).
- ARANA MARTIJA, JOSE ANTONIO (1987), «Música vasca». CAV, Bilbao.
- ARANBURU, XABIER (1972), «Juan Ignacio de Iztueta». CAP, Donostia, Gráficas Izarra.
- ARRINDA, ANASTASIO (1977), «Euskalerrria eta arrantza». Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, San Sebastián.
- ARZAC, ANTONIO (1887), «Nuestros autógrafos de J.B. de Erro, A.P. Iturriaga, J.I. de Iztueta y J.F. de Aizkibel». *Euskal Esnalea XVI*, (417-428 or.).
- AZKUE, RESURRECCIÓN MARÍA (1916-1919), «Los baskos en la nación argentina». José R. de Uriarte, Buenos Aires, («La Música», 99-104 or.).  
— (1984), «Diccionario vasco-español-francés». Euskaltzaindia, Bilbo, (Sarrera: Michelena, Luis).
- AZURMENDI, JOSE (1980), «Bertsolaritza». *Jakin* 14/15, (139-164 or.).
- BARANDIARAN, GAIZKA S.J. (1959), «Estética de Juan Ignacio de Iztueta». *BAP XV*, San Sebastián, (417-428 or.).  
— (1963), «Danzas de Euskalerrria» I eta II. Auñamendi 30 eta 31.  
— (1975), «Dantzariak» 7. San Sebastián, (5 or.).
- BARCENILLA, MIGUEL/GLEZ. DE GARAI, IÑAKI (1989), «Jauntxoak, Burgesak eta Foruak». Gaiak saila, Bilbo.
- BASARRI (1967). *La Voz de España* 1967-XI-22.
- BERRIOCHOA, VALENTÍN F.S.C. (1961), «Del epistolario inédito del herrador bascófilo de Abando. Correspondencia de Juan Ignacio de Iztueta y José Pablo de Ulíbarri y Galíndez». *BAP XVII*, 3, San Sebastián, (313-321 or.).
- BILBAO, JON (1970), «Bibliografía» IV (458-459 or.) eta (1975), «Bibliografía» IX, (594 or.). *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi.
- BOZAS-URRUTIA, R. (1965), «Juan Ignacio de Iztueta y el prólogo de su Guipuzcoaco Dantzac». *BAP XXI*, 3 eta 4, San Sebastián, (349-375 or.).
- BUJANDA, JOSEMANUEL (1991), «Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoia: Agustín Pascual Iturriaga ...». UEUko HEDA Saila 10.
- CANTABRIA, LUIS (1967), «Juan Ignacio cumple 200 años ...». *Unidad* 1967-IX-28.
- CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, MARIANO (1961), «Los vascos en la pesca de la ballena». San Sebastián.

- CLAVERÍA, CARLOS (1966), «*Los vascos en el mar*». Editorial Aramburu, Pamplona.
- CORTAZAR, N. (1966), «Cien autores vascos». *Auñamendi* 48, San Sebastián.
- DONOSTIA, JOSE ANTONIO (1952), «*Historia de las danzas de Guipúzcoa, de sus melodías antiguas y sus versos ...*». Icharopena, Zarauz.
- (1952), «Iztueta, la poesía vasca y el 'churripampli'». *Lekaroz aldizkaria Maizta-Iraila* 2, (31-41 or.).
- (1929), «Iztuetar Joan Iñazioaren omenez». *Euskal Esnalea*, Iraila, 309, (153-154 or.) eta *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos* 43, (10-12 or.).
- DONOSTY, JOSÉ MARÍA (1967), «A propósito de Iztueta». *La Voz de España 1967-XI-28* eta *Hoja de Lunes 1967-XII-11*.
- DORRONSORO, JUANITO (1981), «*Bertsotan 1789-1936*». Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, Elexpuru.
- DV 1967-XI-25: «Programa del homenaje a Iztueta en Zaldivia» eta 1972-V-9: «Se celebró el 'Dantzari Txiki Eguna' y el homenaje a Iztueta».
- ECHEGARAY, CARMELO (1901), «*De mi País: Miscelánea histórica y literaria*». F. Jornet, San Sebastián, (1-10 or.).
- (1905), «*Iztueta. Folklore Vascongado*». Imprenta de la Provincia.
- (1967) = Ikus, GOROSABEL, PABLO (1967).
- ECHEVERRÍA, J.M./GUIMÓN, J. (1896-1898), «*Ecós de Vasconia ...*», San Sebastián.
- ELGOIBARKO EUSKARA MINTEGIA (1988), «*Euskal Hizkuntza eta Literatura*» 3. Elkar, Donostia.
- ELÓSEGUI, JESÚS (1968), «Algo sobre la prisión sufrida por Juan Ignacio de Iztueta». *BAP XXIV, 1*, San Sebastián, (57-59 or.).
- (1969), «Juan Ignacio de Iztueta Echeberria ...». *Auñamendi* 65 eta 66.
- (1971), «Iztueta, preso en Guipúzcoa y Logroño ...». *BAP XXVII, 1 eta 2*, San Sebastián, (19-46 or.).
- (1973), «Iztueta iraulari ...». *Boletín de Estudios Históricos VII*, San Sebastián, (324-339 or.).
- (1976), «Iztueta, afrancesado, procesado por infidencia en Azpeitia». *BAP XXXII, 1 eta 2*, San Sebastián, (296-300 or.).
- ESTORNES LASA, BERNARDO (1969), *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura I*, Auñamendi, («Primicias folklóricas ...», 114 or., «Zuberoa y ... Chaho y Abbadie», 329-350 or. eta «Juan Ignacio de Iztueta ...», 581-589 or.).
- ESTORNES ZUBIZARRETA, IDOIA (1986), «Iztueta Echeberria, Juan Ignacio». *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Diccionario*, «Iztueta» hitza, Auñamendi, (174-180 or.).
- ETXAIDE, JON (1969), «*Etxahun' en bertsoak gipuzkeraz*». Itxaropena, Zarautz.
- (1990), «*Hamasei seme Euskalerriko*». Erein, Itxaropena, Zarautz.
- EXTRAMIANA, JOSÉ (1981), «*Historia General del País Vasco*» VIII (Historia de las Guerras Carlistas). Luis Haranburu Editor, San Sebastián.
- EZEIZABARRENA, M.<sup>a</sup> JOSE (1990) = Ikus, IZTUETA, J.I. (1990).
- FERNÁNDEZ ALBADALEJO, P. (1975), «*La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa ...*». Akal, Madrid.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, EMILIANO (1974), «*Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco ...*». Siglo Veintiuno.
- GARATE, JUSTO (1936), «*La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*». Imprenta Provincial de Vizcaya, Bilbao.
- GARMENDIA, JOSÉ (1967), «Acontecimientos en Zaldivia en vida de Iztueta ...». *DV 1967-IX-4*.
- (1967), «Zaldivia: En el II centenario del nacimiento de Iztueta ...». *DV 1967-IX-27*.
- (1967), «Acontecimientos en Zaldivia en vida de Iztueta ...». *DV 1967-X-4*.
- (1967), «Iztueta 'aralarrista'». *DV 1967-X-11*.
- (1967), «Los Iztueta». *DV 1967-X-16*.



- (1967), «Aclaraciones sobre Iztueta». *DV 1967-X-20*.
  - (1967), «Iztueta bertsolari». *La Voz de España 1967-X-20*.
  - (1967), «Los continuadores de Iztueta en la dantza». *DV 1967-XI-1*.
  - (1967), «Zaldivia en la obra de Iztueta». *DV 1967-XI-4*.
  - (1967), «Papeles y cosas sobre Iztueta». *DV 1967-XI-9*.
  - (1967), «Zaldivia en la obra de Iztueta». *DV 1967-XI-16*.
  - (1967), «Los Iztueta». *DV 1967-XI-18*.
  - (1967), «Iztueta y San Sebastián». *Unidad 1967-XI-26*.
  - (1967), «Con motivo del II centenario de Iztueta ...». *DV 1967-XI-28*.
  - (1967), «Estrofas inéditas de Iztueta». *DV 1967-XI-29*.
  - (1967), «Iztueta, el gran dantzari ...». *DV 1967-XII-3*.
  - (1968), «Juan Ignacio de Iztueta. Una figura polifacética». *La Gran Enciclopedia Vasca III*, Retana, (280-282 or.).
  - (1968), «Obras Inéditas de Iztueta». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao.
  - (1968), «Más sobre Iztueta». *DV 1968-I-4*.
  - (1968), «Gaspar de Jovellanos e Iztueta». *La Voz de España 1968-III-16*.
  - (1968), «Más sobre Iztueta». *DV 1968-IV-3*.
  - (1969), «Sobre un preconcebido tipismo y la antigüedad de la danza en Zaldivia». *DV 1969-IV-6*.
  - (1974), «Noticias sobre Iztueta en los Registros de las Juntas Generales de Guipúzcoa». *BAP XXX, 3 eta 4*, San Sebastián, (467-470 or.).
  - (1976), «Documentos relacionados con Juan Ignacio Iztueta y sus familiares». *BAP XXXII*, San Sebastián, (589-592 or.).
  - (1976), «Sobre unos originales de Guipuzcoaco Condaira de Iztueta». *ASJU X*, (199-208 or.).
  - (1977), «Relación de los curas de Guipúzcoa. Un trabajo inédito de Juan Ignacio de Iztueta». *BAP XXXIII*, San Sebastián, (179-203 or.).
  - (1977), «Una dedicatoria inédita de 'Guipuzcoaco Dantza ...'». *BAP XXXIII, 3 eta 4*, San Sebastián, (545-549 or.).
  - (1978), «Iztueta'ren Olerkiak». *Kardaberaz Bilduma 33*, Gasteiz.
  - (1979), «Poesías Inéditas». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao.
  - (1981), «Iztueta, credibilidad de su Gipuzkoa-ko Dantzak, su influencia en el folklore de su tiempo». Eusko Ikaskuntza, Donostia, («Folklore», 25-43 or.).
  - (1982), «En el centenario de José Antonio Olano, sucesor de Iztueta». *BAP XXXVIII*, San Sebastián.
- GÁSCUE, FRANCISCO (1915), «El auresku en Guipúzcoa á fines del siglo XVIII, según Iztueta». *Euskalerraren Alde*, (659-668, 680-693, 715-728, 743-759 or.), (1974, *La Gran Enciclopedia Vasca V*, Bilbao).
- GDK = Ikus, IZTUETA, J.I. (1968), «*Viejas Danzas de Guipúzcoa ...*». (Hauxe da gure lanean erabili dugun edizioa).
- GPK = Ikus, IZTUETA, J.I. (1975), «*Historia de Guipúzcoa ...*». (Hauxe da gure lanean erabili dugun edizioa).
- GOROSABEL, PABLO (1862), «*Diccionario Histórico Geográfico Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidas, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa*». Tolosa.
- (1967), «Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa» I (351-362 or.), II (106 or.), III (Echegaray, Carmeloren Apendizea, 235-236, 253, 265-267 or.) eta IV. *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao.
- GOROSTIAGA, JUAN (?), «Antología de poesía popular vasca». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao.
- «GUIPÚZCOA» = Ikus, ZAVALA, ANTONIO (1968).
- HARITSCHELHAR, JEAN (1969), «*Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun ...*». *Société des Amis du Musée Basque*, Bayonne.

- HOWLEY, par le tres reverend (1908), «*Les anciennes tombes basques a Placentia*». RIEV II, (734-748 or.).
- HUMBOLDT, W. von (1959), «*Primitivos pobladores de España y la lengua vasca*». Minotauro, Madrid.
- IBAR (1935), «*Genio y Lengua*». Moco-roa, Tolosa, (61, 123-125 or.).
- IMAZ, JOSÉ MANUEL (1945), «El centenario de un dantzari». *BAP I*, 4, San Sebastián, (407-414 or.).
- IRIGARAY, A. (1949), «Glosas a un nuevo cancionero vasco». *BAP V*, 4, San Sebastián, (451-457 or.).
- (1958), «Yon Etxaide, Amasei Seme Euskalerrí'ko». *BAP XIV*, 2, San Sebastián, (278-281 or.).
- (1965), «Esbozo crítico con textos de literatura eúscara profana». Separata de la Revista '*Príncipe de Viana*', 98 eta 99, Diputación Foral de Navarra, Pamplona.
- IZTUETA, JUAN IGNACIO (1824), «*Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira edo Historia, beren soñu zar eta itz neurtu edo versoaquin. Baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioac ere*». Baroja, Donostia.
- (1826), «*Euscaldun Anciña Anciñaco, Ta are lendabico etorquien Dantza on iritzi pozcarri gaitzic gabecoen Soñu gogoangarriac beren itz neurtu edo versoaquin*». Baroja, Donostia.
- (1847), «*Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia ...*». Baroja, Donostia.
- (1895), «*Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia, beren soñu zar eta itz neurtu edo versoaquin*». Eusebio López.
- (1968), «Contzeciri». *La Gran Enciclopedia Vasca* III, 1 eta 2, (64-73 or.).
- (1968), «Viejas Danzas de Guipúzcoa. Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao, (Sarrera: Barandiaran, Gaizka eta erdal itzulpena: Onaindia, Santiago). (Hauxe da gure lanean erabili dugun edizioa, GDK laburduraz adierazten duguna).
- (1975), «Historia de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Condaira». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao, (Edizioaren prestatzailea, sarrera eta erdal itzulpena: Lasa Apalategi, Jose). (Hauxe da gure lanean erabili dugun edizioa, eta GDK laburduraz adierazten duguna).
- (1990), «*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*». Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero, Oiartzun. Klasikoak 37. (Edizioaren prestatzailea: Ezeizabarrena, M.<sup>a</sup> Jose).
- LABAYEN, ANTONIO MARÍA (1976), «*Muñagorri, eskribau, pakegille ta fuerozale ...*». Sociedad de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián.
- LAKARRA, JOSEBA ANDONI (1985), «Larramendiren Hiztegitzaren Inguruan». *ASJU XIX-1*, (11-50 or.).
- (1987), «Lécluseren 'Manuel de la Langue Basque'-ren inguruan». *ASJU XXI-3*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, (833-916 or.).
- (1992), «*Manuel Larramendi ...*». Andoain.
- LAKARRA, JOSEBA A./URGELL, BLANKA (1988), «Plauto Bascongadoreen eztabaida: testu-bilduma». *ASJU XXII-2*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, (479-529 or.).
- «LAROUSSE», *Nueva Enciclopedia* (1984). PLANETA. VI (5462 or.) eta IX (8636-8641 or.).
- LARRAMENDI, MANUEL S.J. (1982), «*Corografía de Guipúzcoa ...*». Larrun. (Edizioaren prestatzailea: Tellechea Idógoras, José Ignacio).
- LASA APALATEGI, JOSÉ (1975) = Ikus, IZTUETA, J.I. (1975) = GPK.
- LASA JOSÉ IGNACIO Fr. (1968), «Aportaciones a la biografía de Iztueta». *La Voz de España 1968-III-6*.
- LEKUONA, JUAN MARI (1978), «Ahozko Literatura». *Euskararen Liburu Zuria*, (167-188 or.).
- (1978), «*Literatura Oral Vasca*». Cultura Vasca, San Sebastián.

- (1980), «Bertsolaritza». *Jakin 14/15*, (6-16, 99-114 or.).
- (1982), «Ahozko Euskal Literatura». Erein, Donostia/Zarautz.
- LEKUONA, MANUEL (1965), «Literatura Oral Vasca». Zarautz.
- LINAZASORO, IÑAKI (1967), «El pueblo de Zaldivia, por su hijo ilustre, Iztueta». *La Voz de España 1967-XII-3*.
- (1967), «Zaldivia por Iztueta». *La Voz de España 1967-XII-5*.
- (1967), «Hoy se inaugura el monumento a Iztueta». *La Voz de España 1967-XII-29*.
- MANTEROLA, JOSÉ (1968), «Contzeciri, por J.I. de Iztueta». *La Gran Enciclopedia Vasca* III, 1 eta 2, Retana, Bilbao, (64-73 or.) = Ikus, IZTUETA, J.I. (1968), «Contzeciri».
- (1981), «Cancionero Vasco». *Sendoa. I I* (VII-VIII, 33-51 or.) eta II, 1 (71 or.).
- MARTÍNEZ MARINA, F./TRAGGIA, J./ABELLA, M. DE/GONZÁLEZ ARNAU, V. (1802), «Diccionario Geográfico-Histórico de España» I. Real Academia de la Historia, Vda. de Joaquín Ibarra, Madrid.
- MICHELENA, LUIS (1978), «Iztueta, testigo político de su época». Actes du Colloque International d'Etudes Basques, Bayonne, (167-179 or.).
- (1987), «Orotariko Euskal Hiztegia» I. Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer/Mensajero, Bilbao, (XXXII or.).
- (1988), «Historia de la Literatura Vasca». Erein, Donostia/Zarautz, (116-120 or.).
- MITXELENA, KOLDO (1978), «Euskararen Liburu Zuria». Euskaltzaindia, Bilbo, («Euskararen bide ...», 15-28 or.).
- (1988), «Euskal Idazlan Guztiak I». Euskal Editoreen Elkarte, Erein, Donostia/Zarautz. Klasikoak 21. (219-222 or.).
- (1988), «Euskal Idazlan Guztiak IV. Literaturaren Inguruan I». Euskal Editoreen Elkarte, Elkar, Donostia. Klasikoak 24. (64-65 or.).
- (1988), «Euskal Idazlan Guztiak VI. Hizkuntzalaritza I». Euskal Editoreen Elkarte, Kriselu, Itxaropena, Zarautz. Klasikoak 26.
- (1988), «Euskal Idazlan Guztiak VII. Hizkuntzalaritza II». Euskal Editoreen Elkarte, Erein, Donostia/Zarautz. Klasikoak 27.
- (1988), «Euskal Idazlan Guztiak VIII». Euskal Editoreen Elkarte, Labayru, Donostia. Klasikoak 28. (164-165 or.).
- MOKOROA, BALERIANO (B.M. laburduraz) (1899), «Izkirimiriak. Perrando Amezketa-trarekiñ gertatuak». *Euskalzale 1899-I-19*, (24 or.).
- MOGEL, JOSE ANTONIO (1981), «Peru Abarka». Gerediaga.
- OMAECHÉVARRIA, IGNACIO O.F.M. (1959), «Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco». Icharopena, Zarautz, (235-237 or.).
- ONAINDIA, JAKOBA (1954), «Milla euskal olerki eder». Icharopena, Zarautz, (322-326 or.).
- ONAINDIA, AITA (1964), «Gure bertsolariak». Bilbao, (268 or.).
- ONAINDIA, SANTIAGO (1968) = Ikus, IZTUETA, J.I. (1968), «Viejas Danzas de Guipúzcoa ...».
- ONAINDIA, JAKOBA (1975), «Las cien mejores poesías de amor de la Lengua Vasca». *La Gran Enciclopedia Vasca*, Retana, Bilbao, («Kontxesi'ri», 112-116 or. eta «Dama eder bat», 116-121 or.).
- OÑATIVIA, GREGORIO H. (1957), «Vida Vasca». («Zaldivia y sus hijos ilustres», 107-109 or.). CAM de San Sebastián.
- ORMAETXEA, NIKOLAS («Orixe») (1927), «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra». *Euskal Esnalea*.
- («Orixe») (1930), «Iztuetaren euskera. Iztuetak erabili zuen euskeraren azterketa». *Euskal Esnalea* 316, (61-65 or.).
- («Orixe») (1931), «Iztueta y sus canciones. El elemento tradicional y la aportación personal de Iztueta en la letra de las canciones de Gipuzkoako dantzak». *Euskal Esnalea XXI*, 325, (9-16 or.).

- («Orixe») (1987), «Quito-n arrebarekin». Euskal Editoreen Elkarte. *Klasikoak* 20. (190, 221 or.).
- OTAZU Y LLAMA, ALFONSO (1973), «*El igualitarismo vasco: mito y realidad*». Txertoa, Bilbao.
- PAUL ARZAC, JUAN IGNACIO (1986), «*Enciclopedia Histórico-Geográfica de Guipúzcoa*» V. Haranburu Editor, Donostia, (347-348, 362-363 or.).
- PELAY OROZCO, M. (1962), «*La ruta de Baroja*». Bilbao.
- PEÑA SANTIAGO, LUIS PEDRO (1967), «Zaldivia, doscientos años después de Iztueta». *DV 1967-XI-25*.
- RETANA, JOSÉ MARÍA MARTÍN (1976), «Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca» I. *La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbao.
- RIEZU, JORGE «*Flor de canciones populares vascas*». Amorrortu, Buenos Aires.
- RUIZ DE LARRINAGA, JUAN (1954), «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Bonaparte ...». *BAP X*, San Sebastián, (231-302 or.).
- SAN MARTIN, JUAN (1967), «Iztueta, el precursor del folklore vasco». *La Gran Enciclopedia Vasca II*, Retana, Bilbao, (427-428 or.).
- (1967), «Iztueta lehen folklorelaria». *Zeruko Argia 1967-X-22*.
- (1977), «*Gogoz: Gure Herriko Gauzak. Erromantikoen Garaia*». CAP, Donostia, (244-247 or.).
- SANTA TERESA, FR. BARTOLOME (1978), «*Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*». Hordago, Donostia.
- SANTESTEBAN, J. ANTONIO (1880), «*Cantos y bailes nacionales ...*». San Sebastián.
- (1981), «*Aires Vascongados ...*». Sendoa, (Hitzaurrea: Akesolo, Lino).
- SARASOLA, IBON (1971), «*Euskal Literaturaren Historia*». Lur, Donostia.
- (1976), «*Historia Social de la Literatura Vasca*». Akal, Madrid.
- (1984), «*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*» I. Gipuzkoako CAP, Donostia, (Sarrera: Mitxelena, Koldo, 11-23 or.).
- (1986), «Larramendiren eraginaz eta», *ASJU XX-I* (203-216 or.).
- SILVÁN, LEANDRO (1974), «*Las villas de la Unión del río Oria ... Zaldivia*». CAM, San Sebastián.
- SUQUÍA, JOSÉ MARÍA (1975), «*Monografía histórica de Zaldivia*». CAM, San Sebastián.
- TALÓN, VICENTE (1967). *El Correo Español-El Pueblo Vasco 1967-XI-18, 19, 22, 23 eta 25 eta Tiempo Nuevo 53; 1967-XI-30*, (54-59 or.).
- TELLECHEA IDÍGORAS, JOSÉ IGNACIO (1982) = IKUS, LARRAMENDI, M. (1982), «*Corografía ...*».
- TOLEDO, NEKANE (1992), «Iztueta (I)». *DV 1992-VIII-8*, eta hurrengo aleak.
- TORREALDAY, JUAN MARI (1977), «*Euskal Idazleak Gaur ...*». Jakin.
- TXILLARDEGI, eta autore gehiago (1987), «*Euskal Dialektologiaren Hastapenak*». UEU.
- UGALDE, MARTIN (1974), «*Síntesis de la Historia del País Vasco*». Seminario y Ediciones Martín de Ugalde, Madrid.
- URBELTZ, JUAN ANTONIO (1978), «*Dantzak*». LKA.
- USABAL, G. de (1967), «Iztueta ...». *La Voz de España 1967-VIII-9*.
- VALVERDE, ANTONIO (1968), «Iztueta». *DV 1968-III-10*.
- VELASCO, LADISLAO (1879), «*Los eúscaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus orígenes, Historia, Lengua, Leyes, Costumbres y Tradiciones*». Barcelona.
- VILLASANTE, LUIS (1967), «Vida y obra de Juan Ignacio de Iztueta». *La Gran Enciclopedia Vasca II*, 1 eta 2, Retana, Bilbao, (15-18 or.).
- VILLASANTE, FR. LUIS (1979), «*Historia de la Literatura Vasca*». Aránzazu.
- VINSON, JULIEN (1984), «Bibliographie de la langue Basque» I eta II. *Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo*», San Sebastián, (192, 193, 205, 206, 240, 263 zka., besterik beste). (Sarrera eta oharrak: MICHELENA, LUIS).
- ZABALA, ENRIKE (1981), «*Euskal Literatura, Alfabetatzeko*». Pax, Lazkao.
- ZABALA, JUAN MATEO (1986), «*Fábulas en dialecto vizcaino*». Euskal Editoreen Elkarte, Labayru, Bilbo. *Klasikoak 2*.

- ZAVALA, ANTONIO (1964), «Bosquejo de historia del bertsolarismo». *Auñamendi* 37, (11-17 or.).
- (1966), «Pernando Amezketarra Bertsolaria». *Auspoa* 54, (38-39, 43-50 or.).
- (1967), «Villancicos inéditos de Iztueta». *DV 967-XII-26*.
- ZAVALA, ANTONIO, ETA AUTORE GEHIAGO (1968), «*Guipúzcoa*». («El bersolarismo», 223-242 or.), CAP de Guipúzcoa, San Sebastián.
- ZUBERNOA, IGNACIO DE (1967), «Danzas guipuzcoanas». *La Voz de España* 1967-XII-10.

